

Ambrose Bierce

Deabruaren hiztegia

euskaratzailea: Xabier Olarra

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Xabier Olarra.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 2000

Jatorrizkoaren data: 1911

Ambrose Bierce euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=116>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1543>

HITZAURREA

Ambrose Gwinett Bierce Ohioko herrixka batean jaio zen 1842an. Ameriketara emigratutako familia bateko hamahiru seme-alabetatik hamargarrena izan zen. Haren aita, Marcus Aurelius Bierce, nekazari pobrea zen, baina poesia eta aliterazioa gogoko zituen —bere seme-alaba guztiei A-z hasten ziren izenak jarri zituzkien—. Familia larri haren bizimodua ezin izan oso lasaia. Hala ere, aitak liburutan gastatzen omen zuen bere diru apurra, etxea testu klasikoak hornitzen, alegia. Horrela, Ambrose Bierce, hamar urte bete zituenerako, Popek ingelesera itzulitako Homeroren obrak irakurriak zituen. Hamabost urte zituela, gurasoen baimenarekin, Warsaw izeneko herrira joan zen bere kontura bizitzera, eta bertako egunkarian hasi zen lanean.

1861ean, hogeitau urte bete gabe beraz, boluntario gisa izena eman zuen batasunzaleen armadan, eta zenbait gudutan parte hartu zuen hego-

aldeko konfederatuen aurka, 1864an buruan zauritu zuten arte.

Zenbait gorabeheraren ondoren, San Franziskora jo zuen, hango kultur giroak erakarririk. Estatu Batuetako Dirugintzan gaueko atezaintzan lana eman zioten gerran lortutako merituengatik, eta, lanak astia franko uzten zionez, idazle autodidaktaren bideari ekin zion. Harrapatzen zuen guztia irakurtzen omen zuen, eta, Unibertsitatean ikasia ez zela ohartzen baitzen, maiz jotzen omen zuen *Webster's Unabridged Dictionary*-ra.

Agian hortik sortuko zitzaion hiztegegintzarako joera, baina, horrekin batera, kritikarako joera zuen, umorea eta zorroztasuna gupidarik gabe erabiltzeko zaletasuna, gizakiaren alderik kaxkarrak zehatzekoa: inmoralitatea, egolatria, hipokresia, ergelkeria nabarmena (ez bakarrik gizabanakoena baizik gizateria osoarena), iruzurkeria, estukeria, zurikeria, erlijioko txikikeriengatik elkar txikitzen ibili beharra, ohitura eta errito zentzugabeei eutsi beharra, heriotzaren inguruko parafernalia eta abar eta abar.

Kritika lan hori bere garaiko egunkari eta aldizkarietan egin zuen; izan ere, garai hartako San Frantziskoko egunkarietan horren aldeko giroa zegoen, eta Bierceren umorea makabro bihurtzen hasi zen. Antifeminismoa, antiklerikalismoa, estatuko funtzionarioen eta hezkuntza sistemaren aurkako kritika zorrotza, erlijioari buruzko txantxak ugari dira Bierceren obran, eta *Deabruaren Hiztegia*-ren osagai nagusiak horiek direla ere esan daiteke. Egunkarietan ildo horretan idatzitakoak «*the wickedest man in San Francisco*» (San Frantziskoko gizonik gaiztoena) izatearen fama eman zion.

Deabruaren Hiztegia 1881ean hasi zen argitaratzen astekari batean eta, Biercek berak dienez, tarteka-marteka osatuz joan zen 1906a arte (ikus aurreraxeago Biercek berak Hiztegiari egindako sarrera). Osagai desberdinak ditu: hitzen definizioak —hori da liburuaren bizkarrezurra—, epigramak, istorio laburrak, pasadizoak, bertsoz definitutako hitzak, baina beti ikuspegi zinikotik eginak. Ez, ordea, «ziniko» hitzak gaur egun hartu duen zentzuan, baizik eta jatorrizko

zentzuan, berak definitzen duenaren haritik, alegia:

Ziniko, iz. Ikusmen akats baten ondorioz, gauzak, behar luketen bezala ikusi beharrean, diren bezala ikusten dituen lotsagabea. Hortik sortu zen Esziten artean zinikoari begiak ateratzeko ohitura, hari ikusmena hobetzeko.

Gauzak gordin agertuko dizkigu, beraz, *Deabruaren Hiztegia*-k.

Hiztegi hau, hortaz, ia hogeita hamar urtean zehar idatzitako lantxo barreiatuetako batzuen bilduma da. Ez ildo horretan idatzitako guztiena, ezta hurrik eman ere. Gerora egin dira bilduma berriago eta osatuagoak, handik eta hemendik ekarritako joera bereko makina bat definizioz hornituak, ia halako bi diren liburuak osatzen dituztenak. Baina hemen itzuli dena Biercek berak bere *Obra Guztiak* argitaratzerakoan berrikusi eta txukundutako bilduma da.

Deabruaren Hiztegia, egilearen iritziz, ez da bere literatur lanik hoberena, baina bai beste kaxkarragoko batzuk baino hobea irudimenaren

aldetik. Baina, dudarik gabe, haren obrarik adierazgarriena da eta, seguru aski, ezagunena. Bierceren obra beti *Deabruaren Hiztegia*-ri loturik geratuko da, hor eman baitzituen zehazkien munduari buruz zeukan ikuspegia, bere gogoeta gai nagusiak eta bere kezkarik sakonenak.

Ambrose Biercek, H. L. Mencken eta Walter Neale argitaratzaileek proposaturik, *Obra Guztiak* argitaratzeko prestatzeko lanari ekin zion 1908an. 1912a arte aritu zen lan horretan. Hasieran hamar liburukitan biltzekoak ziren lan guztiak, baina azkenean hamabi izan ziren. Bukatu zuenean, agur esan zion literaturari. Gerra zibilean borrokan ibili zen lekuak bisitatu eta Pancho Villaren armadarekin «ikusle» gisa biltzeko planak egin zituen. 1913an Kaliforniako hilerri batean prest zeukan hilobia bere alaba Heleni eman zion, han lur ematerik ez zuela nahi aitzakiatzat jarriaz.

1913ko abuztuaren 13an Amy Wellsi idatzi zion: «Maindire artean hiltzea nazkagarria izango da, eta, Jainkoa lagun, niri ez zait gertatuko horrelakorik».

1913ko irailaren 21ean, Nelly Sicerri beste hau idatzi zion: «Nire plana, batere baldin badut, Mexikon barrena Pazifikoko portuetakoren batera igarotzea da; hori, amerikarra izateagatik paretara eraman eta fusilatzen ez banatute. Handik berriro itsasoratuko naiz Hegoamerika alderantz, Andeak gurutzatu eta agian kontinente osoa... Baliteke, noski —eta oso litekeena ere bada— ez itzultzea. Herrialde horietan gauza bitxiak gertatzen dira. Horrexegatik noa bertara hirurogeita hamaika urte beteta!». Beste batean esan omen zuen: «Mexikon gringo izatea, hori bai dela eutanasia». Dena dela, haren heriotza argitu gabe geratu da. Historiagile batzuen arabera, Ambrose Bierce guduan hil zen; beste batzuek uste dute, haren nortasunari zegokion bezala, haren heriotzaren misterioa argitu gabe geratuko dela.

Deabruaren Hiztegia, itzultzailearentzat, lan zoragarria da, hitzaren bi zentzuetan. Zoragarria, gauzen definizio arruntak eman beharrean, Bierce hitzek estaltzen dutena argitara ateratzen saiatzen delako, eta bere ikuspegi horrek, nahiz eta garratza izan, behin eta berriz irribarrea

ezpainetaratzen digulako. Eta zoratzeko moduko da itzultzailearentzat, behin eta berriz behartzen duelako burmuinak estutzera itzulezintasunaren mugan dauden zenbait pasarte, hitz joko, hots joko, bihurrikeria —asko eta asko garaiko pertsona, pertsonaia eta gertaerei buruzkoak— modu ulergarrian eman ahal izateko. Horrelakoei buruzko oharrak, zenbait kasutan argigarri eta beste batzuetan ezinbesteko direlakoan, liburuaren bukaeran daude. Oharrak agertzeko moduari dagokionez, (*) batez markatuta daude hitzaren sarreran, eta bukaerako oharretan sarrera horrexetara jo behar da.

Eta beste zailtasun bat ere badu, horri erantsia: zati asko hitz neurtuz osatuak izatea, hain zuzen ere. Euskaratzerakoan, idazlearekiko fideltasunagatik, horiek hitz neurtuz ematea erabaki nuen. Ingelesaren sintetikotasunari bertsoaren kortsea ezartzen badiogu, ez da zaila kalkulatzea zenbatez biderkatu behar den ahalegina, emaitzari itxura pixka bat emateko. Esan dezadan, bidenabar, esate baterako, J. Mirandek E. A. Poeren *The Raven* (Bela) itzultzean lortutakoa ez zela gutxi izan, edo Orixe, Gaztelu eta Lauaxetak

egindakoa; edo beste horrenbeste berrikiago J. Garziak Shakespeareren *Soneto Hautatuak* itzultzean. Beraz, bazegoen nora begiratua. Baina Mirande Mirande zen. Horregatik bi erabaki hartu nituen, hitz neurtuz zegoena hitz neurtuz ematea eta, horrekin batera, edukiaren muinari ematea garrantziarik handiena, baliabide formalak alde batera utzi gabe, betiere. Eta, gainera, behar adinako askatasuna hartzea neurri eta errima kontuetan, soneto batzuetan izan ezik. Horietako batzuk —guztira lauzpabost besterik ez dira— Miranderen *Eresi*, *Orhoituz* eta *Paranoia*-ren eredian eman ditut; beste batzuk, berriz, neurri luzexeagoetan. Neurri aldetik egin behar dudan ohar bakarra da sinalefa eta diptongoen bide lainotsuan irakurleak aurkitu beharko duela urratsak on(gi) egiteko pausajea. Eta, azkenik, espero dut, A. Biercek bezala, zenbait poeta sonaturen aipamenen ugaritasunak irakurlea ez muzintzea.

Xabier Olarra

Iruñean, 2000ko uztailaren 25ean.

Ambrose Bierceren hitzaurrea

Deabruaren Hiztegia astekari batean hasi zen argitaratzen 1881ean, eta oso tarteka jarraitu zuen 1906ra arte. Urte horretan zati handi bat liburu eran argitaratu zen, *Zinikoaren Hitzen liburua* izenburupean, egileak ez baitzuen izan izenburu hori arbuiatzeko indarrik; harrera berorik ere ez zion egin.

Hona hemen obra argitaratu zutenen hitzak: «Izenburu aski txintxo hori, hain zuzen ere, lanaren zati bat lehenago argitaratu zuen egunkariaren eskrupulu erlijiosoek ezarri zioten, eta horren berezko ondorioz liburu gisa argitara zenerako herrialde osoa imitatzaileen uholde batek hartua zuen, liburu “ziniko” mordo baten pean: *Zinikoaren hau*, *Zinikoaren hori*, *Zinikoaren hura*. Gehienak inozoak ziren besterik gabe, baina horietako batzuk ergelkeriaren mailara ere iristen ziren. Denen artean “ziniko” hitzaren gaitzespena lortu zuten, hainbestekoa, non hitz hori zeraman edozein liburuk argitara aurretik bereganatzen baitzuen gaitzespena».

Bitartean, horrez gain, herrialde honetako umorista saiatuenek lan horretatik esku-beteka hartzen zuten beren premiak asetzeko egoki zetorkien guztia, eta bertan dauden definizio, pasadizo, esaldi eta abar herri hizkeran normal samarrak bihurtu dira. Azalpen hau ematen dut, ez inola ere hutsa axola duten gauzetan lehena izatearen harrotasunaz, baizik eta izan litekeen edozein plagio salaketa ukatzeko, hori ez baita huskeria.

Dagokiona bere gain hartuz, egileak espero du ez dutela erruduntzat hartuko liburua zuzenean doakienek: ardo garratzak gozoak baino, zentzua sentimendua baino, zorrotasuna umorea baino eta ingeles garbia argota baino nahago duten jende argiek alegia. Liburuaren ezauzgarri nabarmena, desatsegina ez izatea espero dudana, poeta ospetsuen aipu argigarrien ugartasuna da; Aita Gassalasca Jape, s.j.* elizgizon ikasi eta zorrotzarenak nabarmentzen dira guztien gaineratik, bertsoen bukaeran G. J. inzialak

dituztenak. Aita Japeren animo eta laguntzari asko zor dio hitz lauzko testuaren egileak.

A. B.

A

Abdikazio*, iz. Errege-erreginak tronuaren berotasun gehiegizkoaz ohartzeko gauza direla frogatzen duen egintza.

Isabel gaixoa hil zen eta abdikatzean
zer esana eman zuen Espainia aldean.
Ez zuen hark errieta egiterik merezi,
tronu beroegi hura zentzuz baitzuen utzi.
Historiarentzat hau da hor ikasi beharra:
sutatik kiskali gabe joan zela ilarra.

G. J.

Abdomen, iz. Urdail jainkoaren tenplua, zeinen adoraziora, sakrifizio eskubideak barne, benetako gizon guztiak ematen diren. Emakumeengan antzinako sinesmen honek onarpen dudamudazko bat besterik ez du eragiten. Noizbehinka aldarean aritzen dira gogo txarrez eta modu pattalean, baina ez dakite zer den gizonezkoek benetan adoratzan duten jainko bakarrarenganako benetako debozioa. Emakumeak esku osoa

balu munduko merkataritzan, gure arraza belarjale bihurtuko litzateke.

Abegi (on), iz. Janik eta aterperik behar ez duten pertsona batzuei jana eta aterpea ematera bultzatzen gaituen bertutea.

Aberastasun, iz. Zeruak emandako oparia, honako hau adierazten duena:

«Hau da ene seme maitea, beragan dut ezarria nire onginahia guztia.» — *John D. Rockefeller*.

«Pena eta bertutearen saria.» — *J.P. Morgan*.

«Askoren aurrekia baten eskuetan.» — *Eugene Debs*.

Lexikografo zorrotza ohartzen da definizio bikain hauei eransteko ez daukala baliozko ezer.

Aberats, izond. Nagien, ezgaien, etxekalteen, bekaiztien eta zorigaiztokoien ondasunak kudeatzen dituen, betiere kontuak ematera beharturik. Hori da jendailaren artean nagusi den iritzia, Giza Anaitasunak bere garapen logikoena eta defendatzailearik xaloenak aurkitzen dituen jen-

darlean, alegia. Jende arruntarentzat zintzo eta zuhur esan nahi du.

Abertzale, iz. Parte baten interesak osoarenak baino goitarragoak iruditzen zaizkiona. Politikarien trikimailua eta konkistatzaileen tresna.

Abertzaletasun*, iz. Bere izena argiz blaitu nahi duen edozein lastargirentzat aproposa den zabor erregaia.

Johnson doktorearen hiztegi ospetsuan abertzaletasuna alprojaren azken baliabide gisa definitzen da. Lexikografo argi baina xume hura ezertan gutxietsi gabe, eskatzen dizut onartzeko lehenbiziko definizioa dela egokia.

Abokatu, iz. Legea txuliatzen trebea den pertsona.

Abracadabra*

Abracadabra hitzak baditu
nahi adina esanahi.

Zer? Zerengatik? argitzen baitu,

Noiztik? Nondik? Nola? zernahi...

Inork nahi badu jakin Egia

—benetan baita lasaigarria—,

hor du zeruko argia.

Hitz hori izena ala aditza den

erantzutea, bai gogorra!

Bakarrik dakit dela iraunkorra.

Belaunik belaun

beti du iraun,

perpaus-zati hilezkorra!

Ba omen zen gizon bat aspaldi

bizi izan zena hamar gizaldi

mendiko leize batean.

Baina hil zen azkenean.

Barreiatu zen haren ospea,

kaskasoil baina bizarluzea

izanik, noski, haren begiak

baitziren txit bai txit argiak.

Elkartu ziren filosofoak

aditzera haren lezioak,

entzundako hitz bakarra

hau omen da:

Abracadabra, abracadab
Abracada, abracad
Abraca, abrac, abra, ab!

Horrekin kito,
hori esanda han baitzen ito,
ikasleen oharrez, ordea,
liburu bat aise
idatzi ez eze,
argitara zuten iruzkinez.
Ez ziren nolana hikoak,
ugari bezain sendoak
haien liburuak, zinez!

Hil zen.

Baina haren
jarraitzaileen liburuak
galdurik, haien leinuruak
Abracadabra-z astintzen ditu,
ezkila gisa ezin gelditu,
bere hots maiteaz
etengabe joaz
gizonen Arta-buruak.

Jamrach Holobom.

Absolutu, izond. Loturagabea, erantzukizunik gabea. Monarkia absolutua erregeak nahi duena egiten duen sistema da, betiere egiten duena asesinoen gogokoa den bitartean. Ez dira monarkia absolutu asko gelditzen, haien lekua gehienetan monarkia mugatuek hartu baitute, non erregeen gaiztakeriarako ahalmena (eta onerakoa) arras murriztua den; beste batzuetan errepublikek ordezkatu dituzte, eta horiek hala-beharrak gobernatzen ditu.

Absurdu, iz. Azalpen edo uste nabarmenki zentzugabea, norberaren iritziekin gaizki lotzen dena, alegia.

Adan-aurreko, iz. Arraza experimental eta itxuraz ez oso asebetegarria, kreazioa baino lehena-gokoa eta oso erraz ez asmatzeko moduko bizi-modua egiten zuena. Melsiusen ustez «Hutsean» bizi ziren, eta arrain eta txorien arteko zerbait izan ziren. Oso gutxi dakigu haietaz, Kaini emazte bat eta teologoei eztabaidagaia eman zietela besterik.

Adeitasun, iz. Hamar liburuki ordainerazpeni egiten zaion sarrera laburra.

Adimen*, iz. Burmuinari darion materiaren forma bitxia. Bere lan nagusia bera zer den argitzeko lan gaitzean datza, eta lan horren funtsik ezaren kausa hau da: beraz gain ez duela beste ezer bere burua interpretatzeko. Adimenari latinez *mens* esaten zaio eta hitz honetan oinarrituriko esaera zaharrik ezagunena «*Mens sana in corpore sano*» da, beste zapatari jakintsu hark honela zuzendu zuena: «*Mens sana in corporis ano*», «*adimen sana, ipurtzuloan*», alegia.

Adin handi, iz. Heriotzaren beldurraren luzapen ez-ohikoa.

Adiskidetasun, iz. Ontzi mota bat, eguraldi ona denean bi lagun, baina txarra denean bakarra eramateko modukoa.

Itsasoa bare-bare, zerua urdin zela,
pozik generaman biok itsasoan batela
(presio altuak beti pozten baitu tentela).

Ekaitz gogorak jo zuen bateltxo txispabera,
biok eraitsi gintuen, bakoitza alde batera,
(Oinez ibiltzea, halere, bai neketsua dela!).

Armit Huff Bettle.

Adiskidetu, du ad. Esker txarreko lagun bat sortu.

Adiskidetze, iz. Erasoen etenaldia. Hildakoei lur emateko su-eten armatua.

Aditu, iz. Zerbaiti buruz dena dakien eta beste edozertaz ezertxo ere ez dakien espezialista.

Antzinako ardozale bati trenbide istripu batean sekulakoa hartu ondoren, ezpainetan ardo pixka bat jarri zioten suspertzeko. Ahots ahulez «Pauillac, 1873» esan, eta hil egin zen.

Aforismo, iz. Jakituria aurredigeritua.

Nolabaiteko ahalegin patologikoari
burmuinaren zahagiak amore eman dio.
Eta malkar hondogabe bete gabeko hari
aforismo merke baten huskeria dario.

Afrikar, izond. Gure alde botoa ematen duen mutur-beltza.

Ahal, iz.

«Ahala» zioen maisuak, «eskumen huts-hutsa da, hau zuzena da benetan, inon zuzenik bada.»

Mutilak maiz berotua baitzuen lepagazta:

«Ahala ez da eskumena, baizik esku-zartada.»

Ahate-mokokada, iz. Ahate-denboran jatetxeetan ordaindu behar izaten den kontua.

Ahazkortasun, iz. Jainkoaren dohain bat, zordunei ematen zaiena, zuhurtzia-falta berdintzeko.

Ahaztura, iz. Gaiztoek borrokatzeari utzi eta krudelek bakea ematen duteneko egoera edo estatusa. Ospearen betiereko zabortegia. Itxaropen handien hoztegia. Autore handinahiek beren obrak harrotasunik gabe eta bereak baino

hobeak inbidiarik gabe aurkitzen dituzten lekua. Iratzargailurik gabeko lotokia.

Aho, iz. Gizasemearengan, arimarako sarbidea; emakumearengan, bihotzeko gauzen aterabidea.

Aholku, iz. Baliozko txanponik xumeena.

«Gizona hain jota zegoen,
ezin, ba,» Tomek esan zuen
«aholku onik gabe utzi.»
Jimek arrapostu: «Hi haiz, hi!
Nahikoa balitz gutxiago,
hik horixe eman nahiago!»

Jebel Jocordy.

Aholku eman, du ad. Erljio-kontuetan, beste norbaiten kontzientzia gerrenean jarri eta sutan belzten hasteko punturaino erre.

Ahuleziak, iz. pl. Emakume Tiranoaren funtsezko ahalmenak, bere espezieko arra mendean edukitzeko baliatzen dituenak; horien bitartez

bere borondatea betearazi eta arraren matxina-
tzeko kemena erabat geldiarazten du.

Aieru, iz. Ezer gertatzen ez bada zerbait gerta-
tuko dela adierazten duen seinalea.

Aipu, iz. Beste norbaiten hitzak oker errepika-
tzea. Oker errepikatutako hitzak.

Bere aipuan hutsen bat egin izango zuen akaso,
Brewerren orri huts gabea hark egin behar errepa-
so.

Gero zin egin zuen, oi! oi! oi! zutela kondenatuko
kondenatuko zutela oi!, oi!, kondenatuko betiko.

Stumpo Gaker.

Aire, iz. Probidentzia ongileak pobreak gizentze-
ko hornitzen duen substantzia elikagarria.

Aire zabalean, adlag. Ezein gobernuk zergak
ezartzerik izan ez duen norberaren ingurunean.
Bereziki baliagarria poeten etorria pizteko.

Mendi gainera behin igo nintzen

eguzkiaren sarrera
bere loria handienaren
momentuan ikustera.

Ilunabarrak ekarri zidan
istorio hau gogora:
astoa lehertu zuen gizonak
eduki zuen ganora!

Asto gainean bapo joan zen
hura lehertu artio.
Hurrena astoa gainean hartu
behar, zer erremedio.

Mendi gaisetarik ilargiaren
aurpegi gozo ederra
nabarmendu zen nengoeneko
lekutik mendebaldera.

Hori ikusteak ekarri zidan
beste kontu hau gogora:
ondo pentsatu ezkerre barrez
hesteak botatzeko da.

Neska gazte bat jarri omen zen
eliz atean zelatan,
ikus nahi, ba, andregaia, nahiz
andregaia bera izan.

Natura beti da poetentzat
Idea Handiz ernari,
erruki diot zero-lurrentzat
itsu eta gor denari.

Stromboli Smith.

Aizkora txiki, iz. Gazteen aizkora, indioek Thomashawk esaten ziotena.

«Indio suminkor, bakea hobe da,»
ziotsan zuriak, «aizkora lurpera.»
Baita basatiak obeditu ere
zuriaren muinak bihurtuaz lurpe.

John Lukkus.

Akademia*, iz. Moralitatea eta filosofia irakasten zen antzinako eskola (*Ikus Hankademia*).

Akordeoi, iz. Hiltzaileen sentimenduekin harmonian dagoen musika-tresna.

Akordio, iz. Armonia.

Akusatu, du ad. Beste norbaiten errua edo balioeza baieztatu; gehienetan geure burua zuri-tzeko hari egindako kalteagatik.

Alarguntsa*, iz. Kristau jendeak umorez hartzea erabaki duen figura patetikoa, Kristok alarguntsenganako erakutsi zuen samurtasuna haren izaeraren ezaugarririk nabarmenenetakoa izan arren.

Aldare, iz. Garai batean apaizak geroa jakiteko asmoz sakrifizioko biktimaren heste mehea zati-tu eta jainkoentzat haren haragia maneatzeko erabiltzen zuen mahaia. Hitza, gaur egun, ez da erabiltzen ia, ez bada aipatzeko gizona eta emakumezkoz osatutako bikote txoroek egiten duten beren askatasunaren eta bakearen sakrifizioa.

Beren bilgorraz bizitzen zuten erreko zituen sua,
zutik aldare aurrean biak, bikote zoriontsua.
Sakrifizio alfer-alferra, zernahi jainkok zapuztua,
erretzekoan erabilita, horren erregai satsua.

M.P. Nopput.

Aldendu*, izond. Bereziki mihi-gaiztoen erasoan arriskupean dagoena; larrutua; erremediorik gabe oker dabilena; beste norbaiten estimazio eta atxikimenduari dagokionez...

Gizona adimen hutsa da gizon guztientzat,
aurpegi edo jantziak nork har ditzake aintzat?
Emazte baten gorputza, emaztea bera da.
Zaude nirekin, maitea, ez urrundu sekula;
baina ez ahaztu jende zuhurren erregua:
emakume aldendua betiko da galdua.

Jogo Tyree.

Alderdikeriari gabeko, izlag. Eztabaidan diharduten bi alderdietako batekin elkartzeak edo elkarren aurkako bi ideien artean hautatzeak norberari ekar diezaiokeen abantailarik usnatzeko gauza ez dena.

Alferkeria, iz. Deabruak bekatu berrien haziekin esperimentuak egiteko eta bizio nagusien hazkundera bultzatzeko duen haztegi ereduakoa.

Alien, iz. Errege amerikar bat bere probaldian.

Aligatore*, iz. Ameriketako krokodiloa, Kontinente Zaharreko monarkia ahituetako krokodilolari puntu guztietan gailentzen zaiona. Herodotok dio Indoa dela krokodiloak sortzen dituen ibai bakarra, salbuespen bakar batekin; baina, dirudienez, Mendebaldera jo dute eta beste ibaiekin batera handitu egin dira. Bizkarrean dituen hozkak direla-eta aligatorea zaurioa dela esan ohi da.

Allah*, iz. Mahomatarren Izaki Gorena, kristauen, juduen eta abarrenarekin nahastu behar ez dena.

Allahk eman legeari eutsi diot nik tinko,
gizonaren faltengatik negar egin dut franko;
eta tenpluan tarteka belauriko jarririk,

besoak antxumaturik lo egin lasai asko.

Junker Barlow.

Almirante, iz. Gerra-ontziaren zati bat, hitz egiteko ardura duena, brankako buru-hutsak pentsatzen duen bitartean.

Alprojo, iz. Giza arrazari aurrera joarazten dion eragile nagusia.

Amnistia, iz. Zigortzea garestiegi aterako litzaiokeen gaizkileenganako, Estatuak erakusten duen bihotz zabaltasuna.

Andereño, iz. Emakume ezkongaei ezartzen diegun txartela, oraindik ere salerosgai direla adierazteko. Andereño, Andre, Jaun dira hizkuntzak dituen hitzik desatseginenak, bai ahoskera, bai esanahi aldetik. Bi lehenak *andere* hitzaren endekatzetik datoz, eta hirugarrena *jaube*-renetik. Lurralde honetan gertatutako gizarte tituluen deusezte orokorrean hitz hauek mirariz salbatu ziren gu etengabe nazkarazteko. Erabilera gordetzez gero, izan gaitezen koherenteak eta bila

dezagun hitz bat gizon ezkongaiarentzat. Nik *jauntto* proposatuko nuke, laburduraz *jo*.

Andregai, iz. Atzetik zorionezko etorkizun bikaina duen emakumea.

Anormal, izond. Estandarrarekin bat ez datorrena. Pentsaera eta portaera kontuetan, nor bere buruaren jabe izatea anormala izatea da, eta anormala izatea, berriz, gorrotatua izatea. Horregatik lexikografoa hau, zuhur beharrez, saiatu da Gizon Arruntaren antz handiagoa izaten bere buruarena baino. Horrela hori lortu duenak bakea, heriotzaren itxaropen hurbila eta Infernuaren esperantza izango ditu.

Antipatia, iz. Norbaiten lagunaren lagunak sortzen digun sentipena.

Antolatu, ad. iz. bur. Altxatu eta txukun paratua, grebalari bat zutoin batetik zintzilik bezala.

Antzara, iz. Idazteko lumak ematen dituen hegaztia. Lumoi, naturaren prozesu ezezagunen

batengatik, hegaztiaren kemen intelektuala eta izaera barneratu eta atxikitzen zaizkie, eta horren ondorioz «autorea» deritzan pertsona batek paperaren gainean tintaturik mekanikoki irrizarazten dituenean, hegaztiaren pentsaera eta sentimenduen transkripzio zintzo eta zehatza eman ohi du. Antzaren arteko diferentziak, metodo zorrotz honen arabera argituak, dezentek dira: askok dohain arrunt eta ziztrinak dituzte, baina beste batzuk, garbi dago, antzara handiak dira.

Antzerkigile, iz. Frantsesetik antzerkiak egokitzten dituenak.

Apaiz janzkiak, iz. pl. Zeruko Gorteko Bufoiek janzten dituzten jantzi kolore-anitzak.

Apaiztiar*, izond. Elizgizonak oro apaizak direla sinesten duena. Doktrina indartsu honen ukazioa da Eliza Episkopaldarraren hortzei Neo-hiztegi-zaleek bota dieten erronkarik handiena.

Apal, izond. Aitzakia gutxiago jartzen ahal zaiona.

Apaltasun, iz. Aberastasunaren edo boterearen aurrean izan ohi den gogo-jarrera txukun eta ohikoa. Bereziki egokia langile batek nagusiari hitz egiterakoan erabiltzeko.

Apelatu, ad. Lege kontuetan, dadoak godaletean sartu, berriro botatzeko.

Apetitu*, iz. Probidentziak zuhurtzia handiz ezarritako sena, langile-auzia konpontzeko.

Apirileko txoro, iz. Martxoko txoroa, bere txorakeriari hilabete erantsirik.

Apostata, iz. Izain bat, dortoka baten oskolaren barrenera sartu ondoren piztia aspaldi hila dela jabeturik, dortoka bizi batekiko lotura berri bat sortzea egokitzen jotzen duena.

Ar, iz. Sexu gutxietsi edo baztergarriko kidea. Giza arrazako arra (emearentzat) Gizaki Hutsa

bestirik ez da. Espezieak bi mota ditu: hornitzaile onak eta hornitzaile txarrak.

Ardo, iz. Emakume Kristauen Batasunak «likore» edo «pattar» izenez ezagutzen duen mahats zuku fermentatua. Ardoa, andrea, Jainkoak gizonari egindako opari hoberentsuenetakoa da.

Ardura, iz. Gazte eta eskarmentu gutxikoak jotzen dituen nerbioetako gaixotasun bat. Muturreko galanta hartu aurreko gartsutasuna.

Esker onaren bila joan zen Ardura
sari eske esanez: «Arren, ene Jauna!»
Eta Jaunak apalki: «Zer da nahi duzuna?»
«Zauriontzat ukendu edo gantzudura.»

Jum Coople.

Arenga*, iz. Etsaiak egindako hitzaldia; horregatik esaten zaio etsaiari arengutana (arengabota-duna).

Argazki, iz. Eguzkiak, arte ikasketarik egin gabe, pintatzen duen koadroa. Apatheen lana baino hobexea da, baina ez Txeieneena baino.

Argi-ikusle, iz. Bere nagusiarentzat ikusezina dena ikusteko ahalmena duen pertsona, normalean emakumea; batez ere hura artaburu bat dela ikusteko ahalmenik ez du falta izaten.

Argitaratu, ad. Literatur kontuetan kritikari multzo baten sorgune bihurtu.

Argituak, iz. pl. Hamaseigarren mendearen bukaerako Espainiako sekta heretiko bat; horrela deituak buruz arinak izaki, izpiritu hutsak zirelako: *cunctationes illuminati*.

Argiturri, iz. Gai bat jakituria handiz argitzen duena; adibidez, argitaratzailea, gai horri buruz isilik geratuz.

Argot*, iz. Giza zerriak (*Pignoramus intolerabilis*) egiten duen kurrinka, belarriz jaso. Belarriaz pentsatzen duena mingainaz ahoskatzen duen

eta kreatzaile bat loroaren balentria egitean bezain harro sentitzen den tipoaren hitzaldia. Kapitaltzat zentzurik izan gabe (Probidentziari esker) zirtolari gisa aurrera egiteko bitartekoa.

Arima, iz. Berari buruz eztabaida gartsuak sortu dituen izaki izpirituzkoa. Platonek argudiatzen zuen lehenagoko izate maila batean (Atenas sortu aurrean) egia betierekoa begiztatu zuten arimak filosofo bihurtzen zirenen gorputzetan sartzen zirela. Platon bera filosofoa zen. Egia jainkozkoa lausoago ikusi zutenek botere lapurren eta tiranoen gorputzak zituztela bizileku. Dionisio I.ak, botere-lapur eta tiranoa baitzen, filosofo bekoki-zabalarari lepoa moztuko ziola mehatxu egin zion. Platon, dudarik gabe, ez zen izan bere etsaien aurka argudiatzeko erabil zitekeen filosofi sistema bat sortu zuen lehena; azkena ere ez, garbi dago.

«Arimaren zer-nolakoari dagokionez,» dio *Diversiones Sanctorum*-en autore ospetsuak, «ez da eztabaida handirik izan, ez bada gorputzean hark duen lekuari buruzkoa. Neure ustez, arima sabelaldean kokatzen da... eta sineste

horren bitartez orain arte ulertezina zen egia bat gureganatu eta interpretatzen ahal dugu, batez ere sabelkoia dela gizonen artean jainkozaleena. Eskritura Santuek hartaz esaten dute "sabela jainko bihurtu duela"... Beraz, zer dela-eta ez da izango jainkozale Jainkoa bera bere baitan daramana bere fedea oroitarazteko? Nork ezagutuko du hobeki berak erlikiontzia bezala daramanaren ahalmen eta handitasuna? Egiaz eta ahoberokeriarik gabe, arima eta urdaila Jainkotasun bat bakarra dira; eta halaxe uste zuen Promasiusek, nahiz eta huts egin zuen arimaren hilezkortasuna ukatzean. Ohartua zen arimaren gai ikusgarri eta materiala hiltzean desegin eta hondatzen zela gorputzaren gainerakoarekin batera, baina haren izate ez-materialaz ez zekien deus. Horri Jan-gogoa deitzen zaio, eta hilkortasunaren hondamen eta ustelkeriari gailentzen zaio, beste mundu batean saria eta zigorra jasotzeko, haragizko egoeran eskatu izan duenaren arabera. Jaidura zakarrek merkezurreko azokan eta jantoki ongintzazkoetan emandako haragi erdi-ustela irrikatzera bultzatzen zutenen Jan-gogoari betiereko gosetea ezarriko zaio; aldiz, gizalegez baina

irmo, txorleroak, kabiarra, ur gezako dortokak, antxoak, *pâtés de foie-gras*-ak eta gisako kutixi kristauak eskatzen zituztenek beren hortz izpiritualak betikotasun betierekoan haien arimaz bazkatuko dituzte eta beren egarri jainkozkoa lur honetan inoiz dastatutako ardorik bitxien eta bikainen alde hilezkorrez baretuko. Hau da nire fede sakona, nahiz eta aitortu behar dudan, saminez, ez Erromako Aita Santuak ez Canterburyko Artzapezpiku Dohatsuak (zeinak sakontasun berdinez ohoratzen ditudan) ez dutela onartuko fede hau zabal dadin».

Aristokrazia, iz. Gizonik onenen Gobernuua. (Zentzu honetan hitza zaharkitua da; gobernu mota hori ere bai.) Kapela leunak eta alkandora garbiak janzen dituzten tipoak... askojakin izateaz errudun eta banku-kontuak edukitzeaz susmagarri direnak.

Arkitekto, iz. Zure etxearen planoak zirriborrazten dituen eta zure dirua borraratzeko planak egiten dituen.

Armadura, iz. Jostuntzat errementaria duen gizonak soinean izaten duen jantzi mota.

Armoniazaleak*, iz. pl. Protestante sekta bat, orain iraungia, Europatik etorri zena joan den mendearen hasieran, eta bere kideen arteko barne-eztabaida eta liskarren garrantasunagatik nabarmendu zena.

Arnasgailu, iz. Londresko biztanleen sudurrean paratzen den tresna, ikusmeneko unibertsoa biriketako bidean iragazteko.

Arrabio*, iz. Jatorriz, sutan bizi zen narrastia; gerora, antropomorfo hilezkorra, baina beti pirofiloa. Arrabioak iraungiak omen dira gaur, eta oihartzuna iritsi zaigun azkena Belloc Abadeak Carcassonnen ikusi omen zuen, eta ur bedeinkatu perzkada batez exortzizatu.

Arrakasta*, iz. Norberaren lagunarenganako bekatu barkaezin bakarra. Literaturan, eta bereziki poesian, arrakastaren osagaiak oso sinpleak dira, eta bikain adieraziak Aita Gassalasca Jape-

ren bertso honetan; arrazoi misterioetsuren
batengatik «John A. Joyce» izenburua du:

Arrakasta nahi duen bardoak behar du
liburu bat aldean, hitz lauan pentsatu,
ttattar gorri bat jantzi, begirada galdu,
eta hexametroko kalparra luzatu.
Gizenduko haiz ongi pentsatzen baduk mehe,
kapela beharrik ez, bahaiz ile-luze.

Arrandi, iz. Ergelak kaikurik hurbilenaren dohai-
nei egiten dien omenaldia.

Oiloen karaka ozenena
errun arrautzak antzu badira.
Oiloen azterketen argira
gizakia omen okerrena.
Haien ustez luma nahiz mingaina
lanbide dutenen putz distira
zenbat eta handiago, dira
are hutsago, oilo andana!
Urre jantziz danbor nagusia,
galtzak diz-diz kapela du tontor,
ponpoxo, harro, zalduntxo haidor,

serio, beldurgarri dago hor.
Nork pentsatu ez hiltzea inor
dela haren meritu guztia.

Hannibal Hunsiker.

Arrantza-sare, iz. Ingurunean aldaketa nahigabekoa eragiteko sare mota. Arrainentzako aisea eta latza izaten da, baina emakumeak aiseago harrapatzen dira material bereziki fina eta pisutarako harribitxi landuak erabiliz gero.

Deabruak farfailazko sarea
(harribitxizko pisuz kargatua)
bota zuen lehendik pentsatua
zuen lekuan. A zer suertea!

Emakumeen arimaz betea
atera zuen; oi mirakulua!
Baina bete bezain pronto zakua
hustu: laxo baitzen hari-tartea.

Baruch de Loppis.

Arrazional, izond. Ilusio guztiez gabetua, behatzeak, eskarmentuak eta hausnarketak sortzen dituen ez salbu.

Arrazoi, iz. Aurreiritzirako jaidura.

Arrazoitu, da ad. Nahien eskalan probabilitateak pisatu.

Arrisku, iz.

Piztia basa hau lo dagoenean,
gizonak iseka, erdeinu, mesprezu,
baina, deskuiduan, esnatzen denean,
saltaka aldentzen ikusiko duzu.

Ambat Delaso.

Arroz ur*, iz. Ezkutuan poeta eta nobelagile ezagunenek beren irudimena arautu eta kontzientzia sorgortzeko erabiltzen duten edari mistikoa. Bai kamuskinan eta bai letarginan aberatsa omen, eta gauerdiko lainopean prestatzen du Zorigaiztoko Lintzurako sorgin lodi batek.

Arte, iz. Hitz honek ez du definiziorik. Aita Gas-salasca Jape, s.j. zorrotzak honako hau kontatzen du hitz honen jatorriari buruz.

Xelebre batek behin batez —auskalo zer zebilen!— ARTE hitza hartu eta, ERTI bihurtu zuen. Jainko baten izena zen! Eta handik berehala apaizak eta fraideak zizoriak bezala sortu ziren (eta haiekin misterio, himnoak, eztabaida latzak eta amairik gabekoak), haren tenplu eta sua bizi iraunarazteko, legea azaldu eta hariak mugitzeko. Eta errito horien zaintzaile den jendailak sinesten ditu ulertzerik ez duen kaka-pilak, eta ikasten bi ile-erdik (ertistikoki, noski) loturik bestela baino askoz ere hobeki ematen dutela, beste grazia bat dutela, Naturak oraindik nondik ikasi baduela. Kutixia eta ardoa ekartzen dute suelto eta soinekoak saltzen apaizak mantentzeko.

Artseniko*, iz. Emakumezkoek oso maite duten kosmetiko mota bat, ordainetan hark ere asko maite dituen.

«Artsenikoa har ezazu, bai, har ezazu dena.»

Hau izan zen gizonaren arrapostu ozena.

«Den-dena zuretzat duzu, ea, ba, airoso jan eta horretatik fitsik ez bota nire kopan.»

Joel Huck.

Artzapezpiku, iz. Elizaren ordezkaria, santutasun mailan apezpikua baino goraxeagokoa.

Ni banintz artzapezpiku eder izokin, platuxa eta berdel jango nituzke ostiraletan, dena libre beste egunetan.

Joho Rem.

Aseguru, iz. Gaurko zori joko xelebrea, zeinean jokalariai pentsarazten zaion, lasaitzeko, jokozainari irabazten ahal diola.

Aseguru agentea: Jauna, hauxe etxe bikaina, aseguraturako dizut.

Etxejabea: Pozik gainera. Egidazu urteko prima hain baxu, non, seguru aski suak suntsitzen duenean, zuen adituen kalkuluen arabera,

kalteordaina baino askoz gutxiago ordaindua izango dudan.

Aseguru agentea: Ez, adiskidea... hori ezin dugu onartu. Zuk gehiago ordaindua izateko moduko prima ezarri behar dizugu.

Etxejabea: Baina, nola nahi duzu nik horrenbeste pagatzea?

Aseguru agentea: Begira, zure etxea noiznahi erre daiteke. Adibidez hor duzu Smithen etxea, eta etxe hori...

Etxejabea: Barkatu... Brownen etxea, berriz, edo Jonesena edo Robinsonena...

Aseguru agentea: Barkatu zuk!

Etxejabea: Elkar uler dezagun. Zuk nahi duzu, zerbait gertatuko delakoan, zerorrek gertaera horrentzat ezarritako garaia baino lehen nik dirua ordaintzea. Beste modu batera esanda, zuk espero duzu nik apustu egitea nire etxeak ez duela iraungo zuk seguru aski iraungo duela esaten duzun adina.

Aseguru agentea: Baina zure etxea aseguratuta gabe erretzen bada, erabateko galera izango da.

Etxejabea: Barkatu, arren... zuen adituen kalkuluen arabera, seguru aski aurreratuak izango ditut, erretzen denean, bestela zuri ordainduak izango nituzkeen prima guztiak... eta, guztira, nik erositako izango nukeen polizaren bermea baino dirutza handiagoa egingo lukete. Baina, tira, eman dezagun erretzen dela, aseguratu gabe, zure zifrak oinarritzen diren epea baino lehen. Nik horretarako adina diru ez badut, nola izan dezakezu zuk, etxea aseguraturik gero?

Aseguru agentea: A, beste bezero batzuekin suertea hobe izanda aurre egingo genioke. Birtualki, haiek ordaintzen dute zure etxea.

Etxejabea: Eta, birtualki, orduan, ez al ditut nik haien galerak ordaintzen? Haien etxeak ez al daitezke erre nirea bezalaxe zuk haiei ordaindu behar diezuna haiek zuri ordaindu baino lehen? Hona zertan den kontua: zure bezeroei emango diezuna baino diru gehiago kentzea espero duzu, ez da hala?

Aseguru agentea: Noski, zuk ez bagenu...

Etxejabea: Ez dizut nire dirua emango. Noski. «Egia» baldin bada, zure bezero guztiak batera hartuta, dirua galtzen dutela zurekin, «proba-

blea» da, bezero horietako bakoitza banaka hartuta, «bakoitzak» ere galtzea. Banakako probabilitate horiek egiten dute batera bildutako egia.

Aseguru agentea: Ez dut ukatuko, baina begira zifra hauek zer dioten...

Etxejabea: Ez, Jainkoarren!

Aseguru agentea: Lehen aipatu duzu bestela niri ordainduko zenizkidakeen primak aurrezte. Ez al da seguruagoa zuk horiek gastatzea? Diruaren erabilera zuhurra eskaintzen dizugu, behintzat.

Etxejabea: B-ren diruaz arduratzeko A-k duen irrika ez da aseguruaren gauza berezi bat, baina karitate instituzio gisa, mirespena sortzen duzue. Onar ezazu aitorpen hau zerbitzari apal honengandik.

Asetasun, iz. Norbaitek bere platera hustu duenean sentitzen duena, andrea.

Askatasun*, iz. Agintearen zamatik arintzea, autokontrolak dituen kontaezin ahala metodo erabiliz. Nazio bakoitzak bere monopolio birtualtzat daukan egoera politikoa. Libertatea. Askata-

sunaren eta libertatearen arteko diferentzia ez da oso garbia; naturalistek ez dute sekula aurkitu ez bateko ez besteko espezimen bizirik.

Askatasunak, denek dakiten bezala,
garrasi egin zuen Kosciusko hiltzean;
gaur haizeak nonahitik jotzen duenean,
huraxe aditzen da, oihuka ari dela.

Gaur erregeek elkar hartzen dutenean,
edo parlamentuak bileran direla,
askatasuna hartu eta giltzapean
sartzeko, hor hasten da Harexen hil-beila.

Herri burujabeak hauteskundeetan
botoa ematean, nik ez dakit nola
kiratsa zabaltzen da azkar bazterretan,
haren marrua handitzen da zabaldu ahala.

Boterea dutenek trebeak direla
erakutsi digute egin partiketan:
besteentzat infernua, zerua aldean,
ergeltzat genituzke hartuko bestela.

Blary O'Gary.

Aski, adlag. Munduan dagoen guztia, gogoko baduzu.

«Aski» behar bezain neurri ona da... eta horregatik ez kexurik platerean «Askiago» izateagatik.

Arbely C. Strunk.

Asmamen, iz. Ezkutukoaren usnan ibiltzeko artea. Asmamen motak, bestalde, inozo loratuen eta ergel goiztiarren fruta-arbola barietateak adina dira.

Asmatzaile, iz. Gurpil, palanka eta malgukien konbinazio injeniotsuak egin, eta hori zibilizazioa dela uste duen pertsona.

Asmo, iz. Eragin sail batek beste baten aldean duen abantailaz adimenak duen oharmena; ondorio bat, zeinen kausa den nahigabeko egin-tza baten gauzatzearen hurbiltasun berehalako nahiz urruna.

Aspertze*, iz. Higuina, aspertuta dagoenaren egoera. Hitz hau nondik sortua den argitu nahian fantasia ugari ibili da. Baina Aita Gassalasca Japeren autoritate goitarrak dio iturri begibistakotik datorrela: *Asperges me Domine* antzinako latinezko eresitik. Dirudienez *aspertzen nauzu, Jauna*-ren gisako zerbait ulertzen zen.

Astakirten, iz. Ikus SENAR.

Astelehen, iz. Herrialde kristauetan, beisbol partiduen egunaren biharamuna.

Asto*, iz. Ahots oneko baina belarri txarreko abeslari jendaurrekoa. Virginia Cityn (Nevada) Washoeko Kanarioa esaten diote, Dakotan, berriz, Senadorea, eta nonahi Astoa. Animalia honek aipamen asko eta era askotakoak izan ditu edozein garai eta herritako literatura, arte eta erlijioan; ez da beste animaliarik giza irudimena ornodun noble honek adina piztu eta sutzen duenik. Izan ere, zenbaitek, erabateko ziurtasunez ez bada ere (Ramasilus, *De Clem., II. lib.*, eta C. Stantatus *De temperamente*), jainko-

tzat hartzen dute, eta badakigu halakotzat hartuz adoratzeko zutela etruskoek, eta, Macrobiusek dioena sinestera, baita kupasiarrek ere. Mahomatarren Paradisuan gizakien arimekin batera onartutako bi animalietatik bata Balaam zeraman astoa da, eta bestea Zazpi Zapineko zakurra. Hau ez da nolana hiko ohorea. Abere honetaz idatzi denarekin handitasun eta tamaina ederreko liburutegi bat osa liteke, Shakespeareren kultukoaren edo Bibliari buruzkoaren inbidia-rik batere ez lukeena. Esan liteke, oro har mintzatuz, literatura guztia Astozalea dela gutxi edo gehiago.

«Gora zu, Asto santua!» aingeru koruen kanta;
«Erotasunaren Apaiz, Liskartien Jauna, aintza!»
Kreaziokide handi, zabaldu zure erlantzak:
besteak Hark sortu arren, Mandoa zure egintza.

G. J.

Asturu gaitzez, adlag. Itxarobide onik gabe, patua alde ez dela. Erromatarren artean ohitura zen, garrantzi handiko egintza edo eginbehar bati ekin aurretik, augur edo estatuaren igar-

leengandik arrastoren bat lortzea, emaitza ger-
tagarrienari buruz; eta asmabiderik maiteen eta
fidagarriena hegaztien hegakerari erreparatzea
iruditzen zitzaien; horretatik ateratzen ziren
aztarnei *auspizioak* zerizten. Kazetariak eta lexi-
kografo gaizto batzuek erabaki dute hitz horrek
—beti pluralean erabilia— «sustapen» edo
«zuzendaritza» esan nahi duela; adibidez, «Fes-
tak Gorpulapurren Ordena Antzinako eta Ohora-
garriaren auspizioen pean zeuden», edo «Irriak
Gosearen Zaldunek auspiziatuak ziren».

Esklabo bat Erroman augurrarengana
joan zen: «Esan, mesedez, esaidazu jauna...»
Augurrak berehala, irriño batekin
eskuaz gelditzeko keinutxo bat egin
—lanik ezin egin, ba, azkura harekin—
eta zabaldu zuen asmo garbiekin.
Denario batekin, (txanpon latindarra)
akabo azkura nahiz eskuen daldarra.
Orduan esklaboak, jarraituz: «Mesedez,
esaidazu Patuak ebatzi duenez
gaur argitu baino lehen egin asmo dudan
zerbaitetan porrota —zeren naizen dudan—

ala arrakasta. Zer den? Ez dio axola,
uste baitut hementxe idatzia dela.»

Begi keinu ilunez begien aurrera
beste denario bat airoso atera
eta erreparatuz haren distirari
luzatu zion, bada, gizon zintzoari.

Eta augurrak serio: «Zaude lasai hemen,
ea Patuak gaurko zer esaten duen.»

Bere ofizioko arropak astinduz
eta berealdiko zalaparta sortuz,
gizon santua handik zen erretiratu
eta Tenplu atzean egin zuen oihu.

Han hegaldatu ziren pauma sakratuak
(Junoren ohoretan) hantxe mantenduak,
zuhaitzak baitzituzten kotatzat hartuak.

Tenplu gainera aise joan ziren hegan,
hara jotzen baitzuten berez normalean,
arriskurik somatzen bazuten behean.

Augurra itzuli zen esklaboagana:

«Seme, hementxe duzu Patuak esana;
hegaztien hegaldi horren arabera
parte onik ez duzu, porrota segur da.»

Joan zen esklaboa, goibel bere etxera,
bere plan sekretua utzi bertan behera.

Nahi baitzuen (igarle trebea lehendik ohartu zen bezala) harresi gainetik salto egin ondoren, Junoren hegazti haiei iruzur bidez eskua erantsi.

G. J.

Atalkako eleberri, iz. Literatur lan mota bat, maiz gezurrezko istorioa, egunkari edo aldizkari baten aleetan arrastaka ibili ohi dena. Askotan atal bakoitzari «aurreko kapituluaren sinopsia» eransten zaio, aurrekoak irakurri ez dituztenentzat, baina premia askoz handiagokoa litzateke hurrengo kapituluaren sinopsia, irakurtzeko asmorik ez dutenentzat. Obra osoaren sinopsia, berriz, askoz hobe.

James F. Bowman zena atalkako nobela bat idazten ari zen, izena iritsi ez zaigun beste jeinu batekin elkarlanean. Bowmanek aste beteko lana egiten zuen, eta haren lagunak hurrengo astekoa, eta horrela jarraitzen zuten, amairik izango ez zuen soka, ustez behintzat. Zoritxarrez haserretu egin ziren, eta astelehen goiz batean Bowmanek egunkaria irakurri zuenean bere lana prestatzeko asmoz, ustekabean bere

lana moztuta aurkitu zuen. Lankideak kontraera-ko pertsonaia guztiak itsasontzi batean sartu eta Atlantikoko alderik sakonenean hondoratu zituen.

Ateraldi, iz. Adierazpen zorrotz eta argia, maiz aipatua, eta gutxitan atzemana; filistearrak «txiste» deitzea gogoko izan ohi du.

Atorrante, iz. Zuri entzutea nahi duzunean hitz egiten dizun pertsona.

Atsedeen hartu, da ad. Bazterrak nahasteari utzi.

Atsegin, iz. Malenkonia klaseetatik nazkarik txikiena ematen duena.

Atsegin eman, ad. Hertsapen superestruktura baten oinarriak ezarri.

Atsekabe*, iz. Girotze prozesu bat, arima beste mundu baterako, samina hura ere, prestatzen duena.

Atsotitz*, iz. Zuhurtzia hezurduna hortz ahulentzat.

Atxilotu, du ad. Hizkera jasoan, ez-ohikoez akusatutako norbait atzeman.

Jainkoak sei egunetan egin zuen mundua eta zazpigarrenean atxilotu egin zuten. — «*Bertsio baimengabea.*»

Atzapar*, iz. Bost hatzeko landarea, espezie ugaritan banatua; horietako bat (*Palma hominis*) maiz jotzen du hazteriak. Gaitza oso zabaldua da, eta nekez sendatzen direnetakoa. Ahurrari orduan lika ikusezin baten gisako izerdia ateratzen zaio, aise antzematen ahal zaiona urre edo zilarrezko txanpon bat ezarriaz. Metala gogor itsatsiko zaio ahurrari. Hala ere, gaitz hori sendatzeko aski izaten da diru hori ongintzarako ematea.

Atze, iz. Estatu Batuetako afera militarretan Kongresutik hurbilen dagoen armadaren alde babesgabeena.

Atzealde, iz. Zure lagunaren alde bat, ezbeharren kontenplatzeko suertea duzuna.

Atzo, iz. Gaztaroaren haurtzaroa, helduaroaren gaztaroa, zahartzaroaren aurreko iraganaro osoa.

Atzo bertan zoriontsu nintzen
heldutasun gailurrean zutik,
beherantz so lasaiki jarririk,
sartaldeko malda arrotza ikusten,

non itzalek lurra menpe duten
eta ahots isilek harturik,
iragarpen hitsaz oroiturik
Atsedean Beltz hartaz mintzo diren.

Bai, atzo nuen arima suhar,
gelditu nahi erloju-orratza
heldu aroan, ahal baneza.

Gaur Ziurtasun gaitzetsi behar,
hortaz, duda gaberik aineza
bistatik gal nik egin ametsa.

Arnegriff poetak bere azken gaixoaldian zazpi mediku izan omen zituen txandaka zaintzen.

Aukera, iz. Desilusia harrapatzeko parada ego-kia.

Aurka egin, ad. Oztopo eta eragozpenez lagundu.

Bai bakartia dela Sexu Handiosoa
arinkeriaz hartzen duena, gaixoa.

Serioek bakarrik —hau ez da hutsala—
merezia daukate Sexu desleiala.

Percy P. Orminder.

Aurkezpen*, iz. Deabruak bere zerbitzariak saritu eta bere etsaiak zigortzeko asmatutako zeremonia soziala. Aurkezpenak lurralde honetan lortu du bere garapen mailarik gaiztoena, gure sistema politikoari hertsiki lotua baita. Amerikar bat beste edozein amerikarren parekoa denez, edonork dauka, ondorioz, beste edo-

nor ezagutzeko eskubidea, eta horrek berekin dakar eskaera edo baimenik gabe aurkezpena egiteko eskubidea. Independentziaren Deklarazioak honela behar luke:

«Honako hauek dauzkagu egia begi-bistakotzat: gizon guztiak berdinak direla sortzez; kreaizaileak zenbait eskubide kenezinez hornitu dituela; horien artean bizitza dagoela, eta beste norbaiten bizitza jasanezin bihurtzea hari gainera botaz ezagun mordo izugarria; askatasuna, eta bereziki pertsonak elkarri aurkeztekoa, lehendik etsai gisa elkar ezagutzen dutela lehenbizi egiaztatu gabe; eta besteren zoriona bilatzea arrotz saldo ibiltari batekin.»

Aurreiritzi, iz. Iritzi alderraia eta bizigairik gabe zabaltzen dena.

Aurreizate, iz. Kreazioan kontuan hartzen ez den faktorea.

Aurrekari, iz. Zuzenbidean, aurreko erabaki, arau edo usadioa; estatutu zehatzik ez duenez, Epaille batek erabakitzen duen indarra eta agintea duena. Edozeren aurrekariak daudenez, hark

aski du bere interesaren aurkakoei muzin egin eta bere nahiaren ildokoak azpimarratzea. Aurrekariaren aurkikuntzak legezko auzia ausazko esperientziaren estatus apaletik epai moldagarriaren maila nobleraino igoarazi zuen.

Aurre-erabaki*, iz. Definitzen erraza ematen du hitz honek, baina pentsatzen hasten naizenean teologo zintzo eta ikasiek bizi osoa eman dutela berau esplikatzen, eta liburutegi osoak idatzi dituztela beren esplikazioak esplikatzeko; oroitzen naizenean nazioak zatitu direla eta gudu odoltsuak izan direla aurre-erabakiaren eta predestinazioaren arteko aldeagatik, eta herri-ondasunetatik milioiak xahutu direla norberaren askatasunarekiko eta otoitzaren, garaipenaren eta bizitza erlijiosoarekiko bateragarritasuna frogatu edo ukatzeko ahaleaginean... gogora ekarriz hitzaren historiako egintza itsusi horiek, apaldu-rik geratzen naiz haren esanahiaren arazo larriaren aurrean, nire arimako begiak beheratzen ditut, hitzaren handitasun txundigarria begiztatzeko beldurrez, erreberentziaz txapela erantzi eta umilki gomendatzen dizuet galdetzeko Gib-

bon Kardinale Gorenari eta Potter Apezpiku Argiari.

Ausardia, iz. Babesturik dagoen gizonaren dohainik nabarmenenetako bat.

Ausarkeria, iz. Soldaduak duen konposatu bat, harrokeriaz, betebeharrak eta jokalariaen esperantzaz osatua.

«Zergatik gelditu zarete?» egiten zuen orro Chikamaugan eraso agindu zuen dibisioko jeneral batek, «egin aurrera berehala, jauna.»

«Jeneral,» esan zuen brigada hutsegileko buruak, «erabat konbentzitura nago nire soldaduek ausardia handiagoa erakusteko saioen bat egiten badute, etsaiarekin topo egitera eramango gaituela.»

Ausart, iz. Onartzen dugun bide batean burugogor dena.

Australia, iz. Hegoaldeko Itsasoan dagoen lurralde bat, aurrerapen industrial eta komertziala modu ulergaitzean atzeratu diona geografoen

artean ibili den eztabaida zorigaitzekoak; uharte ala kontinente den erabaki ezinik ibili baitira.

Auto-ebidente, izond. Begibistakoa dena norberarentzat eta ez beste inorentzat.

Auto-estim, iz. Balioespen okerra.

Auzi*, iz. Epaille, abokatu eta zinpekoen zuzentasuna frogatu eta idatziz jasota gera dadin egiten den ikerketa ofiziala. Xede hori betetzeko kontraste bat egin behar da, salatua, preso edo akusatua deritzan batekin. Kontrastea behar bezain argigarria bada, pertsona horri zigorraldi bat ematen zaio, jaun zintzoei beren inmunitatearen eta beren balioaren zentzu lasaigarria bermatzeko adinakoa. Gure garai hauetan akusatua gizakia izan ohi da, edo sozialista, baina Erdi Aroan animalia, arrain, narrasti eta intsektuak auzipetzen ziren. Gizakia hildako piztia, edo sorginkerian ibilitakoa, zegokion bezala atxilotu, auzipetu eta, kondenatuz gero, borrero publikoak hiltzen zuen. Uxerrek soro, baratze edo mahastiak desegiten zituzten intsektuak epai-

mahai zibilen aurrera deitzen zituzten eta leku-kotasun, argudio eta zigorraren ondoren *in contumaciam* jarraitzen bazuten, arazoa elizaren auzitegi nagusiaren eskuetan jartzen zen, eta hark solemnitaterik eskomikatu eta anatematizatzen zituen. Toledoko kale batean erregeordearen hankapean sartu eta hura aztoratu zuten zerri gaizto batzuk agindupean atxilotu, auzipetu eta zigortu egin zituzten. Napoleonen asto bat sutzarrean hiltzera kondenatu zuten, baina, dirudienez, epaia ez zen bete. D'Addosiok auzitegi-tako paperetan ageri diren zerri, zezen, zaldi, oilar, zakur, aker etab.en auzi asko aipatzen ditu, haien zentzatzeko eta jokabide zuzenketarako izugarri mesedegarriak, uste izatekoa denez.

1451n Berna inguruko putzuak izurritzen zituzten izainak auzipetu zituzten, eta Lausanako Apezpikuak, Heidelbergeko Unibertsitatearen aholkuarekin, agindu zuen «uretako har» haietako batzuk herriko epailearen aurrera ekartzeko. Halaxe egin zen, eta izainei, bai bertan eta bai kanpoan zirenei, hiru egun eman zitzaizkien izurritutako lekuak husteko «Jainkoaren madarrikazioaren» zigorra ezartzeko mehatxupean. *Cause*

celebre haren paper sorta lodietan ez da ageri errudunek aginduari iskontxo egin zioten ala harrera gaiztoko jurisdikzio hartatik berehala alde egin zuten.

Auzitegi, iz. Zerri sartu eta lukainka bihurturik ateratzen zaren makina.

Auzo, iz. Geure burua bezala maitatzeko eskatzen digun pertsona eta eginahal guztiak egiten dituen bere esana egin ez dezagun.

Averno*, iz. Antzinako jendeek infernuratzeke sarbidetzat zeukaten lakua. Infernu aldera laku batetik sartzeak, Marcus Ansello Scrutator jakitunaren ustez, bataioaren errito kristaua murgilduz egiteari bide eman zion. Laktantziok, ordea, hura oker zebilela frogatu du.

Facilis descensus Averni
esaeraz poetak dio:
maldan behera hasi ezker
berekala errekan naiz ni.

Jehal Dai Lupe.

Axolagabe*, izond. Gauzen arteko desberdintasunarekin sentiberatasun eskasekoa.

Indolentziori bere emazteak errita:

«Erabat axolagabe zaude zu bihurtuta.»

«Axolagabe?» erantzun hark lasai irri eginez,

«Gustatuko litzaidake; ez du merezi, zinez.»

Apuleius M. Gokul.

Azaburu*, iz. Barazki aski ezaguna, gizonaren burua adinakoa eta hura bezain zentzuduna.

Izen hori Azaburius Printzeari zor dio. Izan ere, Printze horrek, tronoan eseri bezain laster, dekretu baten bidez, Inperioko Goi Kontseilua sortu omen zuen, bere aurretik izandako agintariaren ministroez eta Jauregiko baratzeko azaburuez osatua. Erregeren estatu-politikako aginduetakoren batek aldrebeskeria nabarmenen bat eragiten zuenean, serioski aldarrikatzen zen Goi Kontseiluko zenbait kideri lepoa moztu zitzaizela, eta marmarrak isiltzen ziren.

Azalgorri, iz. Ipar Ameriketako indiaoa, azal gorria ez duena... ez kanpo aldetik, behintzat.

Azken mutur*, iz. Interlokutorearengandik edozein aldetara azken muturreko posizioa.

Hilzorian zen Panderojolea,
heriotzaren zigilua zeukan
grabaturik aurpegi txaldanean:
bai zurbila harexen kolorea!
«Hau da azkena,» zioen gaixoak,
ez zuen indarrik haren susmurrak;
orduantxe jo zuen Herioak,
Pandero bihurtu haren Hezurrak.

Tinley Roquot.

Azkura, iz. Eskoziarren abertzaletasuna.

B

Baal*, iz. Antzinako jainko bat, izen desberdinen pean franko adoratua. Baal oso ezaguna zen feniziarren artean, izen honexekin; Belus edo Bel izenaren pean ohoratzen zuen Berosus apaizak, Zoperna Jeneralaren kontakizun ospetsua idatzi zuen hark; Babel izenaren pean bere aintzarako eraikitzen hasitako dorre bat izan zuen Sinarreko Ordekan. Babel hitzetik datoz babalore, babolio, babalasto. Edozein izenen pean adoraturik, Baal Eguzki jainkoa da. Beelzebul gisa eulien jainkoa da, euliak eguzki printzetatik sortzen baitira ur aintziratsuetan. Fisizian Baal, oraindik ere, Bolus izenaren pean gurtzen dute, eta Sabel izenaren pean gurtzen dute eta sakrifizio ugari egiten dizkiote Hesterriko apaizek.

Babesgabe, izond. Eraso egiteko ezgauza.

Babo, izond. Tribu handi eta ahaltsu bat, giza aferetan beti eragin menderatzaile eta kontrolatzailea izan duena. Baboaren jarduera ez da pen-

tsamenduaren edo ekintzaren alor jakin batera mugatzen, «guztia bete eta arautzen du». Azken hitza du beti; haren erabakiak apelaezinak dira. Iritzi eta gustuaren modak ezartzen ditu, hizketaren mugak erabakitzen eta jokabidearen arauak mugalerro zorrotzez finkatzen.

Babesleku*, iz. Arriskuan denari ezkutalekua ziurtatzen dion edozer. Moisesek eta Josuek babeslekutarako 6 hiri ezarri zituzten: Bezer, Golan, Ramoth, Kadesh, Schekem eta Hebron. Besteri bizia kendu zionak horietara ihes egin zezakeen, haren ahaideak atzetik segika zitueanean. Asmaketa horrek ariketa osasungarria jartzeko zion eskueran iheslariari, eta besteei, berriz, ehizaren plazerrez gozatzeko aukera ematen zien; horregatik, hildakoaren arima behar bezala ohoratzen zuten, Greziako antzina-ko hileta-jolasen antzekoei jarraikiz.

Baikor, iz. Beltza zuria delako doktrinaren aldekoa.

Ezkor bat Jainkoarengana joan zen lasaitasun bila.

«Ah, itxaropena eta alaitasuna berreskura diezazudan nahi duzu,» esan zuen Jainkoak.

«Ez,» erantzun zuen eskean zihoanak, «horiek justifikatzeko zerbait sortzea nahi nuke.»

«Mundua osotasunean hartu behar da,» esan zion Jainkoak, «eta zerbait oharkabean pasatu zaizu... optimista ere hilkorra dela.»

Baikortasun, iz. Gauza guztiak, itsusiak barne, ederrak direla esaten duen doktrina edo sines-tea; gauza guztiak, batik bat txarrak, onak dire-la, eta okerra zuzena dela dioena. Doktrina honen defendatzaile egoskorrenak behin eta berriz ezbeharra jasaten ohitutakoak dira, eta modu onargarrian argudiatzen dute irribarrea dirudien musu-imintzio batez. Fede itsua denez, kontra-argudioen argiaren eraginpetik at dago... adimenaren gaitz bat da; beraz, heriotza beste tratamenturik ez du. Hereditarioa da, baina ez da kutsagarria, zorionez.

Bainu, iz. Zeremonia mistiko suerte bat, adorazio erlijiosoaren ordezkatu duena, zenbaterainoko

eragin izpirituala duen erabaki gabe dagoen arren.

Lurrun bainu bat hartu eta
galdu zuen bere larrua,
eta hain gorri distiratsua
ikusirik bere burua,
laudatu zuen garbiketa.
Gauza bat zuen ahaztua:
ixtea biriken krisketa:
kendu grakaz zeuzkan beteta.

Richard Gwow.

Bakarrean, adlag. Konpainia txarrean.

Elkar talkatuz, burdin-suharriak
darakuste txinpart eta garrean
Jaun metalak eta andre harriak
maite izan dutela bakarrean.

Booley Fito.

Bake, iz. Nazioarteko gorabeheretan, bi gudu
aldien arteko trikimailu aldia.

Zer da atergabe belarrietan
min ematen didan hori?
Itxaropentsu bakezaleak
bakeari kantuz ari.
Nahi dute Bake Unibertsala,
ezkontide nahi lukete.
Aise lortuko lukete, nola
erdietsi balekite.
Gau eta egun lantsu dabiltza
diruditela satorrak;
Jaun zerukoa, barka itzazu
horien asmo koxkorrak!

Ro Amil.

Bakezale, izond. Kuakero hila.

Bako*, iz. Gure arbasoek mozkortzeko aitzakia-
tarako sortu zuten jainko komenentziazko bat.

Bako adoratzea bekatua ote?
Liktoreek horregatik zilegi al dute
giltzapean gu sarturik
egurtzea aspertu arte?

Jorace.

Baltsamatu, du ad. Landarediari iruzur egin, bizitzeko behar dituen gasak giltzaperatuz. Egip-toarrek, beren hildakoak baltsamatuz eta animalien eta landareen biziaren arteko oreka naturala horrela hautsiz, beren garai bateko lurralde emankor eta jendetsua antzu bihurtu zuten, eta jende-multzo handia mantentzeko ezgauza. Bide horretan aurrera egindako beste urrats bat gaur egungo metalezko hilkutxa da, eta beren auzoaren belardia zuhaitz bihurturik apaintzen edo haren mahaia errefau sorta bihurturik hornitzen ari beharko lukeen hildako mordo bat kondentatua dago alfer-alferrik luzaro irautera. Guk bizirik irauten badugu, noizbait hildakoa guretzat izango dugu, baina bitartean bioleta eta larrosak erdi hilik daude, haren *gluteus maximus*-ari hozka egiteko irrikaz.

Bandera, iz. Oihal-puska koloreduna, armaden gaintik eramaten dena eta forte eta itsasontzietako mastetan egoten dena. Londresko zenbait orubetan ikusten diren iragarki batzuek helburu berdina dutela dirudi: «Zaborra hemen bota behar da».

Barautsontzi, iz. Maiz egunkarietako erredakzio buru gisa aurkitzen dugun funtzionario baliagarria. Bere eginkizunean lotura hertsia izan ohi du xantaiariarekin, bitarteko identitatearen lokarria dela medio; zeren barautsontzia xantaiari mozorrotua besterik ez baita, nahiz eta azken hori espezie berezitu gisa maiz aurkitu. Barautsontzikeria xantaia baino erdeinagarriagoa da, iruzurgilearen ofizioa errepideetako lapurrarena baino erdeinagarriagoa den bezala; eta paralelismoak haruntzago doaz; izan ere, lapur gutxik iruzur egingo luketen arren, edozein ziraunek eraso egingo luke ausartuko balitz.

Barkatu, ad. Gaizkiletzarako bidera itzul dadin erruduna zigorra bete gabe libre uztea. Gaiztakeriaren lilurari esker txarraren tentazioa erans-tea.

Barne-giro*, iz. Eroak, zorionez, elkar suntsitzeko herrestan eramaten dituen harremana.

bata urdin, bestea zuri: hala ziren.
Hauts biak oharturik bata bestearen
gorentasunaz, biak txoraturik zeuden.
Goxotasun irrikak zituen lelotzen,
hobe pote bakarra, bat sobran zeukaten.
Barne-giroa egin baitzen estuago,
haiek baino askatzen bi lapa aiseago,
entzun baino hitz egin baitute nahiago
bakoitza lotsaturik, gorriturik dago,
biak beren bertuteez ezin harroago,
guztietan baitira puntaren puntako,
ia bekatuaren mailatik gorago.
Zenbat eta gehiago ahoa ireki
arimak hurbilago, oi zeinen ederki!
Negar malkoak ere laster dira ilki
akabo, hauts bakoitzak borborka diraki.
Beraz, naturak bere bidea badaki,
lagun eta maitale zigortzen gogorki,
ihes eginez gero lege zahar honi:
bakoitza bera dela: zu zu eta ni ni.

Barometro, iz. Zer eguraldi dugun adierazten duen tresna ongi asmatua.

Barre*, iz. Barne astindu bat, hazpegiak bihurrikatzen dituen eta hots artikulatu gabez lagundua. Gaitz kutsagarria da, eta, aldizkako bada ere, sendaezina. Barre atakeetarako joera da gizakia animaliangandik bereizten duen ezaugarrietako bat... haiek ez baitira soilik etsenpluz kutsaezinak, baizik eta gaitza hedatzen duten mikrobioek mendearen duten esparrua ere irazkaitza dute. Giza eriangandik inokulazioz animaliei transmititzerik ba ote dagoen ez dakigu, esperimenez frogatu gabe dagoen kontua baita. Meir Witchell doktoreak dio barrearen kutsagarritasuna *esputa* direlakoan fermentazio berehalakoaren ondorio dela, listu izpiak xirripaz hedatzen baitira. Gaitzari, bere ezaugarri bereziak direla-eta, *convulsio spargens* deritza.

Barregarri, izond. Hitz honek adierazten du bere xede denak ez duela hitz hori esan duenaren bereizgarri den duintasuna. Grafikoa, mimetikoa edo soilik mingarria izan daiteke. Esaten da Shaftesburyk egiaren frogabide deklaratu zuela... baieztapen barregarria, bestalde; izan ere, zentzugabekeria solemne ugari barregarri-

tzat hartuak izan dira mendeetan zehar, horregatik herriaren estimazioan behera egin gabe. Adibidez, zeri egin zaio barre ausarkiago Haurren Eskubideei baino?

Basilisko, iz. Oilar-emea. Suge moduko bat, oilarraren arrautzatik sortua, Basiliskoak begi okerra zuen, eta begirada zorigaiztokoa. Fedegabe askok ukatzen dute izaki honen existentzia, baina Semprello Auratorrek ikusi eta gobernatu zuen tximistak itsututako basilisko bat, Jupiterrek maite zuen dama goi-mailako bati zorigaitzez begiratu ziolako zigor gisa itsutua, hain zuzen ere. Antzinakoek basiliskoaren existentziari buruz eman dituzten adina lekukotasun ez dute beste ezeri buruz eman, baina oilarrek arrautzak erruteari utzi zioten.

Bataio*, iz. Errito sakratu bat, hain eragin handikoa, non horrelakorik jasan gabe zeruan bere burua aurkitzen duena betiko zoriontsu izango den. Urez egiten da, bi modutara: inmertsioz edo murgiltzez, eta aspertsioz edo zipriztinez.

Ebazteko hobe den inertsioa
ala aski ote den aspertsioa
Urperatuok, zipriztinduok
Bibliaren baimendun bertsioa
eta zeuen sukarren tertzioa
oinarri hartuz garbi kontuok.

G. J.

Bat-bateko, izlag. Supituki, zeremoniarik gabe gertatzen dena, kanoi-bala iristea edo soldadua abiatzea bezala, bereziki bala horrek haren interesak franko hondatu dituenean. Samuel Johnson doktoreak ederki esan zuen beste autore baten ideiez «bat-bateko etenik gabe lotuak zirela.»

Bateraezintasun, iz. Ezkondu-bizitzan antzeko gustuak izatea, bereziki bestea menderatzeko gustua. Bateraezintasuna, hala ere, izan daiteke kantoiaren bueltan bizi den begirada gozoko etxekoandrea. Jakin izan da bibotea duela.

Baxter nahasle, iz. Bere auzokoen fruta-arbolak astintzen dituen politikaria... harrak botatzeko, noski.

Behatoki, iz. Astronomoek beren aurrekoen asmaketak desegiten dituzten lekua.

Behe mailako, izlag. Hezi beharrean, hazia.

Behin, adlag. Aski.

Beita, iz. Amua irensgarriago bihurtzen duen prestakina. Hoberena edertasuna da.

Bekaizkeria, iz. Mailarik ziztrinenera egokitutako emulazioa.

Beldurrezko istorioen idazle*, iz. Naturaz gaindiko fenomenoekin eta bereziki mamuen egintzekin loturiko fenomenoaz arduratutako irudimena duen idazlea. Gure garaiko beldurrezko istorioen idazle ospetsuenetako bat William D. Howells da, borondate oneko irakurleari aur-

kezten diona desira dezakeen bezain mamu talde errespetagarri eta ongi hezia.

Eskualde-eskolako zuzendari batek ematen duen beldurrari, Howellesen mamuak beste herri bateko nekazariak berez duen misterioari zerbait eranstean dio.

Belladona, iz. Italieraz andre ederra; gure hizkuntzan pozoilugarria. Bi hizkuntzen arteko identitate funtsezkoaren adibide harrigarria.

Beltx*, iz. *Procianthropos* edo *Americanus dominans*-en umea. Txikia da, beltza eta ezbehar politiko zamatua.

Beltz, iz. Estatu Batuetako politikako *piece de résistance* delakoa. *n* letra da hitz honen ikurra.

Errepublikanoak beren ekuazioak honela hasten dira planteatzen: «Demagun *n* = *gizon zuria*.» Honek, ordea, soluzio txarra du, nonbait.

Beneditarrak*, iz. pl. Monje ordena bat. Beste izen hau ere ematen zaie: fraide beltzak.

Beleren bat zelakoan zegoen emakumea,

beneditar mar-marrean ari zena zen ordea.

«Sukaldari ordenako fraide beltz mundu honetan,
belztu arte kiskaliko ahal haute beste hartan!»

«*Deabrua lurrean*» (Londres, 1712).

Benefiziodun, iz. Benefiziogabeentzat oso pertsona interesgarria.

Benetan, adlag. Itxuraz.

Berenizeren adatsa*, iz. Konstelazio bat (*Coma Berenices*), senarra salbatzeko bere ilea sakrifikatu zuen baten ohoretan izen hori ematen zaiona.

Senarra salbatzeko emazte batek behin adatsa eman zuen, hura lakorik zein?
Gizonek esker onez damaren izena zeruan gorde zuten, ohore gorena.

Gaur emazteek, berriz, salduko lukete, adatsa salbatzeko, senar eta beste...
Beraz, ez da haientzat zeruan izenik ez baita guztientzat behar beste izarrik.

Berezko, izlag. Natural, sortzezko... hala nola berezko ideiak, jaiotzean gurekin ditugun ideiak; alegia, gerok geure buruari aurretik erakutsiak. Berezko ideien doktrina filosofiaren federik miresgarrienetako bat da, bera ere berezko ideia baita, eta horrenbestez kontrako frogantzarik onartzen ez duena, nahiz eta Locke burugabeak uste zuen berak «begiondoko galanta» emana ziola. Berezko ideien artean aipatu behar da norberak egunkari bat zuzentzeko gaitasunean sinestea, eta, baita ere, norberaren herriaren handitasunean, norberaren zibilizazioaren gorentasunean, norberaren arazoan garrantzian eta norberaren gaixotasunen interesean sinestea.

Berme-emaile, iz. Bere ondasunen jabe izanik beste batek hirugarren bati itzultzekotan emandakoaren erantzule bihurtzea erabaki duen eroa.

Felipe Orleansek bere kuttunetako bati, noble etxekalte bati, goi mailako kargu bat eman nahi zionez, galdetu zion ea zer berme eman

zezakeen. «Ez dut berme-mailerik behar,» erantzun zuen, «zeren nire hitza ematen ahal baitizut.» «Eta horrek zenbat balio lezakeen esango al didazu?» galdetu zuen Errege-ordeak. «Monsieur, bere pisua urretan balio du».

Bero, iz.

Mugimendu mota bat da Beroa, ez besterik Tyndall Maisuak utzi du ederki frogaturik. Ikuspegi hori ez da hain nekeza frogatzen: muturra berotuz gero, ukabila da astintzen, eta gelditzen denean izarrak dira pizten. *Crede expertum*, ikusia ari bainaiz argitzen.

Gorton Swope.

Berraztertu, ad. Jadanik hartutako erabaki baten zuri-bideak bilatu.

Berriemaile, iz. Egiaren peskizan bere bidea asmatzen eta hitz zaparradaka barreiatzen duen idazlea.

«Maiteagoa nire bihotzak ahal baino gehiago, oi Zu!
“ezpainak betiko itxita” hau gezurtatu ezin duzu.»

Berriemaile zoriontsuak hau kantatu bitartean,
hilari egin «elkarrizketa» luzatzen zen paperean.

Barson Maith.

Bertso zuri, iz. Errimarik gabeko pentametro
ianbikoak: bertsogintza ingelesean tajuz idazte-
ko motarik zailena; beraz, oso mota estimatua
inolako motaz idazteko gauza ez direnen parte-
tik.

Bertuteak, iz. pl. Erabateko abstinentziak.

Berun, iz. Metal urdin-grisaxka astuna, maitale
arinei egonkortasuna emateko asko erabilia...
zuhurki besteren emazteak baizik maite ez dituz-
tenei bereziki. Beruna oso baliagarria da balan-
tza okerreko aldera makurrarazteko adinako
pisua duten argudioen kontrapisurako. Nazioar-
teko desadostasunen kimikako gertaera interes-
garria da bi abertzaletasunek elkar ukitzen
duten unean beruna kopuru handitan prezipita-
tzen dela.

Aintza, Berun Santua! gizonen arbitro

handi eta orokor! Hornitua zara
sartzeko ahalmenez, zernahi eztabaida
lainotsu berehala aise garbitzeko.
Zure zehaztasuna da saihetsezina
bizi-muin ezkutua xuxen bilatzeko;
auziak garbitzeko, aski zure epaia,
zirujauak trabarik ez jarri ezkerro.
Metal baliagarri!, zarela medio
ez gabilta elkarri belarri-tiraka;
adituz gero erle-ziztu gisako hotsa
Muhlenbergekek bezala: «Alde egin nahiago!»
Hankarinak ihesi joan bezain pronto
Satan bala berriak prestatzen ari da.

Bestela, adlag. Hobeki ez.

Betegintzarre*, iz. Egoera edo izaera alegiaz-koa, benetakotik bereizten duena bikaintasun deritzan elementu batek; kritikariaren ezaugarri bat.

Aldizkari ingeles bateko editoreak jaso zuenean bere iritzien eta estiloaren okerra zehazten zuen gutun bat, *Betegintzarrea* sinatua, gutunaren barrenean berehala idatzi omen zuen: «Ez

nator zurekin bat», eta Mathew Arnoldi igorri omen zion.

Betiereko, izlag. Beti iraungo duena. Ez dut bel-dur makalarekin ematen definizio labur eta elemental hau, zeren ohartzen bainaiz Worcesterko Apezpiku noizbaitekoaren liburukote sendo bat badela, izenburutzat «*Betiereko*» hitzaren *definitio partziala*, *Eskritura Santuen Bertsio Zilegian erabili denaren arabera* duena. Liburu hori garai batean Eliza Anglikanoak biziki estimatu zuen, eta oraindik ere, nire ustez, adimenaren atseginez eta arimarentzako probetxuz ikasten da.

Bi aldiz, adlag. Behar baino behin gehiago.

Bide, iz. Egoteko aspergarria den lekutik hutsa-lan den tokira igarotzeko aukera ematen duen lur zerrenda.

Bide guztiek, non edo handik, daramate Erromara Jaunari esker, bat bada, beraz, bueltatzeko etxera.

Borey kaskasoila.

Bidegabekeria, iz. Besteri egotzi eta gerok jasaten ditugun zametatik eskuetan arinena eta bizkarrean astunena.

Bigamia, iz. Gustu kontuko huts bat, zeinengatik etorkizuneko zuhurtziak trigamia izeneko zigorra ezartzen duen.

Bihotz*, iz. Odol-ponpa automatiko, muskularra. Alegiazko zentzuan, organo probetxuzko hau zirrara eta sentipenen egoitza dela esan ohi da... ideia fantasioso samarra, hala ere behialako sineste unibertsal baten hondakina besterik ez dena. Orain badakigu sentipen eta emozioak urdailean izaten direla, janaritik bilakatuak isurkin gastrikoen eragin kimikoaz. Txuleta bat zein prozesuren bitartez bilakatzen den sentrazio samur edo zail, txuleta moztu zaion animaliaaren adinaren arabera; kabiarrak sandwich batek zein egoera igarotzen dituen hurrenez hurren fantasia bihurtu eta epigrama eztendun bezala berragertzeko; arrautza egosia damu erlijioso bihurtzeko edo esnegain harrotua sentiberatasunezko intziri bilakatzeko metodo funtzional zoraga-

rriak... gauza hauek guztiak M. Pasteurrek frogatu ditu pazientzia handiz, eta argitasun komenzigarriz azaldu. (Ikus, halaber, nire *Atxikimendu izpiritualen eta digestioan jaregiten diren hes-teetako gas batzuen arteko identitate esentziala*, 4to, 687. or.) Oker ez banago, *Delectatio Demonorum* izenburua duen lan zientifiko batean (John Camden Hotton, Londres 1873) sentipenen ikuspegi honen sekulako frogabideak ematen dira; eta argitasun gehiago nahi duenak kontsulta dezala Dam Irakaslearen *Maitasuna elikagaiak beratzen jartzearen emaitza gisa* tratatu ospetsua.

Bihotz-gogor*, izond. Besteak jasaten ari diren ezbeharrak eramateko gogortasun handiaren dohaina duena.

Zenoni esan ziotenean bere etsaietako batek etsai izateari utzi ziola, biziki hunkitu zela ohartu ziren ingurukoak. «Zer?» esan zuen haren ikasleetako batek, «etsai baten heriotzarengatik negarrez?»

«Bai,» esan zuen Estoiko handiak; «baina baliteke adiskide baten heriotzarengatik barreidurika ikustea ere.»

Bihurketa, iz. Dohaintzaz edo testamentuz unibertsitateak eta herri liburutegiak sortzea edo hornitzea.

Bihurrialdi, iz. Arrakastarik izan ez duen matxinada. Malgobernuaren ordezkari nahasmendua ezartzeko traizio-saio hutsegina.

Bihurtzaile, iz. Ongile; filantropo.

Bikain, izond. Ikuslea ohitua dagoen baino handitasun edo distira handiagoa duena, hala nola astoaren belarriak untxi batentzat, edo ipurtargiaren distira zizarearentzat.

Bizar, iz. Buruko ilea mozteko txinatarrek duten ohitura burugabea gogorki gaitzesten dutenek normalean moztu duten ilea.

Bizar labana, iz. Kaukasiarrek beren edertasuna handitzeko, mongoliarrek beren burua txorimalo bihurtzeko eta afro-amerikarrek beren balioa indartzeko erabiltzen duten tresna.

Bizitza, iz. Gorputza ustelduratik babesten duen gatzun izpirituala. Egunero hura galtzeko beldurrez bizi gara; nahiz eta galdutakoan ez dugun faltarik sentitzen. «Bizitzea merezi al du?» galdera asko eztabaidatu izan da, bereziki merezi ez duela uste dutenen artean, zeinetako askok luze idatzi duten beren ikuspegiaren alde, bizi-modu osasuntsuaren arauak kontu handiz bete-tzeak urte sail luzeetan eztabaida emankorrean aritzeko aukera eman baitie.

«Bizitzak ez du merezi, benetan da hutsala»

axolagabe ari zen kantuz gazte mazala.

Gizondu zenean zeukan ikuspegi berbera,

areagotu zitzaion urteen arabera.

Laurogeitan bota zuen asto batek lurrera.

Hark: «Zoazte zirujau bat lehenbailehen ekartzera!»

Han Soper.

Borroka, iz. Mingainarekin askatu ezin den korapilo politikoa hortzekin askatzeko metodoa.

Botakinak, iz. pl. Forte baten aurreko zaborreria, honako xede hau duena: kanpoko zaborreriak barruko zaborreriari bakea ematea.

Botanika, iz. Landareen zientzia, jateko onak nahiz txarrak direnena. Luze eta zabal aztertzen ditu landareen loreak, normalean gaizki moldatuak, kolorez artearen kontrakoak eta usain txarrekoak izaten baitira.

Botikari, iz. Medikuaren gaizkide, lur-emailearen ongile eta hilobi zorrien hornitzailea.

Jupiterrek gizon oro onetsi zuenean
eta Merkuriok haiek gorde poto batean,
iruzurzaleen lagun handi hark isilean,
botikarien onetan, gaitzak hantxe berean
sartu zituen, eta haiek zuten aldarrikatu:
«Droga hilgarrienak Haren izena izanen du».

Boto, iz. Gizaki libreak bere burua engainatu eta bere herria hondamendira eramateko duen ahalmenaren tresna eta sinboloa.

Bozketa orokor, iz. Agintari nagusiaren borondatea berresteko herri bozketa.

Brahma*, iz. Hinduak sortu zituen, zeinak Vishnuk zaintzen dituen eta Shivak desegiten... lan banaketa hau beste herri batzuen jainkoen artean aurkitzen duguna baino garbiagoa da. Abrakadabratarrak, adibidez, Bekatuak sortu zituen, Lapurretak mantendu eta Erotasunak desegin. Brahmaren apaizak, Abrakadabratarrenak bezala, sekula gaiztoak ez diren gizon santu eta ikasiak dira.

O Brahma, Jainko benetan bitxi eta bakana,
Hinduen Hirutasunak zaitu Lehen Pertsona,
lasai-lasai eta segur hor zaude eserita,
Zango biak txukun-txukun ondo gurutzatuta,
Lehen Pertsona singularra zara, dudarik ez da.

Polydore Smith.

Branka-mutur, iz. Latinez *rostrum* esaten zitzaion, eta txorien mokoia edo itsasontzien branka adierazten zuen. Pluralean, berriz, tribuna esan nahi zuen. Estatu Batuetan, zeregin publikoetarako hautagaiek herri xehearen zuhurtzia, bertuteak eta boterea gogatsu azaltzen dituzten lekua.

Bufoi, iz. Antzina, erregearen zerbitzarietako bat, egintza eta hitz barregarritz gortea dibertitzeko ardura zuena eta burugabekeriaren frogatarako jantzi koloreanitza izaten zuena. Erregeak berak jantzi serioak izaten zituenez soinean, mende mordoxka bat kosta zitzaion munduari ohartzea erregearen jokabide eta dekretuak aski barregarriak zirela, eta dibertigarriak ez bakarrik bere gortearentzat, gizateria osoarentzat baizik. Bufoiari hizkera arruntean txoroa esan ohi zitzaion, baina poeta eta erromantzegileek beti atsegin izan dute bufoia pertsona zuhur eta argi gisa azaltzea. Gaur egungo zirkuan gorteko bufoiaren mamu malenkoniatsuak garai batekoak baino entzule umilagoak goibeltzen ditu, bizi zenean marmolezko saletakoak trizatzen,

umore-zentzu aristokratikoa liluratzeko eta erregearen malkoen iturriak irekitzen zituen ateraldi berdinekin.

Portugalgo tronuko alargunak zeukan bufoi lotsagabe eta ausart bat gortean. Dama konfesatzera joan zen batean, apaizaren lekuan bufoia barnean.

«Aita, bentzu berorrek nire bekatua, benetan beltza baita eta sekretua. Bufoia maitatzen dut, hauxe delitua! behe-klaseko alproja madarikatua.»

«Alaba,» esan zion apaiz txantxotuak, «benetan beltzak dira zure bekatuak, Elizarentzat dira ezin barkatuak, maitasunak baditu bere debekuak.

Baina zure bihotzak legeei entzungor eginez segituko du beti egoskor. Beraz, onena duzu, ez zaitezen eror, bufoia nonbratzea, duke edo nonbait hor.»

Hala nonbratu zuen bufoi hura duke,
zeruaren tabua saihestu nahi luke.
Apaiz-aitasantuak dena jakin dute
eta eskomikua ezarri diote.

Barel Dort.

Bultzada, iz. Arrakasta iristeko bi gauza beharrezkoenetako bat. Bestea tirakada da.

Burmuin, iz. Pentsatzen dugula pentsatzeko baliatzen dugun aparatu bat. Zerbait *izateaz* pozten den gizona zerbait *egin* nahi duen gizonarengandik bereizten duena. Oso aberatsa den gizonak edo goi mailara akuiladaz bultzatutakoak duen burmuin puska halakoa da, non bere bizilagunek ezin dituzten beren kapeluak buru gainean eduki. Gure zibilizazioan, gobernu mota errepublikarraren azpian, burmuina hain da goretsia, non lanbidearen nekeez salbuestearekin saritzen den.

Buru-arinkeria, iz. Joera ekinzalearen asetasun errepikatua.

Burugogor, izond. Egiaren irispidetik kanpokoa, gure eskari indartsu eta bikainek argi uzten duten bezala.

Burugogorkeriaren sinbolo eta agerbiderik zabalduena mandoa da, oso abere argia.

Buru-zerga*, iz. Kapitazio zerga, boto-zerga.

Behin batean bizi zen Errege handi bat
zerga-biltzaileek ezin zutena harentzat
nahikoa urre bildu mendekoengandik,
bizia arintzearen amoreagatik.
Atseginen bidea hain baita zabala,
damen lurren mugante direnak bezala:
beti konpondu behar, hondatu ahala.
Hala, zerga-biltzaile guztiak ilaran
jarririk mintzo ziren zegokien eran;
tronu aurrean hasi ziren Erregeri
bide bat asmatzeko: «Hain baitira handi
Estatuak dituen premia larriak,
non guk bildutakotik hamarretik biak
ez lituzkeen inola ere berdinduko.
Arren, pentsatu nola garen gu biziko,
hamarretik bi hori bestek hartuz gero.»

«Ekonomiak egin ditzakeen mesede handietan pentsatu duzue batere?»

«Bai, jauna,» esan zuen, apal, eledunak,

«salduak baititugu garrote urredunak, zilarrezkoz itotzen ditut zergadunak.

Tenazak, berriz, dira burdina hutsezkoak, zuhurrei poza kentzen abil guztizkoak;

zerriek dena poltsan gorde nahi baitute, Zure Maiestateak kutzak nola bete?»

Hausnarketa ildoek egin zuten sakon

Erregeren kopetan, behar zen itxaron.

«Zuen egoerari larria deritzot,

inork konpontzen badu, eskertuko diot.»

«Gizonen Erregea,» eleduna mintzo,

«behartzen badituzu pagatzera zintzo

zerga bat ezarria buru bakoitzeko,

prest gaude sartzen dena erdibanatzeko.»

Eguzki printzak nola lainoen artetik,

barre murriz eginez hitz egin aurretik,

Erregek esan zuen: «Hala egin bedi.

Eta eskuzabala naizela ageri

geldi dadin, egingo zaitut salbuetsi;

berdin zuek guztiok; beraz, zerga berri

honetaz ahaztu eta zuenean segi.

Baina herri xeheak ez nazan maisea
trikimailu onen bat hobe asmatzea,
zuek zergari iskintxo lasai egin arren,
denok berdin garela uste izan dezaten.
Orain fidatzen naizen ministroarekin
bildu eta lan horri berehala ekin.»
Erregek tronu-gela utzi zuenean,
gizon bat agertu zen guztien aurrean,
isilik, kopetilun eta besobiluz
aizkora distiratsu, zorrotz bat astinduz.

G. J.

C

Cartesiar*, izond. Descartesi buruzkoa. Descartes filosofo ospetsu bat izan zen, *Cogito ergo sum* esaera sonatuaren sortzailea, zeinaren bidez pozik uste zuen giza existentziaren errealitatea frogatu zuela. Esaera hobetu liteke, ordea. Honela: *Cogito cogito ergo cogito sum*. *Pentsatzen dudala pentsatzen dut, beraz banai-zela pentsatzen dut*, beste edozein filosofok orain arte ziurtasunera egin duen hurbilketarik hurbilena.

Cremona*, iz. Connecticuten egindako arrabita garestia.

Cui bono? (latina)*. Zer on egingo ote lidake *niri?*

D

Damu, iz. Zigorraren laguntzaile eta jarraitzaile fidela. Bekatuan jarraitzearekin kontraesanik ez duen zentzatzeko maila batekin agertu ohi da maiz.

Infernuko zuloko penak saihesteko
damuturik Elizan ote haiz sartuko?
Lan alferra! Txerrenek sutatik atera
eta bidaliko hau onen penetara.

Jomater Abemy.

Damudun, izond. Zigorra jasaten edo itxaroten dagoena.

Damu-ez, iz. Bekatuaren eta zigorraren arteko gogo-egoera, denboraren ikuspegitik begiratuta.

Dantzatu, da ad. Musika alaiaren soinuarekin jauzika ibiltzea, eta, zure auzoaren emazteari edo alabari gerritik helduta bada, hobe. Dantzamota asko daude, baina bi sexuek parte hartzen

dutenek bi ezaugarri amankomuneko dituzte: nabarmenki kaltegabeak dira eta biziosoen biziki maite dituzte.

Debozio, iz. Izaki Gorenarenganako erreberentzia, Hark gizakiarekin omen duen antzean oinarritua.

Sermoi-epistolekin ikasten du zerriak azkenean,
bere Jainkoak ere zurdarik baduela muturrean.

Judibras.

Degradazio, iz. Egoera pribatutik promozio politikorako aurrerapen moral eta sozialaren urratsetako bat.

Deinoterio*, iz. Iraungiriko pakidermo bat, Pterodaktiloa boladan zegoenean ugaltu zena. Azken hori Irlandan sortu zen, eta horregatik Terry Dactyl edo Peter O'Dactyl ahoskatzen zen, baldin eta ahoskatzen zuena arriskatzen bazen besteri aditu edo idatzirik ikusi bezala errepikatzen.

Dejenur, iz. Parisera iritsi den amerikarraren gosaria. Ahoskera desberdinak ditu.

Dekalogo, iz. Agindu sail bat, hamar zehazki..., betetzerakoan aukeraketa zentzuzko bat ametzeko tamainakoa. Jarraian Dekalogoaren edizio zuzendua dago, meridiano honetarako kalkulatu.

Etzazu adoratu ni beste Jainkorik:
garesti litzateke gurtzea besterik.

Ez egin ez irudi, ezta idolorik,
etzazula bazkatu ikonoklastarik.

Jainkoaren izena ez hartu ahotan,
ez biraoka hasi edozein modutan.

Jai egun guztietan jai egin ezazu,
eta futbola ikusi, gustatuko zaizu.

Gurasoak maitatu. Horrela aseguru-
-primak ez dira igoko, horixe seguru.

Ez hil, ezta lagundu hiltzaile direnei,
ez sekula ordaindu kontua harakinei.

Hurkoaren atsoa ez aise laztandu,
hark zurea bakean uzten baldin badu.

Ez lapurtu; horrela errekaraz zoaz.
Iruzur egin baina, irriño harroaz.

Lekuko faltsurik ez sekula erabil;
Esazu: «Zurumuru hauxe omen dabil.»

Iruzur edo tranpaz lortua duzuna
da bermetzat jartzeko komeni zaizuna.

G. J.

Delegazio, iz. Estatu Batuetako politikan, multzotan datorren salgai mota bat.

Deliberazio, iz. Norberaren ogia aztertzekeo egintza, gurina zein aldetatik emana duen erabakitzekeo.

Demanda, iz. Txoroek beren lagunak galtzeko hobetsi ohi duten metodoetako bat.

Demandagile, iz. Hezurak ez galtzeko esperantzarekin larrua ematen duen pertsona.

Denborapasa, iz. Etsipena bultzatzen duen tresna. Adimenaren ahuleziarako ariketa arina.

Dentista, iz. Ahoan metala sartu eta patrikatik txanponak ateratzen dizkizun prestidigitadorea.

Desegoki, izond. Norberaren interesek aurrera egiteko kalkulatu ez dena.

Desengainatu, ad. Zure auzoari oparitzat beste oker bat eman, zuzentzat edukitzea komenigarritzat jo duena baino hobea.

Desenkusatu, da ad. Etorkizuneko irain baterako oinarria ezarri.

Desobedientzia, iz. Zerbitzari izatearen alde ona.

Desobeditu, du ad. Agindu baten iraungipena zeremonia egoki batekin ospatu.

Ni gobernatzeko duen agintea
eguna den baino argiagoa da.
Nire eginbeharra, desobeditzea.
Hil nadila, bada, horrela ez bada.

Israel Brown.

Diafragma, iz. Bularraldeko nahasteak hestee-tako nahasteetatik bereizten dituen tabike mus-kularra.

Diagnosi, iz. Mediku batek eriaeren pultsua eta poltsa aztertuz egiten duen gaitzaren aurreikus-pena.

Diana, iz. Soldadu lokartuei beren gudu-zelaie-tako ametsetan jarraitu beharrean jaikiarazi eta beren sudur tristeak kontatu ahal izateko jotzen zaien soinua. Estatu Batuetako armadan «erre-beila» esaten zaio (frantsesezko «réveil»-etik) eta soinua hori ahoskatzeari eskaini diote beren

bizitza beren zorigaitza eta beren desohore sakratua gure herritarrek.

Digestio, iz. Jangarriak ongarri bihurtzea. Prozesua okertzen bada biziagarri bihurtzen dira... eta hortik atera zuen idazle gaizto hark, Jeremiah Blenn doktoreak, andreak direla dispepsia gehien sufritu ohi dutenak.

Diktadore, iz. Despotismoaren kiratsa anarkia-
ren izurria baino nahiago duen nazio bateko burua.

Diplomazia, iz. Norberaren herriaren alde gezurra esatean datzan arte abertzalea.

Diputatu, iz. Politika nazionalen, mundu hone-
tako Beheko Ganberako kidea, eta hurrengoan gora egiteko itxaropen nabarmenik ez duena.

Diru, iz. Onura mota bat, benetan baliagarri ez zaiguna gainera kentzen ez dugun bitartean. Kulturaren jabe izatearen froga eta gizarte ongi hezirako pasaportea. Jabetza jasangarria.

Diru-sarrera*, iz. Errespetagarritasunaren tamaina eta neurri natural eta arrazoizkoa, ohiko estimazio neurri onartuak artifizial, arbitrario eta engainagarriak baitira; izan ere, «Sir Sycophas Chrysolaterrek» bere antzerkian arrazoiz ohartarazi zuenez, «jabetzak (zernahi dela ere: dirua, lurrak, etxeak nahiz salgaiak edo norbaiten jabetza zuzenekotzat hartzen den edozein gauza) duen benetako funtzioa eta erabilera dirua irabaztea da, eta ohore, titulu, abantaila eta egoerena ere bai, eta jende garrantzitsu edo ahaltsuarekiko harremanen edo haien faboreena, beste horrenbeste. Honen ondorioa hau da: gauza guztiak helburu hori lortzeko duten baliagarritasunaren arabera neurtu behar direla; eta haien jabeek beren ondasunen araberako maila dagokiekeela; izan ere, emankorra ez den etxalde baten nagusia, etxalde hori aspaldikoa eta zabala bada ere, edo ordainsaririk gabeko gorentasunak edo errege baten kuttun pobrea ez dira hartzen aberastasunak egunero handitzen ari zaizkionaren gorentasun maila bertsukotzat; eta emankorrak ez diren ondasunen jabeek

nekez eska lezakete eta lortu pobreek eta ezdeusek baino ohore handiagorik.»

Diskriminatu, da ad. Pertsona edo gauza bat, ahal bada, beste bat baino baztergarriagoa egi-ten duten ezaugarriak zehaztu.

Distiratsu, izond. Estatu Batuetako herritar xehe bat bere txabolan duke sentituz, edo Gauzen Ordenan bere garrantzia sendotuz desfile bateko kide balitz bezala.

«Nagusitasunaren Zaldunak hain distiratsu zeuden “beren belus eta urrezko” jantziekin, non beren nagusiek nekez ezagutzen baitzituzten.» — *(Klaseen Kronikak)*

Ditxolari, iz. Indiferentziaz edo gaitzespenez hartzen den poeta.

Ditxolariak itzaltzen ditu ahaztutako txingarrak, hotsak isiltzen dira, ahitzen haren zentzuen indarrak;

Eki nahiz Mendebalderantz ditu orduan ate-zakurrak

azaltzen bere barnean galdan dauzkan sentipen
suharrak;

Eta ilargia han pausatzen da xarmaturik, mendi-iba-
rrak

behean ditu, nahi luke ulertu dioena haren zintzu-
rrak.

Mowbray Myles.

Domina, iz. Metalezko disko txikia, bertute,
dohain edo zerbitzu gutxi edo gehiago jatorrak
saritzeko emana.

Bismarcki, itotzeko zorian zegoen pertsona
bat galaitasunez salbatu zuelako, domina bat
eman omen zioten, eta dominaren esanahiaz
galdetu ziotenean, honela erantzun omen zuen:
«Tarteka biziak salbatzen ditut.» Eta tarteka ez
zuen bat ere salbatzen.

Dortoka, iz. Ambat Delaso argiari honako bertso
hauek egiteko aukera emateko sortutako anima-
lia.

NIRE DORTOKATXOARI

Adiskide, ez zara batere polita
zure pausajea da balantza-irrista.

Ederra ere ez zara, suge buru hori
ikusmiran direnei baitzaie mingarri.

Hanka horiek, berriz, bai negargarriak!
Beharrik, lotarako ezkutagarriak.

Polit ez zara, baina, aitortu behar da,
gogor zara, dena da hor bizkarrezurra.

Sendo zara (indarra Erraldoien pare),
handiek zertarako den ongi dakite.

Hobe hola ez balitz; halere, lastima,
gauza bat falta duzu, barkatu: Arima.

Beraz, zinez zintzoki ariko natzaizu:
nahiago nuke zu ni bazina, ez ni zu.

Agian, baina, noizbait zure Etorkizuna
hobetuko iraungitzen denean gizona.

Goratuko baititu gero datozenak
Arimaren sorkuntza eta garapenak.
Goretsiko zaitut, ba, narrasti handia,
lurra oneratzeko hemen ezarria.

Aukeren Aita, arren, har omenaldia
hiltzear den erreinu batek eskainia.

Irudimenaren lur zabal urrunetan
dortoka bat dut amets tronu guztietan.

Dakust Enperadore bat burua biltzen
bere oskol barnera, beldur Legearen.

Errege bat bilgorraz gain gerri-bueltan
beste zerbait duena, nahiz pozik eraman.

Presidente bat aise makurtzen ez dena
irizkide ez direnak gogor zigortzera,

sekula ez duena (a zer alfer lana!)
dortoka tirokatu bizkarrean barna.

Herritar jende zintzo, ez oso aiherra

manifestazioak bihurtzera gerra.

Aurrerapena mantso, astiro, lasaiki,
Eliz-Estatuentzat ikurra: «Poliki.»

Oi, dortoka, amets hau bai zoriontsua!
Oskoldunen Erreinu zinez aintzatsua.

Hobe zen Edenen hau zuek proposatu
bazenute eta Adan bertatik uxatu.

Dragoi*, iz. Soldadu klase bat, abaila eta pauso arrunta hain neurri berdinean konbinatzen dituen, non aurrerakadak oinez egiten dituen eta atzerakadak zaldi gainean.

Druidak, iz. pl. Antzinako zelten erlijioa apaiz eta artzainak, giza sakrifizioen erakarpin indar apala erabiltzeari muzin egiten ez ziotenak. Druiden eta haien fedeari ez dakigu ezer asko. Pliniok dio haien erlijioa, Britainian sortua, ekialderantz Persiaraino hedatu zela. Zesarrek dio erlijio horren misterioak ikasi nahi zituztenak Britainiarra joaten zirela. Zesar bera ere joan zen Britai-

niara, baina ez du ematen Druiden Elizan inolako harrera berezirik egin ziotenik, nahiz eta giza sakrifizioetarako zituen dohainak ez ziren nolana-hikoak.

Druidek beren errito erlijiosoak basoetan egiten zituzten, eta ez zuten ez eliza-hipoteken, ez denboraldiko banku-alokairuaren sistemaren berri. Labur esateko, paganoak ziren eta —Inglaterra-ko Elizako prelatu nabarmen batek bihotz onez behin katalogatu zituen bezala— Disidentek.

Duelo, iz. Bi etsaien adiskidetzearen aurretik egiten den zeremonia formala. Behar bezala egiteko trebetasun handia behar da; izan ere, gaizki egiteak, batzuetan, ondoriorik ustekabeko eta lazgarrienak ekartzen ditu. Aspaldi gizon batek bere bizia galdu zuen duelo batean.

Dueloa jaun dotoreen bizio mota dela diot nik, eta gustuko izango nukeela leku hautatu batean bizi ahal izatea, non edertzat hartuko den etsaia itotzea arraina bailitzan edo xehetzea bestela

senarra, patata ziztrin txar bat balitz bezala,
zordunak kiribilduta zerraldo botatzea
eta zulorako pronto izotzetan jartzea.
Badira lotsagabeak hezi nahi nituzkeenak
tiroz nahiz aitzoz sastatuz, nazkante alaenak!
Ea hola ikasten duten gizalege hobea!
Oraintxe bertan hor dira... jendetza dotorea.
Badirudi datozela niri desafioka
musika-banda bat lagun pozik eta saltoka.

Xamba Q. Dar.

E

Ebakin liburu*, iz. Normalean kaikuek prestatzen duten liburua. Maila ez oso altuko pertsona askok beren buruaz irakurri dutena biltzen duten liburuak osatzen dituzte edo besteri eginarazten diote bilketa-lana. Egotista horietako bati Agamemnon Melanchton Petersek lerro hauek bidali zizkion:

Frank maitea, ebakin liburu horretan gordetzen ohi dituzu zerorri benetan gertatu zaizkizunak edozein aldetan.

Hor itsasten dituzu zure izenari egindako barreak, denak zutaz ari, nonbait on degiote zure ospeari.

Txukun jartzen dituzu irudi guztiak zutaz egindakoak komikilariak, zure judu aurpegi, gorputz bihurriak.

Utzi, mesedez. Ez naiz argi, ez abila,

baina hor sartuko dut, Jaunak ukabila
izan balu emango zizun kolpe pila.

Ebanjelari, iz. Albiste onak eramaten dituenak, bereziki (zentzu erlijiosoan) gure salbazioa eta gure auzoen kondenazioa ziurtatzea, esate baterako.

Edangarri, izond. Edateko baliagarria. Ura edangarria dela esan ohi da; izan ere, batzuek gure edari naturala dela esaten dute, nahiz eta beraiek ere, irensgarria izateko, beharrezkoa duten egarri deritzan gaixotasun berrekorrak joak izatea, horixe baita gaitz horrentzako erremedioa. Hala ere, garai guztietan eta lurralde guztietan, zibilizatu gabeetan salbu, ez da horrenbesteko asmaketa lan handi eta maratzik egin, nola egin den uraren ordezkoko edariak bilatzen. Urari egiten zaion muzin orokor hau arrazaren kontserbazio senean ez dagoela defendatzea zientziari aurka egitea da... eta zientziarik gabe, suge eta apoen parekoak gara.

Edertasun, iz. Emakumeak maitalea liluratzeko eta senarra izutzeko duen indarra.

Eder-uste*, iz. Bere merituen uste handia duena, besteren balioaren iritzi kaxkarrarekin osatua.

Bazen gizon bat oso aspaldi
Ispahanen bizi zena,
frenologoek haren burua
mirakulutzat zutena.

Baina apaltasunaren konkorra
hain baitzuen hark handia
gailurra oihan gainetik zeukan
(Naturaren jukutria).

Ez zen besterik horren apalik
ezagutzen Ispahanen,
ez hain xalorik, hain menekorik,
ez orduan eta ez lehen.
Konkor eskerga haziz zihoan,
jo lezake zero urruna;
gizajoari deitzen zioten

gizon minareteduna.

Ez zen besterik Ispahan hartan

bere buruaz hain harro,

bere konkorra oihuz goratzen

ibiltzen zen egunero.

Shahk azkenean bidali zion

mutil batekin soka bat

eta mutilak irriño batez:

«Opari bat da, zuretzat.»

Ispahandarrak, soka eskuan,

goibel negarrez zioen:

«Apaltasunez bizi izan banintz,

betiko ospea nukeen.»

Sukker Uffro.

Editore*, iz. Minosen, Radamanthoren eta Eakoren eginkizun judizialak konbinatzen dituen pertsona, baina goxoki batekin baretzen dena; zentsore biziki bertutetsua, baina hain bihotz onekoa oro har, non besteren bertuteak eta bere bizioak onartzen dituen; ohartarazpenaren tximista txikitzaileaz eta trumoi zalapartatsuez bazterrak zipriztintzen ditu, buztanean loturik dituen eta zalapartaka lehertzen zaizkion suzi-

riak daramatzan zakurraren gisako bihurtuz; gero, zuzenean murmuriatzen du doinu goxo, melodiatsu bat, astoak gaueko izarrari bere otoitza intonatzen dionean egiten duenaren antzekoa. Misterioen maisu eta legearen nagusi, pentsamenduaren tronuaren gailurretara goratua, Antzaldatzearen distira hitsak aurpegia harturik, zangoak elkargurutzaturik eta mihia alborantz okertuz, editoreak bere nahia paperean listukatzen du eta erabiltzeko moduko neurrietan zirtzilatzen. Eta tenpluko errezelaren atzetik tarteka arduradunaren ahotsa aditzen da sei ontza zentzu eta hausnarketa erlijiosoko hiru lerro eskatuz edo jakituria alde batera uzteko eta sentimental-keriari bide emateko aginduz.

Oi pentsamenduaren Tronuko Legearen Jainko,
iruzurgile urreztatua!

Janzkiak dauzka urraturik: adabaki nahiz petatxo.

Koroa dauka letoizko,
asto galanta delako,
boterea du ustezko.

Hitzontzi, putzontzi, baldarrontzio,
Pentsamenduaren Errege lerdo.

Iritzi publikoaren miresle
trumoitsu, moldakaitz, zaratazale,
afektatu,

itsusi,

susmo-putzu,

gezurti,

errespetatua halere.

J. H. Bumblehook.

Egia, iz. Nahi litzatekeenaren eta itxuraren arteko konponketa injenioitsua. Egia aurkitzea du xede bakarra Filosofiak, zeina baita giza adimenaren antzinako zereginik zaharrena eta munduaren amaiera arte gero eta dedikazio handiagoz etorkizunean ere hala izateko proportzio handia duena.

Egiazale, izond. Mutu eta ezjakina.

Eginbehar, iz. Nahiaeren lerrotik goazela, probe-txurantz seriooki bultzatzen gaituen zera hori.

Sir Lavender Portwain herra gaiztoak hartu zuen

Erregek haren andrea musukatu baitzuen;
laido horren ordaina zen Erregeren burua;
beharrak markatu zion bidexka segurua:
Ordainetan dirua.

G. J.

Egoiliar, iz. Alde egiteko gai ez dena.

Egoista, izond. Besteren egoismoari begirunerik ez diona.

Egoskor, izond. Zu ados ez zauden iritzi bati burugogor eta hertsiki atxikitzen zaiona.

Egoskortsekeria*, iz. Kortsearen azpian maiz aurkitzen den minerala. Urre soluzioetan disolbagarria.

Egotista*, iz. Gustu txarreko pertsona, arreta handiagoa jartzen diona bere buruari niri baino.

Megaceph Estatuaren mirabe hautaturik,
legegintzako areto zabalera hurbildurik,
behin batez kredentzialak erakutsi zituen,

eta, garbi gera zedin, izena eman zuen.
Atezainak egotista sonatua ikusiz,
esan zion ezpaineekin eginez barre murriz:
«Alde hemendik, aretoan arazo bihurriak
konpontzen baitira, eta hor adimen-urriak
uste baitu mahaiburuak galdetzen duenean
iritzia aztertutako arazoen gainean,
bai ala ez bozkatzeko eskatzen dionean,
aski dela NI jartzea botoen paperean».

Egun, iz. Hogeita lau orduko denbora-tartea, gehienetan alferrik galdua. Tarte hau bi zatitan banatzen da, eguna bera eta nolabaiteko eguna edo gaua... lehenbizikoa negozioetako bekatuetarako eta bigarrena gainerakoetarako. Jarduera sozialeko bi mota horiek elkargaintzen dira.

Egunkari*, iz. Norberaren bizitzaren eguneroko oharra, norbera lotsatu gabe bere buruari kon-tatzera ausartzen dena jasotzen dutenak.

Hearstek egunkari bat ba omen zeraman
bere ideiak oro eskribitzeko han.

Aingeru Idazkariak, hura hil zenean,

bere sarrerak kendu eta hau zuen esan:

«Zure egunkaria, zerorren epaile.»

Hearstek: «Santu Lehena naizen erakusle,

bera duzu onena.» Eta frogabide

hil-jantziko patrikan liburua duke.

Aingeruak orriak pasatuz irriño

eta tristura franko du azkeneraino.

Han dena da sentipen hutsal eta laino,

umore pattal gehio beste ezer baino.

Liburua hartuta itzuliz atzera

esan dio: «Bidetik majo okertu zara.

Hilobitikan hona ezin zu sosega,

Zerua da ideia handientzat txarra;

Infernua txantxetan ibiltzeko ez da.»

Eta ostikoz zuen bota handik behera.

Filosofo eroa.

Egunsenti, iz. Gizon zentzuduna oheratzen den garaia. Zahar batzuek nahiago dute garaitsu horretan jaiki, bainu hotz bat hartu, eta baraurik ibilaldi luze bat egin, haragia hilduratzeko. Gero harro adierazten dute praktika horiek direla beren osasun sendo eta urte jorien kausa; eta bitartean egia beste hau da: gogotsu eta zaha-

rrak direla, ez beren ohiturengatik, baizik ohitura horiek izan arren. Horrelakoetan sasoikoak baizik ez ikustearen arrazoia, berriz, hau da: saiatu diren gainerakoak hilak direla.

Eguraldi*, iz. Ordu jakin bateko klima. Interesatu ez arren, tar-tarrean aritzeko ohitura beren arbaso zuhaiztarrengandik jaso duten pertsonen arteko solasgaia, haiei benetan interesatzen zitzaiena. Eguraldiaren bulego ofizialak ezarri eta gezurrean iraunarazteak frogatzen du guber-nuek berek ere junglako arbaso basatien eragina jasan dezaketela.

Etorkizuna aztertu nuen giza begiak ahal aina
Eguraldien Igerlaria hilik han zen, alajaina!

Hadesen hilik, kondnaturik gezurti amorratutzat
txorakerien marka guztiak irabazita beretzat.

Beha nengoen gazte sutua zenbateraino beldur zen
egia baino nahiago izan zituen ikatz gorien.

Irakurriko dut erabiliz itzaliko ez den garra
amiantozko xaflan hark eman zidan igarpen zuhu-

rra:

«Laino ugari, haize eroa; euria, hotza, elurra.»

Ekonomia, iz. Erosi ezin duzun behiaren prezioan behar ez duzun whiskey kupela erostea.

Eleberri, iz. Istorio labur betelanez puztua. Idazketa mota bat, zeinak literaturarekin duen zerikusia ikuspegiak artearekin duenaren parekoa den. Saio batean irakurtzeko luzeegia denez, haren atalek eragindako zirrara berehala ezabatzen da, ikuspegiaren kasuan bezala. Batasuna, eraginaren osotasuna, ezinezkoak dira; zeren, azkena irakurritako orriak izan ezik, gogoan geratzen dena gertatuakoaren bilbea baizik ez baita izaten. Eleberri soilak eleberri fantastikoarekin duen parekotasuna fotografiak pinturarekin duenaren antzekoa da. Haren bereizgarria, gertagarritasuna, fotografiaren unekotasun hutsarekin lotzen da, eta berri-ematearen kategorian sartzen du argiro; eleberri fantastikoak idazten dituenaren hegala libreak, berriz, irispidean izan ditzakeen irudimenaren maila gorenetaraino heltzeko aukera ematen diote; eta literatur artearen hiru osagai funtsezkoak honako

hauek dira: irudimena, irudimena eta irudimena. Eleberriak idazteko artea, garai batekoa, aspaldi hila da, Errusian salbu, han berria baita. Bakean izan bezate atsedean haren errautsek... haietako batzuek salmenta onak baitituzte.

Eleberri fantastiko*, iz. Gauzak Diren Bezala deritzan Jainkoari begirunerik ez dion eleberria. Eleberri soilean idazlearen pentsaera gertagarritasunari loturik dago, etxeko zaldia gurdiari bezala, baina eleberri fantastikoan irudimenaren lurralde osoan ibiltzen da bere gogara: libre, basa, ahoko eta bridari soraio. Zure elaberrigilea gizagaixo bat da, Carlylek esango lukeen bezala... berriemaile hutsa. Bere pertsonaiak eta haria sortzen ahal ditu, baina ezin du gerta ez litekeen ezer gerta litekeenik imajinatu, nahiz eta bere narrazio osoa gezur xalo bat izan. Bere buruari muga zorrotz hori zergatik ezartzen dion eta bere asmamenaren «kate luzea urrats bakoitzean herrestan zergatik eramaten duen» argitzeko, hamar liburuki gotor idatz ditzake, horregatik kandelaren garrak baino gutxiago argituz gaiari buruz duen ezjakintasunaren putzu beltza.

Eleberri handiak ere badira, idazle handiek «beren dohainak ahitu baitituzte» horrelakoak idazten, baina horrek ez du gezurtatzen, orain arte behintzat, ezagutzen dugun libururik liluragarriena *Mila eta bat gauak* dela.

Elektrizitate*, iz. Zerk sortzen dituen ez daki-gun fenomeno natural guztiak sortzen dituen indarra. Tximista gauza bera da, eta tximistak Franklin doktoreari egindako eraso ospetsua da gizon handi eta on haren karrerako gertaerarik xelebreenetako bat. Haren memoriari begirune handia gordetzen zaio, merezi duen bezala, bereziki Frantzian, non berriki haren argizarizko irudi bat jarri duten ikusgai, haren bizitzaren eta zientziari egindako zerbitzuen kontu-emate hunkigarri hau duela:

«Monsieur Franquin, elektrizitatearen asmatzailea. Jakintsu ospetsu hau, munduan zehar zenbait bidaia egin ondoren, Sandwich irletan hil, eta hango basatiek jan zuten. Ez zen zati bakar bat ere sekula azaldu.»

Dirudienez, elektrizitatea lanbideetan eta industriari oso baliagarria izateko sortua da. Zerbait zereginetan izan dezakeen erabilera ekonomikoaren arazoa garbitu gabe dago oraindik, baina esperimenduek frogatu dute gas txorrotan baino hobea dela tranbia bultzatzeko eta zaldiak baino argi gehiago ematen duela.

Eliseo, iz. Irudimenezko lurralde liluragarria, antzinakoen uste txoroaren arabera zintzoen arimen bizilekua zena. Ipuin burugabe eta gaizto hori lehen kristauek desagertarazi zuten lurraren gainetik... haien arimak dohatsuak izan bitez Zeruan!

Elizgizon, iz. Gure arimari dagozkion negozioak kudeatzeko lanbidea hartzen duen gizona, bere gorputzari dagozkionak hobetzeko asmotan.

Elkarrezin*, izond. Beste zerbait existitzen bada izan ez daitekeena. Bi gauza elkarrezinak dira baldin eta behar duten lekua batentzat aski bada baina ez bientzat: esate baterako, Walt Whitmanen poesia eta Jainkoaren gizonarekiko

errukia. Elkarrezintasuna, ikusiko denez, bate-
raezintasun laxoa baizik ez da. Honelako hizkera
doilorraren orde: «Erne ibili, berriz ikusten
bahaut hilko haut»; beste hitz hauek: «Jauna,
elkarrezinak gara» esatea indar berdintsuko
desafioa da, baina gizalegearen aldetik beste
maila batekoa.

Elkarte, iz. Bakoitzarentzat baina bakoitzaren
erantzukizunik gabe etekinak lortzeko tresna
ongi asmatua.

Elokuentzia, iz. Zuria dirudiena zuria dela hitza-
ren bidez txoroari buruan sartzea. Horren bar-
nean sartzen da edozein koloreri zuriaren itxura
emateko dohaina.

Emakume*, iz. Gizonaren inguruan bizi ohi den
animalia, eta etxabere bihurtzeko gaitasun oina-
rri-oinarrizkoa baizik ez duena. Antzinako zoolo-
go askok lehenagoko bakartasun egoeran bere-
ganatutako otzantasun hondarren batzuk aitort-
zen dizkiote, baina «susananthony» aroaz
geroztikako naturalistek, ez baitute bakartasun

egoeraren berri, bertute hori ukatzen diote eta deklaratu dute denboraren hasieran zen bezalako basa dela gaur ere. Espeziea piztia harraparietan zabalduena da, munduko zoko guztiak gainezkatzen baititu, Groenlandiako mendi lizuretatik Indiako hondartza eratsuetara. Lagunarteko izena, atso, ez da egokia, emakumeak ez baitu zerikusirik otsoarekin, katuekin baizik. Emakumea lirain eta airosa da mugitzen, bereziki Estatu Batuetako barrietatean (*felis pugnans*); orojalea da, eta isilik egoten erakusten ahal zaio. — *Balthasar Pober*.

Emantzipazio, iz. Zerbitzari batek besteren tiraniatik bere buruaren despotismora egiten duen aldaketa.

Esklaboa zen, esanak egiten zituena,
zintzur-burdina lepoan zitzaion itogarri.
Askatasunak urratu jabearen izena,
koxkak estutuz berea azkar zion ezarri.

G. J.

Emaztezalekeria*, iz. Norberaren emaztearengana desbideratu den atxikimendu makurra.

Eme*, izond. Sexu aurkari edo desleialekoa.

Egileak mundu hau sortu zuenean,
bizidunak ezarri zituen lurrean;
karakol, elefante, suge eta saguzar
ederki bizi ziren, guztiak ziren ar.
Deabruak, ordea, hori ikustean,
esan zion Jaunari: «Hik egin legean
jaio, hazi, zahartu eta hil beharrean
izango dituk laster: eta halaxe behar.
Ez baduk ugalbide bat asmatzen azkar,
lurra hutsik izango duk mendeetan zehar.»
Gero burua sartuz hegala pean
—ez baitzuen mahukarik—, barrez isilean,
pozez lehertzen zebilen iradokizunaz:
kezkarik ez batere hark etorkizunaz.
Jaunak aholku hura aztertu ondoren,
hemengo gertaerak arautzen dituzten
dadoak hartu eta rau! bota zituen,
eta han gelditu zen emaitza ikusten.
Patuak agindua behar zen onartu,

burumakur zebilen; nonbait, ez gustatu.
Lurreko txoko eta bazter guztietan
berriro hauts zuhurra bildua zen bertan.
Ibaiek, berriz, sortu zuten uholdea,
prestatu behar baitzen behar zen moldea.
Behar adina bildu (baina ez gehiago,
Natura zuhur baita, beretzat nahiago)
eta hala sortu zuen, oratuz, buztina;
Deabruak lapurtu parte bat, zikina.
Jaunak egin zituen forma desberdinak,
organo zakarrak lehen eta gero finak.
Hasieran ez ziren asko bilakatu,
baina handik ukitu, hemendik oratu,
azkenean pixkana bazuten tankera
lehengo izakiena. Ez zen gauza bera:
berri haiek Emeak ziren oso-osorik,
gauza bat falta baina: ez zuten bihotzik.
«Lasai!» Satanek oihu, «ez da kuidadorik,
behar duten bihotza jarriko diet nik»
Handik aldegin zuen tximistak bezala,
zakukada hartuta han zen bueltan berehala.
Gau hartan infernuan, hura zoramena,
milioi bat arrek zuten emaztetxo bana.
Infernuan gau hartan txikizio latza:

Endekatu, izond. Norberaren arbasoak baino isilago miresteko modukoa. Homeroren garaiki-deak endekatze etsenplu harrigarriak ziren: hamar behar ziren harkaitz bat jaso edo istilu bati hasiera emateko: Troiako heroietako edozeinek berak bakarrik egin zezaken gauza. Homerok etengabe mesprezitzen zituen «egun endekatu hauetan bizi diren gizonak», eta agian horregatik jasan zioten eskean ibiltzea... txarrariona bihurtzearen adibide nabarmena dena porzierto, zeren debekatu baliote, gosez hilko baitzen dudarik gabe.

Enkante-maisu, iz. Besteren patrikatik mingainaz ostu duela mailukadaka aldarrikatzen duen gizona.

Entretenimendu, iz. Dibertitzeko edozein modu, lurjotze bidezko heriotzaren ertzean izarrak airoso itzaltzen zaizkiona.

Epigrama, iz. Hitz lauzko nahiz neurtuzko ateraldi zorrotza, maiz garratasun edo mikaztasuna eta batzuetan jakinduria ezaugarritzat izaten dituena.

Honako hauek dira Jamrach Holobom gizon jakintsu eta zorrotzaren epigrama gogoangarrietako batzuk:

Geure premiak besterenak baino hobeki ezagutzen ditugu. Nork bere buruari zerbitzatzea administrazio-ekonomia da.

Giza bihotz bakoitzaren barruan tigrea, zerria, astoa eta urretxindorra daude. Izaera-desberdintasuna haien indar desberdinaren ondorioa da.

Hiru sexu daude: arrak, emeak eta neskak.

Edertasuna emakumeengan eta dotoretasuna gizonengan berdinak dira honetan: gehiegi pentsatzen ez dutenei biek nolabaiteko balioa dutela iruditzen zaie.

Emakume maiteminduak gizon maiteminduak baino gutxiago lotsatzen dira. Zertan lotsatu gutxiago dute.

Zure lagunak bi eskuetatik amultsuki heltzen dizun bitartean, zaude lasai, biak zure begiradapean baitituzu.

Epikurozale*, iz. Epikuroren aurkakoa; filosofo abstemio hark, gizonaren helburu nagusia atsegina bilatzea behar duela pentsatzen zuenez, ez baitzuen denbora alferrik galtzen zentzumenei atsegini ematen.

Erabaki, da ad. Eragin sail baten aldean den beste sail baten nagusitasunari amore eman.

Hosto bat erauzi baitzuen haizeak
«Lurrera nahi nuke,» zioen tristeak.

Mendebalak jo du bide-erdian dela:
«Alde ekialdera! Beirozu bestela!»

Ekialdekoak indar handiagoz:
«Segi hemendik, zu! Hona zertan zatoz?»

Indarrez paretsu, borrokan dabilta;
orbelak: «Jango dut emandako hitza.»

Haizea baretu zuenean, berriz,
orbelak zioen lurrera eroriz:

«Bururatutako lehenbiziko gauza
onena bera den hobe ongi pentsa.»

Edozein aukera egiten duzula,
zure esku ez dago ezertxo sekula.

G. J.

Erabilera, iz. Hirutasun Literarioko Lehen Persona; Bigarrena eta Hirugarrena Ohitura eta Konbentzioa baitira. Hirutasun Santuarekiko begirune adeitsua barneratuz gero, idazle langile batek egin ditzake modak irauten duen bitarteko bizitza izango duten liburuak.

Eragin, iz. Politikan, *quid* benetako baten truke ematen den akasozko *quo* bat.

Erakusle (hatz), iz. Bi gaizkile seinalatzeko erabili ohi den hatza.

Eramangarri, izond. Edukitze gorabeherak direla-eta, jabetza aldaketaren arriskuan dagoena.

Jabetza arina denez (ez du berak egin),

edota zaintzaileak badu alde egin,
eramangarria da, betor ba nirekin.

Worgum Slupsky.

Erantzukizun, iz. Zuhurtziaren ama.

«Gogoan izan nire erantzukizuna»
Bisir Handiak zuen esan. «Bai, bai, aizu,»
Shak hari arrapostu, «zure gaitasuna
ez da hori besterik, hori soilik duzu.»

Joram Tate.

Erantzun*, da ad. Arrapostu eman edo beste modu batera erakutsi Herbert Spencerrek «kanpoko koexistentziak» deitzen dituenek interesa piztu izanaren kontzientzia, adibidez Satanez, «apoa bezala lurrari itsatsirik» zegoela Ebaren belarri atzetik aingeruak eman zion ziztadari erantzun zion bezala. Egindako kalteei erantzutea demandagilearen abokatua mantentzen laguntzea da, eta, bide batez, demandagileari satisfakzioa ematen.

Erantzunbehar*, iz. Zama libragarria, Jainkoaren, patuaren, Halabeharraren edo Zoriaren bizkarrera aise bota daitekeena. Astrologiaren egunetan izarren gainera bota ohi zen.

Ebak bakean utzi balu sagar hura
mundu honek ez luke gaur duen itxura.

Eta burua bere lekuan eduki

behar luketen askok edo iharduki

etsaiekin famaren gudu zelaietan

nolabaiteko jolas zoragarrietan,

lur jota ikustean beren zorte txarra:

«Horratx!,» diote oihuz. «Alderdi ederra!»

Alfer amorratua.

Erbesteratu, iz. Bere herriari kanpoan biziz zerbitzatzen diona, enbaxadorea izan gabe, ordea.

Itsasontziko kapitain ingeles bati *Eringo erbesteratua* irakurria zuen galdetu ziotenean, honela erantzun zuen: «Ez, jauna, baina gustatuko litzaidake hantxe aingura botatzea». Handik urte batzuetara, pirata bezala parerik gabeko basakeria sail luze bat egin ondoren urkatu zute-

nean, ontziko bitakora-kaieran sarrera hau aurkitu zuten, bere erantzunaren garaian jaso:

Abuztuak 3, 1842. Eringo herpesteaz txiste bat egin dut. Ez didate ulertu. Gerra mundu guztiari!

Erdi, iz. Gauza bat erdibitu daitekeen edo erdibituzat eman daitekeen bi zatietako bakoitza. Hamalagarren mendean teologo eta filosofoen artean eztabaida sutsua piztu zen ea Orojakintasunak gauza bat hiru erditan erdibi zezakeen; eta Aita Aldrovinus zintzoak Rouengo Katedralean jendaurrean otoitz egin zuen, proposamenaren baieztapena Jainkoak modu ageriko eta garbiaz frogatzeko erregutuz eta, hain zuzen ere, (gogoko bazuen Hark) Manutius Procinus biraozale porrokatuaren gorputzean frogatzeko, gogor egiten baitzuen ezezkoaren alde. Procinus, ordea, sugedorri baten hozkadaz hiltzeko erreserbatua zegoen.

Erdipurdiko*, izond. Arkitektura estilo batekoa; Amerikar Ertaina ere deitzen zaio. Estatu Batuetako eraikin publiko gehienak Erdipurdiko estilo-

koak dira, nahiz eta aspaldiko gure arkitekto batzuek Ironikoa nahiago zuten. Washingtingo Etxe Zuriari egindako eranskin berriak Theodorikoak dira, Dorikoaren Ordena eliztarrekoak, alegia. Izugarri finak dira eta ehun dolar kostatzen dira adreiluko.

Eremita, iz. Erokeria eta bizioak gizarterako gisakoak ez dituen pertsona.

Eresi*, iz. Bertsozko konposizio bat, zeinean, umorezko metodoetako bakar bat erabili gabe, idazlea saiatzen den irakurlearen gogoan lurjotzearen mailarik behekoena sortzen. Adibide ospetsuenetako bat honelako zerbait esanez hasten da:

Horak somatzen du ilunabarra,
artalde nagiak utzi du landa.
Badoa etxerantz artzain zaharra,
ni bakarrik nago, gaua bertan da.

Ergel*, iz. Letretan eta bizitzan erregetza duen dinastiako kidea. Ergelak Adanekin sartu ziren

erregetzan, eta bizitzeko moduko lurraldeak gainezka jarri dituzte, ugari eta sendoak izaki. Haien ahalmenaren sekretua ostien aurkako soraiotasuna da; borraz kilimak eginiezazkiezu, eta pellokeria batekin barre egingo dute. Ergelek Beozian dute sorterrria. Handik gosetearen bultzatza-inderak aterarazi zituen, beren ergelkeriak uztak desegin baitzituen. Zenbait mendez Filistian lapazorriak baino ugariago egin ziren, eta horregatik haietatik askori filistearrak esan zaie gaur egun. Gurutzadetako garai nahasietan handik erretiratu ziren, eta pixkana Europa osoan barreiatu, eta politika, arte, literatura, zientzia eta teologiako postu goi gehienak bereganatu zituzten. Ergelen atal bereizi bat Erromesekin *Mayflower*-en etorri zen hona, eta herrialde honen aldeko berriak eman zituztenez, jaiotza, inmigrazio eta konbertsioei esker, azkar eta etengabe ugaltu dira. Estatistikarik fidagarrien arabera, Estatu Batuetan Ergel helduen kopurua ia-ia hogeita hamar milioiraino iristen da, estatistikariak barne. Arrazaren erdigune intelektuala Peoria inguruan da, Illinois estatuan,

baina New Englandeko Ergela da nabarmenki zintzoena.

Erkidego, iz. Administrazio erakunde bat, bizkarroi politiko sail batek kudeatua, logikoa denez lantsua baina kasualitate hutsez eraginkorra.

Erkidegoaren Lege-biltzarreko gelarteak ikusten ditut alferrez, diru-gosetiz beteak. Hor dabilta bulegari, uxer eta adjuntuak, alprojen lanpostuetan, jende xeheak pagatuak. Katuek ere tentuan hobe dute ibiltzea, edozeinek hankapean gutxi fida harrapatzea. Zorigaitzak jo ditzala, etsai zaharrak eraman bulegari, garraiari, paperak... denak airean! Bizitzaren kolpe latzak har ditzatela sailean, kukusoak eurrez bizi bitez haien gorputzean. Haien hezurak jo bitza gaitzak eta oinazeak, mikrobio zein baziloz bete haien giharreak. Hetikak sakoneraino har bitza haien birikak, harrez gainezka egingo ahal du haien puxikak; teniak bete ditzala guztien heste-zuloak, haien ilean nahas bitez zorri, bartz, arkakusoak, maiz probatu ditzatela paldotzearen gozoak.

Noiznahi esna zaitzatela zuen sofaren oihuak,
haren ahots sepulkralak eta zoruen marruak.
Lastairak ostikoz altxa zaitzatela hebainduak,
diru-gosearen seme bekatuan ustelduak.
Kriminalok, aizintzate jo herio-aingeruak,
izan dezan mendekua nire lagun baztertuak.

K. Q.

Erlijio*, iz. Itxaropenaren eta Beldurraren alaba,
Ezjakintasunari erakusten diona Jakinezina zer
den.

«Zein da zure erlijioa, seme?» galdetu zuen Rheimseko
artzapezpikuak.

«Barka, monsinore,» erantzun zuen Rochebriantek;
«horretaz lotsa naiz».

«Orduan, zergatik ez zara ateo egiten?»

«Ezin dut; lotsatuko nintzateke ateismoaz.»

«Hala bada, jauna, Protestante egin beharko zenuke.»

Erlikiontzi*, iz. Honelako gauza sakratuentzako
ontzia: benetako gurutzearen zatiak, santuen
saiheskiak, Balaanen astoaren belarriak, Pedrori
damu zedin kantatu zion oilarraren birika, etab.

Erlikiontziaak metalezkoak izan ohi dira, eta sarrailaz hornituak, barneko gauzak atera eta garaiz kanpo mirariak egiten has ez daitezzen. Anuntziazioko Aingeruaren hegaleko luma batek behin San Pedroren Basilikatik alde egin zuen sermoi batean, eta han bildutakoen sudurrak hainbeste kilimatu zituen, non esnatu eta bortizki doministiku egin baitzuten hiru aldiz. *Gesta Sanctorum* delakoan kontatzen da sakristau batek Canterburyko Katedralean San Denisen burua hauteman zuela liburutegian. Haren zaintzaile zorrotzak errita eman zionean, dotrina-gorputz baten bila zebilela argitu zion. Horrelako burugabekeria itxuragabeak hainbeste amorrarazi zuen apezpikua, non hutsegilea jendaurrean anatematizatu baitzuten, Stour ibaira bota, eta burua Erromatik ekarritako San Dennisen beste buru batez ordezkatu zuten.

Erloju, iz. Gizonarentzat balio moral handiko tresna, etorkizunari buruzko kezka arintzen diona, denbora pila geratzen zaiola gogorarazten baitio.

Bazen behin gizon lantsu bat kexuka zebilena:
«Ez dut astirik batere!» «Zer diozu, gizona?»
erantzun zion lagunak, alfer galanta baitzen;
«Hori da sekula faltan izaten ez duguna.
Denbora? Lasai, gizona, hori baita, hain zuzen,
ordu bat bera gaberik ez gaituena uzten.»

Purzil Crofe.

Ero, izond. Adimeneko burujabetasun handiaren gaitzak joa; pentsaera, mintzamolde eta jokabide ohikoekin bat ez datorrena; beren jokabideak aztertu ondoren, molde horiek ezarri dituztenek ohikotzat finkatu dituztenekin bat ez datorrena, alegia; gehiengoarekin bat ez datorrena; labur esateko, ez-ohikoa. Aipatzekoa da pertsonak ero deklaritzen dituzten funtzionarioek ez dutela inola ere frogatua sano daudenik. Adibidez, lexikografo (sonatu) honexek ez du bere sanotasunean uste sendoagorik lurraldeko edozein ero-etxeko apopilok baino; eta kontrakoaz ziur izanik ere, bere indar guztiak eskaini dizkion obra handiak erabat hartua izan beharrean, gerta liteke eskuez ero-etxeren bateko leihoko barroreak astintzen aritzea Noah Webster dela aldarrika-

tzen duen bitartean, ikusle tolototu sail baten libertimendu inozente bihurturik.

Eroapen, iz. Etsipenaren modu xumea, bertutez mozorrotua.

Erokeria*, iz. Bere indar sortzaile eta antolatzaileaz gizonaren gogoia inspiratu, haren egintzak gidatu eta bizitza edertzen dion «dohain eta ahalmen jainkozko» hura.

Erokeria! Erasmok zu goraiatu arren
liburu lodi batean eta autore sonatu
askok zure ahalmena nahiz eta laudatu,
omenaldia torizu zure seme umil honen

partetik, hor bainabil ni, ari bainaiz saiatzen
egin ahalaz, nahiz dardorik xurian ezin sartu,
nire senide eta antzeko zoro, lerdo, tontotu
guztiak zentzatu eta neuk bizirik irauten.

Erokeria Ahalguztidun! Niri dagokit ozen
bular-betez zutiturik zu kantatzea gartsu
Mendebalde kostaldean, hor bildu baitzaizkizu

jarraitzaileak, mordoka, denak zuri kantatzen.
Halaz guztiz, ahul samarra banaiz egiteko oihu
Dick Watson Gilder eroak egingo dit, bai, koru.

Aramis Loto Frope.

Erori*, ad. Bat-batean iritziz aldatu eta beste alderdi batera hurbildu. Ezagutzen den erorikorik nabarmenena Tarsoko Pablo harena izan zen, txaketero gisa gogorki maiseatu izan dutena gure egunkari alderdikoi zenbaitek.

Erosotasun, iz. Auzoaren deserosotasuna ikus-teak sortzen duen gogo-egoera.

Erradikalismo, iz. Biharko kontserbadurismoa gaurko arazoetan nahasia.

Erradomantikari*, iz. Asmaketa-makilatxoak erabiltzen duena metal baliotsuak ergelen patriketan bilatzeko.

Erraiak, iz. pl. Urdaila, bihotza, arima eta beste barrenki batzuk. Ikertzaile ospetsu askok ez dute

arima erraien artean sailkatzen, baina Günsa-
lus doktorea, begi erneko autoritate sonatua,
konbentzitura dago barea deritzan organo miste-
riotsua dela, hain zuzen ere, gure parte garran-
tzitsu hori. Aitzitik, Garret P. Servis irakasleak dio
gizakiaren arima bere isats-ezaren zurtena osa-
tzen duen bizkarrezurreko muinaren luzapena
besterik ez dela; eta bere ustearen frogabide
gisa aurkezten du, konfiantzaz, gertaera hau:
isatsa duten animaliek ez dutela arimarik. Bi teo-
ria hauei dagokienez, hobe da iritzirik ez ematea
eta biak sinestea.

Erramu, iz. *Laurus*, Apoloren ohoreko landarea,
eta garai batean hostogabetzen zena garaileen
eta gortean eragina zuten poeten bekokietan
jartzeko (*Vide infra*).

Erramudun*, izond. Erramu hostoz koroatua.
Ingalaterran Poeta Erramuduna Erregeren gorte-
ko kargudun izaten da, eta eskeleto dantzari
gisa jardun ohi du gorteko edozein festatan eta
abeslari mutu gisa errege-hileta guztietan. Ofizio
goitar horren benefiziodun guztien artetik, Rober

Southeyk izan zuen trebetasunik handiena Sansonen gisakoa zen herriaren alaitasuna drogatzen eta hari bezala ilea mozten; eta poeta hark kolorearen zentzu artistikoa zeukan gainera, zeinari esker herri dolua belzten ahal zuen edo hari krimen nazional baten itxura ematen ahal zion.

Erran zahar, iz. Esaldi ezagun higitua edo atso-titza (alegiatzkoa eta lagunartekoa). Horrela deitzen zaio zirrin-zarran zerratuz sartu behar delako zurezko buru gogorretan. Hona hemen zenbait erran zahar eguneratu:

Xentimo aurreratua, alferrik xahutua.

Gizon bat ezagutzen da, antolatzen duen konpainiagatik.

Langile txarrak borroka egiten du, irain hori botatzen dionarekin.

Txori batek eskuan balio du, ekar dezakeena adina xe.

Hobe berandu, inork gonbidatu aurretik baino.

Etsenplua hobea da, hari jarraitzea baino.

Hobe ogi erdia osoa baino, baldin eta ondoren beste zerbait badago.

Bi aldiz pentsa lagun bati hitz egin baino lehen, premian badabil.

Egiaz merezi duenak are gehiago merezi du beste norbaiti egin dezan eskatzeko nekea.

Zenbat eta gutxiago hitz egin, gutxiago ukatu behar.

Hobeki irri egiten du, egiten duenak gutxien.

Deabrua aipatu, eta entzungo du.

Bi gaitzetatik, hauta txikiena izatea.

Ez jo kolperik, zure enplegatzaileak kontratu on bat duenean.

Gogoko lekuan, aldapa franko.

Errealismo, iz. Natura apoei iruditzen zaien bezalakoxea pintatzeko artea. Sator batek pintatutako paisajeari darion xarma, edo sits-beldar batek idatzitako istoriari dariona.

Errealitate*, iz. Filosofo ero baten ametsa. Mamu bat arragoan edukiz gero geratuko liratekeen hondakinak. Hutsaren erdigunea.

Errebelazioa*, iz. Apokalipsia, San Juan Jainkozkoak zekien guztia ezkutatzeko idatzi zuen libu-

rua. Errebelazioa haren komentaristek egiten dute, ez baitakite deus ere.

Erreberentzia, iz. Gizonak jainkoa ohoratzeko eta horak gizona jainkatzeko duen jarrera.

Erredentzio, iz. Bekatariak beren bekatuen zigorretik libratzea, bekatuz iraindu zuten Jainkoaren hilketaren bitartez. Erredentzioaren doktrina gure Erlijio Santuko funtsezko misterioa da, eta misterio hori sinesten dutenak ez dira hilko, baina betiereko bizitza izango dute, hori ulertzen ahaleginak egin ditzaten.

Bere bekatutik gizonaren arima esna dezagun erredentzio bidea zein den erakuts diezaiogun, zaila izan arren hura bihurtzen aingeru guztien lagun,

erabiltzen ez badugu haren garbiketan nahiko lurrun.

Erredentzio kontuan ez nahiz trebe, ez al dut eza-gun?

Bekataria gurutzera azkar: metodo hoberik ez inun.

Golgo Brone.

Erreferendum, iz. Proposatutako legeria herri bozketaren mende jartzeko legea, iritzi publikoaren zentzueza agerian uzteko.

Errefin, izond. Fin-fina, jaundotoreen modaren araberakoa.

Erne ibili, bi klase hauek ez dira izaten berdin: jauntxoak finak izan ohi dira, jaundotoreak errefin. Ez dizu alde hau argituko *Hiztegi laburgabeak*: hiztezigintzan dihardutenak baitira jaundotoreak.

G. J.

Erreforma, iz. Batik bat erreformaren aurkako erreformatzaileak asetzen dituen gauza bat.

Errege, iz. Gizaseme bat, Amerikan «buru koroatua» izena ematen zaiona, nahiz eta sekula koroarik eramaten ez duen eta askotan aipatzeko moduko bururik ere ez.

Errege batek oso bai oso aspaldi ziotsan bere bufoi alfer galantari.

«Ni zu banintz eta zu, berriz, bazina ni

alai asko biziko nintzateke beti,
kezka eta damuak uxatzen lan gutxi.»

«Bai, poz-pozik biziko zinateke, Jauna,
zergatik ere esango dizut nik hurrena.
Aditu nahi baduzu arrazoa, hona:
Zu errege zaitugun bufoien andana
osotik ni naizela bihotz-samurrena.»

Oogum Bem.

Errege-gaitz*. Antzina Erregeren esku ezarpenaz sendatzen zen gaitz bat, baina orain medikuek tratatu beharrekoa. Horrela Ingalaterrako «Edward elizkoiak» bere errege eskuak gaixoei ezarri eta sendatzen zituen:

Jende gaixo saldo bat.

Hau dute sendabidea: gaitzak eskatzen du trebetasun handia; baina hark ukitzean, hain santu zeruak egin baitzuen haren eskua, hobera egiten dute berehala.

Macbeth-eko Doktoreak egin zuen bezala. Errege eskuaren ezaugarri hau, dirudienez, koro-

aren beste jabetza batzuekin batera bereganatzen zuten ondorengoek, zeren «Malcolm»-ek dioenez:

esana baita,
Bere ondorengoei Erregek
uzten die bedeinkazio sendatzailea.

Baina dohain hori nonbait oinordetza lerrotik kanpo geratu zen: Ingalaterrako azken errege-erreginak ez dira ukipen bidezko sendatzaileak izan, eta garai batean «errege-gaitz» esaten zitzaion gaixotasunak orain «scrofula», izen apalagoa darama, *scrofa*, zerri, hitzetik hartua. Ondorengo epigramaren egilea eta data hiztegi honen egileak bakarrik ezagutzen ditu, baina aski aspaldikoa da, izan ere Eskoziako nahas-mendu nazionalaren inguruko txantxa ez baita atzo goizekoa.

Erregek kutsatu zidan bere gaitza,
Eskoziatik baitzen ezkutatua,
eskuan ezarri zidan bere eskua.
«Zoaz,» esan zuen, «sendatu zaitut.»

Baina begiratu: ezkabia dut!

Erregek ukitzearekin gaitzak senda ditzakeela orain ez du inork sinesten, baina, joandako zenbait sinestek bezala, ohituraren oroitarria utzi du, bere oroitzapenak gazte iraun dezan. Ilarran jarri eta Presidenteari eskua ematearen etorkia ez dago beste inon bilatu beharrik, eta ordezkari goi horrek bere diosal sendatzailea egiten dionean

bakanetan bisitatzen duen jendeari,
begien mingarri diren puztu, zaurituak oro
zirujauen etsigarri,

berak eta bere pazienteek jarraitzen dute aurrera eramaten orain iraungitako baina garai batean jende klase guztiek sinisten zuten fedebaten lastargi behiala aldareko suan gordetzen zena. Iraun duen «hondar» eder eta jarraigarri bat da... antzinako garai santua gure «negozio eta bihotzetara» hurbiltzen diguna.

Erregina, iz. Erregea dagoenean erresuma gobernatzen duen emakumea. Erregerik ez dagoenean haren bitartez gobernatzen da.

Errekluta, iz. Zibiletatik uniformeak eta soldaduetatik ibilerak bereizten duen pertsona.

Baserri, kale, fabriketatik erreklutatu berritan bere ibilera dela eraso edo dela erretretan ikuskizun txit zirrarragarri, martziala da, benetan, bi eragozpen ditu, ordea: bi oin baititu hanketan.

Thompson Johnson.

Erreplika, iz. Arte lan baten aldakia, jatorrizkoa egin zuen artistaren esku berak egina. Horrela esaten zaio «kopia»-tik bereizteko, hori beste artista batek egina izaten baita. Biak trebetasun berdinez eginak direnean erreplika izaten da bietan baliotsuena, dirudien baino ederragoa dela uste izaten baita.

Errepublika, iz. Nazio bat, zeinean, gobernatzailea eta gobernatua berdinak izanik, aukerako obedientziara behartzeko ahalmena autoritate

zilegiak bakarrik duen. Errepubliketan ordena publikoaren funtsa arbasoengandik jasotako ohi-tura gero eta ahulagoa da, zeinek, benetan gobernatuak izanik, beste erremediorik ez zute-lako obeditzen baitzuten. Errepublika motak sor-buru izan zuten despotismoaren eta helmuga duten anarkiaren arteko mailak adina dira.

Erreskate, iz. Saltzailearena ez den eta eroslea-rena izan ez daitekeen gauza baten erosketa. Inbertsiorik onuragaitzena.

Errespeta garritasun, iz. Buru soil baten eta banku kontu baten amodioen emaitza.

Erretolika, iz. Hizlari baten misilaren leherketa. Durduzatu egiten du, baina behar ez bezalako sudurraz hornitutako behatzailearentzat leher-ketaren berezitasun handiena da prestatzerako-an erabilitako sutauts mota desberdinen usaina.

Erretore, iz. Ingalaterrako Elizan, Trinitate parrokiako Hirugarren Pertsona; beste biak Apaiza eta Bikarioa dira.

Errito, iz. Lege, arau edo ohiturak finkatutako zeremonia erlijioso edo erdi-erlijioa, jatortasunaren olio esentziala arretaz zukutu zaiona.

Erritualismo, iz. Jainkoaren Lorategi holandarra, nondik Bera lerrozuzeneko askatasunean ibil daitekeen, belarra zapaldu gabe.

Erromes, iz. Serioski hartzen den bidaiaria. Aita Erromes bat izaten zen tipo bat, salmoak sudurmintzoz kantatzen uzten ez ziotelako Europatik 1620an alde egina eta Masachussettsen kantatzen jarraitzen zuena, non Jainkoa pertsonifikatzen ahal baitzuen bere kontzientziaren aginduen arabera.

Erruki, iz. Harrapatutako gaizkileek biziki estimatzen duten ezaugarria.

Errusiar, izond. Gorputz kaukasiarra eta arima mongoliarra duen pertsona. Tartaro Emetikoa.

Erudizio, iz. Liburutik burezur hutsera astindutako hautsa.

Bere erudizio zabal eskerga hari esker,
Kreazioan, zekien, nor zen nor eta zer, zer.
Baina buru nahaste batek eragin zion oker:
lapurtzea harentzat ez zen ez delitu, ez ezer.

Romach Pute.

Esamesa, iz. Izen onaren hiltzaileen armarik kuttunena.

Oi Esamesa! astinduko zaitut,
nik ez dut behar beste ezpatarik
zu zorrotz erabiliz dira alferrik
kota-babesak, garaituko baitut.

Ikara bedi etsai ikusezin
baten aurka alferrik dabilela,
ohartuz mihi gaiztoz ari naizela
zabaltzen haren hainbat kontu zikin.

Inor zauritu gabe, ni garaile
indarra gordeko dut zer gerta're

eraitsi izana zabaldu gabe.

Joel Buxter.

Esekidura*, iz. Hiltzaile epaitu baten aurkako erasoen etenaldia, Exekutiboari aukera ematen diona hilketa Fiskalak egin ote duen ala ez erabakitzeko. Etorkizun den edozer desatseginen etena.

Altgeldek, bere ohe gorian etzanik,
oheburuan zeukan deabru bat zutik.

«Sukaldari krudela, emazu atsedean,
su etenalditxo bat, laburra bederen!

Oroitu nik askatu nituela ziegan
Illinoisen neuzkanak preso espetxean.»

«Horregatik bakarrik sutan haiz erreko,
zizare ziztrin hori, erreko betiko.

Halere, errukiturik hire egoeraz
libratuko haut hire min eta nekeaz.

Aldi batez ezerk ez dik kalte egingo,
nor haizen ere ez duk inor oroituko!

Zeruan isiltasun latz bat hedatu zen:
Errukia ari baitzen Infernuan sartzen.»

«Nire etenaldia, deabru txintxo,
bedi zure menpeko naizen artekoa.»

«Bai zera! askatuak ziegatik atera
eta behar zutena sartzeko atzera.»

Poz zirrara Altgeldek bere azalean
beste aldera jira zuten bitartean.

Joel Spate Woop.

Eskale, iz. Bere adiskideek lagunduko ziotela
uste izan zuena.

Eskarifikazio, iz. Erdi Aroko jainkozaleak egiten
zuen penitentzia mota bat. Errittoa batzuetan
labanarekin egiten zen, beste batzuetan burdina
goriarekin, baina, betiere, dio Arsenius Asceticu-
sek, onargarria izateko, penitentziagileak ez zion

barkatu behar bere buruari ez mina ez desitxuratzeko kaltegabea. Gaur egun eskarifikazioa, beste penitentzia latz batzuk bezala, ongintzak ordezkatu du. Liburutegi bat sortzeak edo unibertsitate bat hornitzeak, diotenez, damudunari min latzagoa eta iraupen luzeagokoa ematen dio labanak eta burdina goriak baino, eta horregatik grazia lortzeko bide ziurragoa da. Hala ere, bi erreparo larri egiten zaizkio penitentzia metodo gisa: egiten duen mesedea eta justiziaren hutsa.

Eskarmentu, iz. Noizbait geureganatu genuen erokeria aspaldiko ezagun higuingarria dela eza-gutzeko ahalmena ematen digun jakinduria.

Gauaz lainope lodi batean galduta dabilenari,
lur istiltsuan lepalderraino sartuta dagoenari
eskarmentuak, eguzkiaren gorapenean bezala,
argitzen dio egin bidea erabat okerra zela.

Joel Frad Bink.

Eskean ibili, ad. Zerbait eskatu, emango ez dizutelako ustearen araberakoa den irrikaz.

«Zer da gizon hau, aitatxo?»

«Eskale txar bat, semetxo;
argal, alfer, muturbeltza... eta benetan gaiztoa!
Ikusi nola dagoen begiratzuz giltzapetik!
Eskalea izatea ez da oso ona, horratik!»

«Zergatik sartu zuten hor?»

«Obedituz urdailari
eraso egin baitzion legeari.»

«Urdailari?»

«Bai, maitea. Gainontzean, hilko baitzuen goseak...
pozik ez dizu ematen horrelaxe egoteak.
Mokadurik gabe zenbait egun luze pasaturik:
“Ogia! Ogia!” horrek ez zuen beste konturik.»

«Ez al zuen nahi tartarik?»

«Soinean ere ez zeukan saltzeko gauza ugari;
hori maiz gertatzen zaio eskean dabilenari.»

«Zer gertatzen zitzaion, ba, ez aritzeko lanean?»

«Egingo zuen gustura, baina aditzen zuenean,
“Alde hemendik, alproja!”, esaten ziotenean,
“Hi, alfer, ustela, ospa!,” hortxe zeukan debekua.
Aipatzen dizut kontua, ikusteko mendekua,
gizon honexek hartua,
izan zela ziztrina,
satsu eta zikina.
Mendekua, betiere, da siouxen kontua,
Siouxen belzkeria...
Baina huskeriengatik...»

«Zer egin zuen eskale gaixo horrek hor sartzeko?»

«Bi ogi lapurtu urdail gosetua asetzeko.»

«Hori besterik, aitatxo, ez al duzu kontatzeko?»

«Ez dago beste askorik.

Gizona preso harturik,
barrura eraman zuten, eta errematatzeko
hori baino lagunarte hobea du probatzeko.»

«Eta bada han ogirik premia dutenentzat?»

«Txigortua bai behintzat.»

Atka Mip.

Esker txarreko, izlag. Beste batengandik mesede bat jaso duena edo beste edozein modutara karitate-xede dena.

«Gizon guztiak, esker txarreko,»
zioen zinikoak: «Ez,»
filantropoak, «nik behin, hasteko»
esan zion erantzunez,
«bati mesede bat egin nion,
ez dit ordaindu irainez.»

«Ka!,» zinikoak erantzun zion
«esan nor den berehala,
joango natzaio pozik, nahi baitut
berak bedeinka nazala.»
«Ezingo zaitu, ba, bedeinkatu,
mutua da. Hau tamala!»

Ariel Selp.

Eskomiku, iz.

«Eskomiku» hitz hauxe da benetan ezaguna edozein sermoitan guk maiz aditu ohi duguna. Esan nahi du ageriko madarikazioa bekatari eskandalu-emaile txarrantzat; erritoak bihurtzen du Satanen esklaboa eta sekulakoz salbaezina Kristorentzat.

Gat Huckle.

Eskritura santu, iz. Gure erlijio santuko liburuak, gainerako fede guztien oinarri diren idazki faltsu eta profanoekin nahastu behar ez direnak.

Esku, iz. Giza besoaren bukaeran eramaten den eta maiz norbaiten patrikara oldartzen den tresna bitxia.

Eskubide*, iz. Izan, egin edo edukitzeko ahalmen legitimoa; adibidez, errege izateko eskubidea, norbaiten auzo izatekoa, elgorria jasatekoa, eta horrelakoak... Horietako lehena Jainkoak bere borondatez zuzenean emana zela uste zen, garai batean; eta oraindik ere hori esaten da *in*

partibus infidelium, Demokraziaren erresuma argituz haraindian; lekukotzat Sir Abednego Bink-en lerro hauek:

Zer eskubidez dute erregeek denon gainetik agintzen,

nork ditu haien botere eta estatua legeztatzen?
Zeren behar da izan mandoa baino are egoskorrago Jainkoak nahi ez duen tronuan ordubete egiteko, nahiz Presidente aulkian inor arrandian ibiltzeko.

Beraz, guztia da Jainkoaren borondatez ezarria gertatzen dena, gertatzen dela, harexek erabakia. Kontu polita bailitzateke haren nahiari txoroek iskin egiten errez balute, aurre egiten alprojek. Horrela balitz esango nuke (inor iraindu nahi gabe) Jainkoa dela zabarkeria laguntzaileaz kulpante.

Eskuera, iz. Eskuaren irispidea. Hornitzeko joera zuzenean asetzeko posible (eta ohiko) den esparrua.

Bizitzak erakutsi egia
mendiak bezain zaharra:

pobreak duen gaitzik txarrena
irispidearen traba.

G. J.

Esku-ezarpen, iz. Eskuak ezarriz bedeinkatu edo sagaratzea... eliza-sistema askotako zere-
monia arrunta, baina sinesmenik benetakoenez
Lapurrak deritzan sektak praktikatzen duena.

Apaiz nahiz derbixeak honelaxe dio:

«Jauna!, esku-ezarpen hau dela medio
lur eta diru hauek behin eta betiko
izan bitez guztiak zure elizarako.

Ezarpen honek ziur zaitu saminduko,
Ez zaitetz lotsa. Aurrera! Egizu birao!»

Pollo Doncas.

Eskuin-ezkerti, izond. Eskuineko nahiz ezkerre-
ko poltsikoa trebetasun berdinez husteko gaita-
suna duena.

Eskuzabal, izond. Hitz hau, lehen, jaiotzaz
noblea zen pertsonari zegokion. Orain, ordea,

berez noblea denari dagokio, eta atsedenaldira bat hartzen ari da.

Eskuzabaltasun*, iz. Eskueran asko duenaren zabaltasuna, ezer ez duenari ahal duen guztia hartzen uzteko adinakoa.

«Enara bakar batek urtero hamar milioi eltxo irensten omen ditu. Intsektu horiek guztiak eskueran jartzea Kreatzailak Bere kreaturen bizitzaz arduratzean erakusten duen eskuzabaltasunaren seinale adierazgarritzat daukat.» — *Henry Ward Beecher*.

Esku-zartak, iz. pl. Herri beherenak bera lausengatu eta irensten dutenei ordainetan ematen dizkien txanponak.

Esoteriko*, izond. Oso modu bitxian zentzugabe eta erabat ezkutukoa dena. Antzinako filosofoiak bi modutakoak ziren: exoterikoak, filosofoek berek ere erdizka ulertzen zituztenak, eta *esoterikoak*, inork ulertu ezin zituenak. Azken joera hori izan da gaurko pentsamenduari sakoneraino

eraskan diona eta gure garaian hobekien onartu dena.

Espetxe*, iz. Zigorra eta saria emateko lekua. Poetak esaten digu:

«Harrizko murruek ez dute espetxea egiten...»,

baina harrizko murruen, politikako bizkarroien eta moral hezitzaileen konbinazioa ez da atseginen lorategia prezisamente.

Estiragailu, iz. Argudio tresna bat, garai batean fede okerraren jarraitzaileak egia berdaderora erakartzeko maiz erabilia. Konbertitzen ez zirenentzako onbideratzeko tresna gisa sekula ez zen bereziki eraginkorra izan, eta gaur egun estimazio txikia du.

Estualdi, iz. Koherentziaren saria.

Etnologia, iz. Gizonen tribuak aztergai dituen zientzia, hala nola lapurrak, ebasleak, iruzurgi-leak, ergelak, eroak, inozoak eta etnologoak.

Etorkin, iz. Herrialde batzuk beste batzuk baino hobekak direla pentsatzen duen ezjakina.

Etorkizun, iz. Gure negozioak ongi doazen, gure lagunak leialak diren eta gure zoriona ziurtatua dagoen aroa.

Etsaigo, iz. Lurraren gainpopulazioaren zentzu zorrotz-zorrotz eta berariaz aplikatua. Etsaigoa aktiboa eta pasiboa izan daiteke; adibidez (hurrenez hurren) emakume baten sentiera bere lagun emakumezkoenganako edo bere gainerako sexukideenganako.

Etxe, iz. Gizon, arratoi, sagu, kakalardo, labe-zomorro, euli, eltxo, arkakuso, bazilo eta mikro-bioak bizitzeko egindako eraikin hutsa. *Zehapen Etxe*, zerbitzu politiko eta pertsonalak saritzeko lekua, eta gaizkile eta lapurrak atxilotzeko. *Jainkoaren Etxe*, bere gainean kanpandorrea eta hipoteka dituen eraikina. *Etxe-zakur*, piztia kira-tsa, etxean edukitzen dena, inguratzen diren pertsoneri irain egin eta bisitari ausarta izutzeko.

Etxeko mirabe, Sexu aurkariko pertsona gaztea, Jainkoak ezarri nahi izan duen lekuan mila modutan desatsegina eta zikina izateko duen trebetasuna erakutsi dezan enplegatzen duguna.

Etxegabe, iz. Zerga guztiak etxeko ondasunetan pagatu dituenak.

Eukaristia*, iz. Teofagoen sekta erlijiosoaren ospakizun sakratua.

Behin zoritxarrez sekta honen partaideen artean eztabaida bat sortu zen jaten ari zirenen buruz. Eztabaida horretan bostehunen bat mila hil dituzte, eta gaia ez da oraindik argitu.

Euli-kaka*, iz. Puntuazioaren aurrekaria. Garvinus ohartu zen herri eskolatu zenbaitek erabiltzen zituzten puntuazio sistemak hasieran haien lurraldeak izurritzen zituzten eulien ohitura sozialen eta dieta orokorraren arabekoak zirela. Izaki horiek, beti idazleen hurbiltasun eta adiskidetasuna dela-eta nabarmendu baitira, erruz edo eskas apaintzen dituzte lumaren pean mamitzen ari diren eskuizkribuak, beren obratze

ohituren arabera, eta obraren zentzua argitzen nolabaiteko interpretazio goitarrago eta idazlearen borondatearekiko loturarik gabeko batez. Literaturako «maisurantz» —hasierako idazleek, alegia, zeinen obra hainbeste estimatzen duten hizkuntza honetako oraingo izkiri-tzaile eta kritikariek—, ez zuten puntuaziorik erabiltzen, eta etengabe jarraian idazten zuten erabateko askatasunez, puntuak erabiltzeak sortzen duen pentsaeraren eten hori gabe (Gauza bera ikusten dugu gaurko haurren jokabidean; izan ere, puntu honetan ematen dute etsenplu harrigarri eta eder bat, eta erakusten gizabana-koaren haurtzaroak errepikatzen dituela arrazen haurtzaroaren ezaugarri diren metodoak eta garapen mailak). Antzinako izkiri-tzaile haien obran puntuazio guztia, gaurko ikertzaileen tresneria optiko eta test kimikoen arabera, idazlearen laguntzaile argi eta zerbitzal honek ezarria da, euli arruntak, *Musca maledicta*-k, alegia. Antzinako eskuizkribuak transkribatzean, ondorengo idazleek, dela obrak bereganatzeko, dela naturaltasun osoz azalpen jainkozkoztat dauzka-tenak kontserbatzeko asmoz, papiroan eta per-

gaminioan aurkitzen duten edozein arrasto begi-ramenik eta zehaztasunik handienaz kopiatzen dute, eta horrela pentsamenduaren argitasunaren baliaberretze ulertezina lortzen. Kopisten garaikideak diren idazleak naturaltasunez baliatzen dira arrasto horien abantaila begibistakoez beren lanean, eta, beren etxeko euliek eskuza-balki ematen dieten laguntzari muzin egin gabe, askotan antzinako idaztiak berdintzen dituzte, eta are batzuetan haiei gaina hartzen ere, puntuazioari dagokionean behintzat, ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula. Euliek literaturari ematen dizkioten zerbitzu garrantzitsuez jabetzeko, aski da nobelagile ospetsuren baten orri bat krema eta melaza platerkada baten ondoan jartzeari gela eguzkitsu batean eta erreparatzea nola haren «zorrozatasuna argitzen eta estiloa finitzen den» eulien eraginaren pean uzten den denboraren proportzio zehatzean.

Euskortasun, iz. Giza eskuaren ezaugarri bat, inguruan erabiltzen den diruari atxikitzeko joera nabariari dagokionez. Bere garapen mailarik handiena agintarien eskuetan eman ohi du, eta

politika arloan karrera egiteko hornidura baliagarritzat hartu ohi da. Ondoko bertso argigarriak politika arloan arrakasta handia zuen jaun kaliforniar bati buruz idatziak dira; orain bere kontuak ematera joana da:

Euskortasun nabarmena
haren atzaparrarena.
Aingira oliotuak
eman arren, bere eskuak
eutsiko die bai aise
batere mugitu gabe!
Eskerrak arnasa ez den
eskuz tiraka egiten.
Bestela bera lehena
ematen bere azkena.
Beharrik, zuk diozunez.
Ez, ba. Hau da dakiena:
tiratzen bai, askatzen ez.

Exekutibo, iz. Gobernuaren bulegari bat, egin-behartzat duena botere legegilearen nahiak betearaztea, departamentu judizialak baliogabe eta ondoriorik gabekotzat deklaritzen dituen

arte. Jarraian ematen da *Ilargitar txunditua* (Pfeiffer & Co., Boston, 1803) izenburuko liburu zahar batetik hartutako zati bat:

ILARGITARRA: Orduan, zuen Kongresu horrek lege bat onartu duenean, zuzenean bidaltzen da Auzitegi Gorenera ea konstituzionala den berehala jakiteko?

LURTARRA: Ez, ez. Ez da beharrezkoa Auzitegi Gorenaren onespena, harik eta zenbait urtetan bete beharrezkoa izan ondoren norbaitek bere baitan duen eraginari aurre egiten dion arte... bezeroak berak, alegia. Presidenteak, ontzat ematen badu, berehala betearazten du.

ILARGITARRA: Ah, orduan, botere exekutiboa legegilearen zati bat da. Zuen poliziek onartu egin behar al dituzte betearazten dituzten ordenantzak?

LURTARRA: Oraindik ez. Ez, behintzat, polizia diren aldetik. Xehetasunetan sartu gabe, hala ere, lege guztiek izan behar dute behartu nahi dituzten pertsonak onartuak.

ILARGITARRA: Ulertzen dut. Heriotza-zigorra ez da baliozkoa hiltzaileak sinatu arte.

LURTARRA: Adiskide, oso gordin azaltzen dituzu gauzak, gu ez gara horren zurrinak.

ILARGITARRA: Baina baliozkoak izan daitezten, legeak luzaro aplikatu beharrean oinarritzen den sistema judicial garesti

hau mantendu beharra, eta orduan ere pertsona pribaturen batek auzitegira eramaten duenean bakarrik..., ez al da oso nahasgarria?

LURTARRA: Bai, halaxe da.

ILARGITARRA: Orduan, zuen legeak, praktikan jarri aurretik, zergatik ez dira indarrean jartzen, ez, hain zuzen ere, zuen Presidentearen sinaduraren bidez, baizik Auzitegi Goreneko Epaile Nagusiaren bidez?

LURTARRA: Ez dago horrelako jokabidearen aurrekari bakar bat ere.

ILARGITARRA: Aurrekaririk ez, beraz. Eta hori zer da?

LURTARRA: Bostehun legelarik eman dute horren definizioa, bakoitzak hiru liburukitan. Beraz, nola jakin?

Existentzia, iz.

Amets beldurgarria, irudipen hutsa,
benetakotzat hartzen erraz izan arren,
zeinetik Herioak esnatzen gaituen
eta esanarazten: «Zakurraren putza!»

Ez-amerikar, izond. Gaizto, jasanezin.

Ezagun, iz. Mailegu bat eskatzeko bezain ongi ezagutzen dugun pertsona, ez, ordea, mailegu bat emateko bezain ongi. Adiskidetasun maila bat, xumea deitzen zaiona, haren xedea apala edo ezezaguna denean, eta adiskidetasun mina esaten zaiona, hura aberats edo ospetsua denean.

Ezagutu, du ad. Aitortu. Batak bestearen akatsen ezagupena aitortzea da egia maitatzeak ezartzen digun eginbehar gorena.

Ezbehar, iz. Sekula faltan izaten ez den behar klasea.

Ezinegon, iz. Lagunaren aberastasunaren eraginpean harrapatzen den gaitza.

Ezjakin*, iz. Zuretzat eskuartekoak diren zenbait jakingai motaren berri ez duen pertsona, eta zuretzat erabat ezezagunak diren beste batzuk dakizkiena.

Babo hain zen ezjakina,

Argi hain asko-jakina,
non esan baitzion Argik:
«Ez dakienak behar dik
apalxeagoa izan,
hik eskolako jakintzan,
argi izpirik ez baituk.»
«Horretan arrazoia duk;
ez zekiat ezer asko
eskoletan ikasia,
baina ez izan harroxko;
hutsa duk hik handik kanpo
ikasitako guztia.»

Borelli.

Ezkontza, iz. Nagusi batez, etxekoandre batez eta bi esklaboz osatutako komunitatearen egoera edo izaera; komunitatea, guztira, biz bakarrik osatua da.

Ezkortasun, iz. Baikorrak bere txorimalo esperantza eta irribarre jasanezinaz baliatuz erakusten duen nagusitasunaz behatzaileari, bere konbikzioen gaineratik, nahitaez bereganarazten dion filosofia.

Ezkatatu*, da ad. «Modu bitxian mugitu», beste norbaiten jabetzak hartuta jeneralean.

Udaberria keinuka! Orok deiari arrapostu,
zuhaitzak hostatu dira, diruzainak ezkatatu.

Phela Orm.

Ezkatatu, ad. iz. bur. Ordainarazpenen irispide-tik bere burua kentzeko zuhurtzia izateko moduko diru-sarrerak dituen pertsona.

Eztabaida, iz. Besteak oker daudela ziurtatzeko metodoa.

Eztei, iz. Zeremonia bat, zeinean bi pertsonak erabakitzen duten bat izatea, batek ezer ez izatea eta orok jasangarri ez izatea.

F

Faltsu, izond. Erretorikazalea.

Fede, iz. Frogarik gabeko sinesmena, antzekorik ez duten gauzez ezagupenik gabe mintzo den batek dioena sinestea alegia.

Fedegabetasun, iz. Nire Jainkoarenganako zure lotsa gutxia.

Fenix*, iz. Gaurko «txori ipurberoa»-ren aurrekari klasikoa.

Fideltasun, iz. Traizionatuak izateko zorian direnen bertute bitxia.

Filantropo, iz. Jaun zahar aberatsa (eta maiz burusoila) bere burua entrenatu duena kontzientziak patrika husten dion bitartean irribarre egiteko.

Filistear, iz. Adimena ingurukoen mirabe duen pertsona; pentsaera, iritzi eta sentiera modaren arabera moldatuak dituen. Batzuetan eskolatua izaten da, maiz aberatsa, normalean txukuna eta beti ponpoxoa.

Filosofia, iz. Bide-adar ugari dituen errepidea, abiapuntua inon ez duena eta ezertara iristen ez dena.

Finantzak, iz. pl. Diru-sarrerak eta baliabideak administratzailearen onetan administratzearen zientzia edo artea. Hitz honen ahoskera, «i» luzearekin eta azentua lehen silaban duela, amerikarren aurkikuntza eta jabetzetako balio-tsuenetako bat da.

Fisonomia, iz. Besteren izaera haren aurpegiaren eta gurearen arteko antz-desberdintasunak aztertuz finkatzen duen artea, bikaintasunaren eredutzat gurea harturik, jakina.

«Giza gogoia irakurtzea aurpegiak duen trazan»

Shakespeare txoroak dio, «ezin da, oso garbi nahi dut esan.»

Fisonomistek gixaxo haren aurpegia azterturik:
«Zaila da aurkitzen honena baino zuhurtzia ahulagorik.

Hazpegietan gogo-bihotzak agerian zituela jakinik, buru-zuritze alde esan behar ezin zela.»

Lavata Shunk.

Fonografo, iz. Jostailu ernegagarria, betiko galdutako hotsak berpizten dituen.

Forma pauperis (Latina). Pobre-itxuran: abokaturarako dirurik ez duen auzitaratu bati kontsiderazioz bere auzia galtzeko bide ematen dion metodoa.

Adanek Kupidoren maite-epaitegian
(epaile baitzen, Adan sortu zen artean),
Ebaren faboreak eskatu zituen,
jantzi egokiz, baina, eskas ei zebilen.

Ebak: «Ondo pobreki jantzita zatoz zu,
horrela jarduterik hemen ez daukazu.»

Gizonari ukatu nahi zuen grazia:
musuhuts joan behar ez baitzen jantzia.

G. J.

Fraide-jabari, iz. Edukitze mota bat, erlijioso-anaidiek lurra eskuratzeko erabiltzen dutena, dohaintza eman dien arimaren alde otoitz egiteko baldintzapean. Erdi Aroan anaidi aberatsenetakoa batzuek beren jabetzak modu sinple eta merke honetaz baliatuz bereganatu zituzten, eta Ingalaterrako Henrike VIII.ak behin anaidi batek fraide-jabariz beretuak zituen lurralde zabal batzuk konfiskatzera bere funtzionario bat bidali zuenean, honela esan zion Abadeak: «Zer!, zure nagusiak gure ongilearen arima Purgatorioan geratzea nahi du, ala?» «Gaixoa», erantzun zion funtzionarioak, hotz, «eta ez baduzu haren alde otoitz egiten, kiskali ere egingo da alfer-alferrik.» «Baina begira, ene haurra,» jarraitu zuen gizon zintzo hark etsi gabe, «hau Jainkoari lapurreta egitearen pareko egintza da.» «Bai, zera! Nire nagusi Erregek jabetza gehiegiak ematen dituen tentazio ugariatik Hura libratu besterik ez du nahi eta!»

Framazonak, iz. pl. Errito sekretuak, zeremonia burugabeak eta jantzi bitxiak dituen ordena bat, zeinean sartu diren, Karlos II.aren erregealdian Londresko artisauen artean sortu zenetik, joandako mendeetako hildakoak, etengabeko atzera-martxan. Eta horrela, gaur egun, Adanetik honanzko belaunaldi guztiak onartzen dituenetz, jarraitzaile prestuak bereganatu ditu Kaoseko eta Huts Eragabeko biztanle kreazio-aurrekoen artean. Garai desberdinetan ordena fundatu izan dute Karlomagno, Julio Zesarrek, Zirok, Salomonek, Zoroastrok, Konfuziok, Thothmesek eta Budak. Framazonen ikur eta sinboloak Paris eta Erromako katakunbetan aurkitu izan dira, Partenongo harri-abarretan, eta Txinako Harresi Handian, Karnak eta Palmirako tenpluetan eta Egiptoko piramideetan... beti framazonen batek aurkitu ere, noski.

Frenologia*, iz. Ile-larruan barrena patrikak husteko arte eta jakintza. Pertsona ergeltzen duen organoa zein den asmatu eta esplotatzen jakitean datza.

Froga, iz. Egia izateko gezurra izateko baino probabilitate izpi bat gehiago duen erakusbidea. Bi lekuko fidagarriren lekukotasuna, batenaren aurka jarria.

G

Gailendu, ad. Etsai bat egin.

Gaitzespen, iz. Teologian, jaio aurretik kondemnatua den mortal zorigaitzekoaren egoera. Gaitzespenaren doktrina Kalbinek irakatsi zuen, zeinari ematen zion poza nolabait ilundu baitzion bere konbikzioaren egiazaletasun ilunak, esaten baitzion ezen, batzuk hondamendiaren patuak joak badira ere, beste batzuk salbatzeko predestinatuak direla.

Gaizkide, iz. Gaiztakeriaren ezagupen eta konplizitate erruduna izanik, egintza gaizto batean norbaiten kide dena, adibidez bere bezero gaizkilea errudun dela jakinik hura defendatzen duen abokatu. Abokatuen jokabideari buruzko ikuspegi honek ez du gaur arte haien onarpena bereganatu, inork ez baitie lansaririk eskaini ikuspegi hori onartzearen aldera.

Galera*, iz. Genuenaz edo ez genuenaz gabe-tzea. Horrela, zentzu zabalean esan ohi da «bere hautaketa galdu zuela»; eta gizon argitsu hartaz, Gilder poetaz, «burua galdu zuela». Lehenbiziko eta zuzenagoko zentzu horretan dago erabilia hitza hiltartitz ospetsu honetan:

Hemen erraustu zen azkenean Huntingtonen kala-bera,
zeinen betiko galeraz denok egin baitugu hobera,
zeren mundu hau utzita alde egin baino lehen bes-tera,
honek beretzat irabazia baitzen guretzat galera.

Galoi, iz. Apaindura-seinale bat, baliagarria Armadako ofizial bat etsaiarengandik bereizte-ko... beheko mailako ofizialarengandik alegia; izan ere, haren heriotzak igoerarako aukera emango lioke behekoari.

Galtzak, iz. pl. Ar heldu zibilizatuaren behe-aldeetako janzkia. Jantzi mota hau tubularra da eta tolesguneetan errorik gabea. Txantxazale

batek sortua dirudi. Jakintsuek «pantaloiak» esaten diete eta ezdeusek «frakak».

Galtzari, iz. Zinta elastikoa, emakumeari galtzerdietatik irtetea eta herrialdea jendegabetzea galarazten diona.

Gamelu, iz. Ikuskizun mundurako balio handiko lau-hankakoa (*Oinzapalus bizcarroquer*). Bi gamelu mota dira: gamelu zuzena eta nolabaitekoa. Bigarrena da beti erakusten dena.

Gantzutu*, du ad. Errege bat edo bestela ere aski koipatua den beste goi funtzionarioen bat olioztatzea.

Apaizek erregeak gantzutzen dituzten bezala,
jendailaren gidari diren zerriak ere hala.

Judibras.

Gargola, iz. Erdi-aroko eraikinen hegatzetan izaten zen hustubide irtena, normalean arkitektoaren edo eraikinaren jabearen etsairen baten karikatura groteskoaren eitekoa. Hori izan ohi

zen elizetan eta elizaren eraikinetan normalena, haietan gargolak bertako herexe eta disidenteeek osatutako «benetako galeriak» izaten baitziren. Batzuetan, dekanok eta kapitulu berriren batek agintea hartzen zuenean, gargola zaharrak kendu eta beste batzuk jartzen ziren, eta titular berrien etsaitasun pribatuekin lotura estua izaten zuten.

Gari, iz. Nekez bada ere, taju antzeko whiskya egiteko balio duen labore mota bat, ogia egiteko ere erabiltzen dena. Frantsesek, diotenez, beste edozein herrik baino ogi *per capita* gehiago jaten dute, harritzekoa ez dena; izan ere, haiek dira irensgarri nola egin dakiten bakarrak.

Gartsutasun*, iz. Gaztetako ondoeza, damu dosi txikiak eskarmentuaren kanpoko igurtzialdiekin konbinatuz senda daitekeena. Byronek «khar-itsutasun» deitzeko adinako susperraldia izan zuen, eta gero berreroraldi bat, betiko eraman zuena... Missolonghira.

Gaztaro*, iz. Aukeraren Aroa, Arkimedesek oinarri-puntu bat aurkitu zuena, Kasandrak etorkizuna aurrean zuena eta zazpi hiri lehiatzen zirena Homerori bizilekua eta mantenua emateagatik.

Gaztetasuna da benetako Saturnoren Erreinua, Urre Aroa lurrean berritua, sasiak pikuak ematen zituen, zerriek txistu hotsei kasu egiten zieten, zurdak zetazkoak zituztena, jatenetako beti pagotxa zutena, behiak hegan ibiltzen zirena, esnea atarietan uzten zutena, Justiziaren zurrungarik aditzen ez zena, asesino guztiak izpiritu bihurturik eta oihuka Baltimorez haruntzago bidaltzen zirena. — *Polydore Smith.*

Gehiago, izond. Gehiegiren goragoko gradua.

Gehiegikeria, iz. Moralaren arloan, neurritasunaren legea zigor egokien pean betearazten duen atseginaldia.

Salbe, Gehiegikeria... bereziki ardotan,
gurtzen zaitut lur hotzean belauniko jarririk,
burezurra pulpitutzat uzten dizut poz-pezik,

urzaletasuna hartzen duzularik ahotan.

Arauz arau eta lerroz lerro, sekula santan
inork ez nau konbentzitu horrelako hitz goxoz
arrazoiak ematean libreki eta zorrotz
nola zuk ukituz bizkarrezur eta kopetan.

Zure aginduz okertuz atseginarenean kopa
mahats zukuaz ezin dut zorrotz adimena;
damu-aulkian jarririk, egosi behar pena,
ezin jaikirik; halere, egin dezagun topa:
Esker txarrekoa zure aldarean aldiro
sakrifiziorik egin ez dizuna berriro!

Gehiegizko*, izlag. Ez-beharrezko; alferrikako...
de trop.

Sultanak esan zuen: «Baduk froga nahiko,
fedegabe alu hau dela gehiegizko.»
Bisir handiak, berriz, zirrarak harturik:
«Buru horrexek, behintzat, halaxe zirudik.»

Habeed Suleiman.

«Debs jauna gehiegizko herritarra da.» — *Theodore Roosevelt*.

Genealogia, iz. Baten jatorriaren aztarnen azterketa, bereak aztertzeaz gehiegi arduratu ez zen arbaso batetik abiatuz egina.

Geografo, iz. Munduaren kanpo-aldearen eta barne-aldearen arteko aldea aise esplikatzeko ahal dizun tipo bat.

Habeam geografo izen handikoa,
Abubeker herrian behinola jaioa,
herritik Zam ibaia behin zeharkatzean,
ikusi nahi baitzuen Xelam bestaldean,
izutu zen hainbeste bide ikustean;
galdu zen eta apo migrariak janez
bizi zen. Baina hark ere hil behar, nola ez!
Bidaztiak goستن dute esker onez.

Henry Haukhorn.

Geologia, iz. Lurraren azalaren zientzia... zeinari, dudarik gabe, erantsiko zaion haren mamiari buruzkoa putzuren batetik gizonen bat hitz egi-

teko gogoz atera bezain laster. Dagoeneko aztertuak diren lurraren formazio geologikoak honela daude sailkaturik: Lehena, edo behekoa, harriz, hezurrez, mando ustelduz, gas-hodiz, meatzarien tresnaz, antzinako estatua sudurgabez, dobloi espainolez eta arbasoz osatua. Bigarrena, batik bat, zizarez eta satorrez egina da. Hirugarrenean sartzen dira trenbideko karrilak, espaloiak, belarra, sugeak, bota lizunduak, garga botilak, tomate poteak, jende mozkortua, zaborra, anarkistak, zakur hozkalariak eta txorak.

Gerra, iz. Bakearen arteen albo-produktua. Egoera politikorik mehatxugarriena nazioarteko adiskidetasun aldia da. Ustekabea itxaroteko erakutsi ez zaion historiako ikaslea harro egon liteke argitasun honetara iritsi ezinaz. «Bake garaian presta ezazu gerra» esaerak ulertu ohi den baino esanahi sakonagoa du; ez du bakarrik esan nahi lurreko gauza guztiek dutela bukaera—aldaketa dela lege aldagaitz eta betiereko bakarra— baizik eta bakearen soroan gerraren haziak usu barreiatuak direla eta erne eta hazte-

ko lur gizona dutela. Hain zuzen ere, Kubla Khanek «atseginaren kupula» dekretatu zuenean — Xanadun bakea eta festa handiak zirenean, alegia—,

belarrira iritsi zitzaion
gerra iragartzen zuen arbasoen ahotsa.

Izan diren poeta handienetako bat, Coleridge, gizonen arteko jakintsuenetakoa zen, eta ez zizkigun alferrik idatzi lerro horiek. Hobe dugu «Itsasoaz bestaldera eskuak luzatzea»-tik gutxi xeago eta nazioaren segurtasuna den mesfidantza funtsezkotik gehixeago izan. Gerrak lapurra gauean bezala etortzea du maite; betiereko adiskidetasunaren promesek iluna dakarte.

Gezi ontzi, iz. Buiraka, antzinako estatu-gizonak eta legelari indigenak beren argudio argienak eramaten zituen kutxatila erabilgarria.

Gordeta zeukan gezi ontzian
liskarzale Erromatarrak
argudio bat txit egokia

erantzuteko galderak.

Hura hartu zuen gibel erdian

arerio egoskorrak.

Oglum P. Boomp.

Gezurti, iz. Eginkizun zehatzik gabeko abokatu.

Gibel*, iz. Naturak behazuntsu izateko zuhurtzia handiz ematen digun organo gorri handia. Edozein literatur anatomistek orain bihotzean direla dakizkien sentipen eta emozioak garai batean gibela izurritzen zutela uste zen; eta Gascoignek berak ere, giza naturaren alde emozionalaz diharduenean, «gure alde hepatikoa» deitzen dio. Garai batean biziaren kokagunetzat hartzen zen. Hortik esaera hura: «Hi bizi haiz, hi; hori duk gibela, hori.» Gibela da antzarari zeruak egin dion oparirik hoberena; hori gabe ezingo bailigu-ke Strasbourgeko *pâte*-a hornitu.

Gillotina, iz. Frantsesei sorbaldak arrazoi on bategatik gorarazten dizkien makina.

Brayfugle irakasle askojakinak bere *Arrazen bilakaeraren ildo dibergenteak* lan bikainean frantsesen artean keinu honek —sorbalda-goratzek, alegia— duen nagusitasunetik ondorioztat ateratzen du frantsesak dortoketatik sortuak direla eta keinu hori burua maskorraren barnealdera erretiratzeko ohituraren aztarna dela. Aitor dut, ez gogo onez ordea, ez natorrela bat autoritate goitar horrekin, baina nire iritzia da (*Herentziatzko sentipenak, II. lib, XI. kap.-an* gehiago landurik azaldu eta argudiatzen denez), sorbalda-goratzek oinarri ahula dela haren gainean horrelako teoria eraikitzeko; izan ere, Iraul-tza aurretik keinua ezezaguna zen. Ez dut bate-re dudarik keinu horrek baduela zerikusirik gillotinak iraun zuen bitartean sortzen zuen izu-ikararekin.

Giza hilketa, iz. Gizaki batek beste gizaki bat hiltzea. Lau mota bereizten dira: larriak, barkagarriak, zurigarriak eta goresgarriak, baina hildakoari ez zaio asko axola berea batean edo bestean sartzea: sailkapena abokatuen mesedetarako da.

Gizabide, iz. Hipokresiarik onargarriena.

Gizajale, iz. Antzinako eskolako gastronomoa, gustu sinpleak kontserbatzen dituen eta zerri-aurreko aroko dieta naturalari atxikitzen zaiona.

Gizalege, iz. New Yorkez gainerako biztanleei behatzaile hiritarrek eratzikitzen dieten begirune mota. Haren adierazpenik ohikoena hitz hauek dira: «Barkatu, aizu», eta ez dago besteen eskubideekiko begirunerik ezarekin kontraesan.

Sutauskintzako jabea,
paseatzera aterea,
susmo batek hartu zuen...
Oskarbitik erori zen
giltzurrun bat, odoldua.
Fabrika zen lehertua.
Berak, kenduz kapelua:
«Barka, jauna, ez nekien
zegoenik kargatua.»

Gizateria, iz. Giza arraza, osorik hartuta, poeta antropoideak bazterturik.

Gizatxar, iz. Baiak saskitxoetan saltzeko bezala bere dohainak prestatuak izanik —hoberenak gainaldean— okerreko aldetik irekiz erakutsi dituen gizona. Jaundotorearen alderantzizkoa.

Gizon*, iz. Animalia bat, bere buruaz duen ideia-
ren kontenplazio liluratuan hain galdua, non
oharkabean pasatzen zaion zer izan behar
lukeen. Bere jarduera nagusia beste animaliak
eta bere espeziekoak suntsitzea da, zeinak hala-
ko ziztu bizian ugaltzen diren, non lur populaga-
rri guztia, eta are Kanada ere, jendez leporaino
betetzen duten.

Mundua berri, Gizona gazte, hala zen garai batean,
Errege, apaiz nahiz nekazari guztiok ginen bakean.
Egun, ordea, gauzak ez dira horrela gure artean,
salbu lehengo sistema dugun Errepublika gurean:
denok errege dira nahiz eta asko ibili oinutsean
eta ez gutxi dabilzan arren gosea ase ezinean.

Nork zanpatuko dituen baina badago haien mendean.

Herritar batek ez zuen maite, nonbait, boto ematea goiz batez jaiki zen txunditurik, dena luma eta pikea: jende zintzoek erregalotan egin zioten trajea.

«Nahitanahiezeko eginbeharra da gurean bozkatzea, eta nahi duzun pertsona hori zerorrek aukeratzea.»

«Hori nahi nuke,» izan zen gizon haren erantzun noblea,

«nik dakidanez, hura sekula ez da aurkeztu, ordea.»

Apperton Duke.

Gizotso, iz. Garai batean gizakia izan zen edo oraindik tarteka ere hala den otsoa. Gizotso guztiek gaiztakeriarako isuria dute, eta piztia itxura hartzen dute beren joera asetzeko, baina batzuk, sorginkeriaz eraldatuak, giza haragiari hartu dioten gustuarekin ongi heldu den bezain gizatiarrak dira.

Bavariako nekazari batzuek, gau batez otso bat harrapatu zutelarik, zutoin batean lotu zuten isatsetik, eta ohera joan ziren. Hurrengo goizean ezer ez zegoen han! Harri eta zur eginik, herriko

apaizari galdezka joan zitzaizkion, eta hark esan zien harrapatutakoa dudarik gabe gizotso bat zela eta bere giza era hartua zuela berriz gauean zehar. «Hurrena otso bat harrapatzen duzue-nean,» esan zien gizon zintzoak, «hankatik lotuta jarri katean, eta goizean Luterano bat aurkituko duzue.»

Gnomo, iz. Ipar-Europako mitologian, ipotx tankerako deabrua, lurraren barrunbeetan bizi dena eta mea-altxorren zaintzaz arduratzen dena. Bjorsenek, 1765ean hil zenak, dio bere mutilzarroan Suediako hegoaldean aski arruntak zirela gnomoak, eta maiz ikusten zituela mendian paseatzen ilunabarrean. Ludwig Binkerhoofek, 1792an, berriki samar beraz, hiru ikusi omen zituen Oihan Beltzean, eta Sneddekerrek ziurtatzen du 1803an meatzari talde bat atera zutela Silesiako meategi batetik. Adierazpen horiek ematen dituzten datak arakatu, ohartzen gara gnomoak ez zirela seguru aski 1764a arte desagertu.

Gnostikoak, iz. pl. Filosofo sekta bat, lehen kristauen eta Platonzaleen arteko batasuna moldatu nahi izan zuena. Lehenek ez zuten elkarrizketarik nahi izan eta, bateratzeak huts egin zuenez, batasunaren aldekoen amorrazioa ez zen izan nolana hikoia.

Gobernu, iz. Politikako abstrakzio ongi asmatua, lehen ministroari edo presidenteari dagozkion muturreko eta ostikoak hartzeko sortua. Txorimaloa, alprojakeriatik eta ustelkeriatik babesteko tresna.

Gobernu monarkiko*, iz. Gobernu.

Gogo-zabaltasun, iz. Iraina eroapen otzanez jasateko jarrera, mendeku plana zoritu bitartean.

Golde, iz. Lumara ohitutako eskuak oihuka eskatzen dituen lanabesa.

Gomendio, iz. Gurearen paretsuko lorpenengatik, ez ordea maila berekoengatik, ordaintzen dugun zerga.

Gorde, du ad.

Testamentuan emana zuen bere ondare guztia eta betiko loan murgildu zen gero errukarria.

«Honela, behintzat,» xuxurlatuaz, «gordeko baita garbia

nire izena menderen mende, beti-beti goretsia.»

Hilarran du bere izena oso ongi idatzia,

Nork gordeko du? Hilak ez behintzat, hark dena baitu utzia.

Durang Gophel Arn.

Goresle, iz. Gezurti mota berezi bat (baina ez bitxia).

Gorgon*, iz.

Gorgon antzinako neska gazte eta ausart bat zen, orduko grekoak harri bihurtzen baitzituen, bekoki izugarria ikusten bazioten.

Gaur harri-hondarretatik ateratzen ditugu;
zinez hain lanbide txarrak aise frogatzen digu
eskultoreak zirela zoroak, eta ez gu.

Gorpujale, iz. Hildakoak jateko ohitura gaitzesgarriaren adikzioa duen deabrua. Gorpujaleen existentzia dudatan jarri dute mundua sinesmen kontsolagarriez gabetzeaz ordezeko zerbait emateaz baino gehiago arduratu diren eztabaidazaleek. 1640an Aita Secchik bat ikusi zuen Firenze ondoko hilerri batean eta gurutzearen seinaleaz uxatu zuen. Buru asko eta beso-zango ugariz hornitua omen zen, eta leku bat baino gehiagotan ikusi omen zuen aldi berean. Gizagaixoa afari batetik omen zetorren une horretan, eta «bapo afalduta» egon ez balitz, kosta ahala kosta deabrua harrapatuko omen zuen. Atholstonek kontatzen du gorpujale bat nekazari sendo batzuek harrapatu zutela Sudburyko zimitorio batean eta zaldi-aska batean ezkutatu zela. (Badirudi pentsatzen zuela horrelako gaizkile nabarmenari larrosa-urezko putzu batean gordezea zegokiola). Ura kolpean odol bihurtu omen zen «eta horrela jarraitzen da gu hil arte».

Putzua harrezkero ubide batetik odolustu izan da. Hamalagarren mendean bertan ere gorpujale bat Amienseko Katedraleko kriptan inguratu omen zuten eta herritar guztiak bildu omen ziren inguruan. Hogei gizon armatu, gurutze bat zerman apaiz bat buru zutela, hara sartu eta gorpujalea harrapatu omen zuten, eta hark, trikimailuren batez ihes egitea bururaturik, herritar ospetsu baten itxura hartu omen zuen, baina hala ere urkatu, urperatu eta laurdenkatu omen zuten herri osoaren orgiarik itsusienaren erdian. Baina herritar hura, deabruak itxura hartzeko aukeratu zuena, parte txarreko gertaera horrek hainbesteraino asaldatu omen zuen, non ez omen zen gehiago azaldu Amiensen, eta haren atarramendua misterioa da oraindik ere.

Gorpulapur, iz. Hilobi-harrei lapurreta egiten diena. Mediku gazteak hornitzen dituen, hain zuzen ere, bestela mediku zaharrek lur-emaileak hornituko lituzketenaz. Hiena.

«Udazken batez lau lagun geunden,»
mediku batek zioen,

«Hilerri baten horma ondotik
hilobi bat zelatatzen.

Ilargiaren beheraldian
hilobiaren ondora
isil-isilik hiena hurbildu,
sartu nahi zuen zulora.

Egintza latzak zurtu gintuen,
gordelekutik atera,
pizti zikina garbitu eta
sartu genuen lurpera.»

Bettel K. Jhones.

Gorroto, iz. Gehiago denaren aurrean izateko egokia den sentipena.

Gorteko txoro, iz. Auzi-jartzailea.

Grabitazio, iz. Gorputz guztiek daukaten materia-kopuruaren arabera indarrez elkarrengana hurbiltzeko duten joera; daukaten materia-kopurua, berriz, elkarrengana hurbiltzeko duten indarraren arabera kalkulatu da. Honela erakusten

du zientziak modu atsegin eta onbidezkoan, A B-ren froga bihurtu ondoren, B bihurtzen duela A-ren froga.

Gramatika, iz. Tranpazulo sistema, bere kasa ikasitako gizonaren oinak trabatzeko prestatua, nabarmendu nahi badu ibili behar duen bide guztirako.

Graziak*, iz. pl. Hiru jainkosa eder, Aglaia, Talia eta Eufrosine, Venusen mirabe zirenak, soldatarik gabe. Mantentzen merkeak ziren, ia ez baitzuten ezer jaten eta eguraldiaren araberako jantziak izaten baitzituzten soinean, edozein haitzok eramaten zien edozer, itxura denez.

Gurtu, du ad. Zerbaiten esperantzaz beneratu.

Gurtza, iz. Homo Creatorrek Deus Creatusen egintza bikainari eta bukaera finari egiten dien aitortza. Lur-jotzearen forma popularra, harrotasun puntu bat duena.

Gurutze, iz. Antzinako sinbolo erlijiosoa, kristautasuneko gertaerarik solemneenari bere esanahia zor diolako uste okerra zabaldua izan arren, izan, milaka urte lehenagokoa dena. Askok uste izan dute *crux ansata* antzinako adorazio falikoko gurutzearen berdin-berdina dela, baina horretaz dakiguna baino askoz lehenagoko arrastoak aurkitu izan dira. Gaur egun Gurutze Zuria daukagu kastitatearen sinbolotarako; gerrako neutralitate onginahizkoaren seinaletarako, berriz, Gurutze Gorria. Lehenbizikoa buruan zuela aita Gassalasca Japek bertso sail hau idatzi zuen:

«Izan onak» «Izan onak» dio mojen koruak,
bekatutik aldentzeko zabalduaz oihuak,
ezkutatu gabe beren xarma -noiz?-loratuak.

Zergatik, baina, zergatik ez du begik ikusi
neska gazte eta ederrik, beren Gurutze Zuri
santu horrekin grazia dariela nabari?

Erretolika guztiak, sermoiak zertarako?
Bada plan sinpleagorik gizona salbatzeko,

(Salbatzerik hark merezi al du, baina, hasteko?).

Bai, maiteok, pentsamendu txarrei amore ematen hasten bada, Legeari lasai muzin egiten, ingura zakizkiote, egon ondoan, arren.

Gutunazal, iz. Agiriaren hilkutxa; fakturaren urkabea; diru-igorpenaren oskola; amodiozko gutunaren txabusina.

Gutxiespen, iz Erasotzeko arriskutsuegia den etsaiarenganako, gizon zuhurak duen sentipena.

H

Habeas corpus, iz. Okerreko delituagatik espetxeraturik dagoena ateratzeko balio duen idazkia.

Hades*, iz. Beheko mundua; joandako arimen egoitza; hildakoak bizi diren lekua.

Antzinakoen artean Hadesen ideia ez zen Infernuarenaren sinonimoa; izan ere, antzinako gizon prestu franko hantxe bizi ziren eroso asko. Are gehiago, Kanpo Eliseoak berak ere Hadesen parte bat ziren, nahiz eta gerora Parisera eramantuzten. Testamentu Berriaren bertsio jakuetarra bilakabidean zenean, lan horretan ziharduten gizon zintzo eta ikasiak grekozko *ΰΑιδω* hitza *Infernu* hitzaz ematen tematu ziren, gehiengoak honen aldeko botoa eman baitzuen; baina gutxiengoko kide zuhur batek sekretuan akta bereganatu eta hitz eztabaidagarria aurkitu zuen leku guztietan ezabatu zuen. Hurrengo bileran, Salisburyko Apezpikuak, lana gainbegiratzear, bat-batean zutituz esan zuen

aski aztoraturik: «Nor ibili da hemen jo-ta-su infernua ezabatzen?». Handik urte batzuetara, ingeles hizkuntzari ekarpen garrantzitsu, probetxuzko eta hilezkorra egin ziola pentsatzeak (Probidentziak lagundurik, noski) heriotza pixka bat goxatu zion Apezpiku zintzoari.

Halo, iz. Zentzu hertsian astro bat inguratzen duen argi-eraztuna, eta maiz samar «aureola» edo «ninbo»-arekin nahastu ohi dena, jainko eta santuek buru inguruan izaten duten antzeko fenomeno batekin, alegia. Haloa ilusio optiko hutsa da, aireko hezetasunak sortua, ortzadararren antzera, baina aureola santutasun goitarra-go baten zeinutzat hartzen da, apezpikuen mitra edo Aita Santuaren tiararen gisara. Peshteko artista jainkozale Szedgkinen *Eguberria* pinturan, «ninboa» ez dute Ama Birjinak eta Haurrak bakarrik, baizik belar ondua ganbela sakratutik jaten ari den astoak ere apaingarri hori dauka eta, haren ohore betierekoan esan behar da, benetako grazia santuz jasaten duela bere ez-ohiko duintasun hori.

Handi*, izond.

«Handia naiz,» esan zuen harro-harro lehoiak.

«Menpean ditut ordeka, oihan eta zelaiak!»

«Handia naiz,» arrapostu, lasai, elefanteak,

«pisutan aise atzean uzten ditut besteak.»

«Handia naiz,» esan zuen jirafak. «Hau lepoa!

Inork ez du nirearen erdia adinakoa.»

«Handia naiz,» gain-gainetik zioen kanguruak

«begira izter ederrok dituzten muskuluak.»

Opossum-ak esan zuen: «Handia naiz, begira,

nire isats eta azala soil eta leunak dira.»

Frijitutako ostra bati entzun omen zioten:

«Handia naiz, zeren zinez gozo-gozoa naizen.»

Zerrendan norbera non den lehenbiziko lekuan,

hura nahi du irizpide handitasun kontuan.

Vierick, berriz, etsia da bera dela handiena,

astazakiletan bera baita astazakilena.

Handinahi, iz. Bizirik gauden bitartean etsaiek gu larrutu eta hildakoan adiskideei gure lepotik barre eragiteko irrika gaindiezina.

Hankademia, iz. Futbolean irakasten den eskola berria. (*Ikus Akademia*)

Har-bazka*, iz Gu garen lehengaiarekin egiten den produktu bukatua. Taj Mahalen, Napoleonen Hilobiaren eta Granitarioaren edukia. Har-bazkak gehienetan ez du irauten bera gordetzen duen egiturak adina, baina «hori ere ez da betiko». Gizaki batek egin dezakeen lanik txatxuena, seguru aski, beretzat hilobi bat egitea da. Asmoaren punpeziak ez dio duintasunik ematen, haren hutsalkeria ezaguna kontrastez nabarmendu baizik.

Ero arranditsua, txoro handiputza,
zein alferra zuk egin lan hori guztia
etxe bat izateko zeinaren handia
ez den maizterrak mirets dezakeen gauza.

Egizu sakon, egin ahal bezain sendoa,
belar jorien zainak gailenduko dira
bultzaka bide eginez harrien erdira,
denbora joango zaizu nola amets goxoa.

Hilei denbora hain azkar zaie igarotzen,
non gaineko marmola birrindu aurretik
esnaturik nagiak atera gaberik
ez zaren ohartuko noiz lokartu zinen.

Zer irabazten duzu gizonen egintza
guztietatik zure hilobia bada
zutik gelditzen dena? Zer, zure egoitza
betikoan liken bat baizik ez bazara?

Joel Huck.

Haragi, iz. Trinitate sekularraren bigarren pertsona.

Haragijale, izond. Barazkijale beldurtia eta haren oinordeko eta babespekoak irensteko kurdeltasunaren adikzioa duena.

Haren (emak.), izord. Haren (gizonarena).

Harizko janzki iz. «Janzki mota bat, kalamuz eginez gero, kalamu galera handia eragiten duena.» — *Calcraft Urkatzailea*.

Harpia*, iz. Kasualitatez gustuko ez duzun atsoa; batzuetan oilo zaharra edo katemea ere esaten zaie. Garai bateko sorgin, belagileei, etab. harpia esaten zitzaien, uste baitzen buru inguruan nolabaiteko argitasun edo halo bat zutela... harpia, berriz, herri-xeheak harpean bizi zela uste zuelako erabiltzen zen hitza zen. Garai batean harpia ez zen erdeinuzko hitza. Drayton «harpia eder bat, oro irri» batez mintzo da, Shakespearek «harpia goxo» bat esaten duen bezala. Orain ez litzateke egokia batek bere andre-gaiari harpia esatea... horrelako kunplimendua haren bilobentzat erreserbatua da.

Hartu, du ad. Eskuratu, maiz bortxaz, baina ostuz bada, hobe.

Haur edo ume, iz. Adin, sexu edo izaera jakinik gabeko izaki aldrebasa, batez ere aipagarria besteengan sortzen dituen sinpatien eta antipatien indarra dela medio, berak sentimendu edo emoziorik izan gabe.

Izan dira haur ospetsuak; adibidez, Moises txikia, zeinen ihi arteko abenturatik zazpi mende lehenagoko hierofante egipziarrek dudarik gabe sortu baitzuten Osiris haurra loto-hosto baten gainean salbatu zelako istorio hutsala.

Haurrak asmatu baino lehen
neskak benetan pozik zeuden.

Gizona orain tormentatzen
dute haurrak erosteraino
diruz; pentsa, horra noraino!

Nire ustez, hobe zen agian
Zapelatzak balu eraman
lehen haurra infernuraino.

Ro Amil.

Haurtasun, iz. Wordsworthek dioenez «Zerua gugandik hurbil dugun» bizitzako aroa. Mundua, ordea, berehala hasten da gugana hurbiltzen.

Haurtzaro, iz. Giza bizitzako aro bat, pix-oihale-tako haurraren idioziaren eta gaztaroko erotasunaren tartekoa. Bigarrenak gizatasunaren bekatutik libratzen du eta hirugarrenak adinaren bihotz-zimikotik.

Hausnarketa, iz. Adimenaren egintza bat, atzoko gauzekiko gure harremana argitu eta erakusten diguna berriro aurkituko ez ditugun arriskuetatik libratzen.

Hautagai izendatu ad. Balorazio politiko astunenaz zamatu. Pertsona egokia oposizioaren karkaxa lodi eta goitika odoltsuak hartzera bulzatu.

Hautagai izendatua iz. Bizitza pribatuaren goitasunari uko egin eta erantzukizun publikoaren iluntasun ohoragarria lortzeko ahalegin neke-tsua egiteko bidea hartzen duen jaun apala.

Hautesle, iz. Beste gizon batek aukeratutako gizonari botoa emateko pribilegio sakratuaz gozatzen duena.

Hax*, x. Ez dago definiziorik hitz honentzat... inork ez daki hax x zer den.

Hebertar, iz. Hebrearra, hebremearekin nahasi behar ez dena; oro har, sorkari goitarragoa baita.

Herri jakintza*, iz. Jakinduria. Bereziki ikasketa prozesu antolatu batetik ez datorrena, baizik eta liburu ezkutuen irakurketatik edo berez. Azken horri folk-lore esaten zaio normalean, eta herri mito eta superstizioak biltzen ditu. Baring-Goulden *Erdi Aroko mito bitxiak* liburuan irakurleek horietako askoren aztarnak aurkituko dituzte, puntu baterantz jotzen duten zenbait herriren ildoei jarraituz, antzina-antzinako sorburu amankomuneko bateraino. Besteak beste, hor ditugu: *Teddy Erraldaien hiltzailea*, *John Sharp Williams Lotia*, *Txanogorritxu eta Azukrearen Trusta*, *Ede-rra eta Brisbane*, *Efesoko zazpi Zinegotziak*, *Rip*

Van Fairbanks, eta abar. Goethek benetan xamurkiro kontatu zuen *The Erl-King (Mamua)* ipuina bi mila urte lehenago ezaguna zen Grezian, *Herri xehea eta haurren industria* izenburupean. Mito horietako zaharren eta zabalduenetako bat ipuin arabiar ospetsu hura da: *Ali Baba eta berrogei Rockefellerrak*.

Herri xehe, iz. Errepubliketan, hauteskunde iruztitz moderaturiko aginte gorena duena. Herri xehea ipuin arabiarreko Simurgh sakratuaren parekoa da... ahalguztiduna ezer egiten ez duen bitartean. (Hitza aristokratikoa da, eta ez du baliokide xuxenik gure hizkuntzan, baina bere esanahirik hurbilena «zerri hegalduna» da.)

Hertsapen, iz. Botearearen ele-edertasuna.

Hezigaitz, izond. Desarau berri baten proposatzailea, arau bihurtzean huts egin duena.

Hezkuntza, iz. Beren ulermen falta burutsuei erakutsi eta buru-hutsei ezkututzen dien zera.

Hezueri, iz. Gaixo aberatsaren erreumari medikuak ematen dion izena.

Hibernatu, ad. Negua etxe-zuloan sartuta igarotzea. Animalia zenbaiten hibernazioaz herri-sineste bitxi franko izan da. Askok uste dute hartzak negu osoa hibernaturik ematen duela eta atzaparrak mekanikoki miaztuz irauten duela. Onartua da bere gordelekutik udaberrian hain argaldurik ateratzen dela, non bi aldiz saiatu behar duen itzala emateko. Duela hiru edo lau mende, Ingalaterran, ez zegoen egintza frogatuagorik enarek negua erreken hondoetako lohietan multzo biribiletan elkarri itsatsirik igarotzen zutela baino. Dirudienez, ohiturari utzi egin behar izan diote, erreken usteldura dela-eta. Sotus Escobiusek hibernatzen zuen herri oso bat aurkitu zuen Asia Erdialdean. Ikertzaile batzuen arabera, Garizumako baraua jatorriz hibernazio eraldatu bat besterik ez da, gero Elizak balio erlijioso eman ziona; baina ikuspegi horri Kip Apezpikuak, autoritate nabarmen hark, gogor egin zion, ez baitzuen nahi inork bere familiaren Fundatzaileari inolako ohorerik kentzerik.

Hibrido, iz. Emaidza lardaskatua.

Hidra, iz. Antzinakoen artean buru-anitz gisa katalogatutako animalia, hiztegieta buru-hitz zenbaiten pean aurkitzen dena.

Hiena, iz. Ekialdeko zenbait naziok begirunea dioten piztia bat, hilerrietako hobiak gauaz bisitatzeo duen ohituragatik. Baina medikuntzaiakasleak ere egiten du hori.

Hil, du ad. Ondorengorik izendatu gabe hutsune bat sortu.

Hilartitz, iz. Hilobi gaineko inskripzioa, heriotzaren bidez eskuratutako bertuteek atzera-eragina dutela erakusten duena. Hona adibide hunkigarri bat:

Hemen datza Pedro Amenabar zena,
zuhur, zintzo, umil eta abar zena,
nola ondo bizi azaldu ziguna;
bego horretan... eta barkaiozu, jauna!

Hildado, iz. Heriok hilgaiari azken bisita egitean, hildako bihurtu aurretik jolaserako erabiltzen duen jostailua. Botatzean oihu egiten du: «Hildadoak mintza bitez!». Eta hildakoa, bizi zelarik ere sor samarra baitzen, saiatzen da puxka batean, hilda dagoela konturatzen den arte. Hitz hau poeta ospetsu eta ekonomialari etxe-alde Depew senatorearen bi-puntuko hilezkor honetan aurkitzen da.

Hildako txikitxo bat, aski da, benetan,
hildakoa harrapatzeko tranpa txikietan.

Hildako, izlag.

Akabo arnasa hartzeko lana;
mundu hau duzu akabo;
kunplitu duzu zenuen plana:
zuloan zu lo: han, zulo!

Squatol Johnes.

Hilerri, iz. Hiri ertzetako leku bakartia, deitoratzaileek gezurrak moldatzeko, poetek enkarguz

idazteko eta harginek letrak zizelkatzen apustuan aritzeko erabiltzen dutena. Ondoko hiltartitz hauek balioko dute Joko Olinpiko hauetan lortutako arrakasten adierazgarri:

Honen bertuteak hain ziren nabarmenak, non bere etsaiek, ez ikusiarena egin ezinik, ukatu egiten baitzituzten, eta bere lagunek, biziotzat hartzen zituzten, kargu-hartze baitziren haien bizimoduarentzat. Hemen oroitarazten ditu bere familiak, berak ere bertute horiek baizituen eta.

Lurrean prestatu dizugu, Klaratxo,
zu sartzeko zulo eder bat, enetxo.

Tomas M. eta Mary Frazer.

P.S. Esnatuko du Gabrielelek laster.

Hileta, iz. Lur-emailea aberastuz hildakoarenganako gure begirunea erakusteko zeremonia. Horrez gain samina areagotzen dugu gure intziriak sakonagotzen eta gure malkoak doblatzen dituen gastuak eginez.

Basatia hiltzen bada, hiltzen dute zaldi bat,
zendua hegaldadain ehizaleku onera.

Gure lagunak hiltzean, diru mordo bat botaz,
nahi dugu arima hura bultzatzea zerura.

Jex Wopley.

Hileta-auto, iz. Heriotzaren haur-kotxea.

Hilezkortasun, iz.

Jostailu hau bereganatzeko
jendea jartzen da belauniko,
prest da borroka, gezurrerako...
Utziz gero, hilezkor izateko,
prest bizia galtzeko betiko.

G. J.

Hilobi, iz. Medikuntzako ikaslea etorri zain, hildakoak uzten diren lekua.

Hilobi eder baten ondoan nengoen,
baina sasiz goraino josia zegoen.
Haizea oihanean ari zen intziriz;
lo zetzanak batere ez aditzen, berriz.

Bazen nekazari bat handik ez hain urrun,

esan nion: «Negarrik ezin dizu entzun.»
«Nola entzungo du, ba, hilda dago eta?
Ezer ezin du entzun, zer nahi ere gerta.»

«Egia,» esan nion, «egia zuzena:
ezerk ezin suspertu hilda dagoena!»
«Eta honek guztiak zuri zer axola,
ez baitu mugituko hankarik inola?»

Belauniko otoitz egin nuen: «Ene Jauna,
erruki zakizkio, izan zaitez ona.»

Nekazariak gero hauxe esan zuen:
«Gizon hau ez zenuen batere ezagutzen.»

Pobeter Dunk.

Hipogrifo, iz. Animalia bat (orain iraungia), erdi zaldi erdi grifoi. Grifoa bera ere izaki konposatua zen, erdi lehoi, erdi arrano. Hipogrifoa, beraz, arrano-laurden bat besterik ez zen, bi dolar eta berrogeitamar zentabo urre. Zoologia ikastean ustekabe franko hartzen dira.

Hipokondria, iz. Norberaren umorearen hondoratzea.

Zabor pilak errenkan herri bazterrean
botata zeuden nonahi orube batean.

Hondakinen artean, karteltxo bat lerden:

«Hipokondria.» Beraz: «Hondakinak hemen.»

Bogul S. Purvy.

Hipokrita, iz. Errespetatzen ez dituen bertuteak profesatzen dituelarik, mesprezatzen duenaren itxura ematearen abantailari atxikitzen zaiona.

Hira*, iz. Izaera eta maila goreneko haserrea, pertsona odolberoentzat eta abagune berezieta-rako egokia; adibidez, «Jainkoaren hira», «hira-ren eguna», etab. Antzinakoen artean erregeen hira sakratutzat hartzen zen, jainkoren baten eragina erabil baitzezakeen hura agertarazteko, baita apaizen batena ere. Troia aurreko grekoak hainbeste hertsatu zituen Apolok, non Krisesen hiraren zartaginetik Akilesen hiraren sura jauzi egin baitzuten, nahiz eta Agamenonek, gaiztagin bakarrak, azkenean ez zuen ez frijituta ez erreta bukatu. Aurrekoen antzeko inmunitatea Dabidena izan zen, Jahvehren hira astindu baitzuen

bere herria zenbatzearekin; haietatik hirurogeita hamar milak beren biziarekin ordaindu zuten hoben hori. Jainkoa gaur egun Maitasuna da, eta errodaren arduradunak inolako hondamenen beldurrik gabe egin dezake bere lana.

Hirutasun, iz. Eliza kristau batzuen teologia konplexuan hiru jainkotasun banakaturik osatutako jainkotasun bakarra. Fede politeistako jainkotasun menpekoek, hala nola deabru eta aingeruek, ez dute bat egiteko ahalmenik, eta banan-banan arduratu behar dute beren adorazio eta kultua sustatzeaz. Hirutasuna gure erlijio santuaren misterio gorenetakoa da. Batasunzaleek urlertezina delako arbuizatzeari, traizio egiten diote Teologiaren oinarriak ulertzeko duten ezintasunari. Erlijioan ulertzen ez duguna besterik ez dugu sinesten, ulertezina den doktrina bat ukatzen duen doktrina ulergarri baten kasuan izan ezik. Kasu horretan lehenbiziko hura bigarrenaren zati bezala sinesten dugu.

Historia*, iz. Kontaera faltsua hein handi batean, gehienbat garrantzi gutxiko gertaerak

kontatzen dituena, gehienbat gizatxarrak diren gobernariak eta gehienbat txoroak diren soldaduek eraginak.

Erromatarren historiak hamarretik bederatziz
gezurra dela Niebuhr handiak garbi zigun erakutsi.
Halatan ere, Niebuhr handia gidari hartu baino
lehen,
jakin nahi nuke zenbat huts egin, zenbat gezur esan
zuen.

Salder Bupp.

Historiaurreko, izlag. Antzinako garaietakoa
eta museoen jabetzakoa. Faltsukeria betikotzearen
arte eta praktika baino lehenagokoa.

Hura bizi zen garaia izan zen historia-aurrekoa
non dena baitzen zentzugabe eta txit fantasmagori-
koa.

Klio, Zeruko Idazkaria, gerora sortu zenean,
gertakariak jarri zituen zegokien ordenean.
Ez zuen nonbait ikusi ezer bitxi, ustegabekorik
berak han goitik bota zituen gezur guztiak besterik.

Orpheus Bowen.

Historialari*, iz. Kalibre handiko kontakatilua.

Hitz emandako, izlag. Eraztuna behatzean eraman beharrean orkatilan daramana, kate eta bolarentzat.

Hitzaldilari, iz. Eskua zure patrikan, mingaina zure belarrian eta konfiantza zure pazientzian jartzen duena.

Hitz-jario, iz. Zuk hitz egin nahi duzunean gaitz hau duenari mingaina galgatzeko ezintasuna eragiten dion gaixotasuna.

Hizkera zatar. iz. Aurkariaren irainezko erreto-
lika.

Hizkuntza, iz. Besteren altxorra zaintzen duten sugeak liluratzeko erabiltzen dugun musika.

Hiztegi, iz. Hizkuntza baten hazkundera galarazi eta gogor eta zurrun bihurtzeko letra arloko tres-

na gaiztoa. Hiztegi hau, haatik, tresna emankorra da.

Hobespen, iz. Gauza bat beste bat baino hobe delako uste okerrak eragindako sentimendu edo gogo-egoera.

Antzinako filosofo bati, bizitza heriotza baino hobe ez dela azaltzen ari zela, ikasle batek galdetu zion ea, orduan, zergatik ez zen hiltzen.

«Zeren,» erantzun zion, «heriotza ez baita bizitza baino hobe.»

Luzeagoa da.

Hobi, iz. Soraiotasunaren Etxea. Hilobiek nola-baiteko santutasun ukitua dutela onartua da, baina luzaroan bertan norbait egon bada, ez da bekatutzat hartzen ireki eta dagoenari eskua eranstea; hala, Huggyns dk. egiptologo ospetsuak argitzen du hilobiak errugabeki «induska» daitezkeela barrukoak «kiratsa zabaltzeari» utzi bezain laster, ordurako arimak lekua alde batera hustua baitu. Ikuspegi arrazoizko honek onarpen zabala du arkeologoen artean, jakin-minaren zientzia nobleari egindako ekarpenagatik.

Homeopata, iz. Medikuntzako umorista.

Homeopatia, iz. Alopatiaren eta Zientzia Kristauaren erdibidean dagoen medikuntza-eskola. Azken bi horientzat gainerakoak nabarmenki behekoak dira, zeren zientzia kristauak irudimezko gaitzak sendatzen baititu, eta haiek ez.

Hondakinak*, iz. pl. Txatarrak, zati barreiatuak, puskilak. Hitza modu askotara erabiltzen da, baina ondoko bertso hauetan dago hobekien erabilia; emakumeak bizikletan ibiltzea («deabruarengana eramaten dituelako») gaitzesten zuen emakume erreformatzaile ospetsu bati buruzkoak dira.

Gurpilak jiran, isilik biran

neskatilek a zer poza!

Bekatu giro alai eroan

harilkatuaz mataza

infernurako bidean

harigileak bailiran.

Irriz, kantari, hots dilindari
etengabean txirrinak...
gauaz argiak, dizdizariak
oinezkoentzat saminak.
Besoak gora, Miss Charlotte nola
ez da, bada, kexatuko!
Alajainkoka eta aieneka,
erreuma du ahaztuko,
bidea itxiz, amorru etsiz
Satan desafiatuko.
Gurpilak jiran, isilik biran
argi gorri, berde, urdinak...
Bide erdian, txatar bailiran
Miss Charlotten hondakinak...

John William Yope.

Hondamendi, iz. Bizitza honetako gorabeherak ez daudela gure mende adierazteko oroitarazpen ohi baino garbiagoa eta okerbiderik gabea. Hondamendiak bi klasetakoak dira: geron zorigaiztoa eta besteren zoriona.

Hondatu, ad. Desegin. Zehazkiago, neskatxa batek neskatxen bertutean duen sinestea desegin.

Hondatzailekeria, iz. Gaurko premietarako biharko irabaziekin egindako hornidura.

Horma, iz. Zapatariaren erreminta bat, Probidentzia haserretuak hitz-jokozaleari aukera emateko izen horixe paratu ziona.

Hitz-joko zale, ai sortu banintz,
zapatariaren horma
ezezaguna ledin lekuan,
hireez ez nendin horma.

Garko Repsky

Hunkipen, iz. Bihotzaren erabakiz buruari sortzen zaion eritasuna, lur-jota uzten zaituena. Batzuetan begietatik sodio-kloruro hidratatuaren jario ugaria izaten du lagun.

Huri, iz. Musulman onei bizimodua alaitzeko, mahomatarren paradisuan bizi den eme itxuro-

soa; huriak badirela sinesteak erakusten du mahomatarrak lurrean duen emaztearenganako deskontentu noblea; izan ere, arima edukitzea bera ere ukatzen dio. Emazte zintzoak, diotenez, ez ditu huriak gehiegi estimatzen.

Idaxle, iz. Norberaren ikuspegiaren erabat kontrakoa duen idazle profesionala.

Idazluma, iz. Antzarak ematen duen eta norma-lean asto batek erabiltzen duen tortura-tresna. Antzara-lumaren erabilera hau zaharkitua da, baina haren gaurko baliokidea, luma estilografikoa, betiereko erabiltzaile berdinen eskuetan dago.

Igarpen, iz. Norberaren sinesgarritasuna etorkizunean jasotzekotan saltzeko arte eta modua.

Igel, iz. Hanka jangarriak dituen narrastia. Igela literatura profanoan lehenbizikoz Homeroren narrazioetan aipatu zen, igelen eta saguen arteko borrokan, hain zuzen. Eszeptikoek dudatan jarri dute Homero obra horren egilea izatea, baina Schliemann Dk. eskolatu, zorrotz eta langile porrokatuak auzia behin betiko erabakita utzi du hildako igelen hezurak aurkitzearekin. Israel-

darrak faboratzera Faraon behartu zuen hertsapen moraleko moduetako bat igel izurrite bat izan zen, baina hark, *fricassé* eran gustatzen zitzaizkionez, esan zuen, estoizismo ekialdetar benetakoa erakutsiz, berak ere hura jasan zeza-keela, juduek eta igelek ahal zuten bitartean; hala, programa aldatu zuten. Igela abeslari maratza da, ahots on baina belarri txarrekoa. Haren opera maiteenaren libretoa, Aristofanesez idatzia, laburra da, sinplea eta eraginkorra: *bre-kekex-koäx*; musika, berriz, Richard Wagner konpositore nabarmenarena da, dirudienez. Zaldiek apatx bakoitzean igel bana dute... naturaren hornizio burutsua, hesi-lasterketetan distiratzeko aukera ematen diena.

Ikakasle*, iz. Besteren izen ona kakazteko eskolako ikasketak egin dituenak.

Ikonoklasta*, iz. Idoloak txikitzen dituenak; egin-tza horrek ez ditu erabat asebetetzen haiek adoratzeko dituztenak, eta eginahalean protestatzen dute esanez ikonoklastak idoloak desegin bai, baina ez duela berririk jartzen, eraisten dituela

baina ez dituela altxatzen. Zeren gaixoek beste idolo batzuk jarri nahi bailituzkete, hark buruan jo eta barreiatu zituenak ordezkatzeko. Baina ikonoklastak esaten du: «Ez duzu bat ere izango, ez baitituzu behar; eta konpontzailea berriketan hasten bada horrekin, gogoan izan burua zanpaturko diodala eta haren gainean eseriko naizela hura marruka hasi arte.»

Ikore*, iz. Jainko eta jainkosek odolaren ordezkari baliatzen duten isurkaria.

Diomedesek jo zuen Venus leiala lantzaz,
gerlari haserreari hark esan zion penaz:
«Horrela odolustu nauk, mortal ñaño ziztrina!
Ikore-isurtzez daukak arima gaur zikina!»

Mary Doke.

Ilargitar*, iz. Ilargiko biztanlea, ilargi-joarekin nahasi behar ez dena; hori ilargiak bizi baitu. Ilargitarak Luzianok, Lockek eta beste zenbait behatzailek deskribatu dituzte, baina ez datoz bat ezer askotan. Adibidez, Bragellosek anatomia aldetik gizakiarekin parekatzen ditu; New-

comb irakasleak, berriz, Vermonteko Mendietako tribuen antz handiagoa dutela dio.

Ilusio, iz. Oso familia errespetagarriko aita, honako seme-alaba txintxo hauek dituenak: Suhartasuna, Atxikimendua, Norberaren Ukoa, Fedea, Itxaropena, Karitatea eta beste mordoxka bat.

Gora Ilusioa! Ez balitz zuregatik
mundua hankaz gora litzateke bertatik!
Zeren Bizioaren lilura zilegiak
zapuztuko lituzke bertuteen graziak.

Mumfrey Mappel.

Iman, iz. Magnetismoaren eraginpeko edozein gauza. (*ikus Magnetismo*)

Indar, iz. Burmuinaren ordeztu txoroak erabiltzen duena.

Indigenak, iz. pl. Herrialde aurkitu berriko lurtean traba egiten duten pertsona exkaxak;

laster uzten diote lurra trabatzeari; ongarriztatu egiten dute.

Indigestio, iz. Eriak eta bere lagunek fede sako-narekin eta gizateriaren salbazioari buruzko ardurarekin maiz nahasten duten eritasuna. Mendebalde basako Azalgorri xaloak esan zuen bezala, nolabait bortxaturik betiere: «Betekada polita, otoitzik ez; tripako min latza, bapo Jainkoa!»

Indioilar, iz. Hegazti handi bat. Haren haragiak, zenbait urteurren erlijiosotan jaten denean, elizkoitasuna eta esker onaren lekukotasuna emateko ezaugarri berezia du. Bidenabar, jateko nahiko ona da.

Indiskrezio, iz. Emakumearen bekatua.

Inferiae, iz (Latina). Greko eta erromatarren artean, *Dii Manes* edo heroi hilak baretu edo norberaren alde jartzeko egiten ziren sakrifizioak; izan ere, antzinako gizon jainkozale haiek ez ziren gauza beren premia izpiritualak asetzeko

adina jainko sortzeko, eta badaezpadakoz osatu behar izaten zituzten, edo marinel batek esango lukeen bezala, larrialdiko mastez, zeinak materialik badaezpadakoenak baliatuz egiten dituzten. Hain zuzen ere, Laiaides, Aulisko apaiz bat, Agamenonen arimaren alde zezenko bat sakrifikatzen ari zela, gerlari ospetsuak agerraldi baten oparia egin zion, Kristoren jaiotzaren eta kristautasunaren garaipenaren kontakizun profetikoa egin, eta horrez gain San Luisen Erregealdira arte gertatutako zena azkar baina modu aski osatuan kontatu zion. Kontaera, bat-batean, horixe etenda geratu zen, oilar baten kukurruku lotsagabeak Gizonen Erregearen fantasma Hadesera itzultzera behartu baitzuen. Erdi Aroko kutsu fina du istorio honek, eta San Luisen Gorteko Père Brateille idazle zintzo baina ilunak emandakoak baino arrasto zaharragorik aurkitu ez denez, ez gara oso oker ibiliko ustetzat jo eta apokrifotzat hartzen badugu, Capel Apezpikua-
ren iritzia erabat bestelakoa bada ere; eta horri makurtzen natzaio... nola ez.

Infralapsario, iz. Adanek gogora etorri zitzea arte bekatu egiteko premiarik ez zuela

sentitu sinestera menturatzan den pertsona...
Supralapsarioak, berriz, juxtu alderantzizkoa
sinesten du, alegia zorigaiztoko gizon haren ero-
rialdia hasieratik erabakita zegoela. Infralapsa-
rioiei batzuetan Sublapsario izena ere ematen
zaie, nahiz eta horrek ez izan eraginik Adani
buruz duten ikuspegiaren garrantzi eta argitasu-
nean.

Kaperako bidean, behin, bi teologo bildu
eta hasi ziren hizketan eta mingaina astindu
zuten gogotik disputan, nahi baitzuten ebatzi
Adan gaixoa zerk ote zuen erorarazi.
«Predestinazioa da,» zioen batak sutsu,
«Jainkoak berak horixe baitzuen dekretatu.»
«Ez, bultzatu zuena da bere Aukeramena,
iradokitze hutsa da Jaunak egin zuena.»
Eztabaida hain zen gartsu eta basa bihurtu,
non amorru hura odolik gabe ezin zen baretu.
Hala, kapelu-kasuilak biek lurrera bota,
auzia argitzera ziren prestatu mutur-joka.
Garaipenaz inork bere arrazoa frogatu
gabe, mehatxuetatik ez baitziren pasatu,
latinezko irakasle xahar bat zen azaldu;

makila dauka eskuan, begiradan sua du;
liskarra zerk sortu zuen ikasi zuenean,
(elkarri esetsiz baldar ari ziren artean)
trebe erakusten baitzuten eztabaida-ahalmena,
dela Predestinazio, dela Aukeramena,
oihu egin zien: «Geldi, aski da-ta, ñañoak,
zuen arteko aldeak ez dira hainbestekoak.
Gaizki ulertu duzue zuen sekten izena,
prest naiz hemen egiteko nire zinik zinena.
«Hik, infralapsario horrek, pailazokume ergela,
diok Adan gizajoa beherantz erori zela.
Hik, supralapsario harro, gorantz egin zuela.
Berdin da, labainarazle beti, banana-azala.»
Adanek berak ez zuen aztertu irristada,
pentsatuz: «Hau tximist azal batek eragina da».

G. J.

Inkubo, iz. Arraza biziki gaiztoko deabrua, erabat desagertua ez izan arren, bere onenak emana dela esan daitekeena. *Inkubo* eta *sukubo* guztien zerrenda osoa nahi duenak —inkubo eta sukubo emeak barne— jo beza Protassusen *Liber Demonorum*-era (Paris, 1328), bertan jasoa baitago informazio oso bitxia, herri eskoletan testu

liburu gisa erabiltzeko pentsatutako hiztegi honetan lekuz kanpo legokeena.

Victor Hugok kontatzen du Mantxako Kanaleko uharteetan —dudarik gabe, beste inon baino tentatuago sentitu baitzen bertako emakumez— Satanek berak batzuetan *inkubo*-arena egiten duela eta, oro har beren senarrei emandako hitzari fidel egon nahi duten emazteei deserosotasun eta aztoramen handia sortzen dizkiela. Andere batek parrokoarengana jo omen zuen galdetzera ea ilunpetan nola bereiz zezaketen emakumeek intruso lotsagabea eta senarra. Gizon santu hark erantzun omen zion ohaideari kopeta miatzeko, ea adarrik zeukan; baina Hugok ez zuen oso portaera galaia erakutsi frogabidearen balioa zalantzan jarriaz.

Inmoral, izond. Komeni ez dena. Gizonek, denbora askoren buruan eta adibide zerrenda luze baten arabera, oro har, ez oso komenigarritzat daukaten guztia bihurtzen da oker, gaizto, immoral. Gizakiak zuzenaz eta okerraz duen ideiak komenigarritasunaz beste oinarririk baldin badu; ideia hauek beste nolabait sortu baziren, edo

sortu ahal izan balira; egintzek berez moraltasunik baldin badute beren ondorioetatik aparte eta haiekin inolako loturarik gabe... orduan filosofia guztia gezur hutsa da, eta arrazoia, berriz, adimenaren nahaste bat.

Inoizkako, izlag. Maiz samar muzinarazten gaituena. Hitz hau, hala ere, ez da beti baliagarria, batzuetan «okasiorako» erabili behar baita, adibidez «okasiorako bertsoak» esaten denean, okasioa sortzeko izaten baitira horrelakoak. Horiek bestiek baino gehixeago muzinarazten gaituzte, eta ez, hain zuzen ere, inoizkakoak izateagatik.

Inozokeria, iz. Goi arnasa mota edo su sakratu moduko bat, hiztegi honen maiseatzaileak jotzen dituen.

Inpunitate, iz. Aberastasuna.

Inskripzio, iz. Beste gauza baten gainean idatzitako zerbait. Inskripzioak era askotakoak dira, baina gehienak oroigarriak, pertsona sonaturen

baten ospea oroitarazteko eta ondorengo belau-
naldiei haren zerbitzu eta bertuteen berri emate-
ko asmoz eginak. Horrela inskripzioen artean
sailkatzen dugu John Smithen izena, Washingto-
nen oroitarrian lapitzez idatzia. Jarraian hilarrie-
tako inskripzioen zenbait adibide ematen dira
(ikus HILARTITZ).

Nire arima zeruan dago,
nire gorputza lurrean.
Pixkana hegan nire gorputza
joango da arimaren bila
goiz eder batez airean.

1878an»

«Jeremias Velarraren oroitzapen sakratuari: 1862ko
maiatzaren 9an segatua, 27 urte, 4 hilabete eta 12 egun
zituela. Bertakoa».

«Oinaze latzak jasan ondoren
medikuek salba ezin,
heriotzak han eraman zuen
eta bihurtu hondakin.
Zerura joan zen bertan biltzera
gure Ananiasekin.»

«Harri honen peko buztinari lehen
Silas Wood izena ematen zioten.
Hemen natza neure artean galdezka
Silas Wood izanak merezi al zuen.
Gizona, handinahiak ez zaitzala kezka,
Silas Wood ederki ikasita joan zen.

«Richard Haymon; Heavenekoa. Lurrera eroria 1807ko urtarrilaren 20an. Eta hautsak kenarazi zituen 1874ko urriaren 3an.»

Interprete, iz. Hizkuntza desberdinetan mintzo diren bi pertsonari elkar ulertzen laguntzen diena, bakoitzari errepikatuz besteak esatea berari, interpreteari, komeniko litzaiokeena.

Interregno, iz. Herrialde monarkiko bat tronuko kuxinaren berogune batek gobernatzen duen epea. Berogunea hozten uzteko esperimientua maiz egin izan da, baina emaitza kaxkarrak izan ditu, pertsona baliotsu askok baitute hura berriro berotzeko irrika arduratsua.

Intsektujaleak, iz. pl.

«Horra,» sermolari aldrak dio aho zabalik,
«Ez dago Probidentziak bazter uzten duenik.»
«Gutaz ere kezkatzen da,» eltxoak ahopetik,
«enara eta mitxigu sortu zuen gogotik!»

Sempen Railey.

Intsentsu-ziriak, iz. pl. Txinatarrek beren txo-
rakeria paganoetan gure erlijio santua imitatze-
ko erretzen dituzten makilatxoak.

Ipurterre, iz. Geure lanaren kritikaria.

Iragan, iz. Eternitatearen parte bat, zeinaren zati txiki batzuen ezagutza xume eta penagarria dugun. Oraina deritzan lerro mugikor batek bereizten du Etorkizuna deritzan alegiazko aldi batetik. Eternitatearen bi zati nagusi hauek, bata bestea etengabe ezabatzen ari direnak, zeharo desberdinak dira. Bata penak eta desilusioak belztua da, bestea alaitasunak eta aberastasunak argitua. Iragana intzirien herrialdea da, Etor-
kizuna, abestien erresuma. Hartan Oroitzapena

egoten da kikildurik, zaku eta errautsez jantzita, penitentziazko otoitzak murmurikatzen; bestearen argitasunean, Itxaropena zeruan arrakastaren tenpluen eta ongizatearen bizilekuetara deika ibiltzen da hegalak libre dituela. Iragana atzoko Etorkizuna bada ere, Etorkizuna, biharko Iragana da. Bat dira... jakintza eta ametsa.

Irain, iz. Larritasunaren aldetik gutxiespenaren hurrengoa den laidoa.

Iraizpen, iz. Hitzontzikeriaren aurkako erremedio frogatua. Pobretasun izugarriko kasuetan ere asko erabiltzen da.

Iraultza, iz. Politikan, malgobernuaren aldaketa bat-batekoa. Zehazki, Estatu Batuen historian, Gobernu baten aginpidea Ministerio batenaz ordezkatzea, horrela herriaren ongizate eta zorionak ontza-erdi aurrera zezan. Iraultzek askotan odol isurtze dezentea ekarri ohi dute berekin, baina beharrezkotzat jotzen da... estimazio hori beren odola isuri ez izanaren suertea izan dutenek egin ohi dute. Frantziako Iraultza

gaurko Sozialistarentzat balio izugarrikoa da: sokratik tiratuz hezurak mugiarazten dituenean bere imintzioak legea eta ordena sustatzeaz susmagarriak diren tirano odolzaleak neurrigabeki izutzeko modukoak dira.

Iraungitze, iz. Teologiak etorkizuneko egoera sortzeko erabili zuen lehengaia.

Iraunkortasun, iz. Bertute ziztrin bat, erdipurdi-koek baliatzen dutena arrakasta ez oso loriatsua lortzeko.

Sermolariak oihu galantak: «Eutsi, ez etsi, ez etsi!»
Iraunkortasun hitza hitz finez etengabe du goretzi.
«Gogoan izan alegiako dortoka eta erbia,
bata helmugan, bestea non da? Hona erantzun garbia.»

Amets lurean bere bizitza-epea berritzekotan,
bere giharre guztiak lasai edukitzeko asmotan,
arerioaz eta helmugaz dagoela ahaztuta
alferrikako bide luzeaz gogoratu nahi ez du-ta.
Bere arima belar eta ihintz artean kokorikatuz

zakur nahiz salda gabeko lur bat, lasaia, beretzat

hartuz,

lo dago hortxe bake-bakean santu bat dirudiela,
erakutsiaz lasterraldiak zer diren badakiela.

Sukker Uffro.

Irudimen, iz. Poetak eta gezurtiak erdi bana duten egintza-biltegia.

Iruzurti, iz. Ohore publikoak lortzeko lehian etsaia.

Isats*, iz. Animalia-aren bizkarrezurraren atal bat, bere muga naturalak gainditu dituen bere mundu propioan existentzia beregaina izateko. Umegai egoera alde batera utzita, Gizakiak ez du isatsik, eta gabezia horretaz jabetzeak sortzen dion ezinegon heredatua nabaria da gizonek jaka atze-luzeak eta emakumeek soineko isastunak janzteko duten ohituran, eta baita isatsak egon beharko lukeen, eta dudarik gabe behinola egoten zen, janzkien alde hori apaingarritz betetzeko joera nabarian ere. Joera hori nabariagoa da espezieko emeagan, haren baitan

arbasoekiko lotura estuagoa eta iraunkorragoa baita. Lord Monboddok deskribatutako gizon isastunak gaur egun irudimenak sortutzat hartzen dira; izan ere, orduan irudimenak gure tximino garaiko urre-aroan gertatu ziren eraginak aiseago bereganatzen zituen.

Isilkide, iz. Urliaren sekretuen berri duen Sandia bat, eta Berendiari kontatzen dizkiona.

Ispilu, iz. Beirazko xafla, gizakiaren desilusioaren emanaldi baten irudi dardartia erakusteko baliagarria.

Mantxuriako Erregeak ispilu magiko bat zuen. Hara begiratzen zuenak ez zuen bere irudia ikusten, erregearena baizik. Erregearen begiko luzaro izandako kortesano batek, eta hori zela-eta erresumako beste inor baino gehiago aberastu zenak, esan zion Erregeari: «Emaidazu, arren, zure ispilu mirarizkoa, zure presentzia augustuaz gabetzean ohore egin ahal diezaio- dan zure irudiaren itzal ikusgarriari, gau eta goi- zero zure aurpegi maitekorren loriaren aurrean makurturik, ezerk ez baitu horrelako dis-

tira jainkozkorik, oi zu, Unibertsoko Eguerdiko Eguzki zaren hori!»

Hitzaldia atsegin izan zitzaion erregeari, eta agindu zuen ispilua eramateko kortesanoaren jauregira; baina abisatu gabe hara joanik, traste zaharra besterik ez zegoen gela batean aurkitu zuen. Eta ispilua hautsez eta armiarma-sarez beteta zegoen. Amorrazioz beterik ukabilkada batez ispilua txikitu, eta sekulako mina hartu zuen. Zoritxar harengatik are amorratuago, kortesano esker txarrekoa espetxeratzeko agindu zuen, eta ispilua konpondu eta bere jauregira eramateko handik; eta halaxe egin zuten. Baina erregeak ispiluan berriro begiratu zuenean, ez zuen bere irudia ikusi lehen bezala, asto koroa-dun batena baizik, atzeko apatxetako batean bendaje odoltsu bat zuena... konpontzaileak eta lehenago begiratu zuten guztiak ohartu bai, baina ez ziren ausartu esatera. Zuhurtziaren eta karitatearen lezioa ikasirik, erregeak kortesanoa askatzeko agindu zuen, ispilua tronuaren atzealdean berriro jarrarazi, eta justiziaz eta apaltasunez urte luzetan errege izan zen: eta egun batean, tronuan zegoela lo hartu zuenean beti-

ko, gorte osoak ikusi zuen aingeru baten irudi distiratsua ispiluan, gaur arte iraun duena.

Istorio*, iz. Kontakizuna, gehienetan gezurrezkoa. Ondoko istorioen egiazkotasuna ez da serioski gezurtatu.

Gau batez New Yorkeko Rudolph Block jaunari Percival Pollard kritikari ospetsuaren aldameanean esertzea egokitu zitzaion afari batean.

«Pollard jauna,» esan zuen, «*Hildako behi baten biografia* izeneko liburua egilearen izenik gabe argitaratu da, baina zaila da nor den ez jabetzea. Hala ere, zure kritikan Mendeko Ergelearen obra dela esan duzu. Kritika zintzoa iruditzen al zaizu hori?»

«Sentitzen dut benetan, jauna,» erantzun zion kritikariak, adeitsu, «baina ez zitzaidan bururatu benetan nork idatzia den jakitea nahiko zenuenik.»

W.C. Morrow, San Jose (Kalifornia) herriko bizilaguna, mamu-istorioen idazle porrokatua zen, eta haiekin irakurlea sentiarazten zuen musker izoztuen uholde bat bizkarrezurrean

gora igo eta ileetan ezkutatzera balihoakio bezala. Garai hartan esaten zen San Josen Vasquez izeneko gaizkile baten mamua agertzen zela, herrian urkatu baitzuten. Herrian ez zegoen argi gehiegi, eta, epelki samar adieraziaz, esan behar da San Joseko jendeak ez zuela oso gogoko gauean ateratzea. Gau bereziki ilun batez bi gizon herriaren mugapeko lekurik bakartienean elkarri adore emateko ozen mintzatzuz zeudela, J.J. Owen kazetari ospetsuarekin egin zuten topo.

«Kaixo, Owen,» esan zuen batek, «zerk zakartza hona horrelako gau batean? Vasquezen mamuaren agerpen leku kuttunenetako bat hauxe dela esan zenidan! Eta zuk gauza horietan sinesten duzu. Ez al dizu beldurrik ematen gauaz kanpoan ibiltzeak?»

«Adiskidea,» erantzun zuen kazetariak haize firrindari baten intziriaren gisako ahots goibel dardartiaz, «etxean egoteak ematen dit beldurra. Will Morrowen istorioetako bat daukat patrikan, eta ez naiz ausartzen behar adina argi dagoen lekura irakurtzera joatera.»

Schley kontralmirantea eta Charles F. Joy diputatua Washingtonen zeuden, Bakearen Monumentuaren ondoan, *Arrakasta porrota da?* gaiaz eztabaidan. Joy jaunak, esaldi biribil baten erdian bat-batean isildu, eta hots egin zuen:

«To! Musika-banda hori aditua dut nonbait, Santelmannena da, inondik ere.»

«Ez dut inolako bandarik aditzen,» esan zuen Schleyk.

«Ondo pentsatuta, nik ere ez,» esan zuen Joyk, «baina horra non datorren Miles Jenerala hiribidean behera, eta ikuskizun horrek beti sortzen du nigan banda baten eragina. Norberaren inpresioak hurbil-hurbiletik arakatu behar dira, sortzen dituenaz okertu nahi ez bada.»

Almirantea filosofi otordu presazko haren digestioa egiten ari zela, Miles Jenerala, duintasun ikuskizun zirraragarria, joana zen. Ahukua-ren atzealde itxurosoa pasatu, eta bi behatzai-leak haren erlantzak eragindako itsutasun lilura-menduzkotik beren onera etorri zirenean, esan zuen Almiranteak:

«Dibertitzen ari dela dirudi.»

«Ez dago ezer» onartu zuen Joyk, pentsakor, «horren dibertsioaren erdia ematen dionik.»

Champ Clark politikari ospetsua garai batean Jebigue herritik milia batera edo bizi zen, Missourin. Egun batean bere mando kuttunenaren gainean joan zen herrira eta, kale batean eguzkiak jotzen zuen aldean lotuta utzita ostatu baten aurrean, te-totalitarioz mozorroturik sartu zen barrura, tabernariari ardoa lagun txarra dela erakusteko asmoz. Egun izugarri beroa zen. Laster herritar bat sartu, eta Clark ikustean esan zuen:

«Adiskidea, ez zegok eskubiderik mando hori eguzkitan uzteko. Kixkaliko duk! Hortik pasatu naizenean kea zeriola zegoan!»

«Ondo zegok,» esan zuen Clarkek irribarrez, «lehen ere nahiko ke irentsia dik.»

Herritarrak limoi-ura hartu, eta buruari eraginez errepikatu zuen ez zegoela eskubiderik.

Azpijoko bat zen dena. Aurreko gauean sute bat izan zen: kale kantoiko bueltan ukuilu batek su hartu zuen, eta zaldi mordoxka batek betiko bizitza irabazi zuen, moxal batek besteak beste, haragi errearen kolore iluna hartu arte kixkali

baitzen. Mutil batzuek Clarken mandoa askatu, eta moxalaren parte hilkorra paratu zuten haren ordean. Hurrena beste gizon bat sartu zen ostatuan.

«Jainkoaren izenean!» esan zuen, tabernariari begi-keinua eginez. «Kendu hortik mando hori, usain ederra zeukak gaixoak.»

«Bai,» esan zuen Clarkek tartera sartuz, «abere horrek Missouriiko usainik ederrena dauka. Berari ez zaio axola, eta zuri ere ez.»

Gauzek beren martxan segitu zuten, eta Clark jauna atera zenean, han aurkitu zituen, itxuraz, bere zamariaren hondakin erraustu eta murriztuak. Mutilek ez zuten izan M. Clarken bizkarretik barre egiterik; izan ere, hark bere gorabide politikoan hain emankor izan zaion aurpegi-kerak aihergaz gorpuari begiratu, eta han alde egin zuen. Baina gau hartan etxera berandu zihoala, ilargiaren argi lausoan han ikusi omen zuen bere mandoa isilik eta dotore bide bazterrean zutik. Helen Blazesen izena ohi baino ozengorago aipatu ondoren, Clark jaunak itzulbidea hartu zuen ahal bezain laster, eta gaua herrian eman zuen.

H.H. Wotherspoon Jeneralak, Army War Collegeko presidentek, babuinokume «ahate-sudur» bat zeukan, oso argia baina ez oso itxurosoa. Gau batez etxera itzultzean, Jeneralak ustekabea eta mina hartu zuen Adan (horrela baitzuen animaliak izena, jenerala Darwindarra izaki) bere zain eserita aurkitu baitzuen, bere uniformeko jakarik ederrena soinean zuela, galoi eta guzti.

«Arbaso urrun lotsagaldua!» oihu egin zion estratega zaharrak trumoi ahotsez, «zer habil hi garai hauetan ohetik kanpo... eta nire jaka soinean duala!»

Adan jaiki zen, eta kexu-begirada bat eginez lau hankan jarririk bere gisakoei dagokien bezala, gela gurutzatu korrika txikian mahai bateraino, eta bixita-txartel batekin itzuli zen. Barry jenerala etorria zen, eta, xanpain botila hustu batek eta zenbait puru-muturrek adierazten zutenez, abegi bikaina egin zitzaion zain egon zen bitartean. Jeneralak bere arbaso zintzoari barkamena eskatu, eta oheratu zen. Hurrengo egunean Barry jeneralarekin topo egin zuen, eta esan zion:

«Spoon, aspaldiko, bart hire etxetik ateratzean puru bikain haietaz galdetzea ahaztu zitzaidan. Non erosten dituk?»

Wotherspoon jeneralak ez zion erantzun ere egin, eta aurrera jarraitu zuen.

«Barkatu, gizona,» esan zuen Barryk, atzetik jarraituz, «txantxetan ari ninduan, noski. Iritsi eta ordu laurdenerako ohartu ninduan ez hintzela hi.»

Istripu, iz. Ezinbesteko gertaera, lege mudaezin naturalen eraginaren ondoriozkoa.

Itsasargi, iz. Itsasertzeko eraikin altua, non gobernuak argi bat eta politikariren baten lagun bat mantentzen dituen.

Itsasuntxi, iz. Galesko untxi mota bitxi bati umorerik ez duenak ematen dion izena, argitu behar izaten baitu ez dela inondik ere untxia. Horrelakoari seriozki azaldu behar izaten zaio itsas zapoa ez dela inondik ere zapo mota bat, eta “riz-de-veau à la financière” ez dela txekor

irribarrea bankeroaren andrearen erara prestatua.

Itsumustuko, izond. Otordu aurrekoa.

Beti itsumustuan ibilzale baitzen,
otordua prestatu zuen, jan ondoren.

Judibras.

Itsuseria*, iz. Jainkoek emakume batzuei emandako dohaina, bertutea eta umiltasunik gabeko bizitza berekin dakartzana.

Itun, iz. Nazioarteko politikaren arloan, bi lapurren batasuna: beren eskuak batak bestearen patriketan hain barruraino sartuak dituztenez, ezin dute bat-banaka hirugarren bat larrutu.

Itxarobide, iz. Proiektua, normalean zapuzgarria. Itxaropena, normalean debekatua.

Betor, brisara usaintsuok, betor
Ceylan gainera zuen kemena
non itxarobidea den alaikor,

salbu eta heriotzarena.

Sheber Apezpikua.

Itxaropen*, iz. Nahia eta esperantza bat eginik.

Itxaropen delizius! Gizonari deus ere
gelditzen ez zaionean, lagun bat ere gabe,
fortunak abandonatu duenean, zakurra
bera ere joan denean eta ahuntzak atorra
jaten dionean hura soinean daramala;
Zu, orduan, bekokian izarño bat duzula
jaisten zara distiratsu zerutik laguntzera
Dirugintzan idazkari lantxo bat eskaintzera.

Fogarty Weffing.

Izen, iz. Ospearen eta sonaren arteko bereizke-
ta maila... bata baino eramangarrixagoa eta
bestea baino jasanezinagoa. Batzuetan esku
beltz eta gaizto batek ematen du.

Harpa jo arren edozein klabez
entzulerik ez, ordea;
Ithurielek lantza argitzailez
erakutsi akordea.

Neure jeinuaz, handia izanik,
ezin gauetik atera.

Lantza ziztada xamurra harturik
jauzi egin dut argira.

W.J. Candleton.

Izena belztu, du ad. Beste bati buruz gezurra esan. Beste bati buruz egia esan.

Izkira, iz. Krustazeo txikia, otarrainaren oso antzekoa, baina digeritzeko ez hain zaila.

«Uste dut arrain mota honek giza jakituria oso ongi irudikatu eta sinbolizatu duela; izan ere, izkirak, atzerantz bakarrik mugitzen denez, erretrospekzioa bakarrik izan dezakeen bezala, igarotako arriskuak baizik ez ikusteko ahalmena alegia, horrela gizonari bere jakituriak ez dio bide ematen bere ibilbidea mugatzen duten erokeriak saihesteko, baizik gero haietaz jabetzeko.» — *Sir James Merivale.*

Izurri, iz. Antzina errugabeei ezartzen zitzaien zigor orokorra, haien agintariari abisua emateko balio zuena; Faraoi Inmunearen adibide aski eza-

gunean bezala. Gaurko jendeok zorionez dakigunaren arabera, izurria Naturaren halabeharrezko agerpen bat besterik ez da, haren aldrebeskeria asmogabearena.

J

J. Kontsonantea da gure hizkuntzan, baina nazio batzuek bokal gisa erabiltzen dute... gauza absurduagorik ez dago. Bere jatorrizko forma, oso gutxi aldatu dena, zakur izuti baten isatsarena zen; ez zen letra bat, zeinu bat baizik, latinezko *jacere*, «bota», aditzaren ordeztartzen zena, zakur bati harri bat botatzen zaionean haren isatsak forma hori hartzen duelako. Hau da letraren jatorria, Belgradoko Unibertsitateko Jocolpus Bumer doktore ospetsuak azaltzen duenez, zeinak gai honi buruz *quarto*-ko lau liburukiko obra batean bere ondorioak eman eta bere buruaz beste egin baitzuen ohartarazi ziotenean «j»-k latinezko alfabetoan ez zuela, garai batean, kakorik.

Jabetza, iz. A-k B-ren gutziaren aurka eduki dezakeen edozein gauza material, balio berezirik ez duena. Norberaren edukitze irrika asetzen eta beste gainerakoena zapuzten duen edozer. Giza-

kiaren harrapaketa-grina laburraren eta axolaez luzarokoaren xedea.

Jai*, iz. Festa. Ospakizun erlijioso bat, tripazalekeria eta mozkorkeria ezaugarritzat izan ohi dituen, askotan urzaletasunagatik ospetsua izandako santuren baten omenez egina. Erromako Eliza Katolikoan jaiak «mugikorrak» eta «mugiezinak» izaten dira, baina ospatzaileak beti mugiezinak izaten dira bapo bete bitartean. Hastapenetan entretenimendu hauek hildakoen omenezko jaiak izaten ziren; horrelaxe egiten zituzten grekoek, *Nemeseia* izenaren pean, eta baita azteka eta inkek ere, eta aro modernoan txinatarren artean dute arrakasta, nahiz eta uste zabalduena izan antzinako hildakoak, gaurkoen antzera, jale kaxkarrak zirela. Erromatarren festa ugarien artean *Novendiale* izenekoa zegoen, zerutik harriak erortzen ziren bakoitzean ospatzen zena, Liviok dioenez.

Jaiotza, iz. Hondamen guztietan lehena eta okerrena. Ez da beti gauza bera izaten. Castor eta Pollux arrautza batetik jaio ziren. Pallas burezur

batetik. Galatea noizbat harri kozkor bat izan zen. Peresilisek, hamargarren mendeko idazle ospetsuak, lurretik sortu zela esaten du, apaiz batek ur bedeinkatua isuri zuen leku batetik, hain zuzen. Gauza jakina da Arimaxus tximistak lurrean egindako zulo batetik atera zela. Leukomedon Etna mendiko leize batean jaio zen, eta ni-neu ikusia naiz gizona, nondik eta upategi batetik ateratzen.

Jakinduria, iz. Pertsona ikasiak bereizten dituen ezjakintasun mota.

Jakin-min, iz. Emakumearen adimenaren dohain ez oso estimagarria. Emakume bat jakin-minaren madarikazioak joa den jakiteko desioa da gizonezkoaren arimaren grina bizi eta asegaiztenetako bat.

Jan*, da ad. Hurrenez hurren (eta arrakastaz) honako eginkizun hauek bete: ahoan txikitu, liztuztatu eta irentsi.

«Marrazketa-gelan nengoen afariaz gozatzzen,» esan zuen Brillat-Savarinek, pasadizo baten kontaketa ekinez.

«Bai zera!,» eten zion Rochebriantek. «Marrazketa-gelan afaltzen?»

«Arren eskatu beharra daukat, jauna,» argitu zion gastronomo handiak, «ohar zaitezela ez dudala esan afaltzen ari nintzenik, baizik afariaz gozatzzen. Ordu bete lehenago afaldua nintzen.»

Jangarri, izond. Jateko eta, oro har, digeritzeko ona, hala nola harra apoarentzat, apoa sugearentzat, sugea zerriarentzat, zerria gizonarentzat, eta gizona harrarentzat.

Jarraizale, izond. Eskuratzea espero duen guttia lortu ez duen jarraitzailea.

Jatun, izond. Neurritsu izatearen desabantailei iskintxo egiteko dispepsiaren bekatura emanda den pertsona.

Jauregi, iz. Egoitza dotore eta garestia, bereziki goi mailako kargudunena. Eliza kristauko goi

karguen egoitzari jauregi esaten zaio; erlijio horren fundatzailearena lur zati bat izan zen, edo bide bazter bat. Horra aurrerapena.

Jaurtigai, iz. Nazioarteko liskarren azken arbitroa. Garai batean liskar horiek parte-hartzaileen kontaktu fisikoarekin erabakitzen ziren, garai horietako logika oinarri-oinarrizkoak eskueran jartzen zizkien argudio ximpleak erabiliz: ezpata, lantza, etab. Afera militarretan zuhurtziak aurrera egin ahala jaurtigaiak gero eta aldeko gehiago bereganatu zituen, eta gaur estimazio handia diote adoretuenek. Jaurtiketa puntuan pertsona baten ardura beharrezkoa izatea da haren akatsik handiena.

Jeloskor, izond. Edukitzea merezi ez badu baizik gal ez daitekeena kontserbatzeaz behar gabe kezkatzen dena.

Jende sail, iz. Jende mordo; zuhurtasun eta bertute politikoaren sorburua. Errepubliketan, politikariaren adorazioaren xedea. «Aholkulari jende saila non, zuhurtasuna han», dio esaera zaha-

rrak. Zuhurtasun berdineko gizon asko haietako edozein baino zuhurrago badira, bistan da elkar-tze hutsagatik bereganatzen dutela zuhurtasun gehigarri hori. Nondik sortzen da, baina? Inondik ez, begibistakoa denez... berdin litzateke esatea mendilerro bat altuagoa dela hura osatzen duten mendietako bakoitza baino. Jende sail bat kide zuhurrena bezain zuhurra da, hari obeditzen badio; bestela, ez da haietako eroena baino zuhurrago.

Jokabide*, iz. Portaera, ez berez, baizik hezieraz determinatua den aldetik. Hitzak Jamrach Holobom doktoreak egindako *Dies Irae*-ren itzulpen libre samarreko honako bertso honetatik hartua dirudi:

*Recordare, Jesu pie,
Quod sum causa tuae viae
Ne me perdas illa die.*

Oroitu, arren, Salbatzailea,
nork eman zizun errematea.
Barkatu nire jokabidea.

Jolasaldi, iz. Asperraldi tarte berezi bat, neke orokorra arintzeko.

Jomuga, iz. Gure nahiei jartzen diegun eginbeharra.

«Bizitzan jomugarik ez?»

Andrea goxoki galdez.

«Jomugarik? Ez, maitea...

Tirata nola, ordea?»

G. J.

Juglare, iz. Antzina poeta, abeslari edo musikaria; gaur egun beltz bat, kolorea azala baino askoz barrenerago iristen ez zaiona eta inor gutxik jasan dezakeen umorea duena.

Jukutria, iz. Gure etsaiak gauza zuzena egiteko ahalegin garbi eta ohoragarriak zapuzteko erabiltzen duen metodoa.

Hain mesedegarria denez jukutria.

moral aldetik ez da oso oker larria;

otso zintzo askori zaio okagarria,
ardiz jantzi ezker da irensgarria.
Diplomaziarentzat da indar berria,
Satanek ohoratu eta ezarria.

R.S.K.

K

K. Grekoengandik hartutako kontsonante bat da, baina baditugu lehenago Zeratiarrek, Smero uhartean bizi eta salerosketan aritzen zen nazio txikiak, erabili izanaren aztarnak. Beren hizkuntzan *klatx* deitzen zuten, *desegina*, alegia. Letraren forma hasiera-hasieran gaurko gure «H»-rena zen zehazki, baina Snedeker doktoreak argitzen du gaurko formara aldatu zutela lurrikarra batek Jaruteren tenplu handia suntsitu izanaren oroigarri, 730 k.a.tik gertatu baitzen gutxi gorabehera. Eraikin hori atariko bi pilare sendoengatik zen ezaguna, zeinetako bata erditik hautsi baitzen hondamendian; bestea, berriz, zegoen bezala geratu zen. Letraren lehenagoko forma bi pilare horietatik hartua zela uste zenez, antzinako kontuetan aditua zenaren iritziz, forma berria hondamendi hura nazioaren oroimenean betiko gordetzeko bitarteko sinple eta naturalizat hartu zen, hunkigarri ez esatearren. Ez dago garbi letraren izena emendiozko oroibide gisa aldatu zen ala izenak *klatx* eta suntsidu-

rak naturaren txantxa izaten jarraitu zuten. Bi teoriak aski probableak direnez, ez dut oztoporik ikusten biak ala biak sinesteko, eta Snedeker doktorea ere arazoaren ikuspegi honetara makurtu zen.

Kaaba, iz. Gabriel goi-aingeruak Abraham patriarkari oparitu zion harri handia, Mekan gordetzen dena. Patriarkak agian ogia eskatuko zion goi-aingeruari.

Kakalardo, iz. Antzinako egiptoarren kakalardo sakratua, gure «kakalardo simaurjalearekin» lotura duena. Hilezkortasunaren sinbolotzat hartzen zen. Eta horrek, jainkoak jakingo du zergatik, ematen zion bere santutasun berezia. Bere arrautzak simaur boletan berotzeko ohiturak agian bereganatuko zion apaiz jendearen onginahia, eta egunen batean gure artean ere abegi berdina lor dezake. Egia da kakalardo amerikarra behe mailakoa dela, baina apaiz amerikarra ere halaxe da.

Kakarraldo, iz. Kakalardoa den gauza bera.

Bere burua hilik mutila
hantxe zetzan harizpean,
bidaldi luze bat egina zen
lehenago erbestean.

Neskari dantza baten izena
aipatu zion batean

«Kakarraldoa» esaten zion «Zarabanda» beharrean.
Neskak ez zuen ezer ulertu arrats hartan haremean,
irribarre egin eta isilik geratu zen ilunpean
Gorputzez eder, lirain, mutila han zetzan ilargipean.

Kakarraldo bategatik hila.

Beranduko oroitzapen soila.

Oi Patua!

Aurkitu eta lurperatua

Egun handira arte geratua

lokartua.

Eta bi Hitz-joko, begiak zabal, albotik triste begira
pixka batean egon ondoren hobi ondotik joan dira.

Kakarraldo bategatik hila!

Fernando Tapple.

Kalamu*, iz. Leporako janzki mota bat egiteko erabiltzen den azal zuzduna ematen duen landarea; maiz, jendaurrean aire zabalean mintzatu ondoren jantzi ohi da, eta jantzita daramana hoztetik babesten du.

Kanoi, iz. Nazioen mugak zuzentzeko erabiltzen den tresna.

Kapital, iz. Malgobernuaren egoitza. Anarkista suaz, eltzeaz, janariaz, mahaiaz eta labana-sar-dexkaz hornitzen duen zera; otordurako berak jartzen duena jaten hasi aurreko otoitz falta besterik ez da. *Zigor kapitala* edo *Heriotza-zigorra*, justiziarekin zerikusia duen zigor bat da, zeinaren komenentzia oker larritzat hartzen baitu balioko jende askok, asesino guztiek, besteak beste.

Kaporal, iz. Militarren eskaileran behereneko mailan dagoena.

Borroka gogorrean denak zebiltzala,
heroi gisa erori gure kaporala!

«Bai tritea!,» zioen Ospeak begira:
«ez da, bada, iritsi oso urrutira!»

Giacomo Smith.

Karmeldar*, iz. Karmel Mendiko ordenako fraide eskalea.

Behinola bazihoan Herio zaldian,
abiaturik gorantz Karmelo mendian;
hantxe aurkitu zuen fraide bat bidean,
erdizka mozkortuta edo totalean.
Barreiduri xantuaz fraide piltzarduna,
lodia, bekatua den bezain lizuna,
eskua luzaturik ari zen eskean:
«Emazu limosna bat Haren izenean,
Emazu Elizaren izenean, arren,
Haren seme-alabak bizi ahal gaitezen.»
Herioren erantzun okerrik gabea
izan zen irribarre latz eta luzea:
«Emango diat azkar... azken biajea.»

Hezur hots nabarmenez braust! Zaldi Zuritik
jaitsi zen bere lantza eskuan harturik;
gizajoari helduz lepo eta hankatik,

zaldian jarri zuen, baina jiraturik.

Nagusia han ari zen barre eta algaraz,
zokor kolpeen gisako irri-karkail hotsaz.
«To! Eskale bat zaldiz! Infernura zuzen!»
Lantzaz zaldia zarta!, atzean jo zuen;
aberea lauhazka airoso joan zen.
Gero eta azkarrago zerurantz hegatu,
harkaitz, artalde, zuhaitz... goitik dena puntu
ilun, lauso, ñimiño laster zen bihurtu,
hala agertzen zitzaion
zaldunari, behintzat,

masusta pastel baten
heineko tamainaz...
Heriok behin berriro barre egin zuen,
nola hilobi batek egingo lukeen
hiletako zerbitzu hutsegin batean,
gorpuak hilkutxaren tapa altxatzean,
esanez hura dena etenda uzteko,
ez zeukala gogorik zerura joateko.

Urte franko joan dira hau gertatuz gero,
ez daude fraide haren hankak oso bero.

Heriok galdu zuen bere zaldi hura,
ez du berriz ekarri bere ukuilura,
fraideak isatsetik zaldiari heldu
eta komenturaino baitzuen zuzendu.
Han, olo eta ogi olioiz bustia
irentsiz gizendu zen ederki zaldia,
fraiderik gizenena baino gizenago;
gerora Priore egin ote zuten nago.

G. J.

Kaserna, iz. Soldaduek lanbidez besteei kentzen dieten zeraren zati batez gozatzeko erabiltzen duten etxea.

Kaskamotz*, iz. Ingalaterrako gerra zibilean Alderdi Parlamentarioko kidea... ilea motza eramateko ohituragatik horrela esaten zitzaiona; Cavalier zeriztenek, aldiz, ile luzea eramaten zuten. Beste puntu bereizgarri batzuk ere baziren haien artean, baina ilearen moda zen liskararren arrazoi nagusia. Cavalierrak erregezaleak ziren; izan ere, Erregeari, alfer samarra baitzen, egokiagoa iruditzen zitzaion ilea luzatzen uztea lepoa garbitzea baino. Kaskamotzei hori, gehie-

nak bizarginak eta xaboigileak baitziren, negozioarako kaltegarria iruditu zitzairen, eta horregatik hartu zuten Erregeren lepoa beren amorrazio berariazkoaren xedetzat. Borrokatzaileen ondorengoek ilea berdin daramate gaur egun ere, baina aspaldiko liskar hartan piztutako etsaigoaren garrak, gizalege britainiarraren elurren pean txingar bihurturik bada ere, bizirik dirau oraindik.

Kattalingorri, iz. Urzale erabatekoak bere onetik ateratzen dituzten likore bortitzak izendatzeko terminoa.

Katu, iz. Automata bigun, deseginezina, etxe esparruan gauzak gaizki doazenean ostikoz jo dezagun naturak guretzat prestatua.

Hona zakurra

horra, katua

Hona igela

horra, sagua

Korri, zakurra, miau, katua,

jauzi, igela, karrask, sagua.

Kilt, iz. Batzuetan Amerikan eskoziarrek eta Eskozian amerikarrek erabiltzen duten jantzia.

Kiromantzia, iz. Ziria sartuz dirua lortzeko 947. metodoa (Mimbleshawren sailkapenaren arabera). Eskua ixtearen poderioz ahurrean egindako zimurretan «izaera irakurtzea» du funtsa. Nahikundea ez da erabat faltsua; izaera oso zehazki irakur daiteke metodo horrekin; izan ere, aztertzen den edozein eskutan aise irakur daiteke «mozolo». Goraki ez irakurtzean datza ziria.

Kixotear, izond. Burugabeki zaldundarra, Don Kixote bezala. Izenondo paregabe honen edertasun eta bikaintasunean sakontzen duenak, zoritarrez, desilusio galanta hartzen du, jaun haren izena Ki-jo-te ahoskatzen zela jakiten duenean.

Ezjakintasunak gure bizitzatik
uxa dezakeenean Filologia,
espainolez jakitea, erokeria.

Juan Smith.

Klarinete, iz. Tortura-tresna bat, belarrietan kotoia sartua duen pertsonak erabiltzen duena. Badira bi tresna klarinete bat baino okerragoak: bi klarinete.

Kleptomano, iz. Lapur aberatsa.

Klio*, iz. Bederatzi Musetako bat. Klioren eginkizuna historiaren burubidea zuzentzea zen..., eta duintasun handiz egin zuen, Atenasko herritar sonatu asko agertokiko eserlekuetan ziren bitartean, Xenofon, Herodoto eta beste zenbait hizlari ospetsu zirela.

Koldar, izond. Larrialdi arriskutsuan zangoekin pentsatzen duena.

Komentu, iz. Denbora-pasatarako alferkeriaren bizioaz hausnarketa egiteko gogoia duten emakumeentzako erretiro lekua.

Konpromiso, iz. Interes kontrajarrien moldaketa, aurkari bakoitzari ematen diona behar ez lukeena eskuratu izanaren satisfakzioa eta

zuzentasunean ematea zegokiona besterik kendu ez izanarena.

Kontaketa, iz. Estatu Batuetako politikan, dadoren beste jaurtiketa baterako aukera, jokoan galtzaile atera dadin, dadoak kargatu dizkioten jokalaria ematen zaiona.

Kontserbadore, iz. Badiren gaitzez maitemindutako politikaria; liberal batengandik honetan bereizten da: liberalak lehendik badiren gaitzak beste batzuek ordezkatu nahi ditu.

Kontsolamendu, iz. Gizon hobe bat zerori baino zorigaitzekoagoa dela jakitea.

Kontsul, iz. Estatu Batuetako politikan, pertsona bat, herritarren botoez kargu bat bereganatu ez duenez, Gobernuak beste kargu bat ematen diona, herritik alde egiteko baldintzapean, betiere.

Kontsultatu, du ad. Aurretik erabakitako bide bati buruz besteren onspena bilatu.

Koran*, iz. Mahomatarrek, burugabeki, Jainkoaren inspirazioz eraginda idatzi dela sinesten duten liburua, baina kristauek iruzur gaiztoa dela dakitena, Eskritura Santuen aurkakoa baita.

Koroazio, iz. Dinamitzako bonba baten leherketaz zeruraino bidalia izateko eskubide jainkozkoaren seinale nabarmen eta agerikoez erregea janztea.

Kortsario, iz. Itsasoko politikaria.

Kreditugabe, iz. Balio kaxkarreneko pertsona. Etimologiaz, hitzak kredorik edo sinesterik gabekoa adierazten du, eta gaurko esanahia teologiak gure hizkuntzaren aurrerapenari egin dion ekarpenik handienetakotzat hartu behar da.

Kriskitin-suge, iz. Gure senide herrestaria, *Homo ventrambulans*.

Kristau, iz. Testamentu berria, lagun hurkoaren premia izpiritualetarako liburu biziki gomenda-

garria, Jainkoak inspiratua dela sinesten duena. Kristoren ikasbideari jarraitzen diona, bekatuzko bizitzarekin gaizki ez datorren bitartean.

Jendetza jainkozaleak harat-honat kalean zebiltzan jantzita arropa txukunenak soinean. Dilin-dalan aditzen zen ezkil hotsa dorrean, bekatariei alarma joaz egin ahalean. Behera begira pentsakor ikusi nuen hantxe, ikuskizun santu hari begira bare-bare, jantzi zuri bat soinean zuen figura gazte luze bat, malenkoniak harturik eta triste. «Jainkoak gorde zaitzala!» esan nion: «Zu ere (jantziak salatzen zaitu urrutitik halere) kristaua izanen zara, besterik ez daiteke.» Aurpegia goraturik begiratzuz serio, lotsagorritu ninduen betileetaraino erantzutean destainaz, muzindurik: «Bai, zera! Nola kristaua! Ez, bada! Ni Ni nauk, Kristo bera!»

G. J.

Kritikari, iz. Inor beraren gustuko izaten saiatzen ez delako, kontentatzen zaila izateaz harro den pertsona.

Bada lurralde bat, atsegin iturri,
Jordan ibaiaren mugatik haruntza,
non santuek, zuriz, kritikariari
lokatzez dioten kakazten gorputza.

Zerutik ihesi lasterka doala,
larru lohi-kolorez ongi kakaztuta,
ez du ezagutzen inondik inora
berak bota lohia, buru txarra du-ta.

Orrin Goof.

Kultura, iz. Pertsona batek irakurria duena oso-rik hartuta. Gurean, jeneralean, indio nobelek, hizkera herrikoian idatzitako istorio laburrek eta argotean idatzitako istorio xelebreek osatu ohi dute.

Norberak leitutako gauzen arabera nabari izan ohi du kultur heziera. Zerk barre eragiten digun ikusita, gure Etorkizuna hor dago idatzita. Ez ezer irakurri, baltzitu muturra: Esfingea ere ez zen halako zuhurra.

Kupido, iz. Maitasunaren jainkoa deitzen zaiona. Irudimen basati baten sorkari sasiko honek, inondik ere, bere jainkoen bekatuengatik aurkitu zuen zirrikitu bat mitologian sartzeko. Pentsamendu itsusi eta desegoki guztietatik hau da zentzugabe eta iraingarriena. Maitasun sexuala haurtxo erdi-sexugabe baten bidez sinbolizatze-ko ideia eta pasioak eragindako mina gezi baten zauriarekin konparatzea —gizontto potolo horri artearen bidea zabaltzea, lanaren izpiritu sotila eta iradokizuna zakarki materializatze-ko—, hau guztia, sinboloa sortu ondoren etorkizunaren atarian bazter utzi izanaren garaiari dagokio.

Kuttuntasun, iz. Desilusiorako prestatzeko aldia.

Kuxkuxeatu, da ad. Besteren edo norberaren oker eta bizioen zerrenda ezkututik aditu.

Andre batek belarria ateari itsatsita,
sarraila-zulo batetik dena aditzen jarrita,

entzun zituen bi andre libreki hitz egiten,
mintzagaitzat entzulea bera harturik hain zuzen:
«Kuxkuxera mari-sorgin galanta da nik uste,
nire senarraren ustez ere beste hainbeste.»
Gehiago ezin jasanik, belarria atetik
baztertuaz esan zuen andreak sumindurik,
amorrazio galantaz luzaturik muturrak:
«Ez ditut jasango nitaz zuek esan gezurrak.»

Gopete Sherany.

L

Laburtu*, du ad. Moztu, laburrago egin.

«Gizonen bizimoduko gertaeretan beharrezko bihurtzen denean jendeak bere erregea laburrago egitea, gizateriaren iritziarekiko begiruneak eskatzen du zatiketa horretara zerk bultzatu dituen deklaratu beharra.» — *Oliver Cromwell*.

Lagun, iz. Emaztea edo laranja-erdi mingotsa.

«Aizu, Pat, emaztea zergatik da lagun?»
diotsa apaizak. «Hain zuzen, neskalagun
zenetik hark ez dizu ezertan lagundu,
ez baituzu sekula eskurik zikindu?»

«Egia da, bai, Jauna,» Patek arrapostu,
baina damu zantzurik hark bat ere ez du.
«Hitz horrek dioena, ezin da atzendu:
»gastuak partitzean behintzat laguntzen du.»

Marley Wottel.

Lagundu (saminean) da ad. Samina bera errukia baino gaitz txikiagoa dela erakutsi.

Lagungabe, izond. Eskaintzeko faborerik ez duena. Fortunarik gabea. Egiak eta zentzu komunak diotena aldarrikatzeko adikzioa duena.

Laguntzaile, iz. Funtzionario baten edo haren berme-emailearen gizonezko ahaidea. Laguntzailea normalean gazte itxurosoa izaten da, gorbata gorria eta sudurretik idazmahairainoko amaraun sistema katramilatu bat dituen. Atezainaren erratzak ustekabean jotzen duenean, hauts hodei bat harrotzen du.

«Laguntzaile-buru,» Nagusiak oihu,
«kontulari batzuk eta bi aditu
gure liburuak ikustera datoz
lapurretarik den aztertze asmoz.
Jarriko digute dena hankaz gora;
zerbait baldin bada, hor agertuko da.
Mesedez, sarrerak apaila itzazu,
balantze egokiak bakarrik azaldu.
Eskudiruaren kopuru osoa

kontatuko dute, ez izan zozoa.
Puntuala zara, mirestekoa da,
argi-haste eta gau, beti hemen zara.
Beti hor zaude zu sillan eserita,
negoziodunen aurrean jarrita;
haien oihu eta mehatxu keinuak
maiz zuri eskerrak ohi dira apalduak,
sorginkeriazko begiradarekin,
liluramenduzko bide ezkutuz ekin
eta ahoberoak isiltzen dituzu,
beti lasaitasun barreiatzaile zu.
Dena horren txukun prestatzen duzunez,
kobratzera heldu baina gogo onez
pagatuta joaten direnak badira.
Baina oraingoan garaia iritsi da,
zure trebezia erabiltzekoa,
larriago diren kontuetan. Jaiki,
begiko tximistak astindu ederki;
Baliabide eske joan zaitez noranahi,
zure izpiritua sar ezazu nonahi.»
Nagusiak eskuz Laguntzaileari
bizkarrean laztan eman zion sari,
baina bat-batean, han doa lurrera,
globo zimur eta oskol zartabera,

buru beltz begi-huts zimel bihurtuta,
hamabi hilabete zituen zenduta.

Jamrach Holobom.

Laido, iz. Satira, burumotzek eta beren adimen zorroztasuna kamustua dutenek ulertzen duten moduan.

Lan, iz. A-k B-rentzako ondasunak irabazteko duen prozesuetako bat.

Lan gaitz, iz. Arrantzara joan nahi duten goi mailako funtzionarioak jotzen dituen gaitz arriskutsua.

Laokoonte*, iz. Antzinako eskultura ospetsu bat, izen bereko apaiz bat eta bere bi semeak suge izugarrien korapiloetan harrapaturik irudikatzen dituen. Agureak eta bere umeek sugeei eusten eta beren lana egiten laguntzen erakusten duten trebetasun eta maraztasuna, gizakiak inertzia itsua menderatzeko duen ahalmenaren irudikapen artistikorik nobleenetakotzat hartua izan da.

Lapur, iz. Negozio-gizon xaloa.

Voltaire eta bere lagun batzuk bideko ostatu batean geratu omen ziren gaua pasatzera. Ingu-rua gogo-pizgarria zen, eta txandaka lapur istorioak kontatzea erabaki zuten. «Bazen behin batean Etekinen Biltzaile Orokor bat». Besterik esaten ez zuenez, jarraitzeko esan zioten. «Hori da istorioa», esan zuen.

Lapurkeria, iz. Lanik gabeko horniketa. Bote-rearen aberasbide azkarra.

Larunbat*, iz. Asteroko jaia, Jainkoak mundua zazpi egunetan egin eta zazpigarren egunean atsedean hartu izanean duena etorkia. Juduen artean jai egun hau egitera lege batek behartzen zuen, zeinaren bertsio kristauak honela dioen: «Gogora zaitez zazpigarren egunaz, zure auzo-ari osorik errespetarazteko». Kreatzaileari egoki eta bidezko iruditzen zitzaion Larunbata asteko azken eguna izatea, baina Lehen Elizako Guraso-ek beste ikuspegi bat zuten. Hain da handia egun horren santutasuna, ezen Jainkoak jurisdik-

zio badaezpadako eta exkaxa duen lekuetan ere, adibidez, itsasoratzen (eta bertan hondoratzen) direnen artean, zorrozki errespetatua den, Lau-garren Aginduaren ur handitako bertsio honek argi uzten duenez:

Sei egun dituzu egin ahalean lan egiteko,
bat ontzigaina lixatu eta sokak txarrantxatzeko.

Orain ontzigainak ez dira lixatzen, baina sokek kapitainari oraindik ematen diote aukera Jainkoaren aginduari begirune zintzoa zaiola frogatzeko.

Larrutu, du ad. Norbaiti buruz nola aurkitzen duzun esatea, berak zu aurkitu ezin zaituenean.

Laudorio, iz. Aberastasunaren edo boterearen abantailak dituen pertsona baten gorespena, edo hila delako aintzat hartzea.

Lege, iz.

Legea Epaimahai buru zegoela,

Errukia heldu zen, malko-zeriola.

«Alde hemendik, purtzila,» Epaileak oihu,
«herrestan etortzea alfer lana duzu;
belauniko jarriaz uzten duzu garbi:
zuk hemen zutitzea ez duzu merezi.»

Gero Zuzenbidea azaldu zen hara.

Epaileak oihuka: «Eta zu nor zara?»

«*Amica curiae*» haren erantzuna,

«Epailearen lagun, barka, ene jauna.»

«Kanpora!» epaileak, «Hor duzu atea,
ez zaitut ezagutzen, bazter-nahaslea!»

G. J.

Legebiltzar, iz. Legeak arbuiaitzeko biltzen den jende-taldea.

Legezko, izlag. Jurisdikzioa duen epaile baten borondatearekin bateragarria.

Leialtasun, iz.

Nik uste, hau da leialtasuna:

Jainkozaleei usain hartzeko

sudurra zuzen edukitzeko
beharrezkoa den eraztuna.

G. J.

Leotar, izond. Kaiolako lehoiak ez bezalakoak. Bertso leotarrak lerro baten erdiko hitz batek bukaerakoarekin errimatzen dutenak dira, Bella Peeler Silcoxen pasarte ospetsu honetan bezala:

Elektrizitatearen indarrez argitzen da sakonean
Hades.

Zurrunga artean Plutok dioenez: «Hau duk hau, O
tempora o mores!»

Adierazi beharra dago hemen Wilcox andreak ez duela greziera eta latinaren ahoskera erakusteko asmorik. Bertso leotarrek Leo zeritzan poeta baten ohoretan dute izen hori, prosodian adituak direnek atseginez sinesten baitute hura izan zela bi puntuko bertsoa lerro bakarrean eman zitekeela asmatzen lehena.

Leotardoak*, iz. pl. Agertokietako janzkia, kazetarien txalo orokorra publizitate bereziaz

indartzeko erabiltzen dena. Jendearen arreta garai batean nolabait janzkiari berari jarri beharrean, hura janzteari Lillian Russellek egiten zion ukora desbideratu zen, eta lanak jarri zituen hori zergatik ote zen asmatzen; hala ere, Miss Pauline Hallen susmoak xalotasun handia eta hausnarketa sakona erakutsi zuen. Miss Hallen ustez, naturak ez zion eman zango ederrik Miss Russe-lli. Teoria hori ez zezakeen ontzat eman gizase-mearen adimenak, baina zango itsusi baten ideia bera espekulazio filosofikoaren egintza bikainen artean bere lekua izateko bezain itxuragabeki orijinala zen! Harritzekoa da Miss Russe-llék leotardoei zien higuinari buruzko eztabaida guztian, itxuraz, inori ez bururatzea higuin hori antzinakoen artean «apaltasuna» deitzen zenari eratxikitzea. Sentimendu horren nondik-norakoa ez da ongi ulertzen gaur egun, eta azaltzen zaila da guri heldu zaigun hiztegiarekin. Antzinako arteen ikerketa, hala ere, berpiztua da eta arte horietako batzuk bizkortuak. *Berpizkunde* garaia da gurea, eta badago nahikoa oinarri garai bateko *lotsagorritzea* antzinateko hilobietan duen

gordelekutik aterarazi eta agertokietaraino txistuka eramateko.

Letxuga, iz. *Lactuca* generoko belar klase bat, «Zeina» Hengist Pelly gastronomo jainkotiarrek dioenez, «Jainkoak erabiltzen baitu onak saritu eta gaiztoak zigortzeko. Izan ere, bere barne argiaz asmatu du gizon zintzoak harentzako saltsa bat, onkailu gozo-gozo askoren konspirazio xede dena; olio ugariz elkar hartu eta hobetzen da, eta janari osatuak jainkotiarren bihotza alaitzen du eta haien aurpegia distirarazten. Izpiritu kaxkarreko pertsona bada, berriz, Etsaiak aise tentatzen du letxuga oliorik, ziaperik, arrautzarik, gatz eta baratxuririk gabe eta azukrez lohitutako ozpin bainu ziztrin batekin jan dezan. Eta horregatik izpiritu kaxkarreko pertsonak hestee-tako min biziki konplexua jasaten du eta hasi ohi da kantari.»

Leviatan, iz. Jobek aipatzen duen uretako animalia eskerga. Batzuen ustez balea izan zen, baina Stanford Unibertsitateko Jordan doktore iktiologo ospetsuak gartsu antzean dio Zapaburu

erraldoi bat (*Sapus buruhandi*) izan zela edo Txalburua (*Biga pseudocephalea*). Zapaburua-
ren deskripzio zehatzagoa nahi duenak jo beza
Jane Porterren monografia ospetsura (*Chapabu-
rus Varsoviacus*).

Lexikografo, iz. Tipo nazkagarria, hizkuntzaren aurrerabidean maila jakin bat jasotzeko aitzakia-tan ahalegina egiten duena haren hazkundera geldiarazi, malgutasuna zurrundu eta erabilera mekanizatzeke. Izan ere, lexikografoa bere hiztegia idatzi ondoren, «itzala duen pertsona»-tzat hartua da, nahiz eta bere eginkizuna zerbait jasotzea besterik ez den, eta ez arauak ematea. Giza ulermenaren berezko mirabekeriak epai-ahalmena eman dionez, bere arrazoitzeko esku-bidea bertan behera utzi eta kronika bati makur-tzen zaio arautegitzat hartuz. Demagun hizte-giak hitz egoki bati «zaharkitu» edo «zaharki-tzear» marka ezartzen diola. Oso gutxi ausartu-ko dira handik aurrera hura erabiltzen, nahiz eta haren premia handia izan edo hura berpizteari indar ematea desiragarria izan oso... Eta horrela pobretzea azkarragotu eta hizkuntza ahuldu egi-

ten da. Alderantziz, hizkuntzak batere hazi behar badu, berrikuntzei esker hazten dela onartuz, idazle ausart eta zuhurrak hitz berriak sortzen baditu eta antzinakoak zentzu berrian erabiltzen, ez dio inork jarraitzen eta garrazki gogorazten zaio: hitz hori «ez dago hiztegian»..., nahiz eta lehen lexikografoaren garaian (Zerua erruki dakiola!) ezein idazlek ez zuen idatzi hiztegian *zegoen* hitzik. Ingeles hizkuntzaren urrezko eguerdi distiratsuan, elizabethiar handien ezpainetatik beren zentzua sortzen zuten eta beren hotsean bertan zeramaten hitzak jalkitzen zirenean, Shakespeare bat eta Bacon bat posible zirenean eta hizkuntza une batean mutur batean azkar itzaltzen zen bitartean bestean hazkunde bizkor eta mardultasun sendoa lortzen zuenean —eztia baino gozoago, lehoia baino indartsuago—, ez zen lexikograforik, hiztegia kreatura bat zen, hura kreatuko zuena artean Kreatzaileak kreatu ez zuena.

«Izpiritua forma hutsa biz,» Jaunak esan zuenean, lexikografo saldoak sortu ziren ehunka bat-batean. Pentsamenduak alde egin zuen biluzturik azkenean,

eta haiek janzki bakoitza sartu zuten hiztegi batean. Orain orrizko mozorropetik oihuka hasten denean: «Itzuliko naiz nire arropak jasotzen ditudanean,» zerrenda aztertu eta diotse tonurik doilorrenean: «Barkatu, baina alferrik dira... modaz pasa dire-

nean.»

Sigismund Smith.

Libertate, iz. Irudimenaren ondasun preziatuenetako bat.

Arnasestuka, bero zebilen herria matxinatuta, «Libertatea ala Heriotza!» jauregiz kanpo oihuka. «Heriotza aski bada zuentzat, utzi niri erregetza, kexabiderik ez da izango, nik degizuet promesa.»

Martha Braymance.

Libertino, iz. Plazerraren atzetik, tamalez, pasatzerainoko amorruez ibili dena.

Liburu kritika egin, du ad.

Zure adimen osoa jarri (nahiz ez den duda izpirik benetan bertan ez dagoela ez hezurrik ez mamirik)

liburu baten gainean eta lehendik erabakirik
dituzun zenbait bertute-edo aurkitu han idatzirik.

Lira*, iz. Antzinako tortura-tresna. Hitza gaur alegiazko zentzuan erabiltzen da, ahalmen poetikoa adierazteko, Ella Wheeler Wilcox gure poeta handiaren honako bertso sutsuetan adibidez:

Parnasoa zalditzat eta lagun lira,
haren hari gaiztoei goxo nien tira.
Artzain ergel ñaño bat han zen lo kuluxka,
begirada altxa gabe, bost hari musika.
Helduko da ordua, ez da presarik, ez,
lira joko dudana Titanen indarrez.
Sokak atzaparkatu eta askatzean,
mundua esnatuko da, bai, azkenean.

Farquharson Harris.

Lira, iz. Giza belarriak kilimatzeko musika-tresna, zaldi isatsa katu baten barrunbeen gainean igurtziz jotzen dena.

Erromatarrei Neronek: «Ke bihurtu artean

lira joko dizuet nik hemen etengabea.»

Erromatarrek Neroni: «Ez ote da hobea gu kixkaldu beharrean lira lasai jotzea?»

Orm Pludge.

Litxarrerria, iz. Erokeria militantea. Adimen lausotuaren jarduera.

Litxarero, iz. Ero bat, beste ikuspegi batetik ikusia.

Lizunkeria, iz. Nobela herrikoietan maiz aurkitzen den ezaugarri literarioa, bereziki emakume eta neska gazteek idatzitakoetan: beste izen bat ematen diote eta ezaugarri hori sartzeak pentsarazten die letren alor zapuztu batez jabetzen direla eta uzta gutxietsi bat biltzen ari direla. Behar bezain luzaro bizitzeko zorigaitza badute, beren uzta-sortak erretzeko desirak tormentatzen ditu.

LL.D*. *Legumtionorum Doctor* titulua adierazten duten letrak, legeetan aditua, legeetan bereziki trebea dena, alegia. Eratorpen horrek sus-

moak sortzen ditu; izan ere, lehenago ££d idazten zen, eta beren aberastasunagatik nabarmentzen ziren jaunei bakarrik ematen zitzaien. Hau idatzi dudan garaiotan Columbiako Unibertsitatea elizgizonentzako antzinako D.D. *Damnator Diaboli*-ren ordezkari beste titulu bat ematearen komenentzia ari da aztertzen. Titulu berriari *Sanctorum Custos* izena emango zaio, eta \$£c idatziko da. John Satan argurgarriaren izena titulu horren hartzaile egokitzat proposatu du koherentziaren zale den batek, adierazten baitu Harry Thurston Peck irakasleak luzaro izan duela titulu baten abantaila.

Logika, iz. Giza adimenaren eskasiaren muga eta ezintasunei hertsiki jarraituz pentsatu eta arrazoitzeko artea. Logikaren oinarria silogismoa da: premisa nagusia, bigarren premisa eta ondorio batez osatzen da... honela:

Premisa nagusia: Hirurogei gizonek lan bat gizon batek baino hirurogei aldiz azkarrago egin dezakete.

Bigarren premisa: Gizon batek poste-zulo bat hirurogei segundotan egin dezake, beraz...

Ondorioa: Hirurogei gizonek poste zulo bat segundo batean egin dezakete.

Honi silogismo aritmetikoa esaten zaio, zeinean, logika eta aritmetika konbinatuz, ziurtasun bikoitza lortzen dugun eta bi aldiz zoriontsu egingoten garen.

Logomakia*, iz. Gerra mota bat, zeinean armak hitzak baitira, eta zauriak, berriz, auto-estimua-
ren puxiketari emandako ziztadak; torneo mota bat, zeinean, galtzailea derrotaz jabetzen ez denez, irabazleari garaipenaren saria ukatzen zaion.

Hona zenbait irakaslek zer esan izan duten:

Miltonen lumak Salmasius herioz jo omen zuen.

Ai, baina guk ezin dugu jakin hori hola den,

zeren Miltonen miztoak gu ere hil gaituen.

Lord, iz. Estatu Batuetako gizartean, fruta-saltzaile ibiltaria baino maila handiagoa duen turista ingelesa, adibidez Lord Khinkyllery, edo Lord Artisahul eta abar. Maila apaleko bidaiari britainiarrari «Sir» esaten zaio, adibidez Sir 'Arry Asta-

quwill, edo Sir 'Amstead llarreguy. Lord hitza batzuetan Izaki Gorenaren titulu gisa ere erabil-tzen da; baina lausengu itxura gehiago dauka benetako gurtzarena baino.

Miss Ann Esplurgek Lord bat zuen esposatu, ingeles alderraia, berak aukeratu.

Jarri ziren bizitzen Annen aitarekin, Marrazkia baitzuen lanbide eta mozkin.

Lord Cadderi batere ez zitzaion ardura aitagarrebaren Marrazki lan hura.

Esan behar da Caddek gazte erokeriak aspaldi zituela erabat utziak,

zeren, tamalez, heldu baitzen adinera, non adin bizioak doazen aurrera.

Noski, lehenbizikoa zen diru gosea, aitagarrebaren patrikak hustea.

Agureak erreka jo zuen airoso, marrazki lana hobe uztea akaso.

Bere irabaziak handitzeko asmoz bera Lord bihurtzea hartu zuen gogoz.

Bere jantzi txukunak bota bazterrera, jantzi koadrodunekin itxura ederra.

Kokotsa bipildurik, belarrondoetan

masailbizar galantak utzi ditu bertan.
Tindu gorria eman goizero lepoan
eta lustratzen zuen; berdin garondoan.
Monokulo txoro bat begian ezarri,
ondo begiratzeko Etorkizunari.
Kaskorako zituen nobleen kapelak;
oinetakoak, berriz, estuak, zapalak.
Gure tonua zuen hizketan baztertu
eta sudur-mintzoa zeharo saihestu,
horrela bihurtuaz erabat gatz bako,
haur aztoratuentzat ere manerako.
Haren hatxeak ziren ezin leunagoak
lurrera erortzean, zeinen hots goxoak!
Horrela Mr Splurgek, berritxuraturik,
lord karrera hasi zuen, batere ez beldurrik.
Ai!, jainkoek ez zuten, baina, desein hori
eta pentsatu zuten lord gizaioari
laztura, etsipena, xagrin ematea
nobleen lurretatik kanpo bidaltzea:
Lady Cadde Mundu Zahar, hartaz liluratu
eta bere aitatzoz baitzen maitemindu.

Lorpen, iz. Ahaleginaren heriotza eta nazkaren sorrera.

Lur, iz. Lurraren azalaren parte bat, jabetzapekoa kontsideratua. Lurra edukitze eta kontrol pribatuari loturiko jabetza delako teoria da gizarte modernoaren oinarria, eta superestrukturaren merezidun nabarmena. Teoria horren ondorio logikoa da batzuek beste batzuei bizitzea galarazteko eskubidea dutela, zeren jabe izateko eskubideak berekin baitakar besteak baztertuz lurra okupatzekoa; eta, egiaz, esparru pribatuetan sartzea galarazten duten legeak lurraren jabetza pribatua onartzen den leku guztietan daude. Horren ondorioz, *terra firma* guztia oso osorik A, B eta C-rena bada, ez da lekurik izango D, E, F eta G jaiotzeko, ez eta bizitzeko ere, besteren lurretan jaiotzen badira.

Uhinen gainean bizi,
etxetzat itsas hondoa,
Naturagandik jaso
gordetzea han dut zilegi.

Ukitzen badut lehorra
galduko baitut azala
kresalak gorde nazala,
ni sortzezko komodorra.

Dodle.

M

Madarikatu, du ad. Hitzezko makila batekin bizi-bizi lan egin. Literaturan, bereziki trajedietan, eginkizun hau hilgarria izan ohi da biktimarentzat. Halaz guztiz ere, bizitza-aseguruen tarifak finkatzerakoan madarikatzearen kalteordaina garrantzi gutxiko kontua da.

Madarikatu*, izond. Garai batean Paphlagoniarrek sarritan erabiltzen zuten hitza, esanahia galdua duena. Dolabelly Gak doktoreak uste du satisfakzio termino bat zela, adimen lasaitasun maila gorena adierazten zuena. Groke irakasleak, berriz, atsegin aztoratua adierazten zuela pentsatzen du; izan ere, maiz *alua* hitzarekin loturik agertzen da. Nekez aurkeztuko nuke nik iritzirik, bi autoritate izugarri horietako edozeinekin apaltasunik handienaz eztabaidan hasteko modukorik.

Magal, iz. Emeen sistemaren organo garrantzitsuenetako bat... haurren atsedenerako naturak

egin duen hornidura zoragarria, baina batez ere erabilia nekazari giroko festetan oilasko hotz platerkadak eta arren buruak edukitzeko. Gure espezieko arrak magal oso hasi-masikoa du, ez oso ongi garatua eta batere laguntzen ez duena animaliaaren funtsezko ongizaterako.

Magdaleme*, iz. Magdalako biztanle emea. Adiera herrikoian, kalean aurkitutako emakumea. Hitzaren definizio honek ezjakintasunaren autoritatea dauka, Maria Magdalakoa ez baitzen inondik ere San Lukasek aipatzen duen emakume damutua, ezta hurrik eman ere. Hitzak Britainia Handiko eta Estatu Batuetako gobernuen onarpen ofiziala du. Ingalaterran Maudlin ahoskatzen da, eta hortik dator *maudlin* adjektiboa, desatseginkiro sentimentala esan nahi duena. Beraz, ingelesak, Magdalene Maudlin eta Bethlehem Bedlam bihurtu baitituzte, harro egon daitezke zismatikorik handienak izateaz.

Magia, iz. Superstizioa txanpon bihurtzeko trebetasuna. Badira beste trebetasun batzuk helbu-

ru bera lortzeko, baina lexikografo zuhur honek ez ditu aipatuko.

Magnetismo, iz. Imanari eragiten dion zerbait.

Bi definizioak (imanarena eta hauxe) mila zientzialari ospetsuren lanetatik laburtuak dira, iluntasun oro uxatuz haiek argitu baitute gaia, eta giza ezagupenaren aurrerapen estimagarria lortu.

Magnitude, iz. Tamaina. Magnitudea erabat erlatiboa denez, ezer ez da ez handi ez txiki. Unibertsoko gauza guztiak handitu eta diametroz orain diren halako hamar bihurtuko balira, ezer ez litzateke izango lehen baino handiago, baina gauza bat aldatu gabe geratuko balitz, gainerako guztiak lehen ziren baino handiago bihurtuko lirateke. Magnitudearen eta distantziaren erlatibitatea arrotza ez zaion adimenarentzat astronomoaren espazioak eta masak ez lirateke izango biologoak esku artean erabili ohi dituenak baino txundigarriago. Aitzitik, gaur dakigunaren arabera, ikusmeneko unibertsoa atomo baten parte txiki bat izan liteke, ioiz osatua, animalia

baten bizi isurkinetan (eter argiduna) flotatuz legokeena. Gure odolaren korpuskuluek beren osagai diren izaki ñimiñoak ikusten dituztenean, agian zirrara berdinak asaldatzen ditu, baten unibertsoa bestearenetik zein urrun dagoen ohartzean.

Mahats, iz.

Salbe, fruitu nobleetan nobleena: mahatsa!
Homero, Anakreonte, Kayyam haien ametsa.
Ni baino gizon hobeeek gogotik laudatua,
edozein hizkuntzaz beti goraki kantatua.

Lira jotzeko ez dut nik izan esku treberik,
kantarik ez da atera inoiz nire ahotik.
Arren, onar iezadazu nire zerbitzu umila:
burlosoa hil nahi baduzu, zatoz laguntza bila.

Ur zaleak omen diren burutik nahasiei,
baina, izan, pattarzale amorratu direnei
ikertuko dizkiet nik beren pattar-zorroak,
eta makilaz berotu atzealde sendoak.
Bete ontzia, bete, bai, zentzua ahultzen baita,

ardoa kupelan geldi gehiegi uzten bada.
Debekuaren zaintzaile txoroei heriotza!
Deabruak mahatsaren izurriak gal bitza!

Jamrach Holobom.

Maiestate*, iz. Erregearen estatus eta titulua, Amerika errepublikazaleko ordena antzinako eta ohoragarrietako Maisu Goren, Goi Kantziller, Incohone Handi eta Ahaldun Inperial Nabarmenenek mesprezu bidezkoz begiratua.

Maila, iz. Giza merezimenduen mailadian nola-baiteko garaiera.

Hain maila altua gortean
beste nobleek galdetzean
zergatik zuen: «Ai, zeren
trebeagorik gaur ez den
txapaka leunki egiten
Erregeri bizkarrean!»

Aramis Jukes.

Mailegu emaile, iz. Finantza-agoniaz harantza-go bizi den basatien tribuko kidea, egiten dituen eraso latzengatik beldurra zaiona.

Maionesa, iz. Frantsesek estatuaren erlijioaren parekotzat daukaten saltsetako bat.

Maitagarri, iz. Forma eta dohain desberdinak zituen izaki bat, garai batean belardi eta oihanetan bizi zena. Gautarra zen ohituraz, eta dantzarako zaletasuna eta haurrak lapurtzeko jaidura zuen. Naturalisten ustez maitagarriak orain iraungiak dira, nahiz eta Ingalaterrako Elizako apaiz batek hiru ikusi zituen Colchester ondoan 1855ean, parke bat gurutzatzean jauregi baten jabearekin afaldu ondoren. Ikuskizunak hainbesteraino asaldatu zuen, eta hainbeste durduzatu, non ikusitakoaren kontakizuna nahasia izan baitzen. 1807an, maitagarri andana bat Aix ondoko oihan batean agertu zen, eta nekazari baten alaba eraman zuten, oihanean sartua baitzen arropa-pardel batekin. Garai bertsuan *bourgeois* aberats baten semea desagertu zen, nahiz eta gerora agertu. Bahiketa ikusia zuen, eta maita-

garrieti esetsi zien. Justinian Gaux XIV. mendeko idazleak dioenez, maitagarrien itxuraldaketarako ahalmena hain da handia, non behin haietako bat ikusi omen zuen bihurtzen, zer eta elkarri eraso bortitza egiten ari ziren bi armada etsai; hurrengo egunean, maitagarria bere lehengo formara bihurtu eta alde egin zuenean, zazpiehun hilotz geratu omen ziren lur gainean, nekazariak lurperatu behar izan zituztenak. Ez du esaten zaurituetako inor bizirik atera zen. Ingalaterrako Henrike III.aren garaietan lege bat egin omen zen maitagarriren bat «Hil, zauritu edo elbarri uztea»-gatik heriotza-zigorra baliogabetu zuena, eta erabateko begiramendua bereganatu zuen lege horrek.

Maitasun, iz. Aldi bateko erotasuna, ezkonduz edo eritasuna sortu zioten eraginetatik aldenduz sendatzen ahal dena. Buruhauste hau, *kariesa* eta beste infekzio batzuk bezala, inguru artifizialetan bizi diren arraza zibilizatuetan bakarrik agertzen da; aire garbia hartzen dutenek eta janari kontuan neurritsu direnek immunizazioa dute gaitz honen sarraskien kontra. Askotan hil-

garria da, baina sendagilearentzat maizago gaxoarentzat baino.

Makrobio*, iz. Jainkoek ahaztu eta adin handiraino bizitzen dena. Historiak adibide franko ematen ditu, Mathusalemengandik Parr Zaharra-enganaino, baina luzaro bizitzearen beste adibide batzuk ez dira hain ezagunak. Coloni zeritzan Calabriako nekazari bat, 1753an jaioa, hain luzaro bizi izan zenez, bake unibertsala une batez ezagutu zuela iruditzen zitzaion. Scanaviusek dio ezagutu zuela artzapezpiku bat hain zaharra, non gogoan baitzuen urkatua izaterik merezi ez zuen garai bat. 1566an Bristoleko (Ingalaterra) oihal saltzaile batek esan zuen bostehun urtez bizia zela, eta denbora horretan guztian ez zuela sekula gezurrik esan. Luzaro bizi izanaren adibideak (*makrobiosia*) gure herrian ere baditugu. Chauncey Depew senadoreak baditu horren berri izateko adina urte. *The American* New Yorkeko egunkariko editoreak badu alproja zen garaiko oroitzapena, ez ordea gertaera horrexena. Estatu Batuetako presidentea hain aspaldi jaio zen, non bere gaztaroko lagun askok karre-

ra politikoan edo militarrean oso gora egin duten meritu pertsonalen laguntzarik gabe. Jarraian doazen bertsoak makrobio batek idatziak dira.

Gazte nintzela mundu hau eder, atsegin eta argitsu zen,

airea garbi zegoen beti, urak ezti zirudien.

Txistek, onak; politikoak, oro har, zintzoak ziren, eta berri bat irakurtzean egia izan zitekeen.

Gizonak marru, oihu, erritan ez ziren hain maiz ibiltzen,

emakumeak beste hainbeste, baten bat pasatu arren.

Benetan luze genuen uda, urtaro oso baten dina!

Negu gorria buru-makurrik airoso zen aldegina, udaberriko eguzki printzek emeki harturik gaina.

Gaur nola arraio esan daiteke urtea dela lehen aina, hasi orduko bukatu bada? Zer da hori, zer da, baina!

Gazte nintzela urtea hilez osatzen zen alajaina!

Mendea franko aldatua da, gaur da triste eta goibela,

antolatzaileek nonbait nahi dute denok nazka gaitze-

zela.

Eguraldiko Gizonak ere seguru kulpa duela;
aire zikinak itotzen gaitu edo txaldartzen bestela.

Leioa itxi ezkerro larri, zabaldurikan bezala.

Beraz, uste dut molde berri hau dela txit kezka-

rria,

lehen begiradan hala dirudi baina ez da hain larria.

Eta abantailak ere baditu, erne ibili begia,

gizakiontzat ilun badago, aingeruentzat da argia,

adina hain ona bada, milesker: Maisuak baita jarria!

Venable Strigg.

Maltusiar*, iz. Malthusi eta haren doktrinari buruzkoa. Malthusek populazioaren hazkundera artifizialki muga zitekeela uste zuen, baina ohar-tu zen hori ezin zitekeela hitzez soilik lortu. Malt-husen ideien erakusbide praktikoenetako bat Judeako Herodes izan zen, nahiz eta soldadu ospetsu guztiak pentsaera berdinekoak izan diren.

Maltzurkeria, iz. Animalia edo pertsona ahula indartsuagoetatik bereizten duen dohaina. Due-

nari adimeneko satisfakzioa eta sekulako ezbehar materialak ematen dizkio. Esaera italiar batek dio: «Larruzaleak azerien larru gehiago lortzen ditu astoenak baino.»

Mamu*, iz. Barne-izua kanpoaldeko seinale ikusgarria.

Mamuen jokabide bitxiaren berri ematean, Heinek aipatzen du norbaiten teoria argia, zeinaren arabera guk haiei diegun adinako beldurra diguten haiek ere guri. Ez da horrenbestekoa, nire ustez, batez ere neure eskarmentutik ateratako abiaduren taula konparatiboak kontuan hartuz gero.

Oztopo gaindiezin bat dago mamuetan sinesteko. Mamua sekula ez da biluzik agertzen: edo oihal batean bildurik edo «bizi zeneko jantziekin» azaltzen da. Badirela sinestea ez da bakarrik hildakoek, erabat desegin ondoren, beren buruak ikusgarri egiteko ahalmena dutela sinestea, baizik eta ahalmen bera dutela oihalek ere. Demagun agerpenetako produktu horiek ere badutela: zertarako gauzatuko ote lukete ahalmen hori? Eta traje baten agerpena zergatik ez

da ibiltzen, inoiz edo behin, barruan mamurik ez badu? Enigma pisuzkoak dira hauek. Hondoraino iristen dira eta atzaparkada urduriaz heltzen diote fede mardul honen sustraiari.

Mamu bat ikusi zuen,
Han zegoen —izaki hits hura—
hari bidea trabatzen.
Ez zuen izan aski denbora
ihes egiteko, zeren
mamua ikusi zuten
begietan lurrikara
gisako bat sentitu baitzuen.
Lurrera hantxe erori zen
asmo zintzoen antzera:
han zegoen geldi mamu bera.
Begi aurrean zituen
izarrak kendu ahala,
garbiro ikusi zuen
mamua poste bat zela.

Jared Macphester.

Mana*, iz. Israeldarrei basamortuan ematen zitzaien janari mirarizkoa. Hornikuntza ahitu

zanean, bertan gelditu eta lurra lantzen hasi ziren, eta ongarritarako, normalean, lehenagotik han bizi zirenen gorputzak erabiltzen zituzten.

Maneak, iz. pl. Greziar eta erromartar hilen parte hilezkorrak. Egoera deseroso motel samarrean egon ohi ziren, harik eta utziak zituzten gorputzak lurperatu edo erre arte; eta ez dirudi gero ere bereziki zoriontsuak izan zirenik.

Manikeismo*, iz. Antzinako doktrina pertsiarra, Ongiaren eta Gaizkiaren arteko borroka etengabeari buruzkoa. Ongiak borrokatzeari uko egin zionean pertsiarrek oposizio garaileko kide bihurtu ziren.

Mantsotasun, iz. Hartzea merezi duen mendekua prestatzen ari denaren pazientzia ez-ohikoa.

M-a Moisesi dagokio,
egiptoarrak hil baitzituen.
Eta haren mantsotasunaren
larrosari lurrina dario.
Bere hilartitzak ez esan arren,

M-a Moisesi dagokio,
egiptoarrak hil baitzituen.

Alfabeto Biografikoa.

Margolan, iz. Bi dimentsioko irudia, hiru dimentsiotan aspergarria den zerbaitena.

«Begira Daubert handiak egin zuen margolan totala bizitzatik da zuzen hartua...» Beraz, hori bada hala, Zeruko Indar Ahaltsuok, arren, ni ere Hark har nazala.

Jali Hane.

Martiri, iz. Heriotza desiratua iristeko lerro ahulenean aurrera egiten duena.

Material, izond. Benetako izaera duena, alegiazko izaera baizik ez duenarekin nahasi behar ez dena. Garrantzizkoa.

Ezagutu, ukitu, ikusten dena
da benetako edo materiala,
gainerakoa da, ostera, hutsala.

Jamrach Holobom.

Matxinada, iz. Ikusle errugabeek militarrei eskaintzen dieten entretenimendu ezaguna.

Mausoleo, iz. Aberatsaren azkeneko txorakeria, eta barregarriena.

Meandroka ibili, da ad. Bihurka eta xederik gabe ibili. Hitza Troiatik ehun eta berrogeita hamarren bat milia hegoaldera igarotzen zen ibai baten antzinako izenetik hartua da; ibaiak, nonbait, itzuliz eta bihurrikatuz egiten zuen aurrera, greziar eta troiatarrak beren balentriez harropuzkerian ari zirela ez aditzeko.

Medikuntza, iz. Broadwayn zakurra hiltzeko Boweryn botatzen den harria.

Meerschaum, iz. (literalki itsas apar, eta horretaz egina delako uste okerra zabaldua da). Lur zuri distiratsua, pixkana kolore arrea har dezan tabako pipetan paratu eta erretzen dutena lanbide horretan dihardutenek. Interesatuak kolore

aldaketa hori zertarako egiten zaion ezkutuan
gordetzeko ahalegin handiak egiten dituzte.

Bazen gazte bat (agian ipuin
hau duzue ezaguna)
itsas-aparrez egin pipari
kolore eman nahi ziona.

Etxean sartu eta gehiago
inor ikusi ez zuen
gau eta egun, jai eta aste
pipatzen eman zituen.

Haize ekaitz gogor batean haren
zakurra hil zen intzirika,
belar gaiztoak bidean gailen,
hontza etxean uluka.

«Alde batera joan da urrun,
ez da berriz itzuliko,»
zioten triste haren auzoek
gogoz etxea husteko.

Gaztea hilda beltzaran datza

pipa hortzean duela,
muturra beltza, pipa zuria,
bai kontu polita dela!
Lezio honek esplikazio
batere beharrik ez du:
adarra joko dizuten gauzei
aurretik neurria hartu.

Martin Bulstrode.

Mendebalde, iz. Sortaldearen mendebaldean (edo ekialdean) dagoen aldea. Bertako biztanleak gehien bat Kristauak dira, Hipokriten azpi-leinu ahaltsua, jarduera nagusizat hilketa eta iruzurra dituen, beraiek «gerra» eta «merkataritza» atseginez izendatzen dituzten arren. Horiek dira, halaber, Sortaldeko jarduera nagusiak.

Mendeku, iz. Legearen Tenplua oinarritua dagoen arkaitz naturala.

Menpeko, izlag. Besteren eskuzabaltasunean bere ustea duena, hura beldurtuz atera ezin dion babesaren truke.

Merkatari, iz. Helburu komertzialekin dihardue-
na. Helburu komertzialak duen helmugari dola-
rra deritza.

Merkataritza, iz. Truke mota bat, zeinean A-k
B-ri C-ren salgaiak lapurtzen dizkion eta, ordai-
netan, B-k D-ren patrika miatzen duen, E-ren
dirua hartzeko.

Mesmerismo*, iz. Hipnosia, jantzi dotorez hor-
nitu, ibilera ponpoxotu eta Sinesgogorkeria afal-
tzera gonbidatzen hasi aurretik.

Metropoli, iz. Txokozalekeriaren gotorlekua.

Mika, iz. Txori bat, lapurretarako duen joera iku-
sirik, norbaiti pentsarazi diona mintzatzen era-
kus lekiokela.

Milurte*, iz. Mila urteko epea, baldin eta erre-
formatzaile guztiak azpian direla, estalkia gaine-
tik estutzen ahal bada.

Min, iz. Gogo-egoera deser osoa, gorputzari egiten ari zaion zerbaitetan oinarri fisikoa izan dezakeena, edo huts-hutsik mentala izan daitekeena, besteren zori onak eragina.

Ministro, iz. Botere handia eta erantzukizun txikia duen pertsona. Diplomaziaren arloan herrialde arrotzera bidalitako mezularia, bere erregearen etsaigoaren mamitze ukigarria den aldetik. Trebetasunen artean gezurterria sinesgarria nagusitzen zaio, ia-ia enbaxadorearena adina-koa izan ohi dena.

Mintzatu, du ad. Motiborik gabe indiskrezioan erori, xederik gabeko bultzada batek eraginik.

Mirari, iz. Ordena natural edo ulergaitzaren aurrean makurtzen ez den egintza edo gertaera, adibidez hogeita hamaika eta eskutik eduki eta hala ere galtzea.

Mirespen, iz. Beste batek gurekin duen antzaren gizalegezko aitortpena.

Mirmidon*, iz. Akilesen jarraitzaileetako bat... bereziki buruzagi izateari utzi zionean.

Mitologia, iz. Antzinako herri baten sinesteen sorta, bere jatorria, aspaldiko historia, heroiak eta abar biltzen dituen, gero sortzen dituen benetako istorioekin nahasi behar ez dena.

Moda, iz. Despota bat, zuhurrek irri egiten eta obeditzen diotena.

Errege batek begi bat galdu
omen zuen behin batean:
beroaldiren batez kixkaldu.
Eta harrezkero gortean
begi bakarrak erruz azaldu
omen ziren bat-batean.

Moda berriak akuilaturik,
denak begi bat itxita
omen zebiltzan begi keinurik
egin gabe ezin etsita.
Erregek, berriz, amorraturik,
nahiago zituen hilda.

Zer egingo ba? Ez baitzuten nahi
horretara arriskatu,
begi ixtera ere nolanahi
ezin, ba, deliberatu.
Hark baino hobeki ikusteko gai
zirela ezin aitortu.

Xelebre batek, ordea, denak
ikusirik horren triste,
piztu zituen goibel zirenak
esanez: «Konpon daiteke.
Oihala eta kola dutenak,
begi bat estal bezate.»

Gortean denek elkar harturik
txaplata jarri gerora,
eta Erregek, arras pozturik
ontzat eman zuen moda.
Geldi nadila hankak hozturik
hau dena gezurra bada.

Naramy Oof.

Moldiztegiko letrak, iz. pl. Metal puska kirastu-nak, zibilizaziorako eta adimena argitzeko kaltegarriak omen direnak, nahiz eta hiztegi paregabe hau osatzeko, bistan denez, baliagarriak izan.

Molekula*, iz. Materiaren partikularik txikiena, zatiezina. Korpuskulutik, hori ere txikiena eta zatiezina baita, atomoaren antz handiagoa izateak bereizten du, hori ere materiaren partikularik txikiena eta zatiezina baita. Unibertsoaren egituraren hiru teoria zientifikoak hauek dira: molekularra, korpuskularra eta atomikoa. Laugarren batek baieztatzen du, Haeckeli jarraikiz, materia eterretik prezipitatu eta kondentsatu da... zeinaren existentzia prezipitazio eta kondentsazioz frogatzen den. Pentsamendu zientifikoaren gaurko joerak ioien teorian bilatzen du oinarria. Ioia bereizten da molekula, korpuskulu eta atomotik ioia delako. Bosgarren teoria bat ere sustatzen dute ergelek, baina ez da segurua besteek baino gutxiago jakitea.

Momia, iz. Antzinako egiptoarra, garai batean botika gisa erabilia eta gaur egun arteari pig-

mentu bikaina hornitzen diona. Eskueran da, halaber, museoetan, gizakia behe-mailako animalietatik bereizteko balio duen jakin-min arrunta bazkatzeko.

Gorpuak baltsamatuz, momiak eginez, gizonak ohoratzen zuen hila, zinez.

Baina hilobikoa bekataria zen ala santua ez du axola izaten.

Berdin lapurtzen dugu eta medikuntzan museoetan edo-ta pinturagintzan erabiltzen baitugu. Eta biltzen gara erakustokietan ardiak bezala.

Bertso hau osatzeko, jainkook, esan, arren hildakoak noiz arte zaindu behar diren.

Scopas Brune.

Monada*, iz. Materiaren zatirik txikiena, zatiezi-na (*Ikus Molekula*). Leibnitzen arabera, dioena ulertua izatea nahi duen heinean, monadak materiari gabeko gorputza du, eta agerpenik gabeko adimena... Leibnitzek pentsatzeko berezko ahalmenaz baiatuz asmatu du hori. Bere buruan oinarrituz finkatu du unibertsoaren teo-

ria, izakiak kexarik gabejasaten duena, monada ongi hezia baita. Txikia bada ere, monadak bere baitan ditu lehen mailako filosofo alemana bihurtzeko behar diren ahalmen eta posibilitate guztiak... oro har laguntxo ahaltsua baita. Ez da nahastu behar mikrobio edo baziloekin; ongi bereizteko ahalmenik ez duenez, mikroskopia on batek garbi erakusten du espezie zeharo desberdinekoa dela.

Monarka, iz. Erregetzan diharduen pertsona. Garai batean monarkak agintzen zuen, hitzaren eratorriek frogatzen dutenez eta zenbaitek ikasi ahal izan dutenez. Errusian eta Ekialdean monarkak oraindik ere botere handia du afera publikoetan eta giza buruen taxukeran, baina Europako mendebaldean administrazio politikoa ministroen esku uzten du, eta bera nolabait bere buruaren egoerari buruzko hausnarketek kezkatuak ibili ohi da.

Monsinore, iz. Elizako goi titulua, zeinaren abantailez ahaztu egin baitzen gure erlijioaren Fundatzailea.

Moral, izond. Tokian tokiko zuzentasun arau aldakorrera egokitzen dena. Egokitasun orokorra ezaugarritzat duena.

«Ba omen da mendilerro bat ekialdean, eta haren alde batean jokabide batzuk inmoralak omen dira, beste aldean, berriz, estimazio handikoak. Hori menditarrarentzat kome-
nentzia izugarria da, zeren alde batera edo bestera jaisteko eta bere umorearen arabera jokatzeko aukera ematen baitio, okerrik egin gabe.» — *Gookeren gogoetak*.

Mosketari, iz. Eskularru luzea, besoaren parte bat estaltzen duena. New Jersey'n erabiltzen da batik bat. Baina «mosketari» mosketero idazteko modu kaxkarra besterik ez da.

Mozkor-sudur, iz. Bere egilearen irudira egin-
dako sudurra duena.

Mozorrotu, da ad. Nortasunari alkandora garbia jarri.

«Hobe dugu mozorrotzea.» — *Adan*.

Muga, iz. Geografia politikoan, bi nazioen arteko lerro alegiazkoa, baten alegiazko eskubideak bestearen alegiazko eskubideetatik bereizten dituen.

Mukizapi, iz. Seda edo lihozko oihal karratu bat, aurpegian egiten diren lan ez-duin zenbaitetan erabilia eta egin-egina hiletetan malko eskasia ezkutatzeko; gure arbasoek ez zuten horrelakorik ezagutzen eta haren eginkizunak mahukari gomendatzen zizkioten. Mukizapia berriki asmatua da. Shakespearek *Othello* antzerkian sartu izana anakronismoa da. Desdemonak gonaz lehortzen zuen sudurra, Mary Walker doktoreak eta beste erreformatzaile batzuek beren jaka atzeluzeekin egin izan duten bezala gure egunotan... iraultzek batzuetan atzerantz egiten dutelako frog.

Mulato, iz. Bi arrazatako haurra, biez lotsatzen dena.

Mustang, iz. Mendebaldeko ordeketako zaldi basa. Ingalaterrako gizartean aristokrata ingelesaren emazte amerikarra.

Musu, iz. Poetek «usu»-rekin errimatzeko sortutako hitza. Oro har, badirudi adierazten duela elkar ongi ulertzearen nolabaiteko errito edo zeremoniaren bat; baina nola gauzatzen den ez daki lexikografo honek.

Muxugitarra, iz. Musikala ez den tresna bat, hortzekin sokei atezaturik eutsiz eta behatzekin kentzen saiatuz bezala jotzen dena.

N

Nabarmenkeria, iz. Ohore publikoen eskizian norberaren lehiakideak duen ospea. Opera komikoko agertokirako Jakoben eskailera, gora eta behera dabilzan aingeruz hornitua.

Nagikeria, iz. Behe mailako pertsonak zilegi ez duen atsedean jarrera.

Naturaltasun, iz. Emakumeek ar mireslearen gaineko ikasketa luze eta praktika zorrotzen ondoren lortzen duten nolabaiteko dohain lilurgarria. Arrak pozik pentsatzen du dohain horrek bere ume koxkorraren sinpletasun xaloaren antza duela.

Nektar, iz. Olinpoko jainkoen oturuntzetan zerbitzatzen zen edaria. Prestatzeko sekretua galdua da, baina gaurko kentuckyarrek haren osagai nagusia zer zen jakitetik hurbil direla uste dute.

Junok edan zuen nektarra,
ez zion txaldartu kazkarra,
Junok edan zuen whiskya
akabo haren zuhurtzia.

J. G.

Nepotismo, iz. Norberaren amonari kargu bat ematea alderdiaren onerako.

Neskatxa, iz. Sexu desleialeko pertsona gaztea, jokabide asmagaitzerako eta krimenerainoko eromena sor lezaketen ikuspegietarako jaidura duena. Espezie honek hedapen geografiko zabalak du, bilatzen den alde orotan aurkitzen da eta aurkitzen den alde orotan damuarazten du. Neskatxa ez da, oro har, begirako desatsegina, ez eta (bere piano eta iritzirik gabe) belarrirako jasanezina ere, nahiz eta ez den urrutitik ere ortzadarra bezain eder eta, entzungarria duen aldeari dagokionez, kanarioarekin inondik ere lehiatzerik ez duen... eta, gainera, kanarioa eramangarriagoa da.

Neskatxa maitasun kexuz ari

zen ahaire goxo hau kantari:
«Hau da maite dudan futbolari
gihartsu denaren ohoretan,
aspaldi-aspalditik kapitan
behar baitzuen harexek izan!
Eta garaileen taula gainean
distiratsu erregeen gisan
kixkaliko baita beti... nigan!»

Opoline Jones.

Newtondar, iz. Newtonek sortutako Unibertsoaren filosofiari dagokiona, deskubritu baitzuen sagarra zuhaitzetik lurrera erortzen zela, nahiz ez gauza izan zergatik esateko. Haren jarraitzaile eta ikasleek aurrerapen izugarria egin dute: gai dira noiz eroriko den esateko.

Ni. Alfabetoko lehen letra, hizkuntzako lehen hitza, adimenaren lehen pentsamendua eta maitasunaren lehen xedea. Gramatikan, lehen pertsonaren izenordaina da, eta numeroz singularra. Plurala *gu* dela esan ohi da, baina *ni* bat baino gehiago nolatan izan daitezkeen argiago dago gramatikarientzat hiztegi paregabe honen

egilearentzat baino. Bi *ni*-ren ideia zaila da, baina fina. *Ni* graziaz erabiltzeak bereizten ditu idazle ona eta txarra; azken horrek lapurrak bere harrapakina bezala ezkutuan eraman ohi du.

Nihilista*, iz. Tolstoiz gainerako guztiaren existentzia ukatzen duen errusiarra. Eskola honen burua Tolstoi da.

Nire, izord. Nire jabetzakoa, hartu edo harrapatzea lortuz gero.

Niri*, izord. Ni-ren kasu aurkagarria. Izenordain pertsonalak ingelesez hiru kasu ditu, menpekoa, aurkagarria eta jasalea. Bakoitza hirurak da.

Nirvana, iz. Erlijio budistan zuhurrei saritzat ematen zaien ezerezte atsegineko egoera, bereziki ideia hori ulertzeko bezain argiak badira.

Noble, iz. Gizartearen goi maila eta bizimodu goitarra jasan nahi duten amerikarrentzat Naturak ematen duen sorkaria.

Noumeno*, iz. Izatea duena. Ez da nahastu behar izatearen itxura besterik ez duenarekin, horri fenomenoa deitzen baitzaio. Noumena zail samarra da harrapatzen; arrazoituz baizik ez daiteke atzeman... eta hori fenomeno bat da, izan ere. Hala ere, noumenoen aurkikuntzak eta agertarazpenak aukera zabala ematen dute, Lewisek «pentsamendu filosofikoaren aniztasun eta aztoramen amaigabea» deitzen duenerako. Gora (beraz) noumena!

Ñ

Ñu, iz. Hegoafrikako animalia, zaldia, bufaloa eta oreina ematen duena etxabere denean. Basatia denean, berriz, oinaztarra, lurrikara eta zikloia ematen du.

Behin Kewko ehiztari batek begiztatu
zuen urrutira bakean zen ñua.

Esan zuen: «Horri atzetik segitu
eta hilko diat, demonio txatxua.»

Piztia, ordea, lehenago ohartu,
hor jo du ostikoz gizon armatua.

«Hobe erretiratu,» hark zuen pentsatu,
«zertan haserretu, zertako garbitu?
Horrek onik ez du. Bego bertan ñua».

Jarn Leffer.

O

Obsesionatu*, ad. iz. bur. Izpiritu gaizto batek mendean hartua, Gadarako zerri talde hura eta beste kritikari batzuk, adibidez. Obsesioa gaur baino ohikoagoa zen garai batean. Arasthusek aipatzen du nekazari batek asteko egun bakoitzean deabru desberdina gorputzean sartua izaten zuela, eta igandean, berriz, bi. Maiz ikusten ziren, haren itzal bihurturik, bakarra sartua zue-nean, baina herriko notarioak uxatu zituen azke-nean, gizon santua baitzen; hala ere, nekazaria berekin eraman zuten, eta betiko ezkutatu zen, gizagaixoa. Reimseko Artzapezpikuak emakume baten baitatik uxatu zuen deabru batek kaleetan barrena ihes egin zuen, atzetik ehun lagun segi-ka zituela, lurralde soilera iritsi zen arte, non eliz-dorra baino jauzi handiagoa eginez txori baten baitan babestu baitzen. Cromwellen armadako kaperau batek deabruak hartutako soldadu bat exortzizatu zuen uretara botaz, eta orduan deabrua ur gainera atera zen. Soldadua ez, tamalez.

Ofentsibo, izond. Sentipen edo sentsazio desatseginak sortzen dituen, armada batek bere etsaiaren aurka aurrera egitean, adibidez.

«Etsaiaren taktika ofentsiboa al zen?» galde-tu zuen Erregeak.

«Baietz esango nuke!» erantzun zuen jeneral garaituak. «Zerri horiek ez ziren ateratzen beren babeslekuetatik!»

Oharpen, iz. Errieta xumea, harakin-aizkorarekin edo ematen dena. Adiskidearen abisua.

Lagunen oharpenez baitzen baliatu,
arima behin betiko horrelaxe galdu.

Judibras.

Ohitura, iz. Libreentzako lokarria.

Oinezko, iz. Automobilarentzat errepidearen parte aldakorra (eta entzungarria).

Oinzola-jipoi, iz. Egur gainean ibiltzea, batere ahaleginik egin gabe.

Oker, iz. Lege hauste xumea, delitua baino duintasun txikiagokoa eta goi mailako gaizkileen artean sartzeko eskaeretan behar adinako pisurik ez duena.

Okerren bidez igo nahi zuen krimenaren goi mailara. Gizagaixoa! Industri jaunek egin zioten algara, finantzetako Erregeek bota zuten azkar bazterrera, trenbidearen jabeek, berriz, hari barre muturrera, banku-lapurtzen hasi zen baina ez zen hain ongi atera,

meritu aski egin baino lehen sartu zuten espetxera.

S.V. Hanipur.

Oleaginoso*, izond. Oliotsu, leuna, lustreatua.

Disraelik behin Wilberforce Apezpikuaren estiloa «koipetsu, oleaginoso, xaboitsu» hitzez deskribatu zuen. Eta prelatu zintzoari harrezkero Sam Xaboitsua esaten zioten. Gizaki bakoitzarentzat bada hiztegietan bigarren azal baten gisa egokituko litzaiokeen hitzen bat. Etsaiei dagokie hitz hori aurkitzea.

Oliadura, iz. Gantzutzea, koipatzea. Azken oliaduraren errittoa hiltzeko zorian den norbaiten gorputzeko alde batzuk Apezpiku batek sagaraturako olioaz ukitzean datza. Marburyk kontatzen du noble ingeles bati oliadura eman ondoren ohartu zirela olio behar bezala sagaratu gabea zela eta besterik ez zegoela eskuratzerik. Hori gaixoari esan ziotenean, haserre esan omen zuen: «Orduan, deabruak eramaten ahal nau, hiltzen banaiz!»

«Horren beldur gara,» esan zuen apaizak.

Olinpoko, izlag. Garai batean jainkoen bizileku izan zen Thesaliako mendi bati buruzkoa; gaur, berriz, turisten presentzia eta haien apetituaren lekuko diren egunkari horitu, garagardo botila eta sardina-pote zirtzilduak pilatzen diren lekua.

Minervaren tenplua arbeltzat du hartu
turistak, bere izena han zirriboratu,
non trumoika ibili zen Olinpoko Zeus
gaur turisten apeten hustuleku ezdeus.

Averil Joop.

On, izond. Idazle honen merituez ohartzten dena, andrea. Idazle horixe bakean uztearen abantailaz ohartzten dena, jauna.

Onartezin, izond. Aintzat hartua izateko onargarritasunik gabea. Zinpekoen epaimahaiek zenbait kasutan aintzat ez hartzera behartuak direnean eta, horrenbestez, zinpekorik gabe dihardutenean ere epaileek baliogabetzen dituzten zenbait lekukotasuni buruz esaten da. Besteren lekukotasuna onartezina da, hitzen aipamena egiten zaion lekuko hori ez baitzen zinpean mintzo eta ez baitago epailearen aurrean galdeketa egin diezaioten; hala ere, garrantzi handieneko egintza gehienak bai arlo militarrekoak, bai komertzialekoak eta baita beste edozein motatakoak ere, besteren lekukotasuna oinarri hartuz gauzatzen dira. Ez da erlijiorik munduan besteren lekukotasunaz bestelako oinarririk duenik. Errebelazioa besteren lekukotasunean oinarritzen da, Eskriturak Jainkoaren hitza direla esaten diguten lekukoak aspaldi hilak dira; haien nortasuna ez dago batere argitua eta ez dago inondik ere frogatua zein zentzutan zin egin zuten. Gaur

herrialde honetan dauden frogabideetarako arauen arabera, ez da Bibliako baieztapen bakar bat ere auzitegietan froga onargarri gisa hartzeko moduko oinarririk duenik. Ez dago frogatzerik Blenheimeko gudua sekula gertatu zenik, Julio Zesarrik izan zenik, Asiriako Inperioak existitu zuenik.

Baina Auzitegietako aktak onargarriak direnez, aise froga daiteke garai batean izan zirela sorgin ahaltzu gaiztoak eta arrisku latza zirela gizateriarentzat. Emakume batzuk sorginkeriatatik kondenatu eta hiltzeko erabilitako frogak (aitorpena barne) akatsgabeak ziren; oraindik ere aurkaezinak dira. Epailleek haietan oinarriz hartutako erabakiak logika eta lege aldetik aurkaezinak ziren. Ez da sekula izan inolako auzitegitan ezer goitik beheraino frogatuagorik zenbaiti heriotza ekarri zioten sorginkeria-salaketak baino. Sorginik sekula izan ez bada, giza lekukotasunak eta giza arazoibideak ez dute batere balio.

Ondore, iz. Desilusio mota berezi bat. Salbuespena arauaren berrespentzat hartzen duen adi-

menaren ustez egintza baten zuhurtzia ondorearen arabera juzkatu behar da. Hori txorakeria galanta da; egintza baten zuhurtzia egileak hura burutzean zuen argitasunaren arabera juzkatu behar da.

Ondorengotza, iz. Autore ospetsu baten garai-kideen epaia hankazgoratzen duen apelazio auzitegia, apelatzailea bere lehiakide ezezaguna delarik.

Ondorio, iz. Beti elkarrekin ordena berean gertatzen diren bi fenomenoetako bigarrena. Lehenbizikoa, Kausa deritzana, izaten omen da bigarrena sortzen duena... eta, hala ere, zakurra untxiari segika baizik ikusi ez zukeenak untxia zakurraren kausa dela esateak adina zorroztasun erakutsiko luke.

Ongile, iz. Esker txarra handizka erosten duena, hala ere, prezioan eragin handirik gabe, oraindik guztien erospidean baitago.

Opera*, iz. Beste mundu bateko bizimodua irudikatzen duen antzerkia. Mundu horretan biztanleek ez dute hitz egiten, kantatu baizik, mugitu ordez imintzioak egiten dituzte, ez dute posturarik, jarrerak baizik. Antzezpen oro da simulazio eta «simulazio» hitza *simia* hitzetik dator, tximino-tik alegia. Baina operan aktorearentzat eredia *simia audibilis* da (edo *Pithecanthropos stentor*), tximino oihukalaria, alegia.

Aktoreak, tankeran gizonaren histak egiten ditu;
opera egiten duenarentzat tximinoa da hista-eredu.

Opiazeo, iz. Norberaren barreneko presondegian dagoen ate irekia. Kartzelako patiora ematen du.

Oposizio*, iz. Politikan, Gobernuari txikizio hiltzaileetara jotzea galarazten dion alderdia, zango trabaketaren bidez.

Ghargarooko Erregeak, gobernatzearen zientzia ikasteko atzerrian ibiliak, bere menpeko lodienetakoen artetik ehun izendatu zituen parlamentario, zerga-bilketarako legeak egiteko.

Horietako berrogei Oposizioko Alderdikide izen-
datu zituen eta bere Lehen Ministroari agindu
zion haiei erakusteko erregearen edozein eraba-
kiri aurka egiteko eginbeharra. Hala ere, lehen-
bizi aurkeztutako proposamena aho batez onar-
tu zen. Oso haserre, Erregek betoa ezarri zion,
eta ohartarazi zion Oposizioari bere egoskorkeria
larrutik ordainduko zuela berriro gauza bera egi-
ten bazuen. Berrogeiek, berehala, hesteak eguz-
kitara ateraz hil zuten bere burua.

«Zer egingo dugu orain?» galdetu zuen Erre-
gek. «Instituzio liberalek ezin dute aurrera egin
Oposizioko alderdirik gabe.»

«Unibertsoa handia da,» erantzun zuen lehen
Ministroak, «egia da ilunpetako zakur jendeok
beren kredentzialak gabe geratu direla, baina
dena ez da galdua. Utzi kontu hau zizare honen
esku.»

Hala, Ministroak bere Maiestatearen Oposi-
ziokoen gorpuak baltsamatu eta lastoz beteara-
zi, beren lehengo botere aulkietan jarri eta ber-
tan iltzez josiarazi zituen. Harrezkero, erabaki
bakoitzaren aurka berrogei boto biltzen ziren,
eta nazioak aurrera egin zuen. Baina egun

batean, karatxoan gainen zerga bat ezetsia izan zen... Gobernuko alderdikideak ez baitzeuden beren aulkietan iltzaturik! Gertaera horrek halako haserrea eragin zion Erregeri, non Lehen Ministroari heriotza ezarri baitzion, parlamentua artilleri bateria batez desegin, eta hortxe izan zuen bukaera Ghargarooko herriaren, herriaren bidezko eta herriarentzako Gobernuak.

Orain, iz. Desilusiorako lurraldeak itxaropenaren erresumatik bereizten dituen eternitatearen parte.

Oratoria, iz. Hitzaren eta egintzaren arteko konspirazioa, ulermenari ziria sartzeko. Takigrafiak bere neurrira eratzen duen tirania.

Ordain, iz. Oker baten kalteordain gisa ematen den asebidia, eta okerra egitean sentitutako asetasunari kendu behar zaiona.

Ordain emate, iz. Okerraren ordaina bai baina asetasunik ez ematea.

Anglosaxoien artean Erregeak oker egin ziola zioen gizon bati, jasandako laidoa frogatzeko, errege laidotzailearen brontzezko irudi bat maki-latzeko aukera ematen zioten, eta gero bizkarra berotzen zioten makila harexekin. Erritoaren azken zati hori borrero publikoari uzten zitzaion. Hori egiteak nolabaiteko moderazioa bermatzen zuen, demandagileak egiten baitzuen makila-aukera.

Ordainsari*, iz. Su eta sufrezko euria, zintzo eta gaiztoen ganean berdin erortzen dena haietatik babesteko lekua bilatzeaz arduratu ez direnean.

Hurrengo lerroetan, Aita Gassalasca Jape poeta agurgarria erbestean zegoen Enperadore bati mintzo, badirudi aurpegiratzen diola Ordainsaria ematetik iheska ibiltzea kontu garbiketa egitean.

Oi! Dom Pedro, itzuli nahi duzu etxera
zure egunak Brasilen lasai bukatzera?
Nola zaude seguru hala izango dela?
Ez da denbora asko urduri zinela,
menpekoek, juxtutik, zintzurretik heldu

eta ez zintuztela han bertan garbitu.
Inperioak dira esker txarrekoak,
Errepublikak ote seguruagoak?

Ordena ikurrak*, iz. pl. Antzinako eta ohorezko zenbait Ordenaren intsignia, pitxi eta janzki bereizgarriak, esate baterako honako hauenak: Adanen Zaldunak, Txorakeria Atsegingarriaren Ameslariak; Troglodita Modernoen Antzinako Ordena; Txantxa Santuaren Liga; Falangisten Urrezko Falangea; Alproja Damutuen Elkarte Abegitsua; Ordenakide Zoragarrien Itun Mistikoa; Zakur Horiaren Zaldun eta Andereak; Mendebaldeko Semeen Ekialdeko Ordena; Gai Jaszinezinaren Hitzontziak; Arku Luzeko Gerrariak; Adarkizko Koilare Handiaren Zaindariak; Astakirtenen Banda; Emazte-egurtzaile Damugabeen Ordena; Nabarmen Gartsuen Legio Bikaina; Erlikiontzi Zilarkararen Gurtzaileak; Irisgaitz Distirtsuak; Atzaparkada Berdingaitzaren Kilikilariak; Hegazterren Zabalduaren Jenizariak; Tenplu Magikoaren Hazikin Lumatuak; Oingeldiko Ahal-dunen Kabala Handia; Gurinaren Salerosketako Jainkojendearen Elkarte; Traketsen Lorategia;

Karatxo Berdintsuekiko Gizonen Anaitasun Bihozbera; Durduzatzaille Distiratsuak; Laborriaren Andereak; Ospegoseen Lankidetzak Elkartea; Edengo Dukeak; Fede Ezkutuaren Dizipulu Militanteak; Atezakurraren Zaldun Garaileak; Artalde Santua; Baikor Kementsuak; Zerri Abegitxarraren Anaidi Zaharra; Gezurteriarako Errege Elkarretaratuak; Ur beltz Mistikoen Duke Zaindaria; Gailentzearen Prebentziorako Elkartea; Zurrutaren Erregeak; Jaundotoreen Federazio Ongihezia; Pergamino Dekodeezinaren Ordena Misteriotsua; Merezimendu eta Gosearen Erregeak; Hegoaldeko Izarraren Semeak; Kupela eta Ezpataren Apezpikuak.

Oroahaldun, iz. Ahalmen guztia duena. Ministro oroahalduna ahalmenak oro dituen ministroa da, horiek ez baliatzeko baldintzapean.

Oroitari, iz. Oroimenera ekartzerik merezi ez duen edo oroitzerik ez dagoen zerbait oroitazteko egitura.

Agamenonen hezurak ikuskizun dira,

eta haren oroitarria hondakin,

baina Agamenonen ospeak ez du, ondorioz, behera egin. Oroitarrien ohiturak baditu bere *reducciones ad absurdum*-ak, «hildako ezezagunari» egindako oroitarriak, adibidez... oroitzapenik utzi ez dutenen oroitzapenak iraunarazteko oroitarriak alegia.

Oroitu, ad. Batek lehen ez zekiena emendioekin gogora ekarri.

Ortodoxo, iz. Erligio onartuaren uztarria darman idia.

Ortografia, iz. Belarriarekin egin beharrean begiarekin hitzak zatitzeko zientzia. Eroetxeetik ihes egindakoek argitasun baino suhartasun gehiagoz defendatua. Chaucerren denboretatik zenbait kontzesio egin behar izan dituzte haren aldekoek, baina horrek ez ditu defentsiban jarri etorkizunean egin beharko dituztenen aurrean.

bere aurrera deiturik, lehenik epailea
patxadan eseri, eta esan zuen. «Asqui da,»
«Choro honen çuçiari khen bequio arguia,
ez daquiola secular çuri honi hilhobia.»

Orubezale*, iz. Dennis Kearneyren ikuspegi politikoari atxikitako animalia ugaztun ornoduna; Kearney San Frantziskoko demagogo ospetsu bat izan zen, entzuleak hiriko orubeetan biltzen zituena. Bere espezieko tradizioarekin fidelak izaki, proletargoaren lider hura lege-eta-ordenaren aldeko bere etsaiek erosi zuten, eta isiltasun onuragarrian bizi izan zen eta aberastasun porrokatuan hil. Baina bere traizioa baino lehen, Kaliforniari ezarri zion konstituzioa solezismoz jositako idazki traketsa zen benetan. «Orubezale» hitzak «orobeherazale» hitzarekin duen antza problematikoki adierazgarria da, baina dudarik gabe iradokitzailea.

Ospetsu, izond. Nabarmenki urriakalgarria.

Begira gerrenerako sortu zen gaixoari,
ospetsu izan nahi zuen, bestela ezin etsi.

Bai, horren gerrenak badu urre geruza, noski,
berorren txigorraldiak nork ez ditu miretsi?

Hassan Brubuddy.

Ostatari, iz. Kazetaritzako Hirutasun atseginga-
rriaren bigarren pertsonaren izen ez hain erabi-
lia. Honela osatzen da: Logelaria, Ohelaria eta
Otordularia.

Ostra, iz. Maskor lingirdatsu eta aho handikoa,
zeina hesteak bota gabe jateko ausardia ematen
dien zibilizazioak gizakiei.

Ostruka, iz. Hegazti handi bat, (bere bekatuen-
gatik dudarik gabe) naturak ukatu diona atzeko
hatz lodia, non hainbat naturalista bihotz onekok
ikusituz duten asmo gaizto baten froga nabarmena.
Hegal pare egoki baten falta ez da akatsa; izan
ere, zorrozki adierazi izan denez, ostrukak ez du
hegan egiten.

Otoitz egin, ad. Unibertsoaren legeak bakar
baten erreguengatik bere alde aldatzeko eskatu,
merezi ez duela erregutzaileak berak aitorturik.

Ozeano*, iz. Gizakiarentzat egindako mundu baten hiru laurdenak betetzen dituen ur masa... eta gizakiak zakatzik ez izaki.

P

Pagano*, iz. Argi gutxiko izakia, ikus eta uki dezakeena adoratzeko erotasunak joa. Kaliforniako Estatu Unibertsitateko Howison irakaslearen arabera, hebrearrak paganoak ziren.

Howison filosofo kristauak hau dio:
hebrear jendajea omen da pagano.
Barka zakarkeria, ni naiz agnostiko
eta erlijiozko liskarretarako
bertsotan aritzea dudana gogoko.

Hebrearrek Howison ezin ongi hartu,
modus vivendi batek nola haiek elkartu?
Baina zeruak ni nau, hortaz, aukeratu,
liskarrean tartean jo eta su sartu
nadin eta benetan dezadan gozatu.

Niretzat hauxe duzu kontuaren muina,
benetan esango dut neure egia zina:
nirekin bat ez dena ez da gizon duina
niri hartuagatik erraz aski gaina,
dela -iko nahiz -zale nahiz -ante fin-fina.

Howisonek kokotsa altxagatik gora
eroapenik gabe ez goaz inora.

Erre-usaina harentzat hutsa izango da
baina nago barrutik kea dariola...

Doala berarentzat egin infernura!

Bissell Gip.

Paldotu*, du ad. Herri hizkeran, zaurian finko sarturik geratzen den edozein armaz sastatzea. Hau, ordea, ez da erabat zuzena; paldotzea, hain zuen, beste hau da: zutoin zorrotz bat gorputzean sartuz hiltzean, biktima eserita geratzea. Hau zigor mota arrunta zen antzinako herri askotan, eta oraindik ere franko erabiltzen da Txinan eta Asiako beste zenbait aldetan. Hamabosgarren mendearen hasieran oso zabaldua zegoen herexe eta zismatikoak «elizaren arrastoan sartzeko». Wolecraftek «damu-jarlekuak» deitzen dio, eta herri xeheak, txantxetan, «zaldi hankabakarraren gainean ibiltzea» esaten zion. Ludwig Salzmannek diosku Tibetean haxe dela erlijioaren aurkako lege-hausteetarako zigorrik egokiena; eta Txinan batzuetan lege-hauste sekula-

rrengatik ezarri arren, maizago esleitzen omen da sakrilejio kasuetan. Paldotzearen esperientzia bizitzen ari den pertsonarentzat axola gutxiko kontua izan behar du bere deserosotasuna zein okerrenngatik merezi izan duen, erlijiozko edo zibilengatik; baina, dudarik gabe, atsegin eman-go lioke bere burua ikusi ahal izango balu Benetakako Elizaren kanpandorreko haize-orratzeko oilar bihurturik.

Pandemonium*, iz. Literalki Deabru Guztien Bizilekua. Haietako askok politikan eta finantzetan aurkitu zuten babeslekua, eta leku hura orain Erreformatzaile Ahoberoak irakurgela gisa erabiltzen du. Hizlariaren ahotsak asaldatzen dituenean, antzinako oihartzunek harrotasun gehiegizkoari dagozkion erantzunak ematen dizkiote.

Panteismo*, iz. Dena Jainkoa dela dioen doktrina, Jainkoa dena dela dioenaren aurkakoa.

Pasaporte, iz. Herritarrari bere herrialdearen mugetatik kanpora atera behar duenean traizioz

ezartzen zaion agiria, atzerritarra dela agerian jartzen eta gaitzespen bereziaren eta laidoen xede bihurtzen duena.

Patrika, iz. Motibazioaren sehaska eta kontzientziaren hilobia. Emakumeak ez du organo hau; horregatik, motiborik gabe jarduten du, eta haren kontzientziak, hilobia ukatu baitzaio, beti bizirik irauten du, besteren bekatuak aitortuz.

Pattar, iz. Bixigarri mota bat honela osatua: parte bat trumoi-tximista, parte bat bihotz-zimiko, bi parte hilketa odoltsu, parte bat herio-infernu-eta-hilobi eta lau parte Satan argitsu. Dositia, burua-bete, denbora guztian. Pattarra, Johnson doktorearen arabera, heroien edaria da. Heroi bat bakarrik arriska daiteke edatera.

Patu, iz. Tiranoak krimenerako duen agintearen oinarria eta txoroak porrot egitean ematen duen aitzakia.

Pedigree, iz. Igeritarako puxikaz hornitutako arbaso zuhaiztar batetik ondorengo hiritar zigarrorodunerainoko bidearen zati ezaguna.

Perdigoikada*, iz. Estatu Batuetako sozialisten eskariei erantzuteko, etorkizuna prestatzen ari den argudioa.

Peripatetiko*, izond. Batetik bestera dabilena. Aristotelesen filosofiarekin lotua, irakasten zuen bitartean batetik bestera ibiltzen baitzen, ikasleen erreparoei iskintxo egiteko. Arreta alferra... ez baitzekiten filosofiaz hark baino gehiago.

Piano, iz. Salako tresna bat, bisitari nekaezina uxatzeko baliagarria. Makinaren teklak eta entzuleen animoa zanpatuz funtzionatzen du.

Pigmehar, iz. Gizon txiki-txikiz osatutako tribu bateko kidea, antzinako bidaiariek munduko alde askotan baina oraingoek Afrika Erdialdekoan bakarrik aurkitua. Pigmeharrei izen hori zuriengandik bereizteko ematen zaie... zuriei pigzabal deritze.

Pikota, iz. Norbaiten nabarmenkeria agerian jar-
tzeko tresna mekanikoa: egungo egunkarien
aurrekaria, zeinen zuzendariak bertute larderia-
tsu eta ohitura eredugarritz jantzitako pertsonak
baitira.

Pintura, iz. Gainalde leunak eguraldiaren eraso-
etatik babestu eta kritikariarenen mende uzten
dituen artea.

Garai batean pintura eta eskultura elkarren
osagarri ziren: antzinako artistek beren esku-
turak pintatzen zituzten. Bi arte horien lotura, gaur
egun, hau besterik ez da: gaurko pintoreak bere
babesleak zirizelkatzen dituela.

Pirata, iz. Maila apaleko konkistatzailea, handi-
tasunaren meritu santifikatzailezik ez duten ane-
xioak egiten dituenena.

Pirateria, iz. Bortxa-atorrarik gabeko saleroske-
ta, Jainkoak egin bezalakoxea.

Pirronismo*, iz. Antzinako filosofia, sortzailearen izena hartu duena. Pirronismoaz gainerako beste edozertan batere ez sinestea zuen funtsa. Gaurko jarraitzaileek horretan ere ez sinestea erantsi diote.

Plagiatu, ad. Norberak sekula santan irakurri ez duen beste idazle baten pentsaera edo estiloa hartu.

Plagio*, iz. Kointzidentzia literarioa, lehentasun zalantzazko eta ondorengotasun fidagarritz osatua.

Plana egin, du ad. Halabeharrezko emaitza bat lortzeko metodorik hoberenaz kezkatu.

Platoniko, izond. Sokratesen filosofiarekin lotua. Maitasun platonikoa ezintasun eta hoztasunaren arteko atxikimenduari ematen zaion izen txorua da.

Plebeiu*, iz. Bere herriaren odolean eskuak bai-zik zikintzen ez zituen antzinako erromatarra.

Patrizioarekin ez da nahastu behar, hura disoluzio saturatua baitzen.

Pleonasmo*, iz. Pentsamenduaren kaporal bat eskoltatzen duen hitzezko armada.

Poesia, iz. Aldizkarien Lurraldeaz haraindiko adierazpide mota berezia.

Poker, iz. Karta joko bat, lexikografo honek zer helburu duen ez dakiena.

Polemika, iz. Liskar bat, non kanoi bala mingarriaren eta baioneta gaizki heziaren ordeztua eta tinta erabiltzen diren.

Eztabaida sutsuetan egizu ahalegina
—hori baita zahar-gazteen hitz borroka duin-duina—
etsaiak amorraturik egin diezaion mina
berak bere buruari zuk berari adina.
Betortz hilgarriez zauri dadila amorraturik,
nola sugea lurrean burua zanpaturik.
Mirakulu hau lortzeko bidea hauxe duzu:
lehenik haren ideiak banaka har itzazu,

kontrakoa berarixe frogaraz iezaiozu,
bere ideiak hankapetik kenduko baitizkizu.
Azal ezazu orduan frogatu nahi duzuna,
argudioen sarreran erabili zentzuna.
Esan beti: «Zuk hain ongi lehen esan duzunez»,
edo: «Zentzu handiz bikain zerorrek diozunez»,
edo: «Bidenabar, zure ikuspegitik, beraz...»,
edo: «Zure argudio sendoa hartuz ardatz...»
Horrez gaineko guztia berak egin dezala,
ziurtatu gero bere hitza bete duela:
zure ikuspegia ongi iruditzen zaiola.

Conmore Apel Brune.

Poligamia, iz. Damu etxea edo penitentziarako kapera, damu aulki zenbait dituena, monogamiak ez bezala, bakarra baitu.

Politika, iz. Printzipioen eztabaidaz mozorrotutako interes borroka. Afera publikoak abantaila pribaturako bideratzea.

Politikari, iz. Gizarte antolatuaren eraikinaren pilareak sartuta dauden lokatzean bizi den aingira. Bihurrikatzen denean bere buztanaren inarro-

saldiak eraikinaren astinduekin nahasten ditu. Estatu gizonekin alderatuz gero, bizirik egotearen desabantailen zama du bere gainean.

Polizia, iz. Babesteko eta partiketarako indar armatua.

Populista*, iz. Nekazaritzako lehen garaietako abertzale fosildua, Kansasko lurpeko xaboi-harri gorri antzinakoetan aurkitzen dena; belarri handitasuna du ezaugarri, eta horrek naturalista zenbaiti hegaldatzeko ahalmena eztabaidarazi dien arren, Morse eta Whitney irakasleek pentsamenduaren ildo desberdinetatik zorrotasunez ohartarazi dutenez, dohain hori izan balu, beste edozein tokitara hegaldatua izango zen honez-kero. Bere garaiko hizkera bitxian, guganaino hondar batzuk iritsi baitira, «Kansasko Arazoa» esaten zitzaion.

Portu, iz. Ekaitzetatik babesturik dauden ontziak aduanazainen amorruaren mende gertzen diren lekua.

Portugantzar, iz. Jatorriz Portugalekoa den antzara espezie bat. Gehien bat lumagabeak dira, eta jateko ez oso onak, baratzuriz beteta ere.

Positibismo*, iz. Benetakoaz dugun ezagutza ukatzen duen eta Itxurazkoaz dugun ezjakintasuna baieztatzen duen filosofia. Defendatzailerik luzeena Comte du, zabalena Mill eta trinkoena Spencer.

Prebarikatzaile*, iz. Gezurti bat beldar egoerari.

Predestinazio, iz. Gauza guztiak programa baten arabera gertatzen direla dioen doktrina. Ez litzateke nahastu behar aurre-erabakiaren doktrinarekin, horrek baitio gauza guztiak programaturik daudela, baina ez horren arabera gertatzen direnik; izan ere, hori beronen sorburu diren beste doktrina batzuen ondorioa da. Diferentzia hori aski izan da kristautasunean tinta-uholdeak sortzeko, eta odol uholdeez hobe ez mintzatzea.

Bi doktrinen arteko bereizketa gogoan edukiz eta biak neurrizko begirunez sinetsiz, betiko hondamenari iskintxo egiteko esperantza izan dezakegu, libratuz gero.

Prelatu, iz. Elizako karguduna, santutasun maila gorenekoa eta sustapen lodikoa. Zeruko aristokraziako kidea. Jainkoaren markexa.

Prerrogatiba, iz. Erregeak okerra egiteko duen eskubidea.

Presa, iz. Traketsen egikera itsumustukoa.

Presati, izond. Gure aholkuen balioa aintzat hartzen ez dakiena.

«Utzazu bertan behera zure apustua,
bestela bukatuko duzu lumatua.»

«Egon lasai, gizona, ez naiz jokalaria.»

«Hain presati zinela nork esango niri?»

Bootle P. Gish.

Presbiteriano, iz. Eliz agintariek «presbitero» izena beharko luketela defendatzen duen pertsona.

Presidente, iz. Giza talde txiki bateko kide nagusia. Talde horretaz —eta horretaz bakar-bakarrik— ziur dakigu beren herritar gehienek ez dutela horietako inortxo ere Presidentetarako nahi.

Ohore bat liteke, baina areago
ikusle izatea egilea baino.

Begira zer naizen ni, pertsona zintzoa,
inork ez dit sekula ukatu botoa.

Sekula gaitzetsi zein burlatu gabea,
ahots batez ninteke ni Presidentea.

Tira, egin ba txalo, menpeko guztiak,
denak aditzeko prest ditut belarriak!

Jonathan Fomry.

Presidentzia, iz. Estatu Batuetako politika arloan zerri-harrapaketako zerri gantzutua.

Presiditu*, ad. Erabakiak hartzen dituen talde baten norabidea emaitza desiragarriera bideratu. Kazetarien mordoiloan, musika-tresna bat jo; adibidez, «hark presiditu zuen piccoloa».

Titulugileak proba harturik eskuetan,
leitu zuen serioski: «Eskualde honetan
ez da sekula aditu antzeko musikarik,
organoa presidituz Brownek joa lakorik.»
Titulugileak proba bazterrean utzirik,
airoso idatzi zuen luma presaka harturik:
«Joaldi bikaina, Presidente Brownek emanik.»

Orpheus Bowen.

Prestu, izond. Irispide-ahalmenean ezintasunak joa. Legebiltzarretan kide guztiei esan ohi zaie prestu; adibidez, «halako jaun prestua zakur ustel bat da».

Prezio, iz. Balioa gehi arrazoizko kopuru bat, prezio hori eskatzeak sortzen dituen kontzientziako pena eta nekeak jasateko.

Primatu, iz. Eliza bateko burua, bereziki gogoz kontrako kontribuzioaz eusten zaion Estatu Eliza batekoa. Ingalaterrako Primatua Canterburyko Artzapezpikua da, bizirik dagoenean egoitza Lambetheko Jauregian izaten duen agure atsegina, eta hilda dagoenean, berriz, Westminster Abbeyn. Normalean hila izaten da.

Proba-zuzentzaile, iz. Gaizkile bat, zuk idatzitakoa ez-hanka-ez-buru duen zerbait bihurtu izanaren damua konposizioegileari testua ulertezin bihurtzen utziaz purgatzen duena.

Probidentzial, izond. Ustekabekoa eta nabarmenki onuragarria, horrela azaltzen duen pertsonarentzat.

Proboszi*, iz. Elefantearen organo garatu gabea, Eboluzioak orain arte sardexka-labanak ukatu dizkionez, horien ordeaz erabiltzen duena. Umorezko asmoak tarteko, tronpa esaten dio herri xeheak.

Elefante bat bidaiari abiatzeko zela nola asmatzen zuen galdetu ziotenean, Jo. Miller

ospetsuak bere tormentatzaileari zeharbegirada bat egin, eta erantzun zion, burua beste zerbaitetan zuela: «Atarian dagoenean», eta bere burua itsasora bota zuen labar batetik. Horrela hil zen bere loriaren gailurrean antzinako umoristarik handiena, gizateria negarretan urtzen utziaz! Titulu hori merezi duen jarraitzailerik ez da azaldu oraindik, nahiz eta Edward Bok jauna, *The Ladies' Home Journal*-ekoa, oso errespeta-tua den bere izaera garbi eta goxoagatik.

Puntu, iz. Bertsoak, maiz kaxkarrak, bukaeran duen hots berdintasuna. Bertsoa bera, hitz lautik bereizia, batik bat zozoa bada. Askotan (oker ordea) «phuntu» idazten da.

Q

Quorum, iz. Talde erabakitzaille bateko behar adinako kide kopurua, beren modura aritzeko eta erabakiak hartzeko modukoa. Estatu Batuetako Senatuan quoruma Finantza Batzordeburuak eta Etxe Zuriko mezulariak osatzen dute. Kongresuan, Presidenteak eta deabruak.

R

R.I.P*. *Requiescat in pace*-ren laburdura trake-tsa, hildakoei desiratzen diegun zorion axolaga-bearen lekuko dena. Drigge doktore jakintsuaren arabera, ordea, hitz horiek hasiera batean *reduc-tus in pulvis* besterik ez zuten esan nahi.

Radio*, iz. Beroa botatzen duen eta zientziala-riaren baitan ergeltasunaren organoa estimula-tzen duen minerala.

Requiem, iz. Hilentzako meza, zeinean, poeta kaxkarrek ziurtatzen digutenaren arabera, hai-zeak bere kuttunen hilobi gainean kantatzen duen. Batzuetan, entretenimendu bariatuagoa ematearren, hilkanta abesten du.

S

Sagu*, iz. Bere bidea konortea galdutako emakumez trabatzeko moduan uzten duen animalia. Erroman kristauak lehoietara botatzen zituzten bezala, Otumween, munduko hiririk ospetsue-
nean, emakume heretikoak saguetara botatzen zituzten. Jakak-Zopt historialariak, bere idatziak guganaino heldu diren Otunweetar bakarra baita, dio martiri haiek duintasun gutxi eta aha-
legin handiz aurkitu zutela heriotza. Saguak desenkusatu ere egiten ditu (horrelakoa da egoskorren gaiztakeria), azalduz emakume dohakabeetatik batzuk leher eginik hil zirela, beste batzuk lurrera erori eta lepoa hautsita, eta beste batzuk suspergarri faltaz. Saguek, ziurta-
tzen du, ehizaren atseginez duintasunez gozatu omen zuten. Baina «Erromatarren historiako hamarretik bederatzi gezurra bada» espero izatekoa da figura erretoriko horretatik proportzio txikiagorik ez izatea emakumezko atseginarean aurka horrelako krudeltasuna erakusteko barre-

na izan zuen herri baten historia idatzian; zeren, bihotz gogorak mingain gezurtia baitu.

Sakeatu, ad. Jabe aldaketa egin, besteren jabetzak osteak eragin ohi dituen uzkurtasunik eta kontzientzia arazorik gabe, musika bandaren soinua lagun. A-ren jabetza B-ri kentzea eta C galdutako aukeraz arranguratzan uztea.

Sakramentu, iz. Autoritate eta esanahi maila desberdinak eratxikitzen zaizkion zeremonia erlijioso solemnea. Erromako Elizak zazpi sakramentu ditu, baina Eliza Protestantek, ez baitira horren aberatsak, bitarako adina baizik ez dute, eta bi horiek ere santutasunean beheragokoak dira. Sekta txikienetako batzuek ez dute sakramenturik batere... eta zuhurkeria horrek erremediorik gabe kondenatzera eramango ditu.

Sakratu, izond. Nolabaiteko xede erlijioso duena; jainkozkotasuna duena; pentsamendu edo sentimendu solemneak iradokitzen dituen; adibidez, Tibeteko Dalai Lama; M'bwangoko Mooguma; Ceylango Tximinoen Tenplua; Behia,

Indian; antzinako Egiptoko Krokodiloa, Katua eta Tipula; Moosheko Muftia, Noeri hozka egin zion zakurraren ilea, etab.

Oro da sakratua edo profanoa.

Bakoitza zertan datzan esatera noa:

Lehenak die ematen apezei anoa,

Debruari bertzeak etekin sanoa.

Dumbo Omohundro.

Salbuespen, iz. Bere klaseko beste gauza batzuetatik bereizteko askatasuna hartzen duen gauza bat, hala nola gizon zintzoa, emakume fidagarria, etab. *Salbuespenak frogatzen du araua* ezjakinen ezpainetatik etengabe ateratzen den esaldi bat da, batzuk besteengandik hartu eta errepikatzen baitute papagaioek bezala, haren zentzurik ezaz inoiz batere pentsatu gabe. Latinez *Exceptio probat regulam* esaldiak adierazten du salbuespenak araua *zalantzan* jartzeko duela, probaldian jartzeko duela, ez, ordea, *frogatzen* duela. Esaera zahar bikain horren esanahia hartu eta bere golkotik ateratako erabat

kontrakoaz ordezkatu zuen gaizkileak hilezkorra dirudien eragin gaiztoa izan zuen.

Saltsa, iz. Zibilizazio eta argitasunaren adierazle fidagarri bakarra. Saltsarik ez duen herriak milaka bizio ditu; saltsa bakarra duenak, bederatziehun eta laurogeita hemeretzi besterik ez. Sortu eta onartutako saltsa bakoitzeko, bizio bat kendu eta barkatzen zaio.

Santu, iz. Bekatari hila, argitaratu aurretik zuzendua.

Orleanseko Dukesak kontaktzen du Marshal Villeroi kalumniatzaile zahar lotsagalduak, gazetetan Frantzisko Saleskoa ezagutu zuenak, esan zuela hura santua zela aditzean: «Atsegin handia hartzen dut Sales jauna Santua dela aditzean. Gauza zatarrak esateko zaletasuna zuen, eta tranposoa zen jokoan. Beste gainerakoan jaun prestua zen, txoraizea halere».

Sardexka, iz. Batik bat animalia hilak ahoan sartzeko erabiltzen den tresna. Lehen ganibeta erabiltzen zen horretarako, eta oraindik ere

askok uste dute badituela abantailak beste tresnaren aldean, nahiz eta horregatik ez duten alde batera uzten; ganibeta kargatzeko erabiltzen dute. Pertsona horiek bat-bateko heriotza itsusitik duten inmunizazioa Jainkoaren errukiaren froga txundigarrienetako bat da, Hura gorrotatzeko dutenenganako.

Sarkofago*, iz. Grekoen artean, harri haragijaleren batez egindako hilkutxa, bertan ezarritako gorpua jateko berezitasuna zuena. Gaurko hiletografoek ezagutzen duten sarkofagoa arotz lana besterik ez da.

Sarraila, iz. Zibilizazio eta ilustrazioaren tresna bereizgarria.

Sasisantu, iz. Bere jokabide zintzoaren atzean gordetzen den putetxe-jabea.

Satan, iz. Huts deitoragarri bat, kreatzaileak egina, zeinak, damaturik, arpileraz eta errautsez gorputza estali baitzuen. Goiaingeru zen garaian, Satan alde askotatik gaitzesgarri bihur-

tu zen, eta azkenean Zerutik bota zuten. Behera-ko bide erdian gelditu, burua makurtu une batez pentsatzeko, eta gora itzuli zen.

«Fabore bat bakarra eskatu nahi nikek,» esan zuen.

«Esan zein.»

«Gizona, nire ustez, sortzeko zorian duk. Legeak beharko ditik.»

«Madarikatua! Nola ausartzen haiz hi, haren etsai amorratua, eternitatearen hasieratik hura gorrotatzera emana, haren legeak egiteko esku-bidea eskatzera!»

«Barkatu; berari bere kabuz egiten uztea besterik ez diat eskatzen.»

Eta hala egiteko agindua eman zen.

Satira, iz. Literatur konposizio mota zaharkitua, idazlearen etsaien bizio eta erokeriak samurtasun badaezpadakoaz agerian jartzen zituena. Gurean satirak ez du sekula izan bizi herbal eta hutsala besterik, zeren haren bihotza zorrotasuna baita, eta horretatik eskas samar gabilta zoritxarrez; umorea, harekin nahastu ohi duguna, betiere, eramankor eta bihozpera izaten da.

Gainera, amerikarrak «beren kreatzaileak hornitu baditu ere» bizio eta erokeria ugariz, ez dago erabat zabaldua horiek maiseagarriak direnik, eta horregatik jendeak gizatxar ospindutzat hartu ohi du satiragilea, eta satiraren biktimak laguntza eske egiten dituen garrasiek onarpen nazionala aurkitu ohi dute.

Zure gorespenak beti, oi Satira,
momien hizkuntzan kantatuak bira!
Zeren hila zaren eta damnatua,
Ifernuan on da zure izpiritua.
Bibliak esanak beti jarraitzera,
ez zinen hain aise joanen lurpera.

Barney Stims.

Satiro, iz. Mitologia grekoko pertsonaia bat, hebrearrearne ere onartua izan den bakanetakoa. (*Leviticus, xvii, 7.*) Satiroa hasieran Dionisosi leialtasun laxoa zion komunitate lizunkoiko kidea zen, baina aldaketa eta hobekuntza ugari jasan zituen. Maiz faunoarekin nahasten da, erromatarren sorkari berantiarrago eta txukunagoa, gizakitik gutxiago eta ahuntzetik gehiago zuena.

Segurtasun galga, iz. Igogailu edo zamagai-luen erorketa gelditzeko automatikoki martxan jartzen den eragingailu mekanikoa, aparatu zintzilikatuan istripuren bat gertatzen den kasuetarako.

Behin ikusi nituen nik
igogailu hutsunean
gizon baten hondakinak
barreiatuak lurrean.

Eta hola esan nien:
«Bai postura arraroa!
Beldur nauk ez ote duan
zati egina lepoa!»

Eta hark tristerik irri
eginez: «Ez ba beldurtu,
hautsi nuenez geroztik
bi aste eginak baititu.»

Bere postura hobeto
erakutsi nahian nonbait,

esan zidan zituela
beso eta hanka zenbait.

Bai egoskorrak direla
bakoitza bere lekuan,
elkarrentzat alibia
bakoitzak bere moduan.

Honela argitzen dizut
nola zegoen lur jorik,
nahiz hasieran ez nuen
hau aipatzeko asmorik,

ez baitut sekula entzun
nik ezer zitalagorik,
gizon hartaz aditua
baino gauza txarragorik.

Kontu hau da alegiazko,
dena da alegoria
hutsunea, metafora;
inor ez zen eroria.

Okerra da idazleak

gezurretan ibiltzea
eta erramu bonetei
gogor uko egitea.

Politikaz ari bainaiz
igogailua aipatzean;
pentsa, desegingo luke
gizon bikainik tartean.

Brian koronela hala zen
(hura baita txikitua);
azkar aski igo zen, baina
joan zitzaion burua.

Gero goitik soka eten
eta ziztuan lurrera,
non inork ez duen maite,
ezin harturik tankera.

Bizi bada ere, ez da
harrezkero gizon bera.
Beraz, segurtasun-galga
maiz gantzutzea hobe da.

Senar, iz. Afaldu ondoren plateraz arduratu behar duena.

Senatu, iz. Jaun adinekoz osatutako jende taldea, bere gain goi mailako eginkizun eta okerrak dituena.

Sendabide, iz. Gaixoaren egoera ahalik eta minik txikienarekin iraunaraziko duenari buruz medikuak duen susmoa.

Sendagile, iz. Gaizki gaudenean gure esperantzen eta ongi gaudenean gure amorrazioaren xede den pertsona.

Seniparte, iz. Negar herri honetatik partitzen denak egindako dohaintza.

Sermolaritza, iz. Sermoiak entzuleriaren premia, ulermen eta baldintza izpiritualetara egokitze zientzia.

Apaiz hura trebea zen sermolaritzan,

arima sendatzeko erremediogintzan.
Hark pentsatzen zituen heste-libragarri
eta ahotikako ok-eragingarri
guztiak zehatz ziren neurritz eta pisuz,
eta gaixoa mingain, bihotz eta pulstuz
nola zebilen zorrotz neurtuta emanak.
Aurkitu bezain laster gaitzaren aztarnak,
bere erremedioak ematen zituen,
bere pilulak oso eraginkor ziren,
ok-eragingarriak, berriz, hain mikatzak,
non joak zituenak Adan haren gaitzak,
sendatuak baitziren gaixotu baino lehen.
Baina gaitz-esaleek —erdi ezkutuka—
bota behar ahotik behazun istuka:
dirudunen pilulak zirela goxoki,
ok-eragingarriak, haientzako ezti.

Potter Apezpikuaren biografia.

Sheriff, iz. Estatu Batuetan, udalerrri mailan botere exekutiboak duen burua, Mendebaldeko eta Hegoaldeko zenbait estatutan eginbehar nagusitzat duena gaizkileak harrapatu eta urka-tzea.

John Elmer Pettibone Cajee
(ez zait gai pozgarria batere)
arras gaiztoa zen, izan ere.

Askok zioten: «Zinez diot John
laguna bezain gaizto den gizon
bakar bat ere ez dago inon!»

Bekatari porrokatu, bero,
gaiztoaren bat ezagutuz gero,
horrexek bihurtzen zuen ero.

Horren berri aditu orduko,
zuzena zen haren iduriko
jo eta bertan uztea seko.

Herri eskariei egin uko,
hura zuhaitz bateraino igo,
han dilindan utzi eta kito.

Edo noizbait umore onean
egonez gero, su ederrean
kixkaltzen zuen bake-bakean.

Horrela zebilen bitartean
herritar zintzo haien artean
batzuk ziren haserre antzean.

Auzoek zioten: «Bai tristea,
hain lege-aurkako izatea
eta hain anar-k-i-s-t-a.»

(Hitz biguina ez aipatzearren
horrela esan nahiago zuten,
nazka horrenbestekoa baitzen.)

«Garbi dago» esan zuten gero
«garaia badela honezkero
John gaiztoa geldiarazteko.»

«Erlikia santu hauengatik,»
eta atera zituzten poltsatik
gordeak azken lintxamendutik,

«hauengatik zin dagigu berak
utziko dituela minberak
diren bere bide eta manerak.

Lotuko diogu esku hori,
heriotz ematea inori
legez ez bada ez dadin sori.»

Hantxe bertan sheriff izendatu
omen zuten, gero errezatu
eta horrela afera bukatu.

J. Milton Sloluck.

Sigi-saga ibili*, ad. Aurrerantz kili-kolo egin, alde batetik bestera, gizon zuriaren zama gainean daramanaren antzera. (Bada «sigi» osagai hori «suge»-rekin lotzen duenik, «saga», berriz, islandierako hitza kontsideratzen da, baina agian «sagardo»-rekin loturaren bat izan dezake.

Hain sigi-saga zuen egiten zabala,
non ezein albotatik ezin nintzen pasa;
Erditik pasatzea, berriz, zen hain zaila,
makurtu behar, beraz, ederki kostata.

Munwele.

Sikofante*, iz. Lausengaria. Handitasunari ahuspez herrestan hurbiltzen zaiona, jirarazteko

agindu eta ipurdian ostikoz jo ez dezaten.
Batzuetan editorea izaten da.

Izain meharrak bere biktima aurkiturik,
nahi izaten du nonbait egon itsatsirik,
bere larru beltz dena odolez puzturik
lohira erori arte sobran xurgaturik.
Horrela lausengari doilorrak poz-pozik
auzoaren punturik ahulena asmaturik,
izain antzo ahoaz zaio atxikitzen,
baina lausengaria ez da inoiz askatzen.
Gelasma, norberaren dohainak ahuntzen
zerbitzuan jartzea ez da on izaten,
gainera haien bizarra Aaronena baino
gurgarriago dela defendatzeraino...
Eta atxikitzeak haren kiratsari
mesede edo maitasun badizu ekarri,
munduak azkenean baluke mesede,
gaizkile aberatsek negar berriz ere:
zure faboreekin zer eginik gabe
bazterrean zu utzita segiko lukete.
Milioidun aberatsek —ez ote da aski?—
garraio nahiz prezio guztietan beti
ebasten badigute edo, areago,

beste doilorkeria oraindik beltzago
eta seguragoak bilatuaz uko
egiten badiete ohiko atrako
moldeei, isilean diruz asetzeko,
zu ikustea haiei botak miazkatzen,
atzean ostiko bat mesedez eskatzen?
Baina jarraitu behar azken mugaraino
lausengarien grina ahitu arteraino,
aberatsak pozteko grina asetzeko
nahitanahiez pobreak salatu beharko,
hilobi ertzeraino hurbilarazteko.
Morganen ohoretan ez zara isiltzen,
Havemeyer hosannaz duzu gainezkatzen,
zergatik duzu Satan horrela baztertzen
zu gabe ere dirutan baitago usteltzen?

Silaba-bakar*, izond. Silaba bakarreko hitzez osatua. Literatur haurrentzat aproposa, ez baitira aspertzen konposatu zozoek egiten dieten zirrara aitortzez, beren haur-mintzo ulergaitzean. Horrelako hitzak ingelesez jatorriz saxoiak dira... alegia, ideia falta larria eta sentipen eta emozio elementalak baizik ez zituen herri basa baten hitzak.

Saxoiz idazten duen gizona
aizkoraz erdibitzeko ona.

Judibras.

Silfide, iz. Izaki ez-material baina ikusgarria, airean bizi zena airea elementu zenean eta fabriketako keak, hustubideetako gasek eta zibilizazioaren antzeko emaitzek kutsatu aurretik.

Silfideak gnomoen, ninfen eta arrabioen lagunak ziren oso, oihanean, uretan eta sutan hurrenez hurren bizi baitziren, gaur hiru leku osasungaitz direnak. Silfideak, aireko txoriak bezala, arrak eta emeak ziren, alferrik, dirudienez; izan ere, ondorengorik izan balute, leku iritsezinetan egingo zuten habia, kumerik ez baitie inork sekula ikusi.

Silogismo, iz. Logikako formula, premisa nagusi, bigarren premisa eta ondorio oker batez osatua. (Ikus LOGIKA)

Sinboliko, izond. Sinboloei eta sinboloen erabilerari eta interpretazioari dagokiena.

Kontzientzia omen damuaren gunea,
nire ustez urdaila du hark kokagunea.
Bekatariak egin duenean bekatu,
puztu egiten dela bainaiz ni konturatu
edo sabel aldea bihurritzen zaiola,
heste baretik usain gaiztoa dariola.
Niretzat behintzat hau da bekatari txarrena:
afaltzeko zaborra besterik ez duena.
Adanek sasoiz kanpo jan baitzuen sagarra
bekatu horregatik egin behar negarra.
Baina ongi dakizu, hau da sinbolikoa,
Adanena, benetan, izan zen kolikoa.

G. J.

Sinbolo*, iz. Zerbaiten adierazletzat hartzen den beste zerbaiten ordean dagoen zerbait. Zerbait sinbolo «hondar» huts dira... ezertarako balio ez dutelarik, egiteko ohitura dugulako izaten jarraitzen duten gauzak; adibidez hilobietan zizelkaturiko errauts kutxatilak; garai batean benetan hildakoaren errautsak gordetzen ziren han. Orain ezin gara egitetik gelditu, baina gure

ezina ezkutatzen duen izen bat eman diezaiekegu.

Sinesgabe, iz. New Yorkeen, Kristoren erlijioko sinestun ez dena; Konstantinoplan, sinestun dena (Ikus GIAOUR). Alproja kasta horrek ez die behar bezalako begirunerik eta ez ditu mantentzen behar bezala honako hauek: sagaratuak, elizgizonak, aita santuak, parrokoak, artzainak, kalonjeak, monjeak, mollahak, vuduzaleak, presbiteroak, hierofanteak, prelatuak, obeah-gizonak, abateak, mojak, misiolariak, sermolariak, diakonoak, fraideak, hadjiak, goi-apezak, muazinak, brahmanak, sendalariak, konfesoreak, eminentziak, presbiteroak, primatuak, prebendadunak, erromesak, igarleak, imamak, benefiziodunak, elizgizonak, koral-zuzendariak, artzapezpi-kuak, apezpikuak, abadeak, prioreak, predikadoreak, padreak, abadesak, nobizioak, ordena eskaleak, bikarioak, patriarkak, bonezak, santonak, kapeilauak, kalonjesak, egoitzadunak, kalonjeburuak, kalonjeburuordeak, herrixkako kalonjeak, abdalak, kutun-saltzaileak, artxidiakonoak, hierarkak, eskolako lehenak, benefiziodu-

nak, kapitularrak, xekeak, monje budistak, eska-
leak, eskribak, guruak, koru-arduradunak, sina-
gogazainak, fakirrak, elizainak, beneragarriak,
errebibalistak, zenobitak, bizi arteko bikarioak,
kaperauak, mudjoak, irakurleak, nobiziosak,
bikarioak, pastoreak, rabbiak, ulemak, lamak,
sakristauak, eliz-atezainak, derbixeak, irakur-
leak, eliz-zainak, kardinalak, prioremeak, apezpi-
ku-laguntzaileak, akolitoak, erretoreak, apaizak,
sufiak, muftiak, eta pum-pumak.

Sinesgabetasun, iz. Munduko sineste handien
artean nagusi dena.

Sinesgaiztasun, iz.

Gertaera bat kontatu zuen
xamurki baina serio.

Dударik gabe sinesgaitza zen,
gezurrak ez du balio.

Baina entzule guztiak,
hantxe zeuden harriturik,
zioten elkar harturik

zirela gauza handiak...

dnek, batek izan ezik;

hura han zegoen isilik

gor eta mutu bailitzan,

lasai, soraio, geldirik.

Besteek, buelta harturik,

goitik behera arakaturik,

laster erabaki zuten:

bai, bai, bizirik zegoen.

Gero eta lasaiago

ari zen geratzen hura.

Batek oihuz hala dio:

«Ez al da txundigarria

kontatutako guztia?»

Mutua altxatuz, begiak erne,

eta lasai begiratuz,

arakatuaz kanpo nahiz barne,

erantzun zuen jarraituz:

«Ezta batere... ni neu binauzu

hori bezain gezurtia.»

Sirena, iz. Musikari mirarizkoetako bat, batez ere ezaguna Ulises bizi osoa itsasgainean ema-

tetik desbideratu zuelako. Alegiazko zentzuan, etorkizun bikain, asmo ezkutu eta egintza etsipen-emangarriko edozein andre.

Sobera jan, ad. Besteri jaten eman.

Gastronomoa, Gehiegiaren apostolua, aintza zuri, sobera janda ez gaizkitzeko trebatua zaren hori. Zuk asmatua da oturuntzak on egitea urdailari Animalia ezin baitzaio gailendu Gizakiari.

John Boop.

Sofismazalekeria*, iz. Arerioaren eztabaida-metodoa, norberarenaren aldean gezur eta engainioz hornituagoa. Metodo hau azken sofistek erabiltzen zuten, Greziako filosofo sekta bat, jakinduria, zuhurtzia, zientzia, artea, eta, bi hitzetan esateko, gizakiak jakin nahi zuen guztia erakusten zuena, baina huskerien mataza ktramilatu eta hitzen lainopean galdu zena.

Hasteko etsai bihurriaren «egintzak» alde batera botaz sofismazalekeria azkar mahaira atera.

Zin egingo du, gero, adituz hainbat gezur eta oker

baliatzeko gai direnekin erotuko dela laster.

Gezurra. Hilak gainean lurra zenbat eta meheago, presio ahulak behartu gabe are gezur gutxiago.

Polydore Smith.

Soka, iz. Hiltzaileei beraiek ere hilkorrek direla gogorarazten dien tresna, zaharkitu-hurrena. Lepo inguruan paratzen da, eta bertan irauten du norberaren bizitza osoan. Leku askotan gorputzaren beste alde batean paratzen den tramankulu elektriko konplexuago batek hartu dio lekua; eta horrek ere azkar utzi dio berea sermoia deitzen den aparatu bati.

Solasaldi, iz. Adimenaren lasaialdi txikien zabalkunderako feria, non saltzaile bakoitza bere ondasunak antolatzen arduratuegi ibiltzen den, besterenei kasu egiteko.

Soldadu soil, iz. Jaun militarra, kanpo-mariskalaren makila bizkar zorroan eta eragozpen bat bere esperantzan daramatzana.

Sonatu, izond. Gaiztakeriaren, bekaizkeriaren eta irainaren gezien xede izateko leku egokian jarria.

Sorgin, iz. — **1.** Atso itsusi eta nazkagarria, gaiztakerian deabruarekin lotura duena. — **2.** Neska gazte eder eta erakargarria, gaiztakerian deabruaren leziorik behar ez duena.

Sorginkeria, iz. Eragin politikoaren antzinako eredu eta aurrekaria. Hala ere, gaitzesgarriago-tzat hartzen zen, eta tarteka tortura eta heriotzaz zigortu ere bai. Agustine Nicholasek kontatzen du sorginkeriaz salatutako nekazari bat torturatzen ari zirela aitortzera behartzeko asmo-tan. Oinaze arin batzuk jasan ondoren, inozo hilduratuak galdetu zien bere borraroei ea ez al zen posible sorgina izatea eta norbera ez konturatzea.

Sudur, iz. Aurpegiaren azken muturra. Konkista-tzaile handiek sudur handiak dituztela oharturik, Getiusek, zeinen idazkiak umorearen aroa baino lehenagokoak baitira, sudurrari bakezaletasuna-

ren organoa deitzen dio. Ohartarazi izan da norberaren sudurra ez dela sekula besteren afertan sartzen denean bezain gustura beste inola izaten, eta hortik zenbait fisiologok ondorio gisa atera izan dute sudurrak ez duela usaimenik.

«Hori duk hori sudurra!

holako marka nork urra!»

Jendeak ikustean egiten du oihu.

«Belarriak estaltzeko

beharko da kotoi franko,

tresneria horrekin zintz egiten badu.»

Abokatuek epaileei

azkar egin zieten dei,

baina haiek eskariei berehala uko.

«Branka horrexen tamaina

ez da broma, alajaina!

Gure jurisdikziotik kanpora dago.»

Arpad Singiny.

Su-eten, iz. Adiskidetasuna.

Sufragio, iz. Bozketa bidez iritzia ematea. Botoa emateko eskubideak (eskubide eta betebehartzat hartzen denak), normalean ulertzen denez, beste norbaitek aukeratu duen gizonaren aldeko botoa emateko eskubidea esan nahi du, eta estimazio handia du. Botoa ez ematea «hirilege falta»-tzat gaitzesten da. Horrelako jokabidea duena, hala ere, ezin da auzipetu delitu horregatik, ez baita salatzaile legitimorik. Salatzailea bera ere erruduna bada, ez du lekurik iritzi publikoaren aurrean; ez bada, delitua mesedegarri du, A-ren abstentzioak B-ren botoari pisu handiagoa ematen baitio. Emakumearen sufragioa esaten zaio emakume batek gizonen batek esaten dionaren aldeko botoa emateko eskubideari. Emakumearen erantzukizuna du oinarri, nolabait mugatua dena. Bere eskubideak errebindikatze-ko azpigonatik jauzi egiteko irrikarik handiena duen emakumea lehenbizikoa izaten da hura janzten, eskubide horiek gaizki erabili dituelako makilatxo batekin mehatxu egiten zaionean.

Sugegorri, iz. Suge mota bat. Horrela deitzen zaio, bizitzan gorriak ikusten ari denari heriotza-

ko orduan ere beste horrenbeste pairarazten diolako.

Suhartasun*, iz. Bururik gabeko maitasunaren ezaugarria.

Sutauts*, iz. Konpondu ezean problematikoak bihur daitezkeen arazoak konpontzeko, herri zibilizatuek erabiltzen dituzten bitartekoetako bat. Autore gehienek diote sutautsa Txinan asmatu zela, baina ez dute oinarritarako froga sendorik. Miltonek dio deabruak asmatu zuela aingeruak sakabanatzeko, eta iritzi hau aingerruen eskasiatik aterea da, dirudienez. Gainera, Nekazaritzako ministro James Wilson Ohoragariaren onarpen sutsua du alde.

Wilson ministroa Columbia Distrituko Gobernuaren etxalde experimental batean gertatutakoaren ondorioz hasi zen sutautsaz arduratzen. Egun batean, duela urte batzuk, haren dohain handiei errespetu handirik ez zien atalaje batek, sutauts zorro txiki bat erregalatu zion esanez *Flashaw flabbergastor*-en haziak zirela, balio komertzial handiko zereal patagonikoa, klima

honetara ederki egokitua. Ministro gizagaixoari esan zion hazi haiek ildo batean bota eta lurrez estaltzeko. Berehala bete zuen agindua; hamar akreko soro batean alderik alde sutauts lerro bat egin zuen, eta, orduan, oihu batek burua itzularazi zion, dohaintza-emaile eskuzabalak poxpolo piztu bat botea baitzuen bat-batean ildoaren hasieran. Lurra ukitzeak sutautsa pixka bat busti zuen nonbait, baina funtzionario harrituak su eta ke zutabe luze mugikor bat jirabira amorratuan atzetik segika zuela ikusi zuen bere burua. Une batez zur eta lur geratu zen, mutu; gero konpromiso batez oroitu zen, eta dena bertan behera utzirik halako abailan alde egin zuen handik, non bidean ikusi zutenei iruditu baitzitzaien sinetsi ezineko ziztuan zazpi herri zeharkatu zituen tximista luze ilun bat, atsedean hartzeko ere inola ere gelditu nahi ez zuena. «Jainko Santua! Zer da hori!» hots egin zuen topografoaren laguntzailak, eskuak begiak babesteko bekokiratzuz, zerumuga begi aurrean erdibitzen zuen lerro ia ezkutatuari begira: «Hori,» esan zuen topografoak, fenomenoari axolakabe erreparatu eta berri-

ro ere bere tresnari kasu eginez, «Washingtongo meridianoa da».

T

T. Alfabeto ingeleseko hogeigarren letra, greko-ek *tau* izen zentzugabea ematen ziotena. Gurearen sorburu den alfabetoan garai hartako kortxokentzeko zakarraren forma zeukan, eta bakarrik zegoenean (feniziarrek sekula lortu ez zuten gauza) *tallegal* esan nahi zuen, Brownrigg doktore jakintsuak «zango trabagailu» baliokideaz itzultzen duena.

Table D'Hôte,* iz. Etxeko menua. Hornitzaileak axolagabekeriarako grina unibertsalari egindako amore-emate eskuzabala.

Pauchinello zaharra ezkondu berritan
mahaira eseri zen jaki-irrikitan,
emaztea jarririk zerbitzu lanetan
harrapazka hasi zen plater-garbiketan.

«Janari onak beti jartzen nau txoratzen,»
esan zuen segituz presaka irensten.
Emazte baztertuak hitzetik hortzera:

«Etxeko menua da. Nahi beste libre da.»

Poeta elkartuak.

Tarifa*, iz. Inportazioetako tasa-eskala, bertako ekoizlea kontsumitzailearen gutiziatik babesteko prestatua.

Giza Arimen etsaia
kexu zebilen ikatza
garestitua zelako,
Estatu beregaineko
baitzen Infernua jada:

«Zuzena da errekina
nik dohainik izatea;
orain nire zeregina,
zuhurkerian ibiltzea,
bihurtu baita ezina
erretokiak piztea.
Nola moldatuko naiz ba?
Jartzen ditugu txandaka,
baina a zer bero kaka!
Tarifa txar honek ditu
deabru denak behartu

iruzurra egitera,
edozeinek nahi erara
lehian sartzea baitauka.
Prentsa dabilkit erreta
ni baino kixkaliago.
Abokatuek kolpeka
bota naute beherago.
Sendagileek botika
franko didate lapurtzen,
berez nire eskumenean
diren bezeroak kentzen,
eta bizirik mantentzen
dituzte beren onean.
Sermolariek etsenpluz
egin gogo ez dutena
predikatzen dute erraz.
Politikariek burlaz
aise egiten dute hitzez
bete ezin beste promes.
Honelako lehia latza
ezin gairiditurik natza,
zertarako, ba, kexatu
nik, Arrania-polatu!,
egin beharko dut santu!»

Errepublikano denak
baitira santu zuzenak
konkurrentziaren aurka
altxa ziren; hura mauka!
hasi ziren adarkadak,
ozpinezko eztabaidak;
baina Alderdi Demokratik
bazituen esperantzak
borroka hartan sartzeko:
arriskuaz ohartzeko
bi-biak ziren elkartu.
Kentzea Zerga Sakratu
hura ziur zen bekatu;
beraz, Matxinatuaren
kaltetan zena arintzeko
sari bat eman zioten
infernu hartan erortzen
zen arima bakoitzeko.

Edam Smith.

Tarta*, iz. Indigestio deritzan txikizioaren mezu-
laria.

«Tarta hotza biziki estimatzen zuen gorpuak.» — *Mucker dk. agurgarria. (Britainiar handiki baten hiletako hitzaldia)*

Tarta hotza da nazkagarria,
amerikarrentzat jangarria.

Horretxek hil nau —edo desegin—
Londres maitetik urrin hain urrin.

(Noble batek Kalamazoon duen hilarritik hartua).

Teknizismo, iz. Auzitegi ingeles batean Home izeneko gizon bat auzipetu zuten, bere bizilagun bat hilketaz salatuz hari izena belzteagatik. Haren hitzak zehazki hauek izan ziren: «Sir Thomas Holtek aihotza hartu eta bere sukaldaria burutik behera jotzean, buruaren erdi bat sorbalda baten gainera eta bestea beste sorbaldaren gainera erori ziren». Auzitegiak akusatua libre uzteko agindua eman zuen; izan ere, epaile jakintsuek ziotenez, hitz horiek ez zuten hilketakusaziorik egiten, ez baitzuten sukaldariaren heriotza gertatu zenik esaten; hori ondorio bat besterik ez zen.

Telefono*, iz. Deabruaren asmakari bat, atsegin ez dugun pertsona urrun edukitzearen abantailetako batzuk ezeztatzen dituen.

Teleskopio*, iz. Tresna bat, telefonoak belarriarekin duenaren gisako harremana duena begiarekin; izan ere, urruneko gauzakeri alferrikako xehetasun mordo batez gu nardatzeko aukera ematen die. Zorionez ez dauka sakrifiziorako deia egiten duen txilirik.

Teosofia, iz. Erlijioaren ziurtasun guztia eta zientziaren misterio guztia dauzkan antzinako fede bat. Teosofo modernoak dio, budistekin batera, lur honetan konta ezin ahala aldiz eta beste hainbeste gorputzetan bizitzen garela, bizitza oso bat ez baita aski luzea gure gogoaren garapen erabatekoa lortzeko; hots, bizialdi bakar bat ez dugu aski, bihurtu nahi dugun bezain zuhur eta zintzo izateko. Erabat zuhur eta zintzo izatea perfekzioa da; eta teosofoak hain begizolia duenez, badaki hobetu nahi duen orok azkenean lortzen duela perfekzioa. Behatzaile ez hain dohaintsuek katuak salbuesten dituzte, ez

baitute ematen gu iaz ginen baino zuhurrago edo zintzoago. Teosofo berrienetako eta gizene-
netako bat Madame Blavatsky zen, katurik ez
zuen emakume bat.

Te-totalitario, izond. Ur-zalea, edari bortitzei
muzin egiten diena, batzuetan erabat eta beste
batzuetan erabat antzean.

Tinta, iz. Burdin tanogalatoz, goma arabiarrez
eta urez osatutako konposatu bat, batik bat idio-
ziaren kutsadura erraztu eta delitu intelektuala
bultzatzeko erabilia. Tintaren tasunak bitxi eta
kontraesankorrak dira: ospea eman eta desegi-
teko erabil daiteke; ospea belztu edo zuritzeko;
baina erabilera zabalago eta onartuagoa du
ospearen eraikineko harriak itsasteko mortero
gisa, eta ondoren materialaren ziztrinkeria estal-
tzeko kare gisa. Badira kazetari deritzen gizon
batzuk tinta-bainutegiak paratu dituztenak, eta
jende batzuek horietan sartzeagatik ordaindu
egiten dute gainera; beste batzuek, berriz, haie-
tatik ateratzeagatik. Maiz gertatzen da sartzeko

ordaindu duenak ateratzeko halako bi ordaintzea.

Torealeku, iz. Politikan, arratoi-zulo alegiazkoa, non politikariak bere jukutriekin borroka egiten duen.

Traidore, iz. Diskrezio baino ausardia handiago-ko pertsona, aukera bat aprobetxatzean okerre-ko lagunak hautatu dituena.

Trebetasun, iz. Gizon abilak gizon hiletatik bereizten dituzten anbizio ziztrinen parte txiki bat betetzeko berezko hornidura. Analisiaren azken buruan, normalean, trebetasuna maila handi batean punpezia nabarmena dela aurkitzen da. Agian, ordea, dohain zirraragarri hori zuzen estimatua da; ez baita lan erraza ponpo-xoa izatea.

Trenbide, iz. Gauden tokitik askoz hobeto egongo ez garenera joateko tresna mekanikoetan inportanteena. Trenbidea, hori dela-eta, biziki estimatzen du baikorrak, lekualdaketa horiek

abailarik handiengan egiteko aukera ematen baitio.

Trikinosi*, iz. Porkofagia proposatzen dutenei zerriak emandako erantzuna.

Moses Mendlessonek, gaixotu baitzen, mediku kristau bat eskatu zuen, eta hark filosofoaren gaitzari trikinosia zela berehala antzeman zion arren, beste izen bat eman zion, ez asaldatzeko.

«Jan ohitura aldatzeko premia larrian zara,» esan zion. «Hemendik aurrera sei ontza zerriki jan behar dituzu egun biz bat.»

«Zerrikia?» oihu egin zuen gaixoak. «Zerrikia? Ez dut inola ere zerrikirik jango.»

«Benetan ari zara?» galdetu zion medikuak serio.

«Zin egiten dut.»

«Ederki... orduan, saiatuko naiz zu sendatzen.»

Troglodita, iz. Zentzu hertsian, paleolitoko harpeetako biztanlea, Zuhaitzekoaren eta Etxebizitzakoaren artekoa. Troglodita komunitate ospe-

tsu bat Dabidekin bizi izan zen Adullameko leizean. Giza talde hura honela zegoen osatua: «estutasunak joak ziren guztiak, zorretan ziren guztiak eta pozik ez zeuden guztiak»... labur esateko, Judeako sozialista guztiak.

Trust, iz. Estatu Batuetako politikaren arloan, enpresa handia, gehienbat langile zuhurrez, bizi-bide xumeko alargunez, zaintzaile eta auzitegien ardurapeko umezurtzez eta gisa bereko gaizkile eta herriaren etsai ugariz osatua.

Txabola*, iz. Jauregi deritzan lore baten fruitua.

Txotxolok txabola bat zeukan,
jauregi-jabe zen Potroso.

Txotxolok zioen: «Ez dezan
pentsa diodala gorroto,
ahuspez natzaio makurtuko...

Hau sentipenaren berria,
benetan da harrigarria!

Aurora borealis bezain bakana da ia.»

Txotxolo makurtu denean

burua sartuz hankartean,
Potroso harritu da arraso,
harroturik burua jaso;
badu hor nahikoa lausengu:
harrokeriak baitu puztu,
ergelkeriak gaina hartu:
bere burua ezarri du besteren eredu.

G. J.

Txalo, iz. Zozokeriaren oihartzuna.

Txaloaldi, iz. Antzinako Erroman, ahuku ofizial dotorea, nazioaren etsaientzat kaltegarri izandakoen ohoretan antolatua. «Garaipen» txikia. Gaur oker erabiltzen da, leku eta garai jakin bateko heroiaren aldeko herri omenaldi libre eta antolatu gabea adierazteko.

«Txaloaldi bat egin didate,»

esan zuen aktoreak.

Baina herriak, nik hala uste,

ditu belarri erneak.

Txalo hitzaren erroak badu

zer esanik hau argitzen.

«xalo»-k inozo ere esan nahi du,
dakienak daki zer den.

Dudley Spink.

Tximino, iz. Animalia zuhaitz zalea, zuhaitz genealogikoetan ere eroso sentitzen dena.

Txirotasun, iz. Erreformaren arratoiak hartzetarako zorrotzaria. Txirotasuna abolitzeko prestatutako planen kopuruak hura jasaten dutenen erreformatzaileena gehi hartaz deus ez dakiten filosofoena berdintzen du. Jasaten dutenen bereizgarriak hauek dira: bertute guztiak izatea eta aberastasunera eramango omen dituzten gidariengan duten fedea, paraje horretan beren ustez bertute ezezagunak baitira.

Txorakeriak, iz. pl. Hiztegi bikain honi jartzen zaizkion erreparoak.

Txotxongiloak, iz. pl. Antzerki mota bat, non istorioa hizkuntza txikitu gabe kontatzen den. Egintza dramatikoaren formarik jasangarrienetakoa.

Txukun, izond. Leku eta garai bateko moduetarako nazkagarriro prestatua.

Boorioboola-Gahko herrian gizona txukun prestatua da zeremonietarako, baldin eta sabe-laldea urdin argiz pintaturik eta behi isats bat erantsirik badarama; New Yorken, nahi badu, pintura alde batera utz lezake, baina ilunabarrean artilezko bi isats eraman behar ditu beltzez pintaturik.

Tze-tze (edo Tse-tse) euli, iz. Afrikako intsektu bat (*Glossina morsitans*), zeinaren ziztada loezinerako erremediorik hoberena kontsideratzen den, nahiz eta zenbait gaixok nahiago duten nobelagile amerikarrarena (*Mendax interminabilis*).

U

Ubikuitate, iz. Aldi berean leku guztietan egoteko ahalmena edo dohaina, baina ez aldi oroz eta leku guztietan egotekoa, hori omnipresentzia baita, Jainkoarena eta eter argi-eroalearena baizik ez den ezaugarria. Ubikuitatearen eta omnipresentziaren arteko bereizketa inportante hau ez zegoen garbi Erdi Aroko Elizarentzat, eta horrek odol asko isurarazi zuen. Luterano zenbaiti, Kristoren gorputza nonahi zegoela baitzioten, Nonahitasunzaleak esaten zitzaien. Oker hori zela-eta zalantzarik gabe kondenatu egin zituzten, zeren Kristoren gorputza Eukaristian baizik ez baitago presente, nahiz eta sakramentu hori leku batean baino gehiagotan gauzatzen ahal den aldi berean. Berrikiago nonahitasuna ez da beti ongi ulertu... ez Sir Boyle Rochek berak ere, adibidez, hark defendatzen baitzuen gizon bat ez daitekeela aldi berean bi lekutan egon, txoria izan ezean.

Ugaztunak, iz. pl. Animalia ornodunetako familia, zeinetako emeak egoera naturalean umeei titia ematen dien, baina zibilizatu eta eskolatuz gero inudea edo biberioa erabiltzen duen.

Uholde*, iz. Bataioaren lehen esperimentu gogoangarria, munduko bekatuak (eta bekatariak) garbitu zituena.

Uko, iz. Nahi den zerbaiten ukapena; adibidez, neskazahar batekin ezkontzeari egiten diona galai aberats eta ederrak; enpresa aberatsari zinegotziak egiten dion zerga-barkamena; damutu ez den erregeari apaizak ematen dion absoluzioa, etab. Ukoak honela mailakatzen dira beheranzko eskalan: erabateko ukoa, baldintzazko ukoa, badaezpadako ukoa eta emakumezkoaren ukoa. Azken horri zenbait kasuistek uko onartzailea esaten diote.

Uko egin, ad. Ohore bati abantaila baten truke ezezkoa eman. Abantaila bati abantaila handiago baten truke muzin egin.

Leonard Woodek sinatu
omen uko zinezkoa,
militar karreran lortu
zituen maila eta gradu
ohorezkoen ukoa.

Herria baitzen suhartu,
—izan nahi hura lakoa—
nolabait zuen onartu
Leonard haren ukoa...
Eta etsenplutzat hartu:
Kristau onaren ukoa.

Politian Greame.

Ukozale, iz. Bere buruari atsegina ukatzearen tentazioan erortzen den pertsona ahula. Erabateko ukozaleak gauza guztiei egiten die uko, uko egiteari izan ezik, eta bereziki besteren galtzetan muturra ez sartzeari.

Gizon batek esan zion gazte etxekalte bati:
«Benetan ukozalea egina hago, horрати!»
«Bai, jauna, bai» hark erantzun zion harrapaturik,
«halaxe nauzu, baina ez fanatikoetarik».

Ulermen*, iz. Burmuinaren sekrezio bat, zaldia eta etxea bereizteko ahalmena ematen duena, teilatua dela medio. Burmuinaren funtsa eta legeak Lockek aztertu eta azaldu zituen xeheki, etxe baten gainean zaldizka ibilia baitzen, eta baita Kantek ere, zaldi batean bizi baitzen.

Hain zorrotz zen ulermenez,
non ikus-entzundakoez
jabetzen zen segurutik,
espetxetik nahiz kanpotik.

Etorriaz baliatuz,
edozer eztabaidatuz,
idazten zuen oparo.

Noizbait sartu zuten Ero-
etxe batean; hark luma
hartuz prestatu bilduma.

Halako idazlerik, zinez,
ez zuten ezagutu, ez.

Ultimatum, iz. Diplomazian, amore ematera jo aurretik egiten den azken exigentzia.

Austriaren ultimatumak jaso zuenean, Turkia-ko Ministerioa hura aztertzeko bildu zen:

«Profetaren zerbitzari handia,» esan zion Txibuk Inperialeko Xaikak Armada Garaitezineko Mamuxari, «zenbat soldadu garaitezin dauzkagu armetan?»

«Fedearen Euskarri hori,» erantzun zion bere txostenak aztertuz jaun handi hark, «oihaneko zuhaitzetako hostoak adina!»

«Eta zenbat gerra-ontzi erasoezin ditugu kristau zerri horien bihotzak erdibitzeko?» galdetu zion Itsas Armada Bete Garaileko Imamari.

«Ilargi Betearen Aita,» izan zen zen haren erantzuna, «jakin beza berorrek itsasoko uhinak, basamortuko hondar aleak eta zeruko izarrak adina direla.»

Zortzi orduz egon zen zimurturik Txibuk Inperialaren bekoki zabala, pentsamendu sakonen seinaleak erakutsiz: gerraren atarramendua aztertzen ari zen.

«Orduan, Aingeruen semeok, zortea erabakia da! Belarri Inperialeko Ulemari ezer ez egiteko

aholkua emateko proposatuko diot. Allahren ize-
nean, bilera amaitu da.»

Umezurtz, iz. Heriotzak gurasoenganako esker txarraren aukera kendu dion izaki biziduna... Gabetze horrek giza sentipenetan barrenekoenak indar bereziz asaldatzen ditu. Gaztea denean, umezurtza normalean umezurtzegira eramán ohi da, non tokiaren zentzu hasi-masikori esker gizartean duen lekua ezagutzen ikasten duen. Orduan, menpekotasun eta mirabetzaren arteak irakasten zaizkio eta azkenean mundua sakeatzera bidaltzen da bota-garbitzaile edo neskame gisa.

Umorista*, iz. Izurri galanta, Faraonen bihotzaren gogortasun latza ere bigundu eta Israeldarrak airoso beren etxera bidaltzeko komentzitu-ko zukeena, haiei hoberena desiratu ondoren.

«Ai, umorista gaixoa, hire buru bihurri horrek txistek asmatu behar nahiz eta urri ibili umorez. Gauaz nekez hire buruaz asmatutakoa aise xahutzen duk egunaz.»

Aska beretik, uste du, jaten utzi ezkeru,
zerri gizenak lukeela soportatuko, bai to!

Alexande Poke.

Unibertsalista*, izond. Infernuaren abantaila beste erlijio bateko pertsonentzat uzten duena.

Unitario, iz. Trinitario baten jainkotasuna ukatzen duena.

Urakan*, iz. Garai batean oso arrunta zen ageraldi atmosferikoa, baina gaur oro har bertan behera utzia tornado eta zikloiei lekua egiteko. Urakana oraindik aski indarrean dago Mendebaldeko Indietan, eta ontzi-kapitain zaharkitu zenbaitek hobesten dute. Baporeen goiko kubertak egiterakoan erabiltzen da, baina, oro har mintzatuz, urakanaren baliagarritasunak urakanak berak baino gehiago irau du.

Urde*, iz. Bere apetitu bikain eta aseगतzagatik giza arrazarekin hertsiki lotua den animalia (*Porcus omnivorus*). Horretan ere, ordea, gizakia gai-

lentzen zaio, urdeak kidekoa jateari muzin egiten baitio.

Urkabe*, iz. Protagonista zerurantz goratzeko agertokia, antzerki mirarizkoak antzezten direna. Herrialde honetan, itzuri egiten dioten pertsonen kopuruagatik da bereziki aipagarria urkabea.

Dela goraturik ahalik urkabeen gorena,
dela batek isurtzean odolik gorriena,
hiltzeko hau da lekurik denetan nobleena:
Heriok bakoitzarentzat aukeratzen duena.

Antzerki zaharra.

Urkatzaile*, iz. Epaitegiko funtzionario bat, maila goreneko eta garrantzi izugarriko eginkizunez arduratzen dena, eta arbaso kriminalak dituen jendailak ondoretasunezko higuina diona. Estatu Batuetako estatu batzuetan, haren eginkizunak elektrikariak betetzen ditu, adibidez New Jersey, non berriki agindu baitira elektrizitate bidezko lehen exekuzioak... New Jerseytarak urkatzearen abantaila norbaitek dudan jarri

izanaren lehen kasua, lexikografo honek dakiela behintzat.

Urrezko zekorra*, iz. Munduko erlijio nagusiko jainkoa. Tenplu Nagusia New Yorkeko hiri santuan du.

Beste Erlijioak omen zerriki txar ustelkorra,
beraz, belauniko gurtu zuen urrezko zekorra.

Jared Oopf.

Urrikalgarri, izond. Norberarekin alderatu ondoren etsai edo arerioak duen itxura.

Urrikalmen, iz. Erdi aroko guduetan oinezko soldaduak zaldun eraitsiari hilkorra zela erakusteko erabili ohi zuen sastakaia.

Urriki, iz. Salbuespenaren zentzu exkaxa, kontrasteak erakutsia.

Urruntasun, iz. Pobreek, berena dutenez, berentzat gorde dezatela aberatsek nahi duten gauza bakarra.

Urte, iz. Hirurehun eta hirurogeita bost desilusioko aldia.

Uztarri, iz. Tresna bat, zeinaren latinezko jatorrizkoari zor dion ingelesak, andrea, bere hitzik argigarrienetako bat, ezkonduen egoera zehaztasun, argitasun eta zorroztasun osoz definitzen duena. Mila aldiz barkatu hemen ez jasotzeagatik.

W

W* (v bikoitza) da alfabeto guztian izen kargatua duen letra bakarra, besteak monosilabikoak baitira. Latinezko alfabetoak grezierazkoaren aldean duen abantaila hau are estimagarriagoa da «pixoriambikÒw» bezalako grezierazko hitz simple bat letraz letra ozenki eman ondoren. Hala ere, jakintsuen ustez bi alfabetoen arteko alde horrek baino eragin handiagoa izan zuen beste arrazoiren batek «Grezia zen loria»-k izandako beherakada eta «Erroma zen handitasuna»-k izandako gorakada argitzeko. Ez dago dudarik, dena den, «w»-ren izena sinpletuz (wow deituz, esate baterako) gure zibilizazioa hedatu ezin bada ere, jasangarriago bihur daitekeela.

Wall Street*, iz. Bekatuaren sinbolo bat, deabru guztiek gaitzetsi behar dutena. Wall Street lapur zulo bat dela sinestea baliagarria da lapur arrakastagabe guztientzat, zerua iristeko esperantzaren orde. Andrew Carnegie handi eta zintzoak berak ere fede horren aitortpena egin du.

Borrokara deitu du Carnegie izukaitzak:
«Broker guztiak dira zorri eta bartzak.»
Carnegie, erne ibili, zail baita gailentzen,
erabili arnasa zeure belak puzten.
Itzuli lainopean den zure txokora,
isildu gaita eta tartana zokora.
Ben Lomondek semea etxera deitu du,
Wall Streetetik airoso alde egin ezazu,
oraindik dolarren bat duzun bitartean
(lasai-lasai utzazu nire izenean).
Finantza-gerretatik hobe aldentzea
eta aurrea balio galerei hartzea.
Finantzen Itsasoan Errege izateko,
mingain hori galgatu behar da hobeto!

Anonymus Bink.

Washington*, izond. Potomak tribuko
kidea, bere burua gobernatzearen pribilegioa
gobernu onaren abantailaren truke eman zuena.
Hari justizia egiteko esan behar da ez zuela
horrelakorik nahi.

Botoa kendu zioten eta eman zioten ordainez

ogi-jateko eskubidea, irabaziz gero aurrez.

Alferrik dabil orain, gaixoa, bere «Jefe»-aren galdez itzuli eta zentsutik bera ateratzeko eginez.

Offenbach Stutz.

Whangdepootenawah*, iz. Ojibwa hizkuntzan, hondamendi; gogor jotzen duen samin ustekabe-koa.

Zergatik nagoen barrez,
zergatik nire algara,
ezpainak hain lasaiturik,
baraila hola astindurik,
diafragma gorabehera
mugituz, nola itsaso
edo tapiz astindua,
galdetzen didazunean,
hona nire erantzuna:
arimaren sakonetik
sakanik sakonenetik
sortzen zaidan algara da,
ura iturritik bezala
mendi-xirripen antzera
natorkizu esatera

benetan kontent naizela.
Jakin nahi duzu besterik?
Arimaren sakonetik,
sakanik sakonenetik,
zergatik irteten zaidan
honenbesteko algara?
Galdetzen didazunean,
hona nire erantzuna,
bihotza pozez saltoka,
indioen lengoaian
zintzotasunez emana:
William Bryan ohartu da
zer den Whangdepootenawah!

Ez al da lertsun lerdena
aintziran zut dagoena,
zutik hantxe isilean
hegalak gurutzatuta,
lepoa luze antzean,
mokoa ezkutatuta,
bere bular sakonean,
burua atzera duena,
eta sorbaldak aurrera?
Ez al da lertsun lerdena

hotzez dardaratzen dena
ipar haizeak jotzean,
pentsatuz hobe zuela
hiltzea txikia zela
txolarrearen antzera?
Ez, ez da lertsun lerdena
ainziran zut dagoena
aintzira arre hitsean
belaun bi-biak urean.

Ez, William paregabea,
William Bryan zintzoa da,
uste du ohartu dela
zer den Whangdepootenawah.

X

X*. Alfabeto ingeleseko alferrikako letra denez, ortografiaren erreformatzaileen erasoan aurrean emendiozko garaitezintasuna dauka, eta haiek bezala hizkuntza berak adina iraungo du. X hamar dolarren sinbolo sakratua da, eta ingelesezko Xmas., Xn. eta gisakoetan «Kristo»-ren ordeztu erabiltzen da, eta ez, maiz pentsatu ohi denez, zeinu hori gurutzeara delako, baizik eta grezierazko alfabetoan dagokion letra haren izenaren hasierakoa delako: Kristo??. Gurutze bat balitz, San Andres esan nahiko luke, horrelako batean ezarririk eman baitzuen bere «testimoniaja». Psikologiaren algebran «x»-k emakumearen adimena adierazten du. «X»-z hasten diren hitzak grekoak dira, eta ez dira definituko ingeles estandarraren hiztegi honetan.

Y

Yanki*, izond. Estatu Batuarra, Europan. Gure Batasunaren Iparraldeko Estatuetan, New Englandarra. Hegoaldeko Estatuetan hitza ezezaguna da (Ikus YANKIALUA).

Z

Zabor, iz. Balio ez duen gauza, hala nola Borea-plastik hegoalderantz lapazorriak bezala ugaritu diren tribuen erlijioak, filosofiak, literaturak, arteak eta zientziak.

Zahar, izond. Erabat erabilezina izan ez arren, erabiltzeko egoera kaxkarrean dagoena, adibidez agurea. Denboraren joanak ospegabetua eta herriaren gustuarentzat mingotsa, liburu zahar bat, kasu.

«Liburu zaharrak,» zioen Gobyk «pikotara doazela! Egin berria nahi dut ogia, liburuak ere hala.»

Naturak berak zuzenesten du Goby horren erregela eta ematen digu unero egin berri den ergela.

Harley Shum.

Zaharkitu*, izond. Lotsatiek erabiltzeari utzi diotena. Batik bat hitzei buruz esaten da. Lexikografo batek zaharkitutzat jo duen hitza horrez geroztik beldurgarri eta higuigarri bihurtzen da

idazle ergelarentzat; hala ere, hitz egokia bada, eta ez badu baliokide berri xuxen egokiagorik, behar bezain egokia da idazle onarentzat. Izan ere, idazle batek hitz «zaharkituekin» duen jarre-
ra haren trebetasun literarioaren neurri zuzena da, beste edozeinen parekoa, obraren funtsa salbu. Hitz zaharkituentzat edo zaharkitzeko bidean direnentzat hiztegia ez litzateke soilik izango perpausaren zati sendo eta ederretan aberatsa; irakurle kompetentea izatea suertatu ez litzaiokeen idazle kompetente bakoitzaren aberastasunak franko handituko lituzke.

Zahartzaro, iz. Bizitzako aro bat, irispidetik kanpo ditugun bizioengatik gaizki esaka arituz, oraindik atsegin ditugunekin konponbideak bilatzen dituguna.

Zakur*, iz. Emendiozko edo ordezko Jainko mota, munduaren adorazio gehiegizko eta habo-
rokina bereganatzeko izendatua. Izaki Jainkozko honek, bere haragizkotze txikien eta leunenetan, ezein giza arrek lortzerik espero ez duen lekua hartzen du Emakumearen atxikimenduan. Zaku-

rra antigoaleko hondar bat da, anakronismo bat. Ez du lurra lantzen, ez du ehuntzen, eta hala ere Salomon bere loria guztian ere ez zen egun oson etzanda egoten lanpas baten gainean, eguzki-pean izerditan blai, euli-bazka bihurturik eta guri-guri, bere jabeak lan egiten zuen bitartean isats salomonikoaren dantza alferra eta gainera esker oneko begirada gozoa erosteko.

Zalantza, iz. Arrakastaren osagai nagusia; «zeren,» Sir Thomas Brewboldek esan zuenez, «ezer ez egiteko bide bakarra eta zerbait egiteko, berriz, bide asko daudenean, zeinetatik, ziu-rrerik, bakarra den zuzena; ondoriotzat ateratzen da zalantzagatik geldi geratu zenak ez zeukala aurrera jo zuenak adina aukera okerreko bidea hartzeko». Arazoaren azalpen argi eta egokia.

«Eraso egitea horren laster erabakitzea,» esan zion behin Grant jeneralak Gordon Granger jeneralari, «miresgarria izan da; bost minutu besterik ez zenituen erabaki hori hartzeko.»

«Bai, jauna,» erantzun zion menpeko garai-leak, «benetan gauza handia da larrialdietan zer

egin jakitea. Eraso egin edo atzera egin zalantzaz nagoenean, ez naiz zalantzan minutu bat ere egoten... txotx ala motx egiten dut.»

«Zer diozu? Hori egin duzu oraingoan?»

«Bai, jenerala; baina, Jainkoaren izenean, ez eman erritarik. Txotxak esandakoaren kontrakoa egin baitut.»

Zaldun, iz.

Behinola gerrari noble jaioa,
pertsone bat, gero, merituzkoa,
orain sekulako txoropitua.

Gerrari, pertsona, txoro ez gehio
zakurrak zaldundu behar beherago
iristeko; orduan Zaldun zakurdun
ginateke, edo Zaldun eulidun,
San Extoanen Ordenako zaldun,
San Phantzarten zaldun kokots-handiak.
Jaunak uxa bitza zalduneriak
ekarri dituen erokeriak!

Zango, iz. Zuhaitzaren besoa edo emakume amerikarraren hanka.

Damak bota pare bat zuen erosia;
saltzailea haiek lotzen zitzaion hasia
nire ustez, zilegi den baino gorago...
eta han komeni zen baino estuago.
Zeren Bibliak dio... ez zaigu axola.

Ez daukat inola
besterengan aurkitu eta zehatzerik
neronek egin ohi ez dudan bekatuak,
joeraz naiz hola.

Bakoitzak ditu bere ahultasun txikiak:
nirea, saihestea bekatu guztiak.
Halere, ez litzateke batere zuzena
harrika hasterakoan ni izatea lehena.
Gainera, esan behar, gauza den bezala,
bota haien eitea halakoa zela.

Gizonak lokarria estutu ahala,
dama muzindu eta lotsaz dio honela:
«Botak altuegiak dira, alajainkoa!,
hilduratzen didate ederki zangoa.»
Saltzaileak egin du irriño goxoa,
bailitzan asmo txarrik gabeko haurtxoa.
Gero hantxe gelditu eta bat-batean
tristura azaldu zaio begien tartean.

Nahiz eta gizonari bost axola izan
dama haren nekeak, behatzak neurtzean,
erantzun zion modu egokienean:
«Ez nituzke mindu nahi zure zango finak.»
Hala zuen eskatzen emandako minak.

B. Percival Dike.

Zani, iz. Antzinako antzerki italiarreko pertsonaia, aldrebeskeria barregarritz saiatzen zena *buffone* edo *pailazoak* egiten zuenaren histak egiten, eta horrenbestez tximu baten tximu bihurtzen zena; izan ere, pailazoak antzerkiko pertsonaia serioa imitatzen zuen. Zani izan zen komiko profesionalaren guraso, gaur gure zoriturako ezagutzen dugun eran. Zaniren baitan sorkuntza etsenplu bat dugu; umoristaren baitan, transmisioarena. Zani modernoaren beste espezimen bikain bat apaiza da, zeinak erretorearen histak egiten dituen, zeinak apezpikuaren histak egiten dituen, zeinak artzapezpi-kuaren histak egiten dituen, zeinak deabruaren histak egiten dituen.

Zantarkeria, iz. Bestek guri buruz erabiltzen duen gaitzespen hizkera.

Zanzibartar, izond. Zanzibarko Sultanerriko biztanlea; Afrikako Ekialdeko kostaldearen parean da. Zanzibartarrak, herri gerrazalea, gure herrialdean duela urte batzuk gertatutako istilu diplomatiko batengatik ezagutzen ditugu hobeki. Hiriburuko kontsul amerikarra itsasora ematen zuen etxe batean bizi zen, eta tartean hondartza bat zen. Diplomatiakoaren familiari eskandalu handia eman arren, eta kontsularen beraren kexu ugariak gorabehera, herriko jendea hondartzan bainatzen tematu zen. Egun batean emakume bat iritsi zen hondartzara eta jantzita zeukan guztia (sandalia pare bat) erantzten ari zela, kontsulak, bere onetik aterata, perdigoiz zaparrada bat bota zion pertsona haren alderik nabarmenenera. Zoritxarreko gertakizuna ordurarte bi herri handiok zuten *entente cordiale*-rako; izan ere, Sultanaren andrea zen.

Zarata, iz. Belarriak jasaten duen kiratsa. Musika hezigabea. Zibilizazioaren emaitza nagusia eta hari jatortasuna ematen diona.

Zartagin*, iz. Emakumearen sukaldea den zigor erakundean erabiltzen den zigor tresneriako osagai bat. Zartagina Kalbinek sortu zuen, eta bataiatu gabe hildako arra beteko haurrak frijitzeko erabili; eta behin batean, zabor-ontzitik haur frijitu bat konturatu gabe hartu eta jan zuen eskale bat ikusi zuelarik, teologo handiari bururatu zitzaion heriotza bere izu guztietatik libratzea, eta horretarako zartagina Genevako etxe guztietara zabaltzea. Hortik mundu osoko txoko guztietara hedatu zen, eta laguntza paregabea izan da haren fede iluna zabaltzeko. Dirudenez, hurrengo lerroek (Potter Apezpikuarenak omen dira) esan nahi dute tresna hau ez dela mundu honetan bakarrik baliagarria, baizik eta, bizitza honetan erabiltzearen ondorioak hurrengo bizitzaraino iristen direnez, beste alde hartan ere erabiltzen dela, jarraitzaileentzako sari gisa:

deitu zuten zerura.

Pedrok: «Asmo-alorrean
ona duzu itxura,
asmaketa berrietan
behar duzu freskura.»

«Hara, gogor saia zaitetz
aspaldiko plan hura
martxan jartzen; diotenez,
zartagiko tortura
ez da makala; aidanez,
gaiztoentzat onura.

»Zartagin bat har ezazu,
koipea bota hara;
gaiztoak hantxe kixkaldu.»

«Beste hau hobea da:
Haien jana han maneatu,
dena bota bertara.»

Zatarkeria, iz. Guk besteri buruz erabiltzen dugun gaitzespen hizkera. Hitza sotiltasun guztiz klasikokoa da; are gehiago, alegia batean erabili omen zuen Georgius Koadjutoreak, hamabos-

garren mendeko idazlerik zozoenetakoak... Zozokeriaren Eskolaren sortzailetzat hartu ohi dena, bestalde.

Zatikapen, iz. Bereizketa, adibidez lurra banatzerakoan egiten dena; alegia, bakoitzak banaka lurra edukitzea, ez partzuergoan. Indioen zenbait tribu lurra zatiturik edukitzeko behar bezain zibilizatu gabekotzat jotzen dira, tribu erakundeen bitartez antolatu izan baitute lurraren kontua, eta ez baitzuten zilegi lurrak Zuriei saltzea kristalezko perlen eta patata-whiskyaren truke.

Oi indio gaixoa, buru hain txarrekoa,
aurrean hilobia, atzean herioa!
Kolonoek ez dute nahi zu hor gelditzea,
nahiago zure puska urriez jabetzea.
Desjabetzeak bere liluraren jolasez
asko eskaini dizu, baina eman ezer ez.
Bere gar iraunkorra eta har hilezkorra
«lurzati banatuak» hitz polit itsaskorra
erabiliz hoztu da edo hil azkenean,
eta orain loturik zaude kate motzean.

Zatitzaile, iz. Pertsona batena den diru kopurua beste baten patrikan zenbat aldiz dagoen adierazten duen zenbakia... normalean han eduki daitekeen adina aldiz.

Zelebrekeria, iz. Nabarmentzeko metodorik merkeena, hain merkea non txoroek beren ezina nabarmentzeko erabiltzen duten.

Zenit, iz. Zutik dagoen gizon batek edo hazten ari den azaburu batek gain-gainea duen zeruko puntua. Ohean den gizonak edo eltzean den azaburuak zenitik ez dutelako ustea zabaldua da, nahiz eta garai batean adituen artean gaiaren ikuspegi horretatik eztabaida handiak izan ziren, batzuek esaten baitzuten gorputzaren postura ez zela funtsezkoa. Horiei horizontalistak esaten zitzairen, besteei, berriz, bertikalistak. Heresia horizontalista Xanobusek menderatu zuen, Abarako errege-filosofoak, bertikalista amorratua baitzen. Gaia eztabaidatzen ari zen filosofo batzar batera sartzean, giza buru moztu bat bota zuen bere etsaien oinetara, eta eskatu zien haren zenita zehazteko, horrekin batera argituz

buru haren gorputza orpoetatik zintzilik zegoela kanpoan. Horizontalistek, beren buruaren burua zela oharturik, ipurdia galduz onartu zuten koropak nahi zuen edozein fede, eta Horizontalismoak *fides defuncti*-en artean hartu zuen bere lekua.

Zenobita*, iz. Gaiztakeriaren bekatuaz gogoeta egiteko bere burua leku itxi batean sartzen duena; eta bere buruan hori ahaztu gabe edukitzeko jarraibide okerrak ematen dituen anaidi bateko kide egiten dena.

Oi zenobita, oi zenobita,
monje kastako ardia,
zu ez zaitugu anakoreta,
hura baita bakartia:
otoitz zaparradaz jotzen duzu Txerren,
tiro bakanez hark doi du alditxartzen!

Quincy Giles.

Zentauro*, iz. Lanaren banaketa gehiegi espezializatu baino lehenagoko giza arraza bat, antzinako atsotitz merkezalearen jarraitzailea zena: «Gizon bakoitza bere zaldi.» Saileko onena Kiron

zen, zaldiaren zuhurtziari eta bertuteei gizakia-
ren arintasuna erantsi baitzien. San Joan Bataia-
tzailearen burua erretiluan ekartzeari buruzko
istorioak erakusten du mito paganoek nolabait
historia sakratua aberastu dutela.

Zentzudun, izlag. Geure iritziek kutsatzeko
arriskua duena. Amore ematera, atzera egitera
eta ihes egitera emana.

Zerbero, iz. Hadesko ate-zakurra, eginbehartzat
sarrera zaintzea zeukana; ez dago garbi zeren
edo noren aurka, denek lehen edo geroago hara
joan beharra baitzeukaten eta inork ez baitzuen
atera nahi. Zerberok hiru buru omen zituen, eta
poeta batzuek ehun ere egotzi izan dizkiote.
Graybill irakasleak, bere erudizio liburutikoa eta
grezieraren ezagupen sakona dela medio iritzi
pisuzkoa aitortzen zaionak, kalkulu guztien
batez bestekoa egin du, eta hogeita zazpi zitue-
la dio: iritzi bueltarik gabea izan zitekeena, Gray-
bill irakasleak jakin izan balu:

- a) Zerbait zakurrei buruz.
- b) Zerbait aritmetikari buruz.

Zerri, iz. Bere apetituaren katolikotasunagatik aipagarria den txoria, gurea argitzeko balio duena. Mahomatarrek eta juduek ez dute zerria estimatzen beren ohiko otorduetako osagai gisa, baina begirunea diote zerriari, ez baitzaie ohar-kabeen pasatzen zerriaren ohituren fintasuna, lumajearen edertasuna eta ahotsaren zolitasuna. Txori hau abeslari gisa da estimatua batik bat; kaiola bat osorik kantari hasiz gero, laster jarriko du bat baino gehiago marruka negarrez. Txoritxo honen izen zientifikoa *Porcus Rockefelleri* da. Rockefeller jaunak ez zuen zerria deskubritu, baina harekin duen antza dela-eta horretarako eskubidea onartu zaio.

Zeru, iz. Gaiztoek beren arazo pertsonalez mintzatuz zu kezkatzeari utzi eta zintzoek, zureak azaltzen dizkiezunean, arretaz entzuten dizuten lekua.

Zetro, iz. Erregearen aginte makila, bere ahalarren zeinu eta sinboloa. Hasieran zurkaitz bat izaten zen, Erregeak erabiltzen zuena bere bufoiari

errita emateko eta gobernu erabakiak geldiarazteko, proposatzaileari bizkarra hautsiz.

Zeus, iz. Greziako jainkoen aita, Jupiter izenpean erromatarrek gurtzen zutena, eta gaurko estatubatuarrek Gure Jainko, Urre Jainko eta gisako izenen pean adoratua.

Ameriketako itsasertza jo izan duten esploratzaile batzuek, eta lehorrean franko barneratu omen zen batek bereziki, pentsatu izan dute izen horiek beste hainbeste jainkori dagozkiela, baina Frumppek *Iraun duten Fedeak* bere lan eskergan dio bertako biztanleak monoteistak direla, bakoitzak ez baitu bere buruaz beste jainkorik, eta hura adoratzen baitu izen sakratu askoren pean.

Zigilatzaile, iz. Eliza Erromatar Katolikoko goi mailako funtzionarioa, eginkizun inportanteenetako bat honako hau duena: Aita Santuaren zezenak *Datum Romae* hitzez markatzea. Printzeen gisako lansariaz eta Jainkoaren adiskidetasunaz gozatzen du.

Zigilu*, iz. Zenbait agiritan, haien jatortasuna eta garrantzia frogatzeko ezartzen den marka. Batzuetan argizari gainean ezartzen da eta paperari itsasten zaio; beste batzuetan, pape-rean bertan ezartzen da. Zigilaketa, zentzu honetan, paper garrantzitsuetan hitz edo zeinu kabalistikoak idazteko antzinako ohituraren aztarna da, paper haiek adierazten zuten autoritatearekin zerikusirik ez zuen indar magikoa emateko erabilia. British Museum-en antzinako agiri asko daude gordeta, gehienak apaiz jendearekin zerikusia dutenak, pentagrama nekromantikoz eta bestelako zeinuz balioztatuak, arao hitz gisa erabilitako inzialez; eta kasu askotan gaurko zigiluekin egiten den bezala ezarriak dira. Ia garai hauetako ohitura, errito edo formalismo zentzugabe eta esanahigabe diruditen gehienek antzinako praktika zentzuzkoren bat dutenez sorburu, atsegina da aurkitzea antzina-ko zentzugabekeria bat, mendetan zehar bene-tan baliagarri bihurtu dena. Gure «sintzero» hitza, «*sine cero*»-tik sortua da, «argizaririk gabe», alegia, baina jende ikasia ez dator bat horren esanahiari buruz: batzuen ustez zeinu

kabalistikorik eza adierazten du, eta beste batzuek uste dute gutunak garai batean jendearen begietatik ezkutatzeko erabiltzen zen argizariaren oihartzuna dela. Garaien ikuspegi biak dira baliagarriak hipotesi premia larrian dagoenarentzat. Agiri legalei normalean eransten zaizkien L.S. inzialek, «*locum sigillis*», zigiluaren lekua, adierazten dute, nahiz eta zigilurik ez den gehiago erabiltzen... kontserbadurismoaren adibide paregabea, Gizakia eta animalia hilkorrak bereizten dituen. «*Locum sigillis*» hitzak apaltasunez proposatzen dira Pribiloff Uharten ikurretarako, estatu burujabe gisa beren lekua Estatu Batuetan hartzen dutenerako baliagarri izan daitezkeelakoan.

Zimitarra, iz. Aho zorrotzegiko ezpata makurra, zeina erabiltzen ekialdetar batzuek harritzeko trebetasuna lortzen duten, hemen kontatuko den gertaerak erakusten duen bezala. Kontraera Japonieratik Shushi Itama zeritzan XIII. mendeko idazle ospetsu batek itzulia da:

Gichi-kuktai handia Mikado zela, lepoa moztuta kondemnatu zuen Jijiji Ri, Gorteko goi funtzio-

nario bat. Errittoa konplitzeko jarritako ordua jo eta berehala, a zer ustekabea hartu zuen bere Maiestateak, hamar minutu lehenago hilda behar zuen gizona lasai-lasai tronura hurbiltzen ikustean!

«Hamazazpi mila dragoi ezinezko!» oihu egin zuen monarka amorratuak. «Ez al nian ezarri hiruretan puntuan azokan egoteko eta borreroak lepoa mozteko epaia? Eta ez al dira hirurak eta hamar?»

«Mila jainkotasun ospetsuren semea,» erantzun zuen ministro kondenatuak, «esaten duzuna hain da egia, non egia bera horren aldean gezurra den. Baina Maiestate zerutar horren desira distiratsu biziemaileak nazkagarriri oinperatuak izan dira. Pozik joan naiz korrika nire gorputz hutsala azokan paratzera. Borreroa zimitarra biluzia aldean duela etorri da, arrandiz airean astindu, eta gero, ni lepoan jo ondoren, joan egin da, herri xehearen erasopean, beti kuttuna izan bainatzaio. Justizia eske etorri naiz, traidore etoi horren burua eskatzera.»

«Zein borrero errejimentutakoa da koldar heste-ustel hori?» galdetu zuen Mikadoak.

«Bederatzi mila zortziehun eta hogeita hamazazpigarren errejimentu ausartekoa... ezagutzen dut. Sakko-Samshi du izena.»

«Ekarraraz ezak nire aurrera,» esan zion Mikadoak zerbitzari bati, eta handik ordu erdira erruduna bere aurrean zeukan.

«Erpururik gabeko hiru hankako bizkarroker baten sasikumea!» esan zuen subiranoak trumoisu, «zergatik jo duk hain ahulki atseginez moztu behar hukeen lepoa?»

«Lertsun eta gerezi loreen Jauna,» erantzun zuen borreroak soraio, «agin iezaiozu gizon honi zintz egin dezan.»

Agindua betez Jijiji Rik sudurrari behatzez heldu, eta elefanteenaren zalaparta ateraz egin zuen zintz, denak buru moztua braust erortzeko zain zeudela. Ez zen ezer gertatu: egintza bakean burutu zen azkeneraino, inolako gorabeherarik gabe.

Begi guztiak orain borreroarengana itzulirik zeuden, Fujiama gailurreko elurra baino zuriago jarri baitzitzaion. Zangoak dardarka zeuzkan, eta arnasa estu eta larri, izuak eraginik.

«Brontzezko lehoien zenbait isats zorrotz!»
oihu egin zuen. «Ezpatari galdua eta zorigaizto-
koa naiz! Gizatxar hau ahulki jo badut lepoan,
ezpata astintzean oharkabeen neure lepoa alde-
rik alde pasatu dudalako izan da. Ilargiaren Aita,
uko egiten diot nire karguari.»

Hori esanik, bere mototsari heldu, burua
erauzi, eta tronurantz hurbildurik, Mikadoaren
oinetan utzi zuen apaltasunez.

Zin, iz. Zuzenbidean, Jainkoari egiten zaion dei
solemnea, kontzientzia behartzen duena egia
esatera, zinauste zigorpean.

Zinegotzi, iz. Gaizkile argi bat, bere lapurreta
ezkutukoak ingurumarian nabarmenki ibiltzeko
itxuraz estaltzen dituen.

Zinetan, adlag. Agian, beharbada.

Ziniko*, iz. Ikusmen akats baten ondorioz, gau-
zak, behar luketen bezala ikusi beharrean, diren
bezala ikusten dituen lotsagabea. Hortik sortu

zen Esziten artean zinikoari begiak ateratzeko ohitura, hari ikusmena hobetzeko.

Zipriztindu, du ad. Maliziaz besteri eratziki norberak egiteko tentazio eta aukerarik izan ez duen gaiztakeriak.

Ziri*, iz. Hortzak oraindik zorroztu gabeak dituen gezurra. Gezurti porrokatuaren egiaranzko hurbiltetarik handiena: bere orbita eszentrikoaren perigeoa.

«Gizon guztiak, gezurti hutsak,» Dabidek behin esana da,

esaldi hori bera ere da, niretzat, ziri galanta;
hark ez zuen nahi, agi danean, egin egizale planta,
hitz hutsak baino etsenplu ona askozaz hobea baita.

Ez, Dabid ez zen inoiz makurtu Egia Hutsaren hesira,

kolpea zabal hedatu zuen gizateria guztira;
mailu kolpeak huts egin zuen, nahiz bota erdi-erdira:
ez gara denok gezurti hutsak, batzuk zenduak baitira.

Zirku, iz. Zaldi, pony eta elefanteentzako leku bat; bertan uzten zaie ikusten gizon, emakume eta hurrek egiten dituzten lerdokeriak.

Zirto, iz. Arrapostuz egiten den irain zuhurra. Bortizkeria izaeraz higuigarri zaien baina laidotzeko joera bortitza duten jaunek erabilia. Hitzezko borrokan, Ipar Ameriketako indioen taktika.

Ziur, izond. Eztarria urratu beharrean defendatutako okerra.

Zomorro, iz. Politikaren arloan bere buruarekiko begirunearen eta buruaskitasunaren bizioak joa. Gutxiespenezko hitza.

Zoologia*, iz. Animalien erreinuaren zientza eta historia, barne hartzen duena haren erregea, Etxeko Eulia (*Musca maledicta*), alegia. Zoologiaren aita Aristoteles izan zen, orok onartzen duenez, baina haren amaren izena ez zaigu iritsi.

Zientzia honen iruzkintzaile handienak Buffon eta Oliver Goldsmith izan dira, honako obra hauetan (*L'Histoire Générale des Animaux* eta *Natura Bizidunaren Historia*) behiak adarrak bi urtetik behin galtzen dituela erakutsi digutenak.

Zor, iz. Esklabo-jabearen kate eta zigorraren ordezeko ongi asmatua.

Aquarium-ean harrapaturik amuarraina bezala, ihesbidea non den bilatuz jotzen du gogor kristala; jirabiraka etengabean egiten du eginahala, ez du ikusi ere egiten norbaitek preso daukala. Halaxe zordun gizagaixoak ingurua libre dela ikusi arren, badaki ongi mugak hor behar duela; zorraz ederki damutu eta saihestu nahi berehala, ohartu baita lehenago ere pagatzea bazeukala.

Barlow S. Vode.

Zor izan, ad. Zorretan egon eta egoera horri eutsi. Hitzak garai batean beste esanahi bat zuen, biologiarekin lotura estuagoa adierazten zuena, «zorri izan» baitzen jatorrizko forma.

Zorion, iz. Besteren miseriaren ikusmirak sortzen duen sentrazio atsegina.

Zorion emate, iz. Bekaizkeriaren gizalegea.

Zoro, iz. Espekulazio intelektualaren eremua gainditu eta egintza moralen bideetan bere burua barreiatzen duen pertsona. Oroegile, eite-oroko, orobereganaatzaile, orojakile, oroahaltsua da. Berak sortu zituen letrak, moldiztegia, trenbidea, bapore-ontzia, telegrafoa, zozokeria, eta zientzien zirkulua. Abertzaletasuna sortu zuen eta gerra erakutsi zien nazioei... teologia, filosofia, zuzenbidea, medikuntza eta Chicago fundatu zituen. Gobernu monarkiko eta errepublikanoa ezarri. Betieretik betierera dirau... kreazioaren egunsentiak ikusi zuen bezala egiten du orain ere zoroarena. Denboraren goiznabarrean lehenbiziko mendietan kantatu zuen, eta izatearen prozesioaren buru izan zen existentziaren eguerdian. Amona xaharrarenaren gisako eskuaz goxoki gorde zuen zibilizazioaren ilunabarreko eguzkia, eta ilunsentian gizonaren afaria —esne eta moralitate katilukada— prestatzen du eta

hilobi unibertsalaren ohe-estalkiak ezartzen ditu. Eta gainerako guztiok betiko ahanzturako gaue-
rako erretiratzen garenean, bera giza zibilizazio-
aren historia idaztera eseriko da.

Zorroztasun, iz. Umorista amerikarrari bere sukaldaritza intelektuala alferrik galtzen dion gatza; ez erabiltzeari esker, jakina.

Zozokeria, iz. Literatura herrikoia-
ren funtsezko elementu eta maila gorena. Kea darien hitz bafad-
ak zurrungaz botatzen dituen pentsamendua. Milioi bat txororen jakintza, ergelak adierazia. Harri artifizialean fosilizatutako sentimendua. Alegiarik gabeko irakaspenna. Hildako egiak hil-
kortasunetik duen guztia. Moraltasun-esne kika-
rakada erdia. Hegazterren lumatuaren pailazo sudurra. Pentsamenduaren itsasertzean ihartzen den marmoka. Arrautzak baino iraupen luzeago-
ko azala. Epigrama disekatua.

Zuhaitz*, iz. Naturak zigor tresna izateko asma-
tutako landarea, nahiz eta, justiziaren desbidera-
tzea dela medio, zuhaitz gehienek fruitu kaxka-

rrak ematen dituzten edo bat ere ez. Berezko fruituak ematen dituenean, zuhaitza zibilizazio eragile mesedegarri eta moral publikoaren bulzagile garrantzitsua da. Mendebalde gupidagabea eta Hegoalde sentiberan haren fruitua (zuria batean, beltza bestean) ez jan arren, atsegin zaio herriaren gustuari, eta ez esportatu arren, mesedegarria da ongizate orokorrerako. Zuhaitzaren eta justiziaren arteko lotura bidezkoa Lynch epaileak egindako aurkikuntza ez dela (hark, egia esan, ez baitzion farola edo zubihabeari buruzko lehentasunik ematen) argi gertzen da hura baino bi mende lehenagoko Morrysterren pasarte honetan:

«Lurralde artan Ghogo çuaitza ecustea egoquitu citzatan, ceinaren gainean asco gauza nituen adituac; baña ura ecusi nuanean ez nion ecer bereciric somatu, ura cegoen errico nagusiac onela esan cidan:

«Çuaitzac ez du fruituric orain, baña bere sasoian Erregueri afrontu eguin diotenac lain ecusico dizcazu adarretatic cincilic.»

Eta guerora esan cidaten «Ghogo» itzac gure izcuntzan «jendalla» itzac duan esanai bera duala berenean». — *Sortal-dera eguindaco bidaldiac.*

Zuhur*, izond. Meritu handiko pertsona askok eskuratu nahi dutena edukitzeko desio okerra duena.

Johnsonek Macphersoni:

«Eskoziar zekena!

Ni prest nauk guztiekin
partitzeko dena.»

«Horixe egia froga
behar ez duena,
haiek baldin badute
hik nahi hukeena.»

Anita M. Bobe.

Zuri, izond. eta iz. Beltz.

Zurkaitz, iz. Agintea adierazten duen zeremonietako makila. Bere taxukerak, zutoin sendoa-

renak, jatorrizko zeregina adierazten du, desadostasunetik begiraraztekoa, alegia.

Zurrut egin, ad. Txispatu, mozkortu, kazkartu, muturra berotu, atxurra bildu, lepakada bildu, zurrutari eman. Bakarkako zurruta gaizki ikusia da, baina nazio zurruteroak zibilizazioaren eta boterearen gailurrean daude. Mahomatar urzaleak kristau edanzaleekin borrokatzen zirenean, belarra segaren aurrean bezala erortzen ziren. Indian ehun mila rosbif-jale eta brandy-sodazale britainiarrek arraza ario bereko berrehun eta berrogeita hamar milioi barazkijale urzale mendean eduki zituzten. Eta ikusi besterik ez dago Amerikar whiskyzaleak zein aise bota zituen espainiar neurritsuak beren lurretatik. Halaxe izan da bikingo eroek Europako mendebaldeko kostalde osoan lapurretak egin eta bereganatutako portu bakoitzean mozkortuta lurrean gertatzen ziren garaietatik: nonahi ikusten da gehiegi edaten duten nazioak aski ongi moldatzen direla borrokan, eta ez direla berriketan ibiltzen. Horregatik, Estatu Batuetako armadatik kantinak kendu zituzten atso estimagarriak zuzentasun

osoz harro senti daitezke nazioaren ahalmen militarra benetan handitu izanaz.

Zuzenbide, iz. Salgai bat, Estatuak gutxiago edo gehiago adulteraturik herritarrari saltzen diona, bere leialtasun, zerga eta zerbitzu pertsonalen sari gisa.

Zuzentasun, iz. Garai batean Pantidoodletarren artean aurkitutako bertute sendoa; Oque penintsularen behe aldean bizi ziren. Europara itzultzean zenbait misiolarik nolabaiteko ahaleginak egin zituzten beren herrialdeetan zabaltzeko, baina dirudienez ez zuten asmatu ongi azaltzen. Azalpen exkax horren adibide bat Rowley Apezpiku zintzoaren sermoi kontserbatu bakarretik hartutako pasarte honetan dugu:

«Orain zuzentasuna ez datza soilik gogo egoera jainkozkoan, ez eta errito erlijiosoak betetzean eta legeari hitzez hitz makurtzean ere. Ez da aski norbera zintzo eta zuzena izatea: besteak ere egoera horretan egon daitezten saiatu behar da; eta horretarako bitarteko egokia da besteak behartzea. Nire jokabide okerrak besteri kalte egin diezaiokeenez,

haren zuzentasun ezak ere beste bati egin diezaioke kalte, eta hori galaraztea neure jokabide okerra saihestea bezain nabarmenki bete beharrekoa da. Horregatik, zintzoa banintz, neure auzoaren jokabide okerra eragotzi beharko nuke, indarrez behar izanez gero, neure buruari, jarrera hobearekin eta zeruko laguntzarekin, eragozten dizkiodan jokabide kaltegarri guztietan».

OHARRAK

[Gassalasca Jape] A. Biercek erabili zituen goitzenetako bat. «Jape»-k «adarra jo» esan nahi du. 1881ean agertu zen lehenengoz izengotiti hau *Deabruaren Hiztegia*-n eta Biercek orduan «Gassalaska Jape» San Diablo Misioko apaizpoeta gisa aurkeztu zuen.

[Abdikazio] Espainiako Isabel II.a (1830-1904) aipatzen da bertso hauetan, bere anaia Alfontso XII.ari utzi baitzion erregetza 1870ean.

[Abertzaletasun] Johnsonek zehazki «abertzaletasuna alprojaren azken babeslekua» dela esaten du. Komentarioa Boswell-en *Life of Johnson*-etik hartua da.

[Abracadabra] Gaitzak eta hondamenak uxatzeko arao hitza; hizkera ulertezina. Jamrach Holobom A. Biercek askotan erabilitako beste ezizen bat da.

[Adimen] AB-k *Mens [sibi] conscia recti*, esapidea erabiliz egin du hitz jokoa (Virgilioren Eneida I, 604-tik hartua. Hemen beste bide batetik jo da.

[Akademia] Platonek (k.a.) 387. urtean sortutako ikastegia. Atenas ondoko jardin batean biltzen ziren Platonen ikasleak. Lur zati hori Troiako gerrako Akademos heroiarena izan omen zen.

[Alarguntsa] Jesukristok kontatutako zenbait parabolatan alarguntsak hobeki tratatuak ziren aberats eta ahaltsuak baino. Alarguntsak AB-ren Alegietan maiz agertzen dira.

[Aldendu] AB-k Eleanor (Vore) Sickler andreari egindako gutun batean hau zioen: «Beti interesgarria iruditu zatzait, nahiz eta nire esaera kuttunena: “Urrun den emakumea, emakume hila” izan den.»

[Aligatore] Sawrian (=saurian) Biercek behin baino gehiagotan egindako hitz jokoa. Hemen «zaurio» hitzaren bidez parekotasuna bilatuz eman da.

[Allah] Laukoa Omar Khayyamen *Rubaiyyat*-eko ereduaren arabera egina da.

[Apaiztiar] Apaiztiar edo apaiz-zale berezko zentzuan honako doktrina honen aldekoa da: Eliza kristauan badela ordena sakratuen sakra-

mentu bat edo apaizgoa, sakrifizio eginkizunak eta naturazgaindiko ahalmenak berekin dituena.

[Apetitu] *Apostoluen egintzak*, Tesalonikarrei egindako epistolaren zehar-aipamena. «Zuekin egon ginenean, arau hau eman genizuen: lanik egin nahi ez duenak, ez dezala jan».

[Arenga] AB-ek bere etsai zenbaiti «haren-goutan» deitu zien bere zutabeetan.

[Argot] AB-k beti gogor egin zion argota eta dialektu-hizkera literaturan erabiltzeari.

[Armoniazaleak] Sekta protestante komunitarista baten jarraitzaileak. George Rapp Würtenburgekoak sortua, Estatu Batuetara 1803an joan zen, eta Harmony hiria fundatu zuen (Pennsylvania). Hortik datorkie izena.

[Arrabio] Arrabioa Greziako folkloean sutan hazten zen, bere gorputzaren hotzari esker erre gabe. Kristauek sineste hori egokitu zuten eta arrabioa haragiaren grinan sinbolotzat hartu zuten.

[Arrakasta] John Alexander Joyce (1842-1915) poeta zen. Shakespeare, Poe eta beste zenbaiten biografiak ere idatzi zituen. Ez zen AB-ren oso gustukoa.

[Arroz-ur] AB-k zeharka adierazten du noblelagile eta poeta herrikoiek emaitza txaldan eta epelak lortzen zituztela; elementu pseudokimikoek «kamustasun», eta «loeragile» adierazten dute.

[Artseniko] intsektizidetan erabiltzen den pozoilagarria da. Emakumeek garai batean osodosi txikietan hartzen zuten, larruazal zuria estimatua zenean, horretarako balio zuela uste baitzen. Dosi handiegiak, ordea, zuriegi uzteko arriskua ere bazuen.

[Askatasun] Thaddeus Kosciusko (1746-1817) jeneral poloniarra, Amerikako Iraultzan koloniei lagundu ziena, baina 1794an errusiar eta prusiarren aurka porrot egin zuena.

[Asmatzaile] AB-rentzat aurrerapen teknologikoa eta zibilizazioa bi gauza ziren.

[Aspertze] AB-k hitz jokoa egiteko *Te Deum laudamus* himno kristauarekin egiten du hitz jokoa; *taedere* latinez aspertzea baita. Hemen beste bide batetik egin da hitz jokoa. *Asperges*-en bitartez, izipoarekin ur bedeinkatua botatzean egiten zen otoitz bat, esanahiaz zerikusirik

ez duena aspertzearekin. AB-ren hitz jokoak bezala, bestalde.

[Asto] Ambrosius Theodosius Macrobius antzinako filosofo eta kritikari bat izan zen, *Saturnalia* obra dela-eta ezaguna. Ramasilus eta Stantatus fikziozkoak dira.

[Atalkako Eleberri] James M. Bowman *The Island Home; or, The Young Gastaways* (1852) obraren egilea.

[Atsekabe] Hitz jokoa: «another and better world» = zerua/ «another and bitter world» = infernua.

[Atsotitz] AB-k alegia sail bat idatzi zuen *Erran-zahar hortz-berrituak* izenburua zuena. Ikus horietako batzuk «erran-zahar» sarreran.

[Atzapar] AB-ren txantxetako izen taxonomikoak, *Palma hominis*, «gizakiaren esku-ahurra» esan nahi du.

[Aurkezpen] Hemen ere Independentziaren Deklarazioaren beste parodia bat dago.

[Aurre-erabaki] Henry Codman Potter (1835-1908) Episkopaldarren New Yorkeko sei-garren apezpikua. James Gibbons, kardinala

(1834-1921). Ikus Sermolaritza eta Predestinazio sarrerak.

[Auzi] *In contumaciam* esapideak «aginteari mesprezuz gogor eginez» adierazten du.

[Averno] Italiako hegoaldeko laku bat, antzinako erromatarrek beste mundura igarotzeko sarreratzat zeukatena. *Facilis descensus Averni*, Virgilioren *Eneida* 6,126-n agertzen da.

[Axolagabe] «Apuleius» Lucius Apuleius satira-idazle latindarraren aipamena da (125-180 inguru). Haren obra nagusia *Metamorfosia edo Urrezko astoa* eleberri sinbolikoa da.

[Azaburu] *Cabbage*, azaburu, ingelesez buru esan nahi zuen hitz batetik eratorria da (seguru aski latinezko *caput*-etik sortua).

[Azken mutur] Interlokutorea juglar-antzerkiko pertsonaia bat zen, aurpegi zurikoa, aurpegi beltzeko beste biren artean agertzen zena: Mr. Tambo panderojolea eta Mr. Bones (hezurrak) alde banatan zituela, alegia. Haiekin zirika eta zirtoka aritzen zen.

[Baal] Antzinako herri semitikoak zituen oparotasunaren jainkoetako bat zen, hebrearrek

jainkoaizuntzat zeukatena. Beelzebul Satanen izenetako bat da.

[Babesleku] Josue 30,2-9 ataletan ageri dena aipatzen du AB-k.

[Bako] *Jorace* izena (Quintus Horatius Flaccus) Horazio poeta erromatarraren parodia da, haren oda eta epodoetan Bakori buruzko aipamen ugari aurkitzen baita.

[Barne-giro] Seidlitz hautsak purga-hauts arinak ziren, uretan nahastu eta edaten zirenak. Izena Seidlitz, Txekiako ipar-mendebaleko ur beroen gune batetik datorkie.

[Barre] *Convulsio spargens* latinezko esapi-deak «astindu ziprizzintzailea» esan nahi du.

[Bataio] James Erregearen Biblia zeritzana zen «bertsio baimendua», hebraiera eta grezieratik itzulia.

[Beldurrezko istorioen idazle] William Dean Howellsek (1837-1920) mamu ixtorio franko idatzi zituen, *Between the Dark and the Daylight* (New York, 1907), besteak beste.

[Beltx] AB-ren txantxetako hitz greko-latin-darrek «prehominidoetan lehena» eta «amerikar menderatzailea» adierazten dute.

[Beneditarrak] Fraide beltzak dominikoak dira; izena habituari dagokio.

[Berenizeren Adatsa] Berenize Egiptoko erregina bat izan zen, bere adatsa Venusi agindu ziona, baldin eta bere senarra, Ptolomeo III.a, Siriako kanpaina batetik bizirik itzultzen bazen.

[Bero] John Tyndall (1820-93), Irlandan sortutako fisikari britainiarra. *Crede expertum*, Virgilioren *Eneida* II.283-tik hartua da, han *Crede experto*, ageri da, ordea, («eskarmentua duenari sinetsi», alegia).

[Betegintzarre] AB-k Matthew Arnold (1822-88) poeta eta kritikari viktoriarra aipatzen du.

[Bihotz] Seguru aski Henry J. Dami buruzko aipamena. Tarte labur batez *Wasp* astekariaren jabe izan zena, beste batzuekin batera. Louis Pasteur (1822-95) *Mémoire sur la fermentation appelée lactique* (1875) lanaren egilea da, besteak beste. *Delectatio Demonorum* (Deabruen atsegin handia) leku gehiagotan ere aipatzen da. M. E. Grenanderrek, AB-ri buruz hau idatzi zuen *Nation* egunkarian 1872an: «Eskura eman zaion diru mordoxka baten truke, gizakiaren etsai, eta

emakumearen etsaiago, den (Bierce) horrek bere idazkitxoak liburu batean biltzeko konpromisoa hartu du, bere burua behartuz zinikoaren *vade mecum* gisako bat, *Delectatio Demonorum* edo «*Etsaiaren atsegin handia*» idaztera, gero Hotten jaunak argitaratuko diona.

[Bihotz-gogor] Zenon Citiumekoa (335?-263? k.a.) Estoikoen eskolaren sortzailea izan zen.

[Brahma] Hinduismoan, jainko kreatora (ez bakarrik hindutarrena). AB-k kristautasunaren Hirutasun Santuaren zehar aipamena egiten du.

[Buru-zerga] Botoa emateko eskubidea izateko zerga bat izateaz gain, sari bat ere izan daiteke (jatorriz marinelei edo soldaduei ematen zitzaien saria, gerora edozein sari).

[Cartesiar] René Descartes-en (1596-1650) *Cogito ergo sum* printzipioaren gainean txantxetan egindako hala-holako latinezko itzulpena.

[Cremona] Italiako iparraldeko hiria. Hamazazpi eta hemezortzigarren mendeetako bibolnik hoberenak bertan egiten ziren, Amati, Guernieri eta Stradivari familien tailerretan.

[Cui bono?] Latinezko esapidea, «noren mesedetan?» esan nahi duena.

[Deinoterio] Deinoterio hitza dinosaururen bariante bat besterik ez da.

[Diru-sarrera] Sir Sycophas Chrysolater AB-k «grezieratu»-tako iseka-izena da: «lausengari urre-gurtzailea».

[Dragoi] Europako armadetako hamazazpi-garren eta hemezortzigarren mendeetako soldadua, pisu handiko armaz zamatua.

[Ebakin-liburu] Philip Melanchton (1497-1560) teologo alemana zen, hasieran Luteroren jarraitzailea.

[Eder-uste] Ispahan antzinako Pertiako hiri bat zen, turkiarrek hamaikagarren mendean fundatua.

[Editore] Mitologia grekoan harantzagoko munduko epaileak hiru hauek ziren: Kretako Errege Minos eta Radamanto, biak Europaren semeak; eta Eako, Zeus eta Eginaren semea.

[Egoscortsekeria] Soluzio hitzean: hitz joko bikoitza: sollicitate/salycilate. Eta «sollicitate», aditzak, gainera, «diru-trukeko sexu-proposamenak egin» adierazten du.

[Egotista] Megaceph-ek «buruhandi» esan nahi du.

[Egunkari] William Randolph Hearst (1863-1951) AB-k idatzi zuen egunkarietako batzuen jabea zen. Hasieran ongi konpondu ziren, baina azkenean AB-k, ez baitzen ados haren editoreekin, utzi egin zuen lan hori.

[Eguraldi] Bertsoen hasiera Tennysonen *Lockseley hall*-en parodia da (1842). *Halcyon* hitzak zero garbi barea adierazten du.

[Eleberri fantastiko] AB-k Novel eta Romance bereizi zituen «*The Novel*» saioan. Zentzua kontuan hartuz eleberri/ eleberri fantastiko parearen bidez itzuli dira hemen.

Aipuetako lehena Oliver Goldsmithen *The Traveller*-etik hartua da eta bigarrena, berriz, Samuel Taylor Coleridgeren «The World Is Too Much with Us»-etik.

[Elektrizitate] «Monsier Franquelin»-i buruzko aipuak propio nahasten ditu Franklinen bizitza eta James Cook kapitainarena.

[Elkarrezin] Whitman, Walter («Walt»). Estatu Batuetako poeta (1819-1892). Estatu Batuetako poetarik handiena eta orijinalena da

kritiko askoren iritziz. Ikusten denez, AB-ren iritzia ez zetorren inolaz ere bat horrekin.

[Emakume] Susan B. Anthony (1820-1906) amerikar feminista eta sufragista aipatzen da hemen. Txantxetako izen taxonomikoak «katu borrokari» esan nahi du.

[Emaztezelekeria] Berez ingelesezko «uxoriousness» hitzak norberaren emaztearenganako ardura edo mendekotasun gehiegizkoa adierazten du.

[Eme] AB-k emakumeei buruz beti esaten du direla sexu «aurkaria» eta «desonesta», hitz jokoa eginez ingelesezko «opposite» (aurkako)-ren ordeztan «opposing» (aurkari) hitza erabiliz eta «fair»-en ordeztan (eder, leial) «unfair» (ez eder, desleial) erabiliz.

[Epikurozale] Epikurok (k.a. 341?-270?) bere filosofia propioa sortu zuen; epikureismoarentzat onik handiena plazerra zen (mina saihestea, alegia). Epikurozale hitzak izan zuen —eta berrikiago ere izan duen— gaitzespen zentzua haren aurkariet zabaldu zuten, aurpegiratzen baitzioten zentzuen plazerra besterik ez zuela predikatzen.

[Erantzun] Herbert Spencer (1820-1903), filosofo britainiarra.

[Erantzunbehar] AB-k beste nonbait idatzi zuen «Ingalaterran lan egiteko gauza izan eta nahi ez duenari “alfer amorratua” deitzen diote».

[Erdipurdiko] Ordena dorikoa arkitektura greziarreko hiru ordena klasikoetan zaharrena eta soilena da. Teodoriko handia (454?-526) ostrogodoen errege izan zen. Theodore Roosveltek Etxe Zuriaren mendebaldeko hegaleko bulego berriak eraikiarazi zituen 1901-1905ean.

[Eresi] Bertsook Grayren *Elegy Written in a Country Churchyard* izeneko Elegiaren hasierako bertsoaren parodia dira.

[Ergel] Beozia, antzinako Greziako probintzia; bertako biztanleen ergelkeriaren ideia zabaldua zen garai batean.

[Erlijio] Rochebrianteko markesa «Jan» sarreran ere ageri da.

[Erlikiontzi] *Gesta Sanctorum* izenburu alegiazkoa da, *Gesta Romanorum*-en parean eraikia.

[Erokeria] Ikus William Wordsworth (1770-1850), *The Excursion*, 1.79. (1814). Desiderius Erasmus (1467-1536) *Encomium Moriae* (Erokeriaren gorazarrea) izeneko liburu satirikoa idatzi zuen 1511n. Richard Watson Gilder (1844-1909) poeta eta aldizkari zenbaiten editorea izan zen. Hari buruz A. Biercek idatzi zuen: «Gilderren bertso asko irakurri ditut, baina ez dut poesia lerro bakar bat ere aurkitu haietan. Poeta gisa aldizkari bateko editore taju antzekoa dirudi».

[Erori] San Pablori buruzko aipamena, Kristautasunera bihurtzearena alegia. Ikus Egintzak 9,3-8).

[Erradomantikari] Ur-bilatzailea.

[Erramudun] Robert Southey (1774-1843) Ingalaterrako poeta erramudun izendatu zuten 1813an.

[Errealitate] Filosofo eroa-k sinatzen ditu «Aforismo» eta «Egunkari» sarrerak.

[Errebelazioa] Apokalipsia edo Agerpena, Itun Berriko azken liburua.

[Errege-gaitz] *Scrofula* gaitza Errege-erregeginen ukitzearekin sendatzen zela uste zen Frantzia eta Ingalaterran. Eduardo Konfesoarea

(1042-66) «Eduardo jainkozalea» *Macbeth*, 3.6.27-n aipatzen da hitz horiekin. Beste hiru aipuak *Macbeth*-etik hartuak dira.

[Esekidura] John Peter Altgeld (1847-1902) Illinoiseko gobernadorea izan zen (1891-97). Chicagoko 1886ko maiatzaren 4ko grebaren garaian hilketaz akusatutako anarkista talde bati 1893an barkatu zionean egin zen ospetsu.

[Eskubide] *In partibus infidelium* esapideak «fedegabeen parajeetan» esan nahi du.

[Eskuzabaltasun] Henry Ward Beecher (1813-87) elizgizona, egunkari-editorea eta abolizionista zen, AB-k maiz eraso egin ziona.

[Esoteriko] *Esoterikoa* talde txiki batek bakarrik uler dezake; *exoterikoa*, berriz, jende askok ezagutzen duena da.

[Espetxe] Aipua Richard Lovelace (1618-58) poetarena da. «*To Althea: From Prison*», 4. bertsoa.

[Eukaristia] *Teofagoak* «jainkojaleak» dira, noski.

[Euli-kaka] Poperen zehar-aipamena ere bada hemen: «Adimena nola argitzen den! Nola fintzen estiloa».

[Ezjakin] Sinadura Giovanni Alfonso Borelli (1608-1679) fisiologo eta fisikari italiarraren zehar-aipamena izan daiteke.

[Ezkutatu] «Jainkoa modu misteriosuan mugitzen da.» esaldia William Cowper (1731-1658) idazlearen *Olney Hymns* liburuko (1771), 35.l.-en zehar-aipamena da.

[Fenix] Txori mitologiko bat, 500 urte bizirik irauten zuena, eta berez erre ondoren bere errautsetatik birsortzen zena.

[Frenologia] Burezurraren eite eta konkurrei buruzko jakintza: izaera eta adimenaren ahalmena hor aurki zitezkeela uste zen.

[Galera] Gilderri buruz ikusi «Erokeria» sarrera. Collins P. Huntington (1821-1900) trenbideen lau magnateetako bat zen.

[Gantzutu] Judibras hitzak lotzen ditu *Judas* eta *Hudibras*, Samuel Butler (1613-80) idazlearen obra satiriko baten izenburua; zortzi silabako bikotan idatzia.

[Gartsutasun] Lord Byron (George Gordon, 1788an jaioa) poeta ingelesak bere azken egunak Missolonghin eman zituen (Greziar), hara joana baitzen Greziaren Independentziarako

Gerran borrokatzera; ez zen guduzelaian hil, ordea, sukar gaizto batzuek jota baizik.

[Gaztaro] Arkimedes (287?-212 k.a), matematikari greziarrak, palanka egiteko puntu bat emanaz gero, mundua mugituko zuela aldarrikatzen zuen; Kasandrak, Greziako mitologian, igarletzaren dohaina zuen; sekula hark esandakoa ez sinesteko patua ezarria zuen, ordea. Ba omen ziren zazpi hiri Homeroren sorleku izana aldarrikatzen zutenak. Hura hil ondoren, halere.

[Gehiegizko] Roosevelti eratzikitzen zaion esaldia Eugene V. Debs (1855-1926) langileen liderrari buruzkoa da; lehendakaritzarako hautagai sozialista izan zen, eta akaina baino gaiztoagoa Roosveltentzat, lehendakariorde (1897-1901) eta lehendakari izan zenean (1901-1909).

[Gibel] George Gascoigne (1534?-77), soldadu eta poeta britainiarra.

[Gizon] Hemengo bertsoak formaz «makrobio» sarrerakoen antzekoak dira.

[Gobernu monarkiko] AB-rentzat demokrazia «herriak bere burua gobernatzea» ez zen inolako gobernu.

[Gorgon] Buruan ileen ordez sugeak zeuzkaten eta gizakiak begiradaz harri bihurtzen zituzten hiru ahizpetatik —Steheno, Euralia eta Medusa— edozein.

[Graziak] Xarmantasuna eta edertasuna ematen zuten hiru ahizpa, mitologia greko-latin-darreko jainkosa zirenak.

[Gerra] Aipuak Coleridgeren «*Kubla Khan*»-etik hartuak dira.

[Hades] Hitz jokoa: *raise hell* = infernua ezabatu eta *raise hell* = bazterrak nahastu.

[Handi] George Sylvester Viereck (1884-1962), nobelagile, entseiulari eta argitaratzailea.

[Har-bazka] AB-k etengabe jipoitzen zituen berentzat mausoleo arranditsuak altxatzen zituztenak.

[Harpia] *Oxford English Dictionary*-k ez du berresten AB-k aipatzen duen antzinako erabilera. Shakespeareren erabilera, berriz, zenbait antzerkitan gertatzen da.

[Hax] Ohar bedi irakurlea hemen perpaus-zatia «x» (ixa) dela, ezezaguna, alegia.

[Herri jakintza] Sabine Baring-Gould (1834-1924) *Curious Myths of the Middle Ages* (1866).

Elezaharrei buruz idatzi zuen. Hor aipatzen diren ipuin edo alegien benetako tituluak beste batzuk dira, noski.

[Hira] Homeroren *Iliadan* Krises Apoloren apaiz bat zen, bere alaba Kriseis bahitua berari itzultzeagatik bahi-ordaina eskaini zuena; haren bahitzaile Agamenonek eskaintzari uko egin zion.

[Historia] Barthold Georg Niebuhr (1776-1831), historialari alemana, *Römische Geschichte* obraren egilea, hiru liburukitan Erromaren historia ematen duena; metodo historiko zientifiko modernoaren aitzindaritzat hartu ohi da.

[Historialari] Kalibreak hemen hertsikiago trenbideko karrilen arteko zabalera aipatzen du.

[Hondakinak] Hemeretzigarren mendearen bukaeran bizikletan ibiltzea emakumeen osasunerako kaltegarria zelako ustea zabaldua zen.

[Hondatzailekeria] *Wasp* astekarian beste definizio hau agertzen da: «Bihar agian izango ez dugunaz gaur gozatzeko bizioa».

[Ikakasle] *A School for Scandal* (1777), Richard Brinsley Sheridan (1571-1816) idazlearen antzerki lan baten zehar aipamena.

[Ikonoklasta] Definizio hau bat dator AB-k satirari buruz zuen ideiarekin. Ordezkorik eman gabe sinesmenak desegin besterik ez zuela egi-ten-eta, maiseatzen zutenen kontra defendatzen zuen satira.

[Ikore] Homeroren *Iliada*-ko 5.334-tik hartua.

[Ilargitar] Luziano Samosatakoa, bigarren mendeko satiragile greziarra. Richard Adams Locke (1800-71), kazetari eta editore amerikarra. Ilargitarrak deskribatu zituen, Sir John Herschelen irispide luzeko teleskopioaren bidez ikusitakoaren arabera. Simon Newcomb (1835-1909) matematika-irakaslea Kanadan jaioa zen; astronomiari buruz franko idatzi zuen.

[Isats] James Burnett, Lord Monboddo (1714-99), franko nabarmendu zen *On the Origin and Progress of Language* (1773-92) liburuan kontatu zuenean Koeping izeneko marinel suediar batek esandakoa: Nicobar irletan bizi ziren gizonek isatsa zeukatela.

[Istorio] W.C. Morrow (1854-1923) AB-ren lagun bat zen. J.J. Owen (1827-95), kazetari eta idazlea. Winfield Scott Schley Almiranteak

(1839-1911) Kubako gerran maniobra eztabaidagarri bat egin omen zuen, Santiagoko guduan (1898ko uztailaren 3an), urtetarako zer-esana jarri zuena.

Charles Frederick Joy Missouriiko ordezkari politikoa zen.

Harold Herbert Wotherspoon (1855-1940), Armadaren Gerra Eskolako burua zen. 1908an gutun-trukea izan zuen AB-rekin.

[Itsuskeria] Biografoek diotenez, AB-k bere idazkari Carrie Christienseni «nire ahatetxo itsusia» esaten omen zion.

[Itxaropen] AB-ri, Londrestik San Frantziskora itzuli zenean 1875eko udazkenean, Estatu Batuetako Dirugintzan lanpostu bat eman zioten. Bertso hauetan, badirudi, eman ziotena baino hobea espero zuela; sekula gertatu ez zena.

[Jai] *Nemeseia* edo *Nemesia*, Nemesiko festa bat zen, hildakoen ohoretan egiten zena. Tito Liviok *Novendiale* (bederatzi eguneko festa) Historia, 1.31 liburuan aipatzen du.

[Jan] Anthelme Brillat-Savarin (1755-1826) legegizon frantsesa zen, *Physiologie du goût* (1825) idatzi zuen; gastronomiako lan klasikoa.

[Jokabide] *Dies Irae*-tik hartutako hitzak. *Dies Irae* Azken Juizioko eguna deskribatzen duen erdi aroko eresi bat da, hileta-meza batzuetan kantatzen dena.

[Kalamu] Ikus «Harizko jantziak» sarrera.

[Karmeldar] Karmel Mendiko Andra Mariren fraide eskaleak ziren, Gurutzaden ondoren sortutako ordena.

[Kaskamotz] AB-k 1642-1649an Ingalaterran izan zen Parlamentuzaleen eta Erregezaileen arteko gerra zibila aipatzen du.

[Klio] Xenofon: (430?-355 k.a) soldadu eta idazle greziarra, *Anabasis*-en egilea.

[Koran] Islamaren liburu sakratua. 114 atal (sura) ditu. Musulmanen sinestearen arabera, Jainkoak agertu zizkion sura horiek Mahoma igarleari.

[Laburtu] Aipu hau Independentziaren Deklarazioaren hasieraren parodia da. Cromwell (1599-1658) Ingalaterrako Karlos I.a hilarazi zuen politikaria izan zen.

[Laokoonte] Greziar mitologian, Apoloren apaiz troiatarra, bi semeekin batera itsas suge batzuek hil zutena, bere herria Troiako zaldiaren iruzurraz ohartarazteagatik.

[Larunbat] Juduen Mandamentuan hitz joko bat ageri da ingelesez: *wholly*/ osorik *holy*/santu, «eguna santutzea» eta ez eguna «osorik gorde-tzea», beraz.

Ontzigaina lixatzeak egunetan eta egunetan belauniko lan egin beharra esan nahi zuen. Bertsoak Henry Danarenak dira (1815-82) *Two Years Before the Mast* (1840), 3. kap.

[Leotar] AB-k Ella Wheeler Wilcox andreari iseka egiten dio.

[Leotardoak] Lillian Russel (1861-1922) opera komikoetako aktorea zen; Pauline Hall (1860-1919) *prima donna* amerikar ospetsua.

[Leviatan] «Dr. Jordan» David Starr Jordan (1851-1931) zen, biologia irakatsi zuena Stanford Unibertsitateko buru izan baino lehen. Jane Porter nobelagile ingelesak (1776-1850) nobela historiko ospetsu bat idatzi zuen, *Thaddeus of Warsaw* (1803), Thaddeus Kosciuskori buruz. Ikus «Askatasun» sarrera.

[Lexikografo] Ikus Mateo 7:28-29. «Lehen lexikografoa» Samuel Johnson izan zen.

[Lira] Egilearen izena sarreran Ella Wheeler Wilcox dela esan ondoren, sinaduran aldaketa egitea ahaztu egin zitzaion nonbait. Horrelako aldaketa ugari egin zituen AB-k egunkarietako testuez liburu hau osatzerakoan.

[LL.D.] laburdurak zehazki *Legum Doctor* (Zuzenbideko Doktore) adierazten du. *Sanctorum custos*, berriz, leku santuen zaintzaile da. Harry Thurston Peck (1856-1914) latineko irakaslea zen Columbiako Unibertsitatean; literatur kritikari eta argitaratzailea izan zen. AB-k ez zion begirune handirik, dirudienez.

[Logomakia] Claudius Salmasius (1588-1653) eragin handiko irakasle frantsesa.

[Madarikatu] Paphlagonia mundu greko-erromatarreko probintzia bat zen, Turkian kokatua, Bitinia eta Pontoren artean.

[Magdaleme] «Bedlam» hitzak, orain leku zaratatsu adierazten du, baina garai batean erretxe esan nahi zuen, Hospital of Saint Mary of Bethlehem, Londresko eroentzako osasun etxe batek zuen izenaren kontrakzioa.

[Maiestate] Masoien Logietako karguak aipatzen dira hemen. *Incohone Handi* ere horietakoa da; nahiz eta AB-k berak dioen okerren bat behar duela izen horretan; izan ere, kreazioko zentzugabeetan azkarrenak omen dira *incohone* direlako horiek.

[Makrobio] «Old Parr» Thomas Parr zen, 1635an hil zena, 152 omen zituela. Depew senadorea Chauncey Mitchell Depew (1834-1928) XIX. mende bukaerako errepublikar ospetsua zen. *New York Central and Hudson River Railroad*-eko lehendakaria. *American*-en editorea Sam Chamberlain zen, AB-rekin hika-mika franko izan zuena bere lanen argitalpena zela-eta.

[Maltusiar] Thomas Robert Malthus (1766-1834) ekonomialari britaniarra. Bere *Essay on the Principle of Population* (1798) liburuak azaltzen zuen populazioak janari hornidurak baino azkarrago hazteko joera duela, baldin eta gerrak, goseteak, gaitzek edo zenbait murrizketak moralek eragozten ez badiote.

[Mamu] Heinrich Heine (1797-1856) poeta eta satira-idazle alemana, AB-k franko estima-

tzen zuena. Aipamena *Hamlet* 3.4.135-etik hartua da.

[Mana] Jainkoak israeldarrei Egiptotik ihes egin zutenean ematen zien mirarizko janaria (Irteera 16,15).

[Manikeismo] Manikeismoa Manes igarle pertsiarrek (216-276?) irakatsitako filosofia da.

[Mesmerismo] Hipnosi modu bat, Friedrich Anton Mesmerrek (1733-1815) bultzatua.

[Milurte] Erreformatzaileak, AB-rentzat, kontserbadoreak ziren.

[Molekula] Ernst Heinrich Haeckel (1834-1919) filosofo eta naturalista alemana.

[Monada] Gottfried Wilhelm von Leibnitz (1646-1716), filosofo eta matematikari alemanaren filosofian ageri den kontzeptu funtsezkoa.

[Mirmidon] Mirmidondarrak Tesaliako herri gerraria ziren. Akilesek Troiako setiora eraman zituen.

[Nihilista] AB-k zentzu filosofikoan ez, baizik politikoan ematen du hitz honen definizioa.

[Niri] Hiru kasuak bakarra direnez, Hirutasunaren doktrinari barre egiten dio Biercek; maiz egin zuena.

[Noumeno] George Henry Lewes (1817-78) historialari eta kritikaria. *A Biographical History of Philosophy* (1845-46) argitara eman zuen.

[Obsesionatu] Gadaran, Jesus Nazaretekoak zerri talde batera uxatu zituen gizon bat hartua zuten deabruak. Lukas 8,26-33.

[Oleaginoso] Samuel Wilberforce (1805-73) Oxford eta Winchesterko apezpikua eta bere garaiko itzal handiko teologo anglikanoa.

[Opera] AB-ren latinezko izen taxonomikoek «tximino entzungarria» eta «tximino zalapartaria» esan nahi dute.

Pithecanthropos hitza Ernest Haeckelek sortu zuen, tximinoaren eta gizakiaren arteko lotura egiten zukeen izakia izendatzeko.

[Oposizio] Ghargaroo AB-k bere burutik ateratako irla bat zen. Bertan kokatzen zituen bere satira politiko edo moralak. Esaldiaren bukaeran Abraham Lincolnen parodia egiten du.

[Ordain-sari] Dom Pedro II.a (1825-91) Brasilgo enperadore izan zen 1840tik 1899ra, orduan armadak eta mugimendu errepublikazalearen buruzagiek agintaritzatik kendu baitzu-

ten. Portugalera ihes egin zuen, gero Frantziara, eta han hil zen.

[Ordena-ikurrak] Horrelako zerrenda gehiago eta barregarriagoak AB-ren beste zenbait idazki eta artikulutan ageri dira.

[Orubezale] Denis Kearny (1847-1907) Langileen Alderdiko liderra zen, txinatarren aurkako jarreragatik nabarmendu zena.

[Ozeano] Definizioak munduan den guztia gizakien mesedetarako sortua delako ideiarri gogor egiten dio.

[Pagano] George Holmes Howison (1834-1917) filosofi irakaslea zen Kaliforniako unibertsitatean, eta filosofia, erlijio eta beste zenbait gai buruzko lan franko idatzi zuen. AB-k leku frankotan ematen dio egurra.

[Paldotu] AB-k beste leku batzuetan ere aipatzen zuen tortura mota hau. Gurean Mirande-Peillenek ere *Igela* aldizkarian idatzi zuten honetaz.

[Pandemonium] Infernuko hiriburua Miltonen *Paradisu Galdua*-n.

[Panteismo] AB-k barre egiten zien zentzurik gabeko eztabaida teologikoei eta bestelako

txikikeriei buruz sortzen zirenei. Ikus aurreordenazio/predestinazio infralapsario/supralapsario, omnipresentzia/ubikuitate, horizontalismo/bertikalismo (zenit), liburu honexetan bertan.

[Perdigoikada] Burdinazko bola mordoa, kanoien jaurtigai gisa erabiltzen zena. AB sozialismoaren, eta haren ezinbesteko ondorioztat zeukan anarkismoaren aurka agertu zen frankotan.

[Peripatetiko] Aristotelesen ikasleei peripatetiko zerizten, beren eztabaidak *peripatos*, edo pasealeku batean egiten zituztelako.

[Pirronismo] Elisko Pirronen (k.a. 300) filosofia; fenomenoei buruzko ezagupen ziurra lortu ahal izateaz eszeptizismo sakona adierazten zuen.

[Plagio] AB-k bere burua defendatu behar izan zuen plagio akusazioaren batetik. Ikus hiztegi honen sarreran zer esaten duen.

[Plebeiu] Kimikan, soluzio asea da tenperatura jakin batean bertan disolbatu daitekeen adina solugarri duena.

[Pleonasmo] Pleonasmaoa pentsamendu bat adierazteko behar baino hitz gehiago erabiltzea da.

[Populista] Populismoa nekazari mugimendu eraberritzaile bat zen, industrializazioaren eta diruaren kontzentrazio gehiegizkoaren aurkakoa. Mugimendua Kansasen hasi zen 1890 inguruan.

[Positibismo] Aguste Comte izan zen korrante filosofiko honen sortzailea. John Stuart Mill eta Herbert Spencerrekin ongi konpondu zen, nahiz eta ez daitezkeen har Comteren jarraitzailetzat.

[Prebarikatzaille] Prebarikatzaillea, hemen, deklarazio zuzen bat egin beharrean ihesbidea bilatzen duena edo okertzen duena da, eta hala ere gezurtia.

[Presiditu] AB-k gorroto zion esapide bati barre egiten dio hemen.

[Proboszi] Edward Bok (1863-1930), *Ladies' Home Journal*-en editore eginkizuna bere gain hartu zuena 1899an. Jo. Miller Joaquin Miller da.

[Radio] Marie eta Pierre Curiek radioa aurkitu zuten 1898an. Elementu honek erradiaktibita-

tea hedatzen du, ez beroa. Hori txundigarria zen zientzialarientzat, eta batzuek uste zuten fisika klasikoaren oinarriak erabat hankazgoratzen zituela; izan ere, radioak erradiaktibitatea eman eta masa galtzean, materia sortu edo desegin zitekeelako tesia zalantzan jartzen zuen.

[R.I.P.] *Reductus in pulvis* esapideak «hauts bihurtua» adierazten du.

[Sagu] Ottumwee, dirudienez, Ottumwa (Iowa) hiriaren gainean egindako txantxa da.

[Sarkofago] Kare-harrizko hilkutxa, inskripzioak eta eskulturak izaten zituen askotan. Barruan sartzen ziren gorpuak jan egiten zituela uste zen garai batean. Hiletografo deitzen die AB-k hileta-ospakizunetan beren dohainak erakusten dituzten idazleei, eta barre egiten die zurezko hilkutxei «sarkofago» deitzen dietenei.

[Sigi-saga ibili] «Gizon zuriaren zama» Rudyard Kiplingen *The White Man's Burden* poematik hartua.

[Sikofante] «Gelasma» hitzak irribarre esan nahi du grezieraz. (Beraz, pertsona irri-jario ere itzul daiteke).

[Silaba-bakar] AB-k barre egiten zion Joaquin Millerrek poetei hitz saxoiak bakarrik ez erabiltzeko gomendioari.

[Sinbolo] Aztarna edo biziraupen.

[Sofismazalekeria] Hitzaren zentzu peioratiboa Platonek sofisten kontra zuen jarreratik heldu da.

[Suhartasun] Ovidioren *Amores* du Biercek hizpide.

[Sutauts] Miltonen latinezko In *Inventorum Bombardae* epigramaren zehar-aipamena. James Wilson (1836-1920) nekazaritzako ministro izan zen McKinley, Roosevelt eta Taft (1897-1913) lehendakari zirela.

[Table d'Hôte] Menu osoa, aukera jakin batzuetara mugatua eta prezio finkatu batean ematen dena hotel edo jatetxeetan.

[Tarifa] Edam Smith sinadura Adam Smith (1723-90) ekonomialari eta filosofo eskoziarren ganean egindako hitz jokoa da.

[Tarta] Beste leku batean AB-k idatzi zuen: «John Camden Hotten argitaratzailea, txeke bat eman zidana, zerriki-pastela janda hil zen, ni dirurik gabe uzteagatik.»

[Telefono] AB-k Blanche Partingtoni honako hau idatzi zion 1913ko abuztuaren 3an: «Pozten naiz ongi eta pozik zaudela jakiteaz... nahiz eta deabruaren tresnak, telefonoak joa. Telefonoa betiko baztertu dut, nire izena telefono liburutik kentzeko agindu... eta nire etxera telefono mezurik bidaltzea debekatu».

[Teleskopio] AB-k zeukan «jostailuzko» teleskopioa baino handiagoa eduki nahi zuen.

[Trikinosi] Moses Mendelssohn (1729-86) filosofo eta teologo judu aleman ospetsua zen.

[Txabola] Liburu gisa argitaratu zenean baino lerro bat gehiago zuela argitaratu zen bertso pare hau *Wasp*-en. Hemen osorik itzuli da.

[Uholde] Zoperna Jenerala, edo Uholde orokorra.

[Ulermen] Hemen AB-k *Essay Concerning Human Understanding* (1690) (*Giza ezagutzari buruzko saiakera*) aipatzen du, John Locke filosofoak idatzia (1632-1704) eta baita Kanten *Arrazoi hutsaren Kritika* ere.

[Umorista] AB-k Alexander Poperen (1688-1744) estilo poetikoa parodiatzen du.

[Unibertsalista] Honako sineste hauek dituen elkarte erlijiosoa: Jainkoa unipertsonala dela, salbazioa ziurtatua dela giza arraza osoarentzat, eta arrazoa eta kontzientzia direla sinesterako eta praktikarako irizpidea.

[Urakan] Goiko ontzigain edo kubertari, ingelesez urakan-kuberta esaten zaio.

[Urde] AB-ren latinezko txantxetako hitzak «zerri orojalea» esan nahi du.

[Urkabe] *Auto Sakramentalak* edo mirakulantzerkiak erdi aroko dramak ziren; haietan Bibliako pasarteak edo santu edo martirien bizitzetan oinarritutako gertaerak taularatzen ziren.

[Urkatzaile] AB-k elektrokuzio bidezko exekuzioari buruz zutabe mordoxka bat idatzi zuen (neologismoa gaitzesten zuen, bestalde, hitza egintza baino okerragoa zela esanez). Exekuzio modu mingabetzat zeukan, dirudienez; urkatzearen gisako metodo basak ordezkatzeko aproposa, beraz.

[Urrezko zekorra] *Urrezko zekorra* jainko aizunaren pertsonifikazioa da Itun Berrian.

[W] Grezierazko °pixoriambik?w hitzak poesia grekoko neurri mota bat aipatzen du. Aipuak Poeren *To Helen*-etik hartuak dira.

[Wall Street] Andrew Carnegie altzairugintzako magnateetako bat zen.

[Washingtondar] AB Potomak ibaiaren ertzean bizi izan zen Washingtonen eman zuen denboran.

[Whangdepootenawah] AB-k asmatutako hitza. Ojigbwa tribua oso hedatua zen, Kanadako Erdi-mendebaldearen goialdea eta ekialde eta erdialdea zituen bizileku. Bertsoen neurriak Henry Wadsworth Longfellowen (1807-82) *The Song of Hiawatha*-rena (1855) imitatzen du; Longfellowek berak ere *Kalevala* suomiar poema epiko nazionala hartu zuen eredu.

[X] Jesukristo iltzatu omen zuten gurutzeak T-ren itxura gehiago du X-rena baino.

[Yanki] Beste leku batean ere barre egiten du AB-k esanez bazela hegoaldeko emakume bat «yanki alua» hitz bakarra zela uste zuena, beti elkaturik adituta nonbait.

[Zabor] Boreaplas hitzak «Ipar polotik beherrako lurraldeak» esan nahi du, lur guztiak, alegia.

[Zakur] Ikus Lukas, 12,27.

[Zaharkitu] Ikus «lexikografo» sarrera.

[Zartagin] Joan Kalbin (1509-64) erlijio eraberritzailea, protestantea; Potter apezpikuari buruz ikus «Aurre-erabaki» sarreran dagoen oharra.

[Zenobita] Zenobita komunitate erlijiosoetako komentukidea da; anakoreta, berriz, bakar-dadean bizi den erlijiosoa.

[Zentauro] Greziar mitologian zentauroak gizakiaren buru, beso eta enborra zituen, eta zaldiaren hankak. Kiron mediku eta igarle greziarra zen, bere ikasleen artean Akiles, Asklepius, Herkules eta Jason izan zituena.

[Zerri] John D. Rockefeller (1839-1937), petrolioaren magnatea, AB-ren satiraren tiroxede izan zen.

[Zetro] Ikus «zurkaitz» sarrera.

[Zigilu] Bukaeran Pribiloff irlak aipatzean dituenean hitz jokoa egiten du, seal = zigilu/ seal = itsas-lehoi homonimian oinarritua; izan ere irla

horiek, Alaskako hego-mendebaldearen parean daude, eta itsas-lehoien bizileku dira. Estatu Batuek Errusia-Japonia gerraren ondoko Portsmoutheko Tratatuaren ondorioz bereganatu zituzten, eta irla horien etorkizunari buruzko eztabaida franko izan zen garai hartan.

[Ziniko] Zinikoaren filosofia ederki laburtu zuen AB-k 1872an idatzitako zutabe batean: «Izan ahal bezain zintzoa. Ez sinetsi frogatu gabeko ezer. Jainkozko gauzak begirunez erabili: ez izan haiekin zerikustekorik batere...». Gomen-dioen zerrenda luzeagoa da.

[Ziri] Epimenides Kretakoa izan zen paradoxa honen sortzailea, deklaratu zuenean: «Kretatar guztiak gezurtiak dira».

[Zoologia] *L'Histoire Générale des Animaux* (1788-1804) George-Louis Leclerc, Buffongo kondeak (1707-88) hasia eta E. de Lacépèdekin bukatua; *An History of the Earth and Animated Nature* (1774) (*Natura Bizidunaren Historia*) Oliver Goldsmith poeta, entseialari eta antzerkigileak idatzia (zortzi liburukitan); Buffon, Linnaeus eta beste iturri batzuk erabiliz osatua.